Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan

Evolución del tráfico en las carreteras de Bizkaia

2024

Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan

Evolución del tráfico en las carreteras de Bizkaia

2024

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Egilea:
Bizkaiko Foru Aldundia
Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila

Laguntza Teknikoa:
Ingartek Consulting S.L.

Errealizazioa eta Konposizioa:
Grafilur, S.A.

Lege-gordailua:
BI 00831-2023

AURKEZPENA

*Aurten ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak **"Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan 2024"** gaiari buruzko txostena aurkezten du.*

Txosten horren helburua Bizkaiko bide-sareko trafikoaren bilakaerari buruzko azterketa zabaltzea da. Errepide-sarea kudeatu eta planifikatzeko tresna legez, bide-sarea hobetzen eta modu iraunkorragoan erabiltzen lagunduko du azterketa horrek

Bilbon, 2025eko Uztaila

PRESENTACIÓN

El Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia presenta su informe sobre la **"Evolución del tráfico en las carreteras de Bizkaia 2024"**

El objetivo de este informe es difundir el análisis de la evolución del tráfico en la red viaria de Bizkaia. Este estudio, como herramienta para la gestión y planificación de la red de carreteras, contribuirá sin duda a la mejora de la red viaria y a su uso de un modo sostenible.

Bilbao, Julio de 2025

CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO FORU DIPUTATUA
DIPUTADO FORAL DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

Dokumentuaren aurkibidea. Sintesia

A ATALA — BIZKAIKO ERREPIDE SAREKO TRAFIKOAREN MUGIKORTASUNARI ETA BILAKAERARI BURUZKO AZTERLANA

A/1 kapitulua Trafikoaren Mugikortasunari eta Bilakaerari buruzko Azterlanaren Sintesia

A/2 kapitulua Bizkaiko errepideetako mugikortasunaren analisia. Sareen eta trafiko bitarteen araberako banaketa

A/3 kapitulua Trafikoaren bilakaera igarobide nagusietan

A/4 kapitulua Trafikoaren bilakaeraren analisis eskualdez eskualde

A/5 kapitulua Bilbora eta metropoliko eremura sartzeko bide-sistemako trafikoaren analisia

A/6 kapitulua Abiaduren analisia

A/7 kapitulua Trafiko berezien analisia

A/8 kapitulua Errepideetan aurrera eramandako jarduketen inbentarioa. Zerbitzu mailaren eta garraio-denboren hobekuntzan izan duten eragina

B ATALA — 2024. URTEKO EDUKIERA PLANAREN EMAITZAK

B/1 kapitulua Estazio finkoen analisia

B/2 kapitulua 2024. urtean lortutako trafikoak

Neurketa Mapak

Aurkibide zehatza

A ATALA BIZKAIKO ERREPIDE SAREKO TRAFIKOAREN MUGIKORTASUNARI ETA BILAKAERARI BURUZKO AZTERLANA

A/1. TRAFIKOAREN MUGIKORTASUNARI ETA BILAKAERARI BURUZKO AZTERLANEN SINTESIA

A/1.1. ERREPIDETIKO MUGIKORTASUN OSOA ETA HAREN BANAKETA SAREREN ETA TRAFIKO-TARTEAREN ARABERA . . . 5
A/1.2. MUGIKORTASUNAREN BANAKETA ESKUALDEKA ETA TRAFIKOAREN BANAKETA ESKUALDEETAKO SARBIDEETAN . . . 13
A/1.3. ERREPIDE SARE OSOKO TRAFIKOAREN ETA MUGIKORTASUNAREN BILAKAERA. COVID-19 PANDEMIAREN ERAGINARI BURUZKO AZTERKETA . . . 18
A/1.4. TRAFIKOAREN BILAKAERA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KANPOALDEKO SARBIDEETAN . . . 23
A/1.5. TRAFIKOAREN BILAKAERA AZTERTUTAKO IGAROBIDEETAN, SARE MOTAREN ARABERA . . . 27
A/1.6. BILBORAKO SARBIDEETAKO TRAFIKOAREN BILAKAERA . . . 33
A/1.7. AHALMEN HANDIKO BIDEETAKO TRAFIKOAREN KONFIGURAZIOA ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN BIDE SAREAREN FUNTZIONALTASUNA HOBETZEKO EGINDAKO JARDUKETA NAGUSIAK . . . 38
A/1.8. GAITASUN HANDIKO BIDEEN ZERBITZU MAILAK. AUTO-PILAKETEN ARAZOA ETA BIDE-SAREAREN AHALMENA . . . 39
A/1.9. ABIADUREI BURUZKO AZTERLANA . . . 44
A/1.10. GUNE BEREZIETAN SORTUTAKO TRAFIKOEN AZTERKETA . . . 45
A/1.11. ERREPIDEETAN AURRERA ERAMANDAKO JARDUKETEN INBENTARIOA. IZANDAKO HOBEKUNTZA FUNTZIONALEN ANALISIA . . . 46

A/2. BIZKAIKO ERREPIDEETAKO MUGIKORTASUNAREN ANALISIA. SAREEN ETA TRAFIKO BITARTEEN ARABERAKO BANAKETA

A/2.1. EDUKIERA PLANEAN SARTUTAKO ERREPIDE SAREA . . . 51
A/2.2. FORUKO ERREPIDE SAREKO TRAFIKOAREN BANAKETA, TARTE ETA SAREEN ARABERA . . . 62
A/2.3. ERREPIDE SARE OSOKO TRAFIKOAREN BILAKAERA . . . 70

A/3. TRAFIKOAREN BILAKAERA IGAROBIDE NAGUSIETAN

A/3.1. AZTERTUTAKO IGAROBIDEETAN DAGOEN ERREPIDE SAREA. PLANTEAMENDUA . . . 75
A/3.2. TRAFIKOAREN BILAKAERAREN LABURPEN OROKORRA . . . 78
A/3.3. IGAROBIDEETAKO ANALISIA BANAN-BANAN . . . 83

A/4. TRAFIKOAREN BILAKAERAREN ANALISIA ESKUALDEZ ESKUALDE

A/4.1. PLANTEAMENDUA: EGINDAKO ESKUALDE BANAKETA . . . 115
A/4.2. TRAFIKOA ETA MUGIKORTASUN OROKORRA ESKUALDEZ ESKUALDE ETA SAREZ SARE . . . 118
A/4.3. TRAFIKOAREN BILAKAERA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KANPOALDEKO SARBIDEETAN . . . 121
A/4.4. BIZKAIKO ESKUALDEETARAKO SARBIDEETAKO TRAFIKOAREN BILAKAERA . . . 125

A/5. BILBORA ETA METROPOLIKO EREMURA SARTZEKO BIDE-SISTEMAKO TRAFIKOAREN ANALISIA

A/5.1. BILBORAKO SARBIDEETAKO TRAFIKOA. BILAKAERA 139
A/5.2. TRAFIKOA BILBOKO INGURABIDEKO BIDEETAN (METROPOLIKO 1. ERAZTUNA) 156
A/5.3. BILBOKO METROPOLIKO EREMUKO EDUKIERA HANDIKO GAINERAKO BIDE-TARTEETAN TRAFIKOA 166
A/5.4. TRAFIKOAREN BILAKAERA AP-8 AUTOBIDEAN. AUTOBIDEAREN ERAKARPENA IGAROBIDEAREN OSOTASUNAREN ALDEAN (AP-8/N-634) 240
A/5.5. IBILGAILU ASTUNEN KASUAN AZPIEGITURAK ERABILTZEAGATIKO ORDAINKETA-SISTEMA (EOS) EZARTZEA ETA APLIKATU ONDOREN ERAGINPEKO IBILGAILUEK BIDE-BANAKETAN ERAGITEKO MODUA 2024. URTEAN 256
A/5.6. RAC-EKO H AZPIEGITURAREN JATORRIA-HELMUGA MATRIZEAK, BLUETOOTH BALIZEN BIDEZ . . 260
A/5.7. ZERBITZU MAILEN AZTERKETA EDUKIERA HANDIKO ERREPIDEETAN 266

A/6. ABIADUREN ANALISIA

A/6.1. AZTERTU DEN ERREPIDE-SAREA 281
A/6.2. IBILGAILUEN BANAKETA, ABIADURA TARTEEN ARABERA 282
A/6.3. IBILGAILUEN BATEZ BESTEKO ABIADURA, ORDUTEGIAREN ARABERA BANATUTA 292

A/7. TRAFIKO BEREZIEN ANALISIA

A/7.1. AZTERTURIKO TRAFIKO-SORGUNEEN KOKAPENA 305
A/7.2. BIZKAIKO CAMPUSAK SORTUTAKO TRAFIKOAREN AZTERKETA 306
A/7.3. AIREPORTUAK SORTUTAKO TRAFIKOAREN AZTERKETA 311
A/7.4. PORTUAK SORTUTAKO TRAFIKOAREN AZTERKETA 316

A/8. ERREPIDEETAN AURRERA ERAMANDAKO JARDUKETEN INBENTARIOA. ZERBITZU MAILAREN ETA GARRAIO-DENBOREN HOBEKUNTZAN IZAN DUTEN ERAGINA

A/8.1. SARRERA 331
A/8.2. 2024. URTEAN ZERBITZUAN JARRITAKO JARDUKETEN DESKRIBAPENA 332
A/8.3. MARTXAN DAUDEN ETA KONTRATATZEN ARI DIREN BESTE OBRA BATZUK 339
A/8.4. 2018-2023 ALDIAN ZERBITZUAN JARRITAKO JARDUERA ESANGURATSUEN DESKRIBAPENA 345
A/8.5. JARDUKETA ESANGURATSUEN EZAUGARRITZEA ETA EZAUGARRI FUNTZIONALEN AZTERKETA KONPARATIBOA 351

B ATALA 2024. URTEKO EDUKIERA PLANAREN EMAITZAK

B/1. ESTAZIO FINKOEN ANALISIA

B/1.1. SARRERA 361
B/1.2. TRAFIKOAREN URTEKO BATEZ BESTEKO INTENTSITATEAK 363
B/1.3. TRAFIKOAREN HILEKO ALDAKUNTZA 365
B/1.4. ESTAZIOEN ARABERAKO KARAKTERIZAZIOA 375
B/1.5. TRAFIKOAREN GEHIENEKO INTENTSITATEAK 460
B/1.6. PROIEKTUAREN ORDUA 464
B/1.7. “Lm” ETA “S” ERALDAKETA KOEFIZIENTEAK 466
B/1.8. TRAFIKOAREN BANAKETA, IBILGAILU MOTAREN ARABERA 467

B/2. 2024. URTEAN LORTUTAKO TRAFIKOAK

B/2.1. BATEZ BESTEKO INTENTSITATEAK EDUKIERA-ESTAZIOEN SAREAN 473

B/3. NEURKETA MAPAK

Lantaldea

Bizkaiko Foru Aldundiko Zuzendaritza Teknikoa

Javier José Cobeaga Zurinaga
Tunelen Segurtasuna Zaintzeko Ataleko burua

Bizkaiko Foru Aldundiko Talde Teknikoa

Jon Iñaki Delgado Lopategui jn.
Bideen kudeaketarako eta tunelen segurtasunerako ingeniaria

Ander Bidaurratzaga Serrano jn.
Zirkulazio-emarien arduraduna

Fernando Begoña Martín jn.
Plangintza eta Arautegiaren Arduraduna

Erredakzioa eta Laguntza Teknikoa

INGARTEK CONSULTING S.L.

Carlos Balado Larrazabal jn.
Laguntza Teknikoaren zuzendaria

Juan Egusquiza Goya jn.
Idazteko eta Laguntza Teknikorako aholkularia

Ignacio Sasiain Ruiz jn.
Trafikoko teknikari aforatzailea

Aitor Erraiz Castillo jn.
Trafikoko teknikari aforatzailea

Lilia Sarmiento Diaz and.
Aforoen Plana – tratamendu informatikoa

Eneko Elizondo Urrestarazu jn.
Berrikuntza eta kontrola

A ATALA

Bizkaiko Errepide Sareko Trafikoaren Mugikortasunari eta Bilakaerari buruzko Azterlana

BI-637. La Avanzada errepidea, Leioa. Tunelerako sarbidea.

A/1 kapitulua

Trafikoaren Mugikortasunari eta Bilakaerari buruzko Azterlanaren Sintesia

A/1.1. ERREPIDEKO MUGIKORTASUN OSOA ETA HAREN BANAKETA SAREAREN ETA TRAFIKO-TARTEAREN ARABERA

A/1.1.1. IBILGAILU ETA SARE MOTEN BANAKETA

Bizkaiko Foru Aldundiak 1.246,6 kmluze den errepide-sarea kudeatu du 2024an; kilometro horietatik guztietatik, 1.241,4 km (% 99,6) Edukiera Planak kontrolatu ditu. Hala eta guztiz ere, kontrolatutako sare osoak, aurrekoez gain, katalogatutako sarean ez dauden baina azterlan honen helburuetarako egokitzat jotzen diren beste 92,1 km ere baditu; hortaz, 1.333,5 km hartuko ditugu aintzat. Katalogatutako eta kontrolatutako 1.241,4 km-ko sarean, batez besteko intentsitate haztatua 10.136 ibilgailukoa izan da batez besteko eguneko[1] eta mugikortasun globala, aldiz, 4.516,6 milioi ibilgailukoa urteko eta kilometroko. 2023. urteko balioarekin alderatuz gero, adierazi behar da trafikoaren eguneko batez besteko intentsitatea (EBBI) % 1,8 igo dela, Bizkaiko Foru Sare osoari dagokionez, eta 2019. urteko balioarekin konparatuta, –% 0,3ko aldakuntza egon da, hots, urte horretan izandako trafikoaren zerbait azpitik (10.284 ibilgailu egunean).

Bizkaiko errepide-sareko ibilgailu astunen batez besteko osaera % 7,8koa izan da. Ondorioz, 2024an, EBBIa 10.136 ibilgailukoa izan da eguneko, honela banatuta: 9.348 ibilgailu arin eta 788 ibilgailu astun; hala 2023. urteko balioekin alderatuta, aldakuntza % 1,9koa eta % 0,5ekoa izan da, hurrenez hurren.

Erantsitako grafikoetan (piktogramak) ageri denez, Lehentasuneko Sareak (gorria) mugikortasun osoaren % 59,1 hartzen du, sarearen luzera osoaren % 18,6koa (230,9 km) besterik ez den arren. Ondotik, Oinarrizko Sarea (laranja) bigarren garrantzitsuena da trafikoa erakartzen, mugikortasunaren % 24,7 eta sareko luzeraren % 15,2 (188,7 km) biltzen baitu. Beste muturrean, Tokiko Sareak (horia), errepide-sare osoaren % 48,2koa izan arren (598,5 km), Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideetako mugikortasunaren % 7,6ri baino ez dio zerbitzua ematen.

Edukiera handiko sareak (autopistak, autobiak eta galtzada bikoitzeko errepide-tarteak) 215,6 km-ko luzera eduki du 2024an, hots, bideen foru-sare osoaren % 17,4; bide horien 150,2 km Lehentasuneko Sarean daude, 55,1 km Oinarrizko Sarean eta 7,3 km, berriz, Sare Osagarrian. 2024. urtean, edukiera handiko sareak 41.572 ibilgailuko batez besteko intentsitatea izan du egun bakoitzeko. Hala, 3.271,9 milioi ibil. x km/urteko

(1) Batez besteko intentsitatea lanegunetan 11.018 ibilg./egun da, beraz, asteburuko batez besteko koefizientea S=0,901 da sare osoan.

mugikortasuna izan du, hau da, mugikortasun osoaren % 71,2. Horrek ageri-agerian jartzen du errepide-mota horren funtzionaltasuna zeinen handia den.

Ibilgailu astunen trafikoari gagozkiola, aipatu beharra dago errepide-sare osoaren batez besteko intentsitate haztatua 788 ibilgailukoa izan dela batez besteko egun bakoitzeko; horrek esan nahi du trafiko osoaren % 7,8koa izan dela. Lanegunetan, kopuru hori 1.009 ibilgailukoa izan da eguneko; gauzak horrela, kopuru hori % 9,0koa izan da, lanegunetako batez besteko trafiko osoari doakionez.

Eguneko batez besteko intentsitate haztatuari (EBBI) eta Bizkaiko errepide-sareko mugikortasunari erreparaturik, banaketa hauxe da, ibilgailu-motaren arabera:

— EBBI (ibilg./egun): 10.136 ibilgailu guztira (% 100), 9.348 ibilgailu arin (% 92,2) eta 788 ibilgailu astun (% 7,8).
— Mugikortasuna (milioi ibilgailu x km/urte): ibilgailuak guztira: 4.592,8; ibilgailu arinak: 4.235,9 eta ibilgailu astunak: 356,9. 2023. urteko balioarekin erkatuta, trafikoaren aldakuntza honako hau izan da: ibilgailu guztiak: % 1,8; arinak: % 1,9 eta astunak: % 0,5.

A/1.1.1.a) grafikoa

ERREPIDE LUZERA ETA MUGIKORTASUNA, SARE MOTAREN ARABERA

BALIO ABSOLUTUAK (BANAKETA EHUNEKOA)





A/1.1.1.b) grafikoa

ERREPIDE LUZERA ETA MUGIKORTASUNA, SARE MOTAREN ARABERA
BALIO ABSOLUTUAK (BANAKETA EHUNEKOA)





A/1.1.1.c) grafikoa

ERREPIDE LUZERA ETA MUGIKORTASUNA GAITASUN HANDIKO SAREAN
BALIO ABSOLUTUAK (BANAKETA EHUNEKOA)





A/1.1.2. ERREPIDE SAREAREN BANAKETA, TRAFIKO TARTEEN ARABERA

Erantsitako eskema grafikoetan ageri denez, 2024an, bideen foru-sarearen % 23,6an (293,0 km) erregistratu dira eguneko 10.000 ibilgailutik gorako zirkulazio-intentsitateak; 2023. urtean, berriz, eragindako luzera % 23,3koa izan zen (290,8 km). Eguneko 1.000 eta 10.000 ibilgailu arteko trafiko-tarteak sarearen % 44,8an izan dira (555,6 km), 2023. urteko balioa baino zerbait txikiagoa (% 46,0), eta eguneko 1.000 ibilgailutik beherako trafikoak gainerako bide-sarearen % 31,6ri eragin dio (392,7 km); 2023an, berriz, % 30,7koa izan zen. Trafiko-tarteen araberako errepide sarearen banaketak aditzera ematen du egunean 5.000 ibilgailutik gorako karga duten errepideek luzera osoaren % 38,8 eta mugikortasun osoaren % 91,7 osatzen dutela.

Errepide-sarearen trafiko osoaren batez besteko intentsitate haztatua, arestian adierazi den bezala, 2024. urtean 10.136 ibilgailukoa izan da egun bakoitzean; horretan Lehentasuneko Sarea nabarmentzeko da (230,9 km), bertan batez bestekoa 32.185 ibilgailukoa izan baita egun bakoitzean; horren ondoren, Oinarrizko Sarea (188,7 km) azaltzen da 16.493 ibilgailurekin egun bakoitzeko eta, azkenik, Sare Osagarria (50,6 km) 9.839 ibilgailurekin egun bakoitzeko. Era berean, Eskualdeko Sareak (172,7 km) 3.376 ibilgailuko trafikoa dauka batez beste egun bakoitzeko eta Tokiko Sareak (598,5 km) 1.603 ibilgailu egunean.

Edukiera handiko sare kontrolatuak, arestian zehaztu den legez, 215,6 km ditu; sare horren zatirik handiena (% 69,7) Lehentasuneko Sarean dago eta bertako trafikoaren batez besteko intentsitatea 41.572 ibilgailukoa da egunean.

Laburbilduz, Lehentasuneko Saretik barrena (gorria) —bide-sare osoaren luzeraren % 18,6 duena— mugikortasun osoaren % 59,1 eta ibilgailu astunen mugikortasunaren % 70,0 ibiltzen da. Hartara, esan beharra dago sare hori oso garrantzitsua dela bidaien banaketari eta Bizkaiko gainerako errepide-sareekiko loturari dagokienez. Ildo horretan, esan dezagun 230,9 km-ko sare horrek, guztira, 150,2 km dauzkala autobide, autobia eta galtzada bikoitzeko errepideetan banatuta (katalogatutako foru-sarearen % 12,1), eta Lehentasuneko Sarearen mugikortasunaren % 89,3 eta bideen foru-sarearen mugikortasunaren % 52,7 jasotzen dituela.

A/1.1.2.a) grafikoa

ERREPIDE SAREAREN BANAKETA, TRAFIKO TARTEAK AINTZAT HARTUZ





A/1.1.2.b) grafikoa

BATEZ BESTEKO TRAFIKO INTENTSITATEA, SARE MOTAK AINTZAT HARTUZ





A/1.2. MUGIKORTASUNAREN BANAKETA ESKUALDEKA ETA TRAFIKOAREN BANAKETA ESKUALDEETAKO SARBIDEETAN

A/1.2.1. MUGIKORTASUNAREN BANAKETA ESKUALDEKA

Bizkaiko errepideen trafikoaren bilakaera aztertu da lurraldeko eta eskualdeetako mugikortasun eta irisgarritasunaren ikuspuntutik. Bizkaiko Lurralde Historikoa zazpi eskualdetan banatu da, betiere azterlana eta plangintza egiteko helburuz, baina banaketa hori ez dator bat inolako sailkapen administratiborekin.

Arestian aipatu bezala, kontrolatutako errepide-sare osoari dagokionez (1.246,4 km), trafikoaren batez besteko intentsitatea 10.136 ibilgailukoa izan da eguneko eta mugikortasun osoa 4.592,8 milioi ibil. x km eta urteko.

Bilboko metropolialdeko eskualdeaz denaz bezainbatean, lurralde osoko errepide-sarearen % 26,7 dago, 331,1 km dituela, eta trafikoaren batez besteko intentsitatea 23.820 ibilgailukoa da eguneko; guztizko mugikortasuna 2.918,0 milioi ibilgailukoa da km eta urteko, hots, Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugikortasun osoaren % 63,5ekoa.

Garrantziari begiratuta, Durangaldea dugu hurrengoa. Guztira 179,7 km ditu (% 14,5) eta trafikoaren batez besteko intentsitatea 10.274 ibilgailukoa da eguneko eta mugikortasuna 684,3 milioi ibilgailukoa km eta urteko; datu horiek aditzera ematen dute Durangaldeak mugikortasun osoaren %14,9 hartzen duela.

Arratiko eskualdeak (Igorre) Bizkaiko mugikortasunaren % 7,4 biltzen du; ondoren, Enkarterri (Balmaseda) eta Mungialdea (Mungia) ditugu, % 4,8 eta % 4,1ekoa dutela, hurrenez hurren; azkenik, Busturialdeko (Gernika-Lumo) eta Lea-Artibaiko (Markina-Xemein) eskualdeek mugikortasun osoaren % 3,0 eta % 2,2, hurrenez hurren.

A/1.2.1. grafikoa

ERREPIDE LUZERA ETA MUGIKORTASUNA ESKUALDEKA
BALIO ABSOLUTUAK (BANAKETA KOPURUAK)





A/1.2.2. BIZKAIKO ESKUALDEETARAKO SARRERAKO TRAFIKOAREN BILAKAERA

2024. urteari dagokionez, eskualdeetatik irten eta haietara sartzen diren ibilgailuen batura 699.082 ibilgailukoa da eguneko, baina bi eskualde mugakidetan egon daitezkeen tarte erkideetako bikoiztasunak kenduta, eragindako trafiko osoa 436.889 ibilgailukoa da eguneko; kopuru horretatik, 174.696 ibilgailu Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoaldera abiatzen dira egunean[2], eta gainerakoa, eskualde arteko trafikoa da.

Eskualdeko mugei dagozkien errepide-tarteetan (kanpoko sarbideetako trafikoa barne) azterturiko trafiko osoaren hazkunde-tasa % 2,3koa izan da 2024an; kanpoko sarbideetako trafikoari doakiona % 2,4koa izan da, eta eskualde arteko sarbideetako trafikoari dagokiona % 2,1ekoa (emaitza horretan, kanpoko sarbideetako trafikoa ez da kontuan hartu).

Ondorioz, 2024an, 2023. urtearekin konparatuta, guztizko trafikoak gora egin du Bizkaiko Lurralde Historikoan, hain zuzen ere, % 1,8 (eskualde barruko trafikoa barne); kanpotik sartze den trafikoari dagokionez, tasa %2,4koa izan da, eta eskualde arteko trafikoari gagozkiola, berriz, % 2,1ekoa.

2019. urtearekin alderatuta, trafiko horien aldakuntza negatiboa izan da: –% 0,3 Bizkaiko bide-sare osoan; –% 0,7 kanpoko sarbideetako mugetan, eta –% 0,3 eskualdeen arteko mugetan. Horrek esan nahi du eskualdeko barne-trafikoek (ibilbide laburrekoak)[3] berreskuratze handiagoa izan dutela aldi horretan eskualdeen arteko mugetan (ibilbide ertain eta luzekoak) eta Bizkaiko kanpoko sarbideetan baino.

(2) Ikusi azterlan honen **A/4.4 atala**.

(3) Eskualdeen arteko trafikoa.

A/1.2.2.a) grafikoa

BIZKAIKO ESKUALDEETARAKO SARBIDEETAKO TRAFIKOAK



Guztira: 699.082 ibil./egun (% 100)



A/1.2.2.b) grafikoa

BIZKAIKO ESKUALDEETARAKO SARBIDEETAKO TRAFIKOAK





A/1.3. ERREPIDE SARE OSOKO TRAFIKOAREN ETA MUGIKORTASUNAREN BILAKAERA

A/1.3.1. SAREEN BILAKAERA

a) Ibilgailuen guztizko trafikoa

Bizkaiko bide-sareko batez besteko zirkulazio haztatua 10.290 ibilgailukoa zen 2019an; 8.126 ibilgailukoa 2020an (–% 21,0ko tasa), eta 2021ean 9.569 ibilgailukoa, hau da, 2020koa baino % 17,8 handiagoa. 2022an, berriz ere, % 4,5 hazi zen, eguneko 9.999 ibilgailura iritsita, 2019an (COVID-19ak eragindako pandemia baino lehenagokoa) baino zertxobait txikiagoa (–% 2,8). 2023an, trafikoa 9.961 ibilgailukoa izan zen egunean, hau da, –% 0,4koa, 2022. urteko balioarekin alderatuta, eta –% 3,2koa 2019. urteko balioarekin konparatuta. 2024an, 10.136koa izan da. % 1,8ko hazkunde-tasa da hori.

Azken bosturtekoan (2019-2024), mugikortasunaren hazkunde-tasa metatua –% 0,3koa izan da urtean, eta 4.662,6 milioi ibilgailutik 4.592,8 milioi ibilgailura igaro da kilometroko eta urteko. Bi urte horietan, Bizkaiko Lurralde Historikoko bide-sarearen guztizko luzera 1.241,4 km-koa izan da.

A/1.3.1.a taulan eta grafikoan ikus daitekeenez, 2024an, Bizkaiko bide-sareko trafikoa % 1,8 igo da, eta Eskualdeko Sareak izan du hazkunde-tasarik handiena (% 3,9koa); horren ondotik, Oinarrizko Sarea dugu (% 2,0koa).

2019. urteari dagokionez, lehenago adierazi dugu batez besteko trafikoaren (eta mugikortasunaren) aldakuntza –%1,5ekoa izan dela Bizkaiko bide-sarean; kopuru horretatik hurbil daude sare gehienak, eskualdekoa izan ezik (–% 6,1).

A/1.3.1.a grafikoa

ERREPIDEEN FORU SAREKO TRAFIKOAREN BILAKAERA





URTEKO TASAREN HAZKUNDEA (%)			
	2023-2024	**2019-2024**	**2019-2024***
Lehent. interesekoa	1,5	-0,3	-1,3
Oinarrizkoa	2,0	-0,2	-1,2
Osagarria	-0,2	-1,2	-6,1
Eskualdekoa	1,8	-0,3	-1,3
Tokikoa	3,9	-0,4	-1,9
Sareak, guztira	**1,8**	**-0,3**	**-1,5**

(*) Bost urteen arteko aldakuntza (ez da urteko tasa).

b) Ibilgailu astunen trafikoa

A/1.3.1.b taulan eta grafikoan, ibilgailu astunen trafikoaren batez besteko bilakaera jaso da lanegunetan 2019tik 2024ra arteko aldian.

Ikusten denez, 2024. urteko trafikoaren hazkundea (1.009 ibilgailu astun eguneko) % 0,6koa izan da 2023. urteko balioaren aldean (1.004 ibilgailu astun eguneko), eta azken bost urteetan (2019-2024) urteko batez besteko hazkunde-tasa –% 0,9koa. 2019. urtean izandako ibilgailu astunen trafikoarekin alderatzen badugu (1.057 ibilgailu astun eguneko), ohartuko gara nabarmen txikiagoa (–% 4,5) izan dela.

A/1.3.1.b. grafikoa

IBILGAILU ASTUNEN TRAFIKOAREN BILAKAERA ERREPIDE SAREAN





URTEKO TASAREN HAZKUNDEA (%)			
	2023-2024	**2019-2024**	**2019-2024***
Lehent. interesekoa	1,3	-1,0	-5,1
Oinarrizkoa	-1,2	-1,3	-6,4
Osagarria	0,3	1,0	5,1
Eskualdekoa	-5,0	-1,3	-6,3
Tokikoa	1,0	0,7	3,5
Sareak, guztira	**0,6**	**-0,9**	**-4,5**

(*) Bost urteen arteko aldakuntza (ez da urteko tasa).

A/1.3.2. ESKUALDEEN ARABERAKO BILAKAERA (2023-2024)

Lehen esan bezala, Bizkaiko bideen foru-sareko trafikoaren batez besteko hazkunde-tasa –% 0,4koa izan da 2023an. Bilboko metropolialdean, non Bizkaiko mugikortasun osoaren % 63,7 garatzen den, tasa hori –% 0,7ra jaitsi da; Durangaldean, aldiz, % 0,5 hazi da, eta Enkarterrin (Balmaseda) % 1,8. Gainerako eskualdeetako aldakuntza-tasetan, Mungialdeak egonkor eutsi dio eta Busturialdean (Gernika-Lumo) –% 2,4ko jaitsiera izan da.

2021ean eta 2022an trafikoaren hazkunde-tasa handiak izan ziren arren, ez dira 2019an zeuden trafiko-mailetara iritsi, 2020an, trafikoaren beherakada handiagoa izan zelako, eta 2023an, jaitsiera txikia izan zen; hortaz, esan beharra dago oraindik ere ez dela leheneratu pandemiaren aurreko trafikoa.

2019 eta 2024 urteen arteko trafikoaren aldakuntza negatiboa da eskualde guztietan, batezbestekoa –% 1,5 da. Tasen harira, aldeak daude eskualdeen artean, adibidez: Durangoaldeak (Durango) –% 1,4 (Bizkaiko lurralde historikoko batezbestekora gehien hurbiltzen dena) eta Lea-Artibaik (Markina-Xemein) –% 5,7. Eskualde hauek izan dituzte aldakuntza positiboak: Enkarterrik (Balmaseda), handiena, % 5,6, eta Mungialdeak (Mungia), % 2,5.

TRAFIKOAREN BATEZ BESTEKO INTENTSITATEAREN BILAKAERA (ibil./egun)



ESKUALDEAK	2023-2024 Δ%	2019-2024 %ALDAKUNTZA
1. Metropoliko eremua (Bilbo)	1,4	-1,9
2. Mungialdea (Mungia)	3,9	2,5
3. Busturialdea (Gernika-Lumo)	-0,3	-2,3
4. Lea-Artibai (Markina-Xemein)	1,5	-5,7
5. Durangoaldea (Durango)	1,6	-1,4
6. Arratia/Nerbioi (Igorre/Ugao)	1,6	-2,2
7. Enkarterriak (Balmaseda)	7,8	5,6
Sareak guztira	**1,8**	**-1,5**

A/1.4. TRAFIKOAREN BILAKAERA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KANPOALDEKO SARBIDEETAN

Azterlanaren **A/4.3 atalean**, Bizkaiko Foru Lurraldea kanpoaldearekin komunikatzen duten errepide guztiak azaltzen dira, zein errepide-saretakoak diren, lurralde-mugari dagokion tartea zein den eta 2019-2024 aldian trafikoak zer-nolako bilakaera izan duen adierazita.

Ikusten denez, 2024an, Bizkaiko sarbide guztietatik irten eta sartu den trafikoa osoa 174.696 ibilgailukoa izan da eguneko (horietatik, 18.993, alegia, % 10,9 astunak izan dira); horrek adierazten du, 2023. urteko balioarekin alderatuz gero, igoera % 2,4koa izan dela; horrenbestez, 2019-2024 aldiko urteko hazkundearen batez besteko tasa metatua –% 0,7koa izan da. 2019. urteko balioarekin alderatuta, hau da, pandemiaren aurrekoarekin alderatuta, trafikoaren aldakuntza –% 3,3koa izan da.

Ibilgailu astunen kopurua ia ez da aldatu 2024an, aurreko urtekoarekin alderatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoko sarbide guztietan.

Guztira, Bizkaiko Foru Lurraldearekiko muga duten tarteetan autobideek egunean orotara 99.384 ibilgailu bideratu dituzte (mugetako trafiko osoaren % 56,9), hau da, igoera % 3,2koa izan da 2023koarekin erkatuz gero (94.303 ibilgailu eguneko). Hala ere, 2019-2024 aldiari dagokion urteko aldakuntza metatua –% 0,2koa (metatua) izan da; 2015-2019 aldian, berriz, % 2,0 igo zen urtean, aurreko krisi ekonomikoaren ondotik. 2019. urtearekin alderatuta (100.317 ibilgailu egunean), muga egiten duten tarteetan, autobideetako trafikoaren aldakuntza –% 0,9koa izan da.

2024. urtean, sarbide hauetan izan dira trafiko-hazkunderik handienak: N-629 errepidean (P.M. (Bercedo) – Lanestosa), % 11,0rekin, BI-623 errepidean (P.M. (Legutio) – Otxandio), % 8,5ekin, BI-734 errepidean (P.M. (Santander) – Muskiz), % 7,7rekin, BI-636 errepidean (P.M. (Villasana) – Balmaseda) % 6,8rekin eta BI-625 errepidean (P.M. (Laudio) – Aretako Iparraldeko lotunea) % 5,1ekin.

Bizkaiko Lurralde Historikorako sarbideak probintzien arabera sailkatuz gero, erantsitako **A/1.4.1.a. taula** agertzen zaigu; bertan ikus daitekeenez, Bizkaiak Kantabriarekin dituen erlazioak (57.465 ibilgailu egunean) handiagoak dira Gipuzkoako lurraldearekin (55.042 ibilgailu egunean) eta Arabako lurraldearekin (52.429 ibilgailu egunean) dituenak baino. Sarbide horiek guztiek kanpoaldeko trafiko osoaren % 94,4koa osatzen dute.

Aitzitik, Burgosekiko probintzia-muga erkideen bidezko zuzeneko erlazioak urriak dira (9.760 ibilgailu egunean), hau da, kanpoko trafiko osoaren % 5,6koa baino ez; izan ere, Burgosekin izan ohi diren erlazio gehienak Araba zeharkatuz egiten dira.

A/1.4.1.a) taula

ERLAZIOAK PROBINTZIA MUGAKIDEEKIN

(Ibil. Guztira/egun)

PROBINTZIAK	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Astunen %	Urteko hazkunde tasa %		% Partai-detza
								2023/2024	2019/2024	
ARABA	53.818	40.426	48.921	51.828	51.182	52.429	13,2	2,4	-0,5	30,0
BURGOS	9.498	7.183	8.209	8.789	9.191	9.760	4,0	6,2	0,5	5,6
KANTABRIA	60.343	45.592	52.195	57.201	55.254	57.465	9,1	4,0	-1,0	32,9
GIPUZKOA	56.938	44.153	51.649	54.386	54.921	55.042	11,8	0,2	-0,7	31,5
GUZTIRA	**180.596**	**137.355**	**160.974**	**172.204**	**170.547**	**174.696**	**10,9**	**2,4**	**-0,7**	**100,0**

A/1.4.1.b) taula

ERLAZIOAK PROBINTZIA MUGAKIDEEKIN

(Ibil. Astunak/egun)

PROBINTZIAK	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Urteko hazkunde tasa %		% Partai-detza
							2023/2024	2019/2024	
ARABA	7.265	6.387	7.485	6.686	6.807	6.895	1,3	-1,0	36,3
BURGOS	475	388	501	483	450	395	-12,3	-3,6	2,1
KANTABRIA	5.069	4.468	5.063	5.205	4.935	5.219	5,8	0,6	27,5
GIPUZKOA	7.003	6.181	6.714	6.418	6.590	6.484	-1,6	-1,5	34,1
GUZTIRA	**19.817**	**17.424**	**19.763**	**18.792**	**18.782**	**18.993**	**1,1**	**-0,8**	**100,0**

Mugako trafiko horren bilakaeraren harira, 2024. urteari dagokionez, hauek dira Gipuzkoarekiko erlazioen hazkunde-tasak: % 0,2 ibilgailu guztietan eta –%1,5 astunetan. Arabari helduz gero, igo egin da ibilgailu guztietan (% 2,4) eta astunetan (% 1,3). Kantabriaren kasuan, berriz, igo egin da ibilgailu guztietan (% 4,0) eta astunetan (% 0,6).

Bizkaira iristeko trafiko horien banaketa, erabilitako errepide-sarearen motaren arabera, honako hau da:

A/1.4.2. taula

BIZKAIRA IRISTEKO TRAFIKOA (SARRERAK + IRTEERAK)

SAREAK	2020		2021		2022		2023		2024		Hazkunde tasa 2023/2024
	Ibil./Eg.	%	Ibil./Eg.	%	Ibil./Eg.	%	Ibil./Eg.	%	Ibil./Eg.	%	
LEHENT. INTERESA (GORRIA)	100.623	73,3	118.941	73,9	128.734	74,8	128.988	75,6	131.879	75,5	2,2
OINARRIZKOA (LARANJA)	28.343	20,6	32.897	20,4	33.919	19,7	32.131	18,8	33.806	19,4	5,2
ESKUALDEKOA (BERDEA)	7.126	5,2	7.796	4,8	8.179	4,7	8.080	4,7	7.696	4,4	-4,7
TOKIKOA (HORIA)	1.263	0,9	1.340	0,8	1.372	0,8	1.349	0,8	1.315	0,8	-2,5
GUZTIRA	**137.355**	**100,0**	**160.974**	**100,0**	**172.204**	**100,0**	**170.547**	**100,0**	**174.696**	**100,0**	**2,4**

Hau da, erlazioen % 94,8 Lehentasuneko Sarea (% 75,5) eta Oinarrizko Sarea (% 19,4) erabiliz egiten dira; gainerakoetan, erlazioen % 5,2an, hain zuzen, eskualdeko bideak edo tokiko bideak erabiltzen dira. 2024ko urte honetan, sarbide-trafikoaren aldakuntza-tasak hauek izan dira: Lehentasuneko Intereseko Sarean % 2,2, Oinarrizko Sarean % 5,2 eta Eskualdeko eta Tokiko Sarean –% 4,7 eta –% 2,5, hurrenez hurren.

BIZKAIKO LURRALDEKO KANPOKO SARBIDEAK



A/1.5. TRAFIKOAREN BILAKAERA AZTERTUTAKO KORRIDOREETAN, SARE MOTAREN ARABERA

Trafikoaren bilakaeraren azterketa ere Bizkaiko Lurralde Historikoaren 26 korridoretan bereizi da *(ikus **A/3 kapitulua**)*. Hala bada, ardatzen luzera osoa 482,4 km-koa da. Korridore bakoitzak errepide bat baino gehiago izan dezake eta, ondorioz, korridore horietan txertaturiko errepide-sarearen luzera handiagoa da, 651,7 km-koa, hain zuzen ere. Hori sare osoaren % 52,5 da, eta, haren barruan, Lehentasuneko eta Oinarrizko Sarearen zati handi bat sartzen da, baita Sare Osagarriaren eta Eskualdekoaren zati txikiagoak ere, eta apenas agertzen da Tokiko Sarean.

Aurrez ikusitako igarobide guztietan 2024. urtean batez beste izandako trafikoa —eguneko batez besteko intentsitateari (EBBI) begiratuta— 24.023 ibilgailukoa izan da eguneko. Horrek esan nahi du gehikuntza % 1,7koa izan dela 2023. urtekoarekin alderatuz gero; gauzak horrela, hazkunde metatuaren urteko batez besteko tasa –% 0,3 izan da azken bost urteotan (2019-2024 aldian). 2019arekin alderatuta (24.585 ibilgailu ibili ziren egunean), aldakuntza –%2,3koa izan da.

Igarobidetan eta haien barruko errepideetan, trafikoak izandako bilakaera hurrengo tauletan agertzen da eta jarraian laburbiltzen da:

a) **Lehentasuneko Intereseko sareko (Gorria)** korridoreek dituzte, logikoa denez, trafiko-intentsitaterik handienak. Hala, 2024. urtean EBBI haztatua 46.772 ibilgailukoa izan zen eguneko; hots, % 1,5eko igoera izan zuen 2023. urtearen aldean, eta urteko –% 0,3, ordea, 2019-2024 aldian. Trafikoaren heiritk, korridore guztiek gora egin dute 2024an, Arratiako korridoreak izan ezik (Bilbo-Arabako P.M., Barazarretik, –% 0,2). Hauek izan dute hazkunderik handiena: Nerbioi korridoreak (Bilbo-Burgos, Altubetik, % 2,5), Santander-Bilbo korridoreak (Gurutzeta-Kukularrako lotunea, % 2,4) eta Bilbo-Durango-Gipuzkoako L.M. korridoreak (% 1,7).

b) **Oinarrizko sareko (Laranja)** korridoreetan, 2024. urtean, 16.485 ibilgailuko EBBIa izan dute egunean; hala, % 2,3 igo da 2023. urtearen aldean, eta batez besteko –% 0,1eko hazkunde-tasa izan da, 2019-2024 aldian. Korridore hauek egun dute gora: Urkiola (Durango-Otxandio), BI-623, % 5,3rekin; jarraian Kadagua (Bilbo-Balmaseda) % 4,1ekin, Getxo-Sopela-Mungia (BI-634) % 3,6rekin eta Durango-Markina-Ondarroa (BI-633) % 2,9rekin.

c) **Sare osagarriari (Urdina)** dagokionez, portu-agintaritzarena den BI-711 errepideko (Bilbo-Lutxana-Areeta) korridorea baino ez da kontuan hartu; izan ere, aurreko urteetan kontuan hartu dugun lehengo BI-739 errepidea (Burtzeña-Santurtzi, Sestaotik) laga egin da, Sestao-Portugalete tartea izan ezik, Tokiko Sarean (horia) txertatu dena, BI-3739 ikurra erabilita. 2024an, BI-711 errepidearen batez besteko trafikoa 8.366 ibilgailukoa izan da eguneko; hazkunde-tasa –% 3,4koa izan da 2023arekin erkatuta, eta 2019-2024 aldian, urteko batezbestekoa negatiboa izan da (–% 5,1).
Erandiotik Erletxera doan BI-737 errepidea Deriotik pasata (Sare Osagarriaren barruan hau ere) Txorierriko korridorean sartzen da, BI-30 errepidearekin batera (Lehentasuneko Sarea), paralelo baitoa.

Errepide horrek % 2,6ko hazkundea izan du 2023. urtearekin alderatuta, eta urteko batez besteko tasa –% 0,4koa izan da 2019-2024 aldian.
Hala berean, Erandiotik Artatzara doan BI-738 errepidea BI-637ren barruan sarturik dago (Kukularra-Artatza -Sopela) (Oinarrizko Sarea), errepide horren lotura-bide gisa erabiltzen baita.

d) Aztertutako **Eskualdeko sareko (Berdea)** korridoreek batez beste 3.571 ibilgailuko intentsitatea izan dute egunean 2024an; horrek esan nahi du % 1,8ko hazkundea izan dela 2023. urteko trafikoarekin alderatuta, eta –% 0,1ekoa 2019-2024 aldian. Igoera nabarmenenak Mungia-Plentzia (BI-2120) korridorean (% 7,4) eta Muskiz-Balmaseda (BI-2701) korridorean (% 2,9) izan dira.

e) Azkenik, aztertutako **Tokiko sareko (Horia)** korridoreek batez beste 5.301 ibilgailuko intentsitatea izan dute egunean 2024an; horrek esan nahi du % 0,6ko hazkundea izan dela 2023. urteko trafikoarekin konparatuta, eta –% 0,3koa 2019-2024 aldian. Korridore horietan kontuan hartutako tokiko bi bideetatik, trafikoa hazi egin da Gernika-Lekeitio tartean (% 3,5). Gernika-Bermeo tartean, berriz, jaitsi egin da (–% 1,9).

A/1.5.1 taulan, igarobide guztien trafikoaren aldakuntzaren laburpena ageri da, bide-ardatz nagusiaren sailkapenaren arabera.

A/1.5.1. taula

IGAROBIDEETAKO BATEZ BESTEKO TRAFIKOA ETA HAZKUNDE-TASAK

IGAROBIDEAK	LUZERA (Km)		EBBI 2023	EBBI 2024	HAZKUNDE-TASA%		MUGIKORTA-SUNA 2024 Milioi ibil. x Km/urteko	%
	Igarobidea	Bideak barne (*)			2024aren aldean	2019-2024 aldia		
LEHENT. INTERESA (GORRIA)	169,4	322,2	46.090	46.772	1,5	-0,3	2.892,7	68,4
OINARRIZKOA (LARANJA)	190,0	206,6	16.121	16.485	2,3	-0,1	1.143,0	27,0
OSAGARRIA (URDINA)	6,1	6,1	8.661	8.366	-3,4	-5,1	18,6	0,4
ESKUALDEKOA (BERDEA)	80,2	80,2	3.506	3.571	1,8	-0,1	104,5	2,5
TOKIKOA (URDIÑA)	36,7	36,7	5.271	5.301	0,6	-0,3	71,0	1,7
SARTUT. SAREAK, GUZT.	**482,4**	**651,7**	**23.631**	**24.023**	**1,7**	**-0,3**	**4.229,9**	**100,0**

(*) Hierarkiarik handieneko errepidearen arabera sailkatutako igarobidean sartutako errepidea da, eta zenbait kasutan maila txikiagoko errepideak jasotzen ditu. Horrexegatik sortzen da aurreko ataleko datuen itxurazko kontraesana; izan ere, bertan errepideak beren mailaren arabera sailkaturik daude.

Korridoreen mugikortasun osoa 4.229,9 milioi ibilgailukoa izan da 2024. urtean kilometroko; datu hori Bizkaiko Lurralde Historikoko ibilgailu pribatuen mugikortasun osoaren % 92,1 da. Aintzakotzat hartu beharra dago urte horretan sartutako errepide-sarea 651,7 km-koa dela, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak kontrolatutako sare osoaren % 52,5.

Sarturiko sareen artean, Lehentasuneko Sarea (2.892,7 milioi ibil. x km/urte (% 68,4)) eta Oinarrizko Sarea (1.143,0 milioi ibil. x km/urte (% 27,0)) nabarmendu behar dira.

Azterlanaren **A/3.2. atalean**, aztertutako sareetako bakoitza osatzen duten errepideen trafikoaren bilakaera ageri da. Igarobide motaren araberako laburpena ageri da **A/1.5.2. grafikoan**.

BIZKAIKO LURRALDEKO IGAROBIDEAK



2024

A/1.5.1. grafikoa

AZTERTUTAKO IGAROBIDEETAN SARTZEN DIREN SAREETAKO TRAFIKOA (2024. URTEA)



Igarobideen luzera guztira: 482,4 Km



A/1.5.2. grafikoa

AZTERTUTAKO IGAROBIDEEN ARDATZETAKO TRAFIKOAREN BILAKAERA (2019-2024)





URTEKO TASA-HAZKUNDEA (%)		
	2023-2024	2019-2024
Lehent. interesa	1,5	-0,3
Oinarrizkoa	2,3	-0,1
Osagarria	-3,4	-5,1
Eskualdekoa	1,9	-0,1
Tokikoa	0,6	-0,3
Sareak, guztira	**1,7**	**-0,3**

A/1.6. BILBORAKO SARBIDEETAKO TRAFIKOAREN BILAKAERA

Gaur egun Bilbo eremu metropolitarreko udalerriekin eta kanpoaldearekin erlazionatzea ahalbidetzen duten hamaika sarbide daude, behin 2002. urtean Iparraldetiko sarbide berria eraiki ostean, Artxandako tunelak, hain zuzen ere, eta Sabino Aranako sarbidearen ordez San Mamesekoa jarrita 2013. urtean. Hamaika sarbide horietatik zazpi gaitasun handiko errepideen barruan sar daitezke (A) eta lau gaitasun txikikoen barruan (B); aldi berean, zehaztu beharra dago lehenengoak lau errail edo gehiago dituzten errepideei dagozkiela.

BILBORAKO SARBIDEAK



BI-711. All-Iron zubia, Barakaldo-Erandio.

2024. urtean, sarbide horietan erregistratutako ibilgailu guztiak 289.627 izan dira eguneko; gauzak horrela, horietatik 11.022 (% 3,8) ibilgailu astunak izan dira.

2023. urteari dagokionez, Bilborako sarbideetako trafikoa % 0,7 jaitsi da COVID-19ak sortutako pandemiaren ondorea ia guztiz desagertu arren; hala, 2019an lortutako trafikoa (pandemiaren aurrekoa) baino % 8,7 txikiagoa da.

2024An, sarbide hauek izan dituzte trafikoaren hazkunde-tasa positiboak: N-634 errepideko Ibarsusi-Etxebarri (% 8,6), BI-712 errepideko Bolueta-Zubialdea (% 4,2) eta BI-11 errepideko DeustuEnekuri (+% 3,0). Jaitsierak izan dituzten sarbideetatik, hauek dira nabarmentzekoak: San Mames (–% 7,6), Orueta-Egirleta (–% 3,9) BI-20 errepidean eta Zabalburu-Hegoaldeko Saihesbidea (Joan de Garai) (–% 2,1).

Atal honetako **A/1.6.1 grafikoan**, trafikoaren banaketa ageri da sarbideetan, bai eta 2019-2024 aldian izandako bilakaera ere. Bilbora sartu eta handik irteteko trafikoak bere metropoliko eremuarekiko eta kanpoaldearekiko loturetan izandako bilakaerak aditzera ematen du 2019-2024 aldian, trafikoaren urteko aldakuntza-tasa –% 1,8koa izan dela; 2019an, egunean izandako 291.609 ibilgailuko kopurutik 2024an eguneko 289.627 ibilgailuko kopurura igaro da.

Aurreko urteetan adierazi dugun bezala, garraio publikoaren hobekuntzak (METROaren eraikuntza, bereziki) eta azken urteotan Bilboko hirigunean aparkatzeko hartutako neurri hertsatzaileek ekarri dute Bilborako sarbideetan trafikoa egonkortzea (2003tik 2007ra) eta metropolialdeko trafikoaren eta, ondorioz, Bizkaiko errepide-sare osoaren hazkundearen moteltzea. 2008an hasi zen krisi ekonomikoak eragin handia izan du trafikoaren bilakaeran 2009-2013 aldian: hazkunde-tasak negatiboak izan ziren metropoli- nahiz lurralde-eremuetan, baita Bilborako sarbideetan ere; hori bai, urtetik urterako beherakada pixkanaka-pixkanaka handitu zen sarbide horietan, 2009an -% 1,5, izatetik 2013an -% 3,4 izatera igaro da. 2014. eta 2015. urteetan, Bilborako sarbide guztien trafikoa ia egonkortu egin zen: -% 0,5eko eta -% 0,1eko tasak izan zituen, hurrenez hurren, eta, azkenik, 2015-2019 aldian, urteko batez besteko tasa pixka bat positiboa izan zen berriz ere (% 0,3), susperraldi ekonomikoaren hasierarekin batera. Trafikoa 317.239 ibilgailukoa izan zen eguneko.

2020an, Bilborako sarbideetako trafikoa izugarri jaitsi zen (-% 20,6), mugikortasunaren nahitaezko murrizketagatik , 2020ko martxoaren erdialdean pandemia deklaratu ondoren; 2021ean, % 11,3 egin zuen gora eta 2022. urtean berriz ere % 7,0 igo zen, adierazi den bezala, baina trafikoak (eguneko 300.054 ibilgailu) pandemiaren aurreko urtean (2019) erregistratutakoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du (-% 5,4), 317.239 ibilgailu zebiltzala egunean.

2024an erregistratu den jaitsiera (–% 0,7) kontuan hartuta, eguneko 289.627 ibilgailuko kopurua nahikoa urrun dago erreferentziako urtekotik (2019), –% 8,7ko aldakuntza izan duela, lehen adierazi bezala.

A/1.6.1. grafikoa

BILBORAKO SARBIDEETAKO TRAFIKOA





URTEKO HAZKUNDE TASA (%)		% ALDAKUNTZA
2023-2024	2019-2024	2019-2024
-0,7	-1,8	-8,7

2024an, Iparraldearen (Itsasadarraren eskuinaldea) eta Hegoaldearen (Ezkerraldea) arteko trafikoaren saldo banatzailea Hegoaldearen aldekoa izan da (2.453 ibilgailu egunean), nahiz eta Iparraldearen jaitsiera (–% 1,8) Hegoaldearena (–% 3,0) baino txikiagoa izan.

Laburbilduz, aztertutako datuetatik, printzipioz, honako ondorio hauek atera daitezke:

a) Bilboko irteera eta sarrera guztietan urtean izandako trafikoa –% 1,8 murriztu da 2019-2024 aldian. Zehatzago, egunean 317.239 ibilgailukoa izatetik 289.627 ibilgailukoa izatera pasatu da. Ibilgailu astunetan, berriz, % 3,8koa izan da.
   2019 eta 2024 artean, Bilboko sarbideetan trafikoaren beherakada (–% 1,8) nabarmenagoa izan da Bizkaiko gainerako lurraldeetan baino (–% 0,3). Batez ere, garraio publikoaren erabilera handitu egin delako, eta 2000. urteaz geroztik aparkatzeko disuasio-neurriak ezarri direlako, eta 2024ko ekainaren 15ean Bilboko EGEa indarrean jarri zelako.
   Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea (MHS) abian jarri eta Hegoaldeko irtenbidetik pasoko ibilgailuen igaroaldia mugatu izanak kamioien nolabaiteko desbideratu eragin zuen Txorierriko korridorerantz, bai eta neurri txikiagoan ere, Deustu-Enekuri eta Orueta-Egirletako sarbideetarantz, pasokoak ez diren ibilgailu astunek ez baitute Hegoaldeko irtenbideko sarbideak erabiltzeko baimenik.

b) 2024. urtean Iparraldeko Ardatzarekin lotzen diren sarbideen partaidetza zertxobait igo da Hegoaldeko Ingurabidearekin lotzen direnekin alderatuz. Horrela, % 43,9tik % 44,9ra pasa da. Azken urteetan ari da hori gertatzen, eta, hala, Iparralde-Hegoa birbanatzen ari da. Iparraldeko Ardatzarekin (Txorierri) lotzen diren sarbideen partaidetzak gora egin du, eta, ostera, Hegoaldeko Ardatzarekin (Hegoaldeko Ingurabidea) lotzen direnen garrantzia murriztu egin da. Joera hori indartu egingo da datozen urteetan, Bilboko EGEa indarrean jarriko baita.

Txosten honetako **A/5.1.3 atalean** Ibarrekolandako lotunearen (Deustu-Enekuri sarbidea) eta Artxandako tunelen bilakaera aztertu dugu, Bilboko iparraldeko sarbideak errazten gehien lagundu duten proiektuak izan baitira (Txorierriko korridorearen handitzeekin batera).

A/1.7. AHALMEN HANDIKO BIDEETAKO TRAFIKOAREN KONFIGURAZIOA ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN BIDE SAREAREN FUNTZIONALTASUNA HOBETZEKO EGINDAKO JARDUKETA NAGUSIAK

Azterlan honen **A/5. kapituluan** loturaren ardatzean eta adarretan izaten den trafikoaren banaketari buruzko deskribapena egiten da, Bizkaiko Lurralde Historikoko ahalmen handiko errepide nagusiei dagokienez; deskribapen horri hobeto ulertzeko, zenbait eskema grafiko ere azaltzen dira. Era berean, trafiko-matrizeen multzoa egin da, aintzat hartutako adar bakoitzaren lotura desberdinen arteko loturak adieraziz, bai eta errepide batzuek beste batzuekin izaten dituzten loturak agerian jarriz ere, emaitzazko errepide-sareko trafikoaren jarraipen-lana egin ahal izateko.

Era berean, ahalmen handiko bideetan egindako jarduketa nagusiak aipatu dira, eta trafikoaren bilakaerarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren bide-sarearen funtzionaltasunaren hobekuntzan duten eraginarekin lotu dira.

Zentzu honetan, aztertutako gaitasun handiko errepideak eta horiei beren-beregi men egiten dieten memoria honetako atalak honako hauexek dira:

- Hegoaldeko irtenbidea (A-8): Basauri – Gurutzeta (**A/5.2** eta **A/5.3.3 atalak**)
- Ugaldebietako irtenbidea (A-8): Gurutzeta – Kantabria (**A/5.3.1 atala**)
- Arrontegiko irtenbidea (N-637): Gurutzeta – Kukularra (**A/5.2** eta **A/5.3.1 atalak**)
- Avanzada (BI-637): Kukularra – Kurtxe (**A/5.3.1 atala**)
- Txorierriko igarobidea (BI-637): Kukularra – Erletxe/A-8 (**A/5.2** eta **A/5.3.4 atalak**)
- AP-8 autobidea: Basauri - Gipuzkoa (**A/5.3.2** eta **A/5.4 atalak**)
- Kadaguako igarobidea: Bilbo – Balmaseda (**A/5.3.5 atala**)
- Ballontiko ardatza (**A/5.3.6 atala**)
- Metropoliko Hegoaldeko saih.(AP-8): Larraskitu-Santurtzi M. (**A/5.3.7 atala**)
- Gerediaga – Elorrio autobia (N-636) (**A/5.3.9 atala**)

A/1.8. GAITASUN HANDIKO BIDEEN ZERBITZU MAILAK. AUTO-PILAKETEN ARAZOA ETA BIDE-SAREAREN AHALMENA

A/1.8.1. ZERBITZU MAILAK

Ikerlanaren **A/5.7. atalean** zerbitzu-mailen azterketa bat egiten da gaitasun handiko errepideetako 6 tarte garrantzitsutan; horietan estazio iraunkorrak daude eta IH-30 proiektuaren ordurako eskuratutako benetako trafikoak erabili dira, bai eta ordu/urteen kopuruaren banaketa ere, zerbitzu-mailen arabera.

IH-30ari dagokionez lortutako zerbitzu-mailak D, E eta F izan dira, aztertutako tarteei jarraiki; hala eta guztiz ere, zerbitzu-maila horiek benetan lortzen diren urteko ordu-kopurua nabarmenki murriztu da 2004. eta 2005. urteak kontuan hartuz gero, betiere errepideen gaitasuna handitzera bideratutako errepide-jarduketak egin diren tarteetan (Kastrexana – Gurutzeta A-8an, Kukularra – Larrondo BI-30 errepidean, Kukularra – Erandio eta Unibertsitate – Leioa BI-637 errepidean, etab.); beraz, horrek bete-betean justifikatzen du horien burutzapena. Bizkaiko errepide-sarean trafikoa oro har murriztu izanak berekin ekarri du proiektuaren orduko trafikoaren intentsitatearen murrizketa arina, bai eta aztertu diren tarteen funtzionaltasunaren hobekuntza ere.

Adierazi beharra dago E-F mailan lotutako ordu-kopuruak zinez zehazten duela 1.955 ibil/ord/erre-tik gorako intentsitate-mailetan erregistratutako trafikoa, baina benetako kongestio-epeak D mailan ere gerta daitezke; izan ere, kongestio-erregimenean errepidearen gaitasuna 2.250 ibil/ord/erre-tik 1.800 ibil/ord/erre-ra murriztен da, gutxi gorabehera[4].

Gerta daiteke ere E mailan ibilita ere, trafiko handia izatea, baina autoak pilatuta ez gelditzea eta ilararik ez sortzea, zeren eta zerbitzuaren dentsitateak ez baitu gainditzen bidearen ahalmena eta ez baitaude kongestioa errazteko beste faktore osagarri batzuk.

Errepidearen zerbitzu-maila adierazle erabilgarria da plangintzaren ondorioei begira, errepideen dimentsionamenduari dagokionez, baina tarte bateko kongestioaren gorabeherak gerta daitezke, ez bakarrik gaitasun faltagatik, ezpada errepidean beste tarte batzuk falta direlako edo beste errepideak tarte horretara konektaturik daudelako edo klima-faktore zehatz batzuk daudelako edo aldizkako edo abaguneko beste batzuk existitzen direlako (istripuak, obrak eta abar).

Hurrengo eskema grafikoetan egoera aurkezten da Bilboko metropoliko eremuaren gaitasun handiko errepide nagusietako zirkulazioaren ikuspegi funtzionala kontua hartuz, betiere ondoko orduetan: H-30 eta H-100, 2024ko urteari men eginez, betiere zirkulazio-noranzko bakoitzeko aintzakotzat hartutako tarte desberdinen arabera. Zehaztu dugun bezala, kategoria funtzional horiek zerikusia dute zerbitzu-mailekin eta zehatzago egokitzen zaizkie kongestio-momentuei.

(4) 90 km/orduko abiadura libreko autobideetarako.

Erantsitako eskema grafikoetan ikus daiteke ez dagoela pilaketa arazo garrantzitsurik Bilbo inguruko bide-sareko ezein tartetan. Dentsitate handiko zirkulazio-eremuak soilik daude, abiadura txikiagokoak, baina fluxu jarraituko erregimenean. Errontegi/Kukularraren trafiko trinkoak nabarmen murriztu dira Kukularrako lotunearen 2. banakapena egiteko lanak abiarazi direnean, Getxo – Txorierri adarraren edukiera handitu egin baita, eta errei berria eraiki BI-30eko enborrean (N-637), Kukularraren eta Asua/Enekuriren artean.

Era berean, 2023ko apirilean, MHSko Peñascal – Beteluri tartea abian jarri zenetik trafikoa murriztu da Larraskitu (MHS) – Buia (AP-68) tartean, eta nabarmen hobetu da tarte horren funtzionaltasuna.

ZIRKULAZIO FLUXUAREN MAILA FUNTZIONALA, TARTE BAKOITZERAKO ZEHAZTUTAKO ORDUAN





A/1.8.2. AUTO-PILAKETEN ARAZOA ETA BIDE-SAREAREN AHALMENA

Errepide bat kongestio-arazoak izaten hasten denean, problema horiek larriagotzen dira esponentzialki errepidearen zirkulaziora iritsi nahi duen trafikoaren maila handituz doan heinean.

Hurrengo taula eta grafikoan bi adibide adierazgarri ematen dira; horietan goizeko puntako orduan (7:30etik 9:30era bitartean) izan daitezkeen kongestio baten moldea agertzen dira, betiere zirkulazio-noranzko bakoitzeko 3 errei edo gehiago dituen tarte orokor bateko sarrera- eta irteera-fluxuak aintzakotzat hartuz *(ikus **A/5.7.2. atala**).*

Lehendabiziko adibideak kongestio-prozesua irudikatzen du trafikoaren intentsitate zehatz batzuetan eta bigarren adibideak %10 handiagoak diren intentsitateetan.

Ikus daitekeenez, trafikoaren intentsitate orokorraren %10eko gehikuntzak ilararen gehieneko luzeraren 6,5 handiagoa (%65,5) den luzeraren gehikuntza eragin dezake eta, aldi berean, ilara desagertzeko denbora-tartea %28,5 handitzen da.

Erreferentziazko datu horiek errepide-azpiegituren inguruko jarduketak behar besteko aurrerapenaz planifikatzeko premia adierazten dute, bai eta garraio publikoari dagokion eskaintza antolatzeko beharrizana ere; izan ere, xedea da, alde batetik, trafikoaren ikuspegi funtzionaletik errepideei zerbitzu-maila hobea eta egokiagoa ematea eta, beste aldetik, trafiko jasangarriko mailak lortzeko laguntza ematea. Aipatzekoa da garraio publikoaren hobekuntzak zuzenean eragiten diola barne trafikoari edo agitazio-trafikoari eta horixe dela garrantzitsuena metropoliaren ingurunean.

Errepide-eskaintza hobetzeko (kongestiona daitezkeen errepideetako erreiak handitzea edo bide alternatiboak eraikitzea) eta garraio publikoa eskaintzeko (Bilboko metroa, Euskotren eta Euskobus) aldi bateko jarduketa-politika hori da Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan eta Garraio Sailak sustatzen diharduena, Bilbo eta haren metropoli eta lurraldeko ingurunea hiri eta erregio jasangarria bihur dadin, mugikortasunaren ikuspegitik.

Zentzu horretan, aipatu behar dira zeintzuk izan diren azken urteotan Bilboko metropoliko eremuan aurrera eramandako jarduketak, adibidez: metro-lineak handitzea, hiri-aparkalekuak erregulatzea, Gurutzetako lotunea berregokitzea, Txorierriko igarobidea ixtea, Kukularraren eta Larrondoren (Txorierri) arteko erreiak eta Gurutzetaren eta Kastrexanaren artekoak (hegoaldeko irtenbidea) handitzea, MHS abian jartzea eta abar; horrek berekin ekarri du zerbitzu-mailak nabarmen hobetu izana ukitutako errepideetan eta trafiko-mailei eustea edo murriztea, bereziki Bilborako sarbideetan eta hegoaldeko irtenbidean. Metropoliko hegoaldeko saihesbide berriaren etorkizuneko eraikuntza, Lamiakoko konexioarena eta AP-8ko erreiak handitzeko lanak aurrerapauso garrantzitsuak izango dira zerbitzu-maila hobetzeko eta trafiko-mailak orekatzeko politika horren barruan; jarduketa horiek nagusiki A-8ri eragingo dio Arenatik Gipuzkoako LHMraino (Ugaldebietako irtenbidea, hegoaldeko irtenbidea eta AP-8).

TRAFIKO KONGESTIOAREN ETA ILAREN SORKUNTZAREN BI ADIBIDEREN AZTERKETA KONPORATIBOA

ORDUA	a) taula. **1. adibidea** Trafikoaren bilakaera, kongestioa egonez gero.				a) taula. **b. adibidea** Trafikoaren bilakaera, kongestioa egonez gero, 1. adibidean baino %10 handiagoa den eskariarekin.			
	IBILG./ORD.			ILARAKO LUZERA	IBILG./ORD.			ILARAKO LUZERA
	SARTZEN	IRTETEN	PILATZEN		SARTZEN	IRTETEN	PILATZEN	
7:30	1.800	1.800	0	**0**	1.980	1.980	0	**0**
7:45	2.100	2.100	0	**0**	2.310	2.310	0	**0**
8:00	2.400	1.800	150	**1.200**	2.640	1.800	210	**1.680**
8:15	2.200	1.800	250	**2.000**	2.420	1.800	365	**2.920**
8:30	1.900	1.800	275	**2.200**	2.090	1.800	438	**3.504**
8:45	1.700	1.800	250	**2.000**	1.870	1.800	455	**3.640**
9:00	1.500	1.800	175	**1.400**	1.650	1.800	418	**3.344**
9:15	1.300	1.800	50	**400**	1.430	1.800	326	**2.608**
9:30	1.200	1.200	0	**0**	1.320	1.800	206	**1.648**
9:45	1.200	1.200	0	**0**	1.320	1.800	86	**688**
10:00	1.200	1.200	0	**0**	1.320	1.320	0	**0**
10:15	1.200	1.200	0	**0**	1.320	1.320	0	**0**



A/1.9. ABIADUREI BURUZKO AZTERLANA

A/6 kapituluan, ibilgailuak abiadura-tarteen arabera nola banatzen diren aztertu da, Lehentasuneko sareari (gorria) eta Oinarrizko sareari (laranja) dagozkien zenbait tartetan, ateratzen diren batez besteko abiadurak zehazteko eta lanegun batean batez beste zer ordutan banatzen diren zehazteko.

Deustu-Enekuri sarbideko trafikoak gorabeherak izan zituen 2007 eta 2019 artean. 2008an, behera egin zuen handitze-obren ondorioz, baina gero pixkanaka handitu zen. Horrela, 2012an eguneko 52.633 ibilgailura iritsi zen *(ikus **A/5.1.2.2 taula**)*. Krisi ekonomikoan, trafikoa gutxitu ez zen sarbide bakarra izan zen. 2013an, % 2,4ko beherakada txikia egon zen, baina 2013 eta 2019 artean % 0,6ko urteko tasara igo zen, eta 2019an eguneko 53.221 ibilgailura heldu zen. Artxandako tunelek ere igoera nabarmena izan zuten 2017an tarifa laua ezarri zelako.

2020. urtean, Deustu-Enekuri sarbideko trafikoa eguneko 41.954 ibilgailura jaitsi zen (–% 21,2). Ordutik 2022ra, Deustu-Enekuri sarbideko trafikoa pixkanaka suspertu zen pandemiaren ondoren, 2020an eguneko 41.954 ibilgailu izatetik 2022an eguneko 48.860 ibilgailu izatera pasa baitzen, baina ez zen iritsi 2019ko, alegia, pandemiaren aurreko mailara. 2023an, trafikoa ia ez zen aldatu (+% 0,2), eta lortutako kopurua (48.956 ibilgailu egunean) oraindik 2019. urtekoa baino murritzagoa da (–% 8,0).

2024an, zifra 50.428ra igo zen (% 3,0ko hazkundea 2023. urtearekin erkatuta) eta 2019an baino % 1,1 txikiagoa izan da.

(10) Egun BI-11 deritza: Bilboko sarbidea iparraldetik (Enekuri/Asua). Lehen BI-604 errepidea.

Ibarrekolanda lotunean dauden sarbideen arteko trafikoaren banaketa hauxe da:

URTEA		BILBO – ENEKURI ERLAZIOAK (2 NORANZKOAK)				GUZTIRA
		EUSKALDUNA ZUBIA (IBARREKOLANDA)	DEUSTU ZUB. (LEHENDAKARI AGUIRRE ETORB.)	SAN INAZIO (IBARREKOLANDA K.)	ARANGOITI AUZ. (ARANGOITI K.)	
2008	**EBBI**	**14.312**	**26.406**	**7.220**	**642**	**48.580**
	%	29,4	54,4	14,9	1,3	100,0
2012	**EBBI**	**1.376**	**28.118**	**7.426**	**716**	**52.633**
	%	31,1	53,4	14,1	1,4	100,0
2013	**EBBI**	**16.012**	**27.395**	**7.276**	**692**	**51.375**
	%	31,2	53,3	14,2	1,3	100,0
2014	**EBBI**	**16.536**	**27.344**	**7.370**	**710**	**51.959**
	%	31,8	52,6	14,2	1,4	100,0
2015	**EBBI**	**16.224**	**27.775**	**7.482**	**714**	**52.195**
	%	31,1	53,2	14,3	1,4	100,0
2016	**EBBI**	**16.538**	**28.574**	**7.658**	**732**	**53.502**
	%	30,9	53,4	14,3	1,4	100,0
2017	**EBBI**	**16.856**	**29.222**	**7.704**	**746**	**54.528**
	%	30,9	53,6	14,2	1,3	100,0
2018	**EBBI**	**16.944**	**29.927**	**7.736**	**764**	**55.371**
	%	30,6	54,0	14,0	1,4	100,0
2019	**EBBI**	**16.362**	**28.700**	**7.424**	**736**	**53.222**
	%	30,7	53,9	14,0	1,4	100,0
2020	**EBBI**	**13.040**	**22.288**	**6.044**	**582**	**41.954**
	%	31,1	53,1	14,4	1,4	100,0
2021	**EBBI**	**13.850**	**23.624**	**6.424**	**620**	**44.518**
	%	31,1	53,1	14,4	1,4	100,0
2022	**EBBI**	**15.336**	**25.820**	**7.028**	**676**	**48.860**
	%	31,4	52,8	14,4	1,4	100,0
2023	**IMD**	**15.366**	**25.868**	**7.042**	**680**	**48.956**
	%	31,4	52,8	14,4	1,4	100,0
2024	**EBBI**	**15.834**	**26.626**	**7.262**	**706**	**50.428**
	%	31,4	52,8	14,4	1,4	100,0
Δ% 2023/2024		**3,0**	**2,9**	**3,1**	**3,8**	**3,0**

Agirre Lehendakaria eta Enekuri hiribideen arteko harremanak desberdinak dira zirkulazioaren noranzkoaren arabera. Enekurira doan noranzkoan (igoera), zirkulazioa antzinako sarbidetik egiten da, Enekuriko biribilgunea (behekoa) inguratuz, ez baitu «ez duzu lehentasuna» seinalerik. Aitzitik, Enekuritik abiatutako noranzkoan (jaitsiera), trafikoak Ibarrekolandako biribilgunea (goikoa) zeharkatzen du batez ere.

Horren ondorioz, Ibarrekolanda –Deustuko Beheko Erribera lotunea eraikitzeak eragin du Deustu-Enekuri sarbidea erabiltzen duen trafiko guztiaren % 31,4ek (gehienbat helmuga/jatorria Bilbo erdigunea duenak) Deustu/San Ignazioko tokiko trafikoa ez oztopatzea, Agirre Lehendakaria etorbideko ardatzean trafikoa arinduz batez ere, Deustuko barne-erlazio jakin batzuk errazten dituen bitartean etorbide horren eta Beheko Erriberaren artean. Halaber, lotune berriak San Ignazioko trafikoa Ibarrekolanda kaletik sartzea eta Arangoitiko auzoko trafikoa goiko biribilgunetik sartzea errazten du, bai Enekurirako noranzkoan, bai Deusturako no-

ranzkoan. Oro har, Deustu-Enekuri sarbideko trafikoaren % 47,2ek[11] ez dio eragiten Agirre Lehendakariaren hiribideari, Deustuko hirigunearen ardatz nagusiari, lehen adierazi bezala (**A/5.1.3.a atala**).

Gogora ekarri behar da 1997tik 2003ra Deustu auzoak aldaketa sakona bizi izan zuela, Bilboko hirigunearekin eta Txorierri/La Avanzada ardatzarekin konektatzeko bide-azpiegiturei dagokienez. Izan ere, Euskalduna zubia eraiki ondoren (1997), Ugasko-La Salve tunela (bidesaririk gabea) eraiki zen Deusturen eta La Salveren artean. Tunel hori Deusturen eta Txorierriko autobidearen arteko Ugasko tunela (bidesaria du) eraiki zen une berean eraiki zen (2002), bai eta aipatzen ari garen Ibarrekolanda –Deustuko Beheko Erribera lotunea (2003) eraiki zen une berean ere.

Ugasko eta La Salve (BI-635) arteko bidesaririk gabeko tunelean eguneko 8.320 ibilgailu erregistratu dira (9.399 ibilgailu laneguneko), eta bidaia horiek, gehienak Deusturen eta Erdiguneko irtenbidearen (Begoña/Txurdinaga/Santutxu/N-634) artean egiten direnak, itsasadarra Deustuko eta La Salve zubiak bi aldiz zeharkatzea eragotziz.

Zentzu horretan, aipatu behar da 1996. urtean, Deusturen eta Bilboko hirigunearen arteko lotune bakarra Deustuko zubia zela eta egunean 67.904 ibilgailuko trafikoa hartzen zuela. 2007tik 2022ra, hiri-erlazio horiei dagozkien trafikoa honela banatu da, gutxi gorabehera:

AZPIEGITURA BERRIEN ERAGINPEKO TRAFIKOAREN BANAKETA

URTEA	Deustuko zubia		Euskalduna zubia		Ugasko – La Salve tunela		GUZTIRA	
	Ibil./eg.	%	Ibil./eg	%	Ibil./eg	%	Ibil./eg	%
2007	26.341	32,6	39.219	48,5	15.320	18,9	80.880	100,0
2013	19.058	30,6	31.959	51,3	11.271	18,1	62.288	100,0
2014	17.107	290	30.230	51,3	11.587	19,7	58.924	100,0
2015	16.969	29,6	26.113	50,7	11.302	19,7	57.384	100,0
2016	18.373	31,6	28.319	48,8	11.360	19,6	58.022	100,0
2017	18.406	31,9	28.084	48,7	11.179	19,4	57.669	100,0
2018	17.935	31,6	27.367	48,3	11.394	20,1	56.696	100,0
2019	16.997	31,5	26.527	49,2	10.404	19,3	53.928	100,0
2020	13.637	31,5	21.909	50,5	7.811	18,0	43.357	100,0
2021	14.811	32,9	22.571	50,1	7.659	17,0	45.041	100,0
2022	15.877	33,1	23.852	49,8	8.194	17,1	47.923	100,0
2023	14.157	32,2	21.480	48,9	8.320	18,9	43.957	100,0
2024	13.171	31,4	21.243	50,6	7.560	18,9	41.974	100,0

Ikusten denez, Deustuko zubi zaharreko trafikoa orain zubi horren, Euskalduna zubiaren eta Ugasko–Salve tunelaren artean banatzen da. Igarobide horrek Deusturen eta Erdigunea/Begoña irtenbidearen arteko erlazioetarako itsasadarra bi aldiz zeharkatzea eragozten du.

(11) Ibarrekolanda tunela (% 31,4) + Ibarrekolanda kalea (% 14,4) + Arangoiti kalea (% 1,4) = % 47,2.

1996-2007 aldian, Deustu eta Bilbo arteko trafikoa % 1,6 igo zen urtean, eta eguneko 80,880 ibilgailura heldu zen. Ondoren, 2007 eta 2014 artean, trafiko hori urteko –% 4,4ko tasara jaitsi zen, eguneko 58,924 ibilgailura iritsita. 2014tik 2019ra, beherakadak modu irregularrean jarraitu zuen, –% 1,8ko urteko batez besteko tasarekin, eta 2019an eguneko 53,928 ibilgailu erregistratu ziren batez beste.

Deustuko trafikoa itsasadarraren inguruan gutxitzearen kausa nagusia, 2019ra arte, 2008-2014ko krisi ekonomikoaz gain, garraio publikoa gehiago erabiltzea izan zen (batez ere METROA) Bilboko hirigunean Deusturen, San Ignazioren eta itsasadarraren eskuinaldearen arteko erlazioetan, aparkatzeko aukerak mugatu ahala.

2020tik 2023ra bitarte, Deustu eta Bilbo arteko trafikoak gorabehera nabarmenak izan zituen. 2020an, trafikoak % 19,6 egin zuen behera, COVID-19aren pandemiak eragindako murrizketen ondorioz. 2021ean eta 2022an, % 3,9ko eta % 2,3ko igoerak izan ziren, hurrenez hurren, baina 2019ko mailara iritsi gabe. 2023an, aldakuntza negatiboa izan zen berriz ere (–% 5,2), eta eguneko trafikoa % 18,5 murriztu zen 2019arekin alderatuta.

2024an, 2023arekiko aldakuntza-tasa negatiboa izan zen berriro (–% 4,5), eta 2019arekin konparatuta, –% 22,2koa.

Ondorioz, esan dezakegu Deustu/San Ignazio eta Bilboko erdialdea lotzeko eraikitako bide-azpiegiturek, garraio publikoak hobetzearekin batera, nabarmen murriztu dituztela Deustu eta Bilbo arteko trafikoaren pilaketa-mailak.

c) Eragina Artxandako tuneletako sarbidean

Artxandako tunelak (La Salve eta Ugasko) 2002ko maiatzaren 26an jarri ziren abian (bidesari-erregimenean) eta 2003ko ekainean (urte bat geroago) eguneko batez besteko trafikoa 13.462 ibilgailukoa.

Ibarrekolanda lotunea abian jartzearekin bat, trafikoak bat-batean egin zuen behera, eta 2003. urteko (urtarrila-abendua) eguneko batez besteko intentsitatea 11.842 ibilgailukoa izan zen. 2004an gora egin zuen, eta egunean 12.247 ibilgailukoa izan zen, hau da, 2003. urtekoa baino % 3,3 handiagoa.

TRAFIKOAREN BILAKAERA ARTXANDAKO TUNELETAN (BIDESARIA)

URTEA	IBIL./EGUNEKO	Δ URTEKO %
2004	12.247	-
2005	13.108	+7,0
2006	14.121	+7,7
2007	16.427	+16,3
2008	17.647	+7,4
2009	15.276	-13,4
2010	15.589	+2,0
2011	15.494	-0,6
2012	14.968	-3,4
2013	14.616	-2,4
2014	15.587	+6,6
2015	16.499	+5,9
2016	17.419	+5,6
2017	18.064	+3,7
2018	18.589	+2,9
2019	18.648	+0,3
2020	12.681	-32,0
2021	15.110	+19,2
2022	17.455	+15,5
2023	18.128	3,9
2024	18.051	-0,4
2004-2024		**2,0**
2019-2024(*)		**-3,2**

(*) 5 urteko aldakuntza (ez da urteko tasa).

2008 eta 2013 artean, Artxandako tuneletako trafikoak nabarmen egin zuen behera, BI-11 errepideko Fatima-Ibarrekolanda tartea (BI-604) martxan jarri zelako, baita krisi ekonomikoagatik ere. 2013an, berriz, mailarik baxuenera iritsi zen: egunean 14.616 ibilgailu. Ordutik, trafikoak susperraldia izan zuen 2019ra arte; 18.648 ibilgailura heldu zen egunero. Hala ere, 2020an, pandemiarekin, trafikoa % 32 jaitsi zen, eta 2004ko mailara itzuli zen. 2021etik aurrera, trafikoa handitzen hasi zen berriro, eta egunean 18.128 ibilgailu izatera iritsi zen 2023an, nahiz eta 2024an % 0,4ko beherakada txikia izan.

2004tik 2019ra, Deustu-Enekuri eta Artxandako tuneletako sarbideen trafiko konbinatuaren eskari potentziala hazi egin zen, % 1,4ko urteko batez besteko tasarekin, eta Artxandako tuneletako erakarpena, aldiz, % 21,0tik % 25,7ra igo zen. 2020an, eskariak jaitsiera nabarmena izan zuen (–% 24,0) pandemiagatik, eta ondorengo urteetan susperraldia gertatu zen. 2023an, eskari potentziala 67.084 ibilgailukoa izan zen egunero. Artxandako tuneletan inoizko erakarpenik handiena izan zen, % 27,0koa.

Azkenik, 2024an, Enekuri-Deustu sarbideko trafikoa (50.428 ibilgailu egunean) % 3,0 igo zen 2023. urtearekin alderatuta, baina Artxandako tuneletan pixka bat jaitsi zen (–% 0,4).

ARTXANDAKO TUNELEN DEMANDA POTENTZIALAREN ETA ERAKARPENAREN BILAKAERA

URTEA	ENEKURI - DEUSTU		ARTXANDAKO TUNELAK		ESKARIA, GUZTIRA	
	IBIL./ EGUNEKO	ERAKARPENA %	IBIL./ EGUNEKO	ERAKARPENA %	IBIL./ EGUNEKO	ERAKARPENA %
2004	46.025	79,0	12.247	21,0	58.272	100,0
2006	49.805	77,9	14.121	22,1	63.926	100,0
2007	48.921	74,9	16.427	25,1	65.348	100,0
2008	48.580	73,4	17.647	26,6	66.227	100,0
2009	49.544	76,4	15.276	23,6	64.820	100,0
2010	51.336	76,7	15.589	23,3	66.925	100,0
2011	51.528	76,9	15.494	23,1	67.022	100,0
2012	52.633	77,9	14.968	22,1	67.601	100,0
2013	51.375	77,9	14.616	22,1	65.991	100,0
2014	51.595	76,8	15.587	23,2	67.182	100,0
2015	52.195	76,0	16.499	24,0	68.694	100,0
2016	53.501	75,4	17.419	24,6	70.920	100,0
2017	54.528	75,1	18.064	24,9	72.592	100,0
2018	55.371	74,9	18.589	25,1	73.960	100,0
2019	53.221	74,1	18.648	25,9	71.869	100,0
2020	41.954	76,8	12.681	23,2	54.635	100,0
2021	44.518	74,7	15.110	25,3	59.628	100,0
2022	48.860	73,7	17.455	26,3	66.315	100,0
2023	48.956	73,0	18.128	27,0	67.084	100,0
2024	50.428	73,6	18.051	26,4	68.479	100,0

2024an, Salbeko tunelak trafikoaren % 72,1 erakarri zuen, eta Ugaskoko tunelak, berriz, % 27,9. Ugaskoko tuneleko trafikoa gutxituz joan da 2008tik, Enekuri-Deustu sarbidearen eraginez. Zirkulazioari helduz gero, Txorierri-Salbe/Ugasko noranzkoak % 53,3ko banaketa du, eta kontrako noranzkoak % 46,7koa. Oreka dago bi tunelen artean.

Jarraian ageri den taulan, bi tunelen arteko trafikoaren banaketaren bilakaera azaltzen da. Bertan ikus daiteke bi tunelen arteko banaketaren ehunekoa berdin mantendu dela azken urteetan.

ARTXANDAKO TUNELAK	2019		2020		2021		2022		2023		2024		Δ % 2022-2023
	EBBI	%	EBBI	%	EBBI	%	EBBI	%	EBBI	%	EBBI	%	
La Salve – Txorierri	13.706	73,5	9.232	72,8	10.953	72,5	12.674	72,6	13.236	73,0	13.017	72,1	-1,7
Ugasko – Txorierri	4.942	26,5	3.449	27,2	4.157	27,5	4.781	27,4	4.892	27,0	5.034	27,9	2,9
Total	**18.648**	**100,0**	**12.681**	**100,0**	**15.110**	**100,0**	**17.455**	**100,0**	**18.128**	**100,0**	**18.051**	**100,0**	**-0,4**

Artxandako tuneletako trafikoak bidesari-erregimenean funtzionatzen du, eta beste sarbide batzuen baldintzen eta bilakaera ekonomikoaren araberakoa da. COVID-19aren pandemiagatik eta hark mugikortasunean izan duen eraginagatik izandako trafiko-jaitsieraren ostean, joan den hamarkadako bigarren zatiko trafiko-mailak berreskuratzen joan da sarbide hori.

A/5.2. TRAFIKOA BILBOKO INGURABIDEKO BIDEETAN (METROPOLIKO 1. ERAZTUNA)

Lehen aipatutako sarbideetako trafikoa bideratzen duten Bilboko ingurubideko bideak, metropoliko arearekin eta kanpoaldearekin dauden erlazioetan, gaur egun, hauek dira:

— **Hegoaldetik:** Hegoaldeko irtenbidea (A-8), Ekialdeko saihesbidearen lotunetik Gurutzeta lotuneraino eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbideraino, Larraskitu/Ekialdeko saihesbidea lotunetik Kadaguako lotuneraino)[12].
— **Mendebaldetik:** Errontegi irtenbidea (N-637)[13], Gurutzeta lotunetik Kukularra lotuneraino.
— **Iparraldetik:** Txorierri igarobidetik (N-637)[13], Kukularra lotunetik Derio/Egirleta (BI-631) lotuneraino.
— **Ekialdetik:** gaur egun, bide hauen bidez eratutako ez-ohiko ibilbide bat dago:
  - BI-631[14]: Derio (N-633) eta Ibarsusi (N-634) lotunearen artean, Egirletatik.
  - N-634[14]: Ibarsusitik Mirafloreseko biribilguneraino, Boluetatik (hirikoa).
  - Ekialdeko Saihesbidea[14]: Mirafloresetik Hegoaldeko irtenbidearekin lotu arte.

Etorkizunean, aurreikusita dago Ekialdeko saihesbidea osatzea; hau da, Ibarsusi (N-634)-Zubialdea (BI-712)-Miraflores tartea. Hala, BI-20(BI-631) errepideak jarraipena izango du Hegoaldeko irtenbidetik (A-8) Derioraino, Bilbotik (A-8) Mungiaraino bide azkar bat izango delarik, Ibarsusi-Egirletatik eta aireporturako sarbide berritik igaroz.

Atal honi dagozkion grafikoetan, bide hauetan dauden 10 konexio nagusiak ikus daitezke, eta zenbait tartetan erregistratutako bakoitzeko trafikoaren eguneko batez besteko intentsitatea zein den adierazten da, bai eta kaltetutako sareko lotune bakoitzean nola dagoen banatuta ere. Kopurua eskuz neurtzeko kanpaina baten bidez lortu da trafikoaren eraketa hori. Kanpainaren helburua izan zen Bilbo inguratzen duen bide-sareko lotune esanguratsuenetan zer mugimendu zegoen jakitea.

Adierazitako ingurabideko ibilbidearen guztizko luzera 27,0 kilometrokoa da, eta bideetako tarteetan batez besteko trafiko haztatua egunean 82.354 ibilgailukoa da eta ibilgailu horien % 6,3 ibilgailu astunak dira 2024an. Ondoko taulan ageri da banakatuta.

(12) Gaur egun BI-10, “Bilboko hegoaldeko saihesbideko autobia”ren barruan.
(13) Gaur egun BI-30, “Bilboko iparraldeko saihesbidea”ren barruan.
(14) Gaur egun BI-20, “Bilboko ekialdeko inguratze bidea”: Larraskitu lotunetik (BI-10) Derioko lotunera (BI-30).

BILBOKO INGURABIDEKO IBILBIDEAN TRAFIKOA

EGUNGO SINBO-LOGIA	BIDEAK ETA TARTEAK	LUZERA (KMS)	EBBI						ASTUNEN %	Δ (%) 2019/24	Δ (%) 2023/24
			2019	2020	2021	2022	2023	2024			
BI-10/ AP-8	HEGOKO IRTENBIDEA (EK. Saih.- Gurutzeta L)+MHS (*)	7,6	118.121	93.827	110.020	117.350	116.001	117.208	6,4	-0,2	1,0
BI-30	ERRONTEGIKO IRTENB. (Gurutzea L.- Kukularra L.)	2,8	138.834	110.725	128.138	137.489	135.139	136.537	5,8	1,0	-0,3
BI-30	TXORIERRIKO IGAROB. (Kukularra L- Derio L.(BI-20)	7,8	87.135	67.359	78.229	85.751	86.657	88.796	6,9	0,4	2,5
BI-20	EKIALDEKO IBILB. (Derio/BI-20 L.-Ek. Saih./Heg. Irt.)	8,8	29.953	25.259	27.707	30.380	29.568	29.302	2,8	-0,4	-0,9
GUZTIRA		**27,0**	**82.581**	**65.585**	**75.887**	**81.964**	**81.338**	**82.354**	**6,3**	**-0,1**	**1,2**

(*) MHS barruan dago, 2011ko irailetik. Gehitutako kopuruak aldatu egin dira: 13.387 ibil/egun 2019an, eta 15.325 ibil/egun 2024an (Ikus 1. korridorea: Hegoaldeko irtenbidea **A/3 kapituluan**).

Ikus daitekeenez, 2024. urtean, ibilbide horretako trafikoak gora egin du (% 1,2) 2023. urtearen aldean. Aldiz, azken bosturtekoan (2019-2024) hazkunde-tasa negatiboa izan da (–% 0,1). Aztertutako ibilbidearen Iparraldeko eta Hegoaldeko sistemen arteko trafiko-desoreka handia da oraindik ere: 88.796 ibilgailu egunean Txorierriko korridorean eta 117.208 ibilgailu egunean Hegoaldeko korridorean (A-8 + MHSa). Baina, gainera, ikus daiteke Txorierriri dagokion tarteko trafikoa (+% 2,5) Hegoaldeko irtenbidea (% 1,0) baino ehuneko handiagoan hazi dela, 2019. urtera arte ohikoa zen bezala, nahiz eta pandemiaren urteetan (2020-2021) joera aldatu zen.

Ekialdeko eta Mendebaldeko ibilbideen arteko desoreka handiagoa da: Ekialdeko ibilbidea delakoan egunean 29.302 ibilgailu igarotzen dira, eta Arrontegi irtenbidean, egunean 136.537 ibilgailu. Nahiz eta Ekialdeko saihesbidea Miraflores eta Ibarsusi artean ixtean zehaztuko da ibilbide horren garrantzi funtzionala. Alde horretatik, esan behar da logela-izaerako bizitegi-gune berriak garatzeak, hala nola Miribilla auzoa, trafikoa nabarmen haztea ekarri zuela, batez ere Bolueta-Miraflores-Hegoaldeko irtenbidea (Ekialdeko saihesb.) tartean, eta horrek murriztu egin duela trafikoa sortzeko eragina. 2023an, batez besteko zirkulazio haztatuak behera egin du (–% 2,7) BI-20n, BI-10aren (San Adrian) eta BI-30aren (Derio lotunea) artean.

Txorierriko korridoreko trafikoak gora egiten jarraitzen du, eta hainbat helmugaren arteko bide nagusi gisa finkatu da. Hegoaldeko irtenbidea, zeina BI-10 errepidearen zati baita, hiri inguruko bide bihurtzen ari da, batez ere 2011n Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen funtsezko tarteak ireki eta 2023ko apirilean Arrigorriagako Beteluri auzora zabaldu ondoren.

Gurutzeta bide-aldagunearen birmoldatzea eta edukieraren handitzea, zeinaren jarduketak 2004. urtean amaitu ziren[15], lagungarriak izan dira Hegoaldeko irtenbideko trafikoa Txorierriko korridorera desbideratzeko, N-637 (BI-30) errepidea Kukularratik Derioko lotunera handitzeko proiektuan jada aurreikusita zegoen hazkuntza-prozesua biziagotuz. 2023. urtean "Gurutzeta-Arrontegi tartean metropoliko bideen nodoetan au-

(15) Bizkaiko errepideek 2004. eta 2007. urteen artean izandako trafikoaren bilakaeraren txostenean argitaratu zen Gurutzetako bide-aldagunearen berregituratzean egindako jarduketen azterketa, baita edukierari eta zerbitzu-mailari dagokienez lortutako hobekuntzak ere trafikoaren ikuspegitik.

to-ilarak murrizteko eta Europa barneko sarearekin konektatzeko" obra berriak abian jarri dira. Helburua bideen plataforma handitzea da, eta Gurutzetaren (N-634) eta Barakaldoko lotunearen artean (Barakaldo-Arrontegi noranzkoan) errei berri bat egingo da, txirikordak eta mugimenduek hobe funtzionatzeko, bolumen honen **A/8.3.1 atalean** adierazitakoaren ildotik.

Ondoko **taulan** (**A/5.2.1.**), Gurutzetako lotunean trafikoaren banaketak 2019-2024 aldian zer bilakaera izan duen ageri da.

A/5.2.1. taula

TRAFIKOAREN BANAKETAREN BILAKAERA GURUTZETA LOTUNEAN

(Bi noranzkoetan)

MUGIMENDUAK	2018 urtea		2019 urtea		2020 urtea		2021 urtea		2022 urtea		2023 urtea		2024 urtea		
	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%	Ast./eg.
Hegoko Irtenbidea – Arrontegi	36.182	25,6	37.494	26,6	29.236	25,4	36.392	28,0	39.610	28,5	38.562	28,6	38.990	4,5	1.746
Hegoko Irtenbidea – Barakaldo	14.200	10,1	13.524	9,6	12.052	10,5	11.778	9,2	12.716	9,2	12.756	9,4	12.076	3,2	385
Hegoko Irtenbidea, guzt. partziala	**50.382**	**35,7**	**51.018**	**36,2**	**41.288**	**35,9**	**48.170**	**37,2**	**52.326**	**37,7**	**51.318**	**38,0**	**51.066**	**4,2**	**2.131**
Ugaldebietako Irtenb. – Arrontegi	65.770	46,6	65.434	46,5	52.912	46,0	58.437	45,1	63.197	45,5	61.886	45,7	62.954	7,7	4.844
Ugaldebietako Irtenb. – Barakaldo	12.890	9,1	12.276	8,7	11.210	9,7	11.883	9,2	11.887	8,6	11.464	8,5	11.254	3,1	346
Udaldebietako Irtenbidea, guz. p.	**78.660**	**55,7**	**77.710**	**55,2**	**64.122**	**55,8**	**70.320**	**54,3**	**75.084**	**54,1**	**73.330**	**54,2**	**74.208**	**7,0**	**5.190**
N-634 (Burtzeña) – Arrontegi	9.156	6,5	9.200	6,5	7.360	6,4	8.526	6,5	8.975	6,5	8.770	6,5	9.491	4,7	450
N-634 (Burtzeña) – Barakaldo	2.912	2,1	2.774	2,0	2.218	1,9	2.572	2,0	2.421	1,7	2.398	1,8	2.554	2,9	73
N-634 (Burtzeña)	**12.068**	**8,6**	**11.974**	**8,5**	**9.278**	**8,3**	**11.098**	**8,5**	**11.396**	**8,2**	**11.168**	**8,3**	**12.045**	**4,3**	**523**
GURUTZETAKO BIDE-ALDAGUNEA, GUZTIRA	**141.110**	**100,0**	**140.702**	**100,0**	**114.988**	**100,0**	**129.588**	**100,0**	**138.808**	**100,0**	**135.813**	**100,0**	**137.319**	**5,7**	**7.844**

Metropoliko 1. eraztuneko birbanaketari eragin dioten azken urteetan egindako obrei dagokienez, jarduketa hauek aipa daitezke, besteak beste:

a) Txorierriko igarobidearekin zuzenean lotutako jarduketak:

— 2005. urtean, galtzada handitzeko obra hauek egin ziren, Txorierriko igarobidearekin lotuta.

- Edukiera handitzea (2 erreitatik 3ra) N-637 (gaur egungo BI-30) eta BI-637 tarteetan: Asuako lotunea – Enekuri BI-604 – Kukularra lotunea – Erandio Landa lotunea Getxorako noranzkoan.
- Asua/Enekuri lotunearen eta Larrondo lotunearen artean edukiera handitzea (2 erreitik 3 erreira) Larrondo – Asua/Enekuri—Artxandako tunelak norabidean.

— 2006. urtean, Txorierri AP-8 errepidearekin lotu zen Erletxen, Bilborako norabidean.

— 2007tik 2010era, galtzadako 3 errei izateko handitze-obrak egin ziren:

- Artxandako tunelak – Derio tartean edukiera handitzea (2 erreitik 3 erreira).
- Derio – Larrondo tartean edukiera handitzea (2 erreitik 3 erreira).

— 2017. urtean 2 erreietara handitu zen Derioko lotunean (BI30/N-637) Mungiarantz irteteko adarra.

— 2019. urtean Kukularra lotuneko Arrontegi - Txorierri adarra 1etik 2 erreietara gehitu zen, eta La Avanzada - Txorierri adarra handitzeko obrak hasi ziren. Gauza bera egin zen BI-30 errepideko (N-637) eskuineko galtzadarekin Kukularra eta BI-11 errepideko (BI-604) Asua - Enekuriko lotunearen artean.

— 2023. urtean “Gurutzeta-Arrontegi tartean metropoliko bideen nodoetan auto-ilarak murrizteko eta Europa barneko sarearekin konektatzeko eraikuntza-proiektua” zerbitzua ematen hasi da, lehen azaldu den bezala.

b) Hegoaldeko irtenbidearekin lotutako jarduerak:

— 2011ko irailaren 10ean, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbideko Santurtzi-Peñascal/Larraskitu tartea martxan jarri zen. Lehen faseko zati bat zen. Jarduketa horrek, BI-10etik 3,5 t-tik gorako zama garraiatzen duten kamioiak Kastrexana eta Larraskitu/Ekialdeko saihesbideko lotunearen arten ibiltzeko debekuarekin batera, bultzada berria eman zion Hegoaldeko irtenbidea (A-8) hiri barruko bide bihurtzeko prozesuari, errepidea martxan jarri zenetik bertatik igaro den pasoko trafikoan gertatutako murrizteak (batik bat, ibilgailu astunena) agerian jartzen duen bezala.

— 2013ko maiatzean, San Mameserako sarbide berria inauguratu zen, Sabino Aranako aurrekoaren ordez, Hegoaldeko irtenbidea eta hirigune barruko bere ingurunea urbanizatzeko prozesu horren baitan.

— Era berean, Bilbora Santander-Zabalburu noranzkoan sartzeko adarra, Juan de Garai lotunekoa, berriz abian jarri zen, eta horrela lortu zen Bilbora sartzeko mugimendu horien banaketa orekatuagoa izatea Hegoaldeko irtenbidearekin konektatzen duten hiru sarbideen artean: alegia, San Mames, Juan de Garai eta Miribilla/Miraflores (Ekialdeko saihesbidea); horrela, Ekialdeko saihesbidera eta Miribilla auzora sartzeko erreietako pilaketak murriztu ziren

— 2023ko apirilean, Peñascal-Beteluri/AP-68 tartea abian jarri zen, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen proiektua 1. fasean osatzeko (AP-8). Larraskitu eta Buiaren arteko trafikoa (AP-68) arindu da, eta Kantabria/Portua/Ezkerraldea eta Kadaguaren nahiz AP-68/Arrigorriagaren arteko zuzeneko erlazioak sustatu dira.

TRAFIKOA INGURABIDEETAN ETA BILBORAKO SARBIDEETAN ETA AZTERTUTAKO BIDEGURUTZEETAN



AZTERTUTAKO LOTUNEAK ETA BIDEGURUTZEAK
E.B.B.I. (Ibilgailu astunak)

1. PUNTUA BUIA KONEXIOA (A-8/A-68)



2. PUNTUA EKIALDEKO SAIH./HEGOALDEKO IRT.



3. PUNTUA JUAN DE GARAIKO LOTUNEA/HEGOALDEKO IRT.



4. PUNTUA SANTIMAMIKO LOT./HEGOALDEKO IRT.



5. PUNTUA KASTREXANAKO LOT./HEGOALDEKO IRT.



6. ETA 7. PUNTUAK GURUTZETAKO LOT ETA BARAKALDO/LUTXANAKO LOT.



8. PUNTUA ASUA ERANDIO/LUTXANAKO LOTUNEA



9. PUNTUA KUKULARRAKO LOTUNEA (RONTEGIKO IRTENBIDEA)



AZTERTUTAKO LOTUNEAK ETA BIDEGURUTZEAK JARRAIPENA
E.B.B.I. (Ibilgailu astunak)

PUNTO 10 ENLACE ENEKURI / TXORIERRI



PUNTO 11 ENLACE TÚNELES DE ARTXANDA



PUNTO 12 ENLACE LARRONDO / TXORIERRI



PUNTO 13 DERIO / TXORIERRI



PUNTO 14 ENLACE DE GALBARRIATU



PUNTO 15 STO. DOMINGO / ARTXANDA



AZTERTUTAKO LOTUNEAK ETA BIDEGURUTZEAK JARRAIPENA
E.B.B.I. (Ibilgailu astunak)

16. PUNTUA ORUETAKO LOTUNEA



17. PUNTUA OTXARKOAGAKO LOTUNEA



18. PUNTUA TXURDINAGAKO LOTUNEA



19. PUNTUA IBARSUSI



20. PUNTUA BOLUETA



21. PUNTUA MIRAFLORESKO BIRIBILGUNEA



A/5.3. BILBOKO METROPOLIKO EREMUKO EDUKIERA HANDIKO GAINERAKO BIDE-TARTEETAN TRAFIKOA

Hauek dira aurreko atalean lehen aipatutako eraztunarekin konektatzen duten Bilboko Metropoliko Eremuko edukiera handiko gainerako tarteak:

— **Mendebaldetik:**

- Ugaldebietako irtenbidea (A-8) – Barakaldo (Gurutzeta) – Santander, itsasadarreko ezkerraldetik.
- Uribe Kosta/La Avanzada(BI-637): Getxo(Kurtxe) – Artatza – Kukularrako L. (N-637), itsasadarreko eskuinaldetik.
- Ballontiko ardatza (BI-628): metropoliko hiri-bidea itsasadarraren ezkerreko ertzean, Nocedaletik (Ortuella) El Carmeneraino (Sestao/Barakaldo).

— **Hegoaldetik:**

- AP-8 (bidesaria): Metropoliko Hegoko Saihesbidea (MHS).
- Kadaguako autobia (BI-636).

— **Hego-ekialdetik:**

- A-68 (bidesaria): Arrigorriaga-Buiako L. (Hegoko Irtenbidea).
- Hegoko Irtenbidea (A-8): Basauri L.-Malmasineko tunela – Ek. Saih. L.
- BI-625: Arrigorriaga lotunea – Basauri lotunea (gaur egun, errepide arrunta).

— **Ekialdetik:**

- A-8/AP-8 (bidesaria): Basauri L.– Erletxe L. – L.T.H. (Gipuzkoa).

— **Ipar-ekialdetik:**

- Txorierriko gainerakoa (N-637): Derio L. – Erletxe L. (A-8), 2003ko abenduaren 1etik martxan.
- N-633: N-634ko Derioko L. – Aireportua.

A/5.3.1. TRAFIKOAREN BANAKETA UGALDEBIETAKO IRTENBIDEAN ETA AVANZADA ERREPIDEAN. ITSASADARREKO BI ERTZEN ARTEAN AURREIKUSITAKO KONEXIOAK

a) Ugaldebietako Irtenbidea. A-8 (Gurutzeta – LHM Santander)

Autobideko zati hori A-8 errepideko[16] zati bat da. Ibilbidea Gurutzeta lotunean hasten da (non Hegoaldeko irtenbidearekin eta Arrontegiko irtenbidearekin konektatzen den), eta Santanderrerako norabidea hartzen du itsasadarraren ezkerreko ertzetik, N-634 errepidearekiko paraleloan dagoen trazatu batetik barrena. 16,8 km-ko ibilbidean, Sestao, Trapagaran, Portugalete, Santurtzi, Santurtziko Portua, San Fuentes/El Casal eta La Arena/Muskiz lotuneak daude. 2011ko irailean, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen zati bat martxan jarri zen, A-8 autobidearen tarte nagusiari atxikitako trazatu bati jarraitzen diona, Santurtziko portuko mendebaldetik Trapagarango lotune berriraino, 4,2 km-ko ibilbide batean. A-8 autobidearekin konektatzen da Santurtziko eta Trapagarango lotuneetan, eta ondoren, trazatu berriko ibilbide batetik jarraitzen du A-8 autobidearen hegoaldetik barrena, aurrerago ikusiko dugun bezala.

A-8ko ardatz nagusiko trafikoa, MHSkoa barne hartu gabe, aldatu egiten da 2024aren aldean: 127.225 ibilgailu egunean (% 5,3 astunak) Gurutzeta c Sestao tartean, eta 48.243 ibilgailu egunean (% 8,9 astunak) Kantabriarekin muga egiten duen tartean; batez besteko EBBI haztatua eguneko 76.348 ibilgailukoa da ibilbide osoan, eta % 6,1ekoa astunetan. 2024an, batez besteko trafiko haztatuak behera egin du 2023koaren aldean (% 2,2; horrek esan nahi du urteko batez besteko hazkuntza-tasa –% 0,3koa izan dela 2019-2024 aldian.

Aipatu korridoreko zatian (Portua lotunea – Trapagaran lotunea – Gorostiza/Gurutzeta) Metropoliko Hegoaldeko Saihesbideko batez besteko trafiko haztatua erreferentziatzat hartuta, 7,8 km-ko luzera onartuta (haztapena egiteko), egunean 13.016 ibilgailukoa izan da, eta horietatik 3.581 ibilgailu astunak izan dira (% 27,5). 2023. urtearekin erkatuz gero, MHSa % 10,4 hazi da adierazitako tartean ibilgailu guztietan eta % 20,0 astunetan. 2019. urteko datuekin erkatzen baditugu, 2024. urtean batez besteko trafiko haztatua txikiagoa da BI-10/A-8 tartean (–% 0,3) eta handiagoa MHSan (+% 2,4)[17].

Adierazi behar da 2023. urtean MHSko Peñascal-Beteluri tartea zerbitzua ematen hasi zela, eta AP-68 (Arrigorriaga/Araba) autobidearekin Kantabriaren/Ezkerraldearen eta Kadaguaren erlazioak sustatu zituela.

Atxikitako grafikoetan, tarte nagusiko trafikoak ikus daitezke, bai eta aztertutako zazpi lotunetako bakoitzaren norabide-fluxuak, 2024. urtea erreferentziatzat hartuta.

Aztertzen ari garen A-8 autobidearen ardatzari dagokionez (Gurutzeta-Kantabria lurralde historikoa), aipatu behar da 2005.urtearen amaieran norabide bakarreko hiru adar gehitu zirela Santurtziko portuko lotunean: bi Barpaldako biribilgunetik (Ballonti Ardatza izango denaren hasiera Portugalete/Sestao norabidean) portura sartzeko eta Santanderrera joateko adarrerantz, eta, hirugarrena, Santanderretik ateratzeko adarretik Egirle-

(16) Gurutzetako L. – Trapaga L. azpitartea gaur egun BI-10aren barruan dago (Bilboko Saihesbidea Hegoaldetik (Larraskitu L. – Trapaga L.).

(17) Ikus A/3 korridorea A/3.3 atalean.

tako biribilguneraino; han, Balpardatik Nocedalera (N-634) doan Bi-638[18] errepideko tarte berrian banatzen da, Egirletatik igarota. Egirletari dagokionez, hura handitzeko eta berregituratzeko obra handiak egin ziren, zeinei esker Gallartako industriagune garrantzitsurako sarbidea hobetu eta N-634 errepideko trafikoa arindu zen.

2007. urtean, Ballonti ardatzeko Portugalete-Markonzaga-Kueto tartea jarri zen martxan, eta ibilbidearen barruan, Portugalete/BI-3749 biribilguneaz gain, lotune berriak sartu zituen: Rivasko lotunea (Nervaceroko portuaren bidegurutzea), Galindoko biribilgunea (BI-3747, Markonzagako lotunea (BI-3746) eta Kuetoko biribilgunea (BI-644).

2011ko irailean, esan den bezala, A-8 autobidea eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea Galindoko biribilgunearen bidez Ballonti ardatzarekin lotzen duen Trapagarango lotunea jarri zen martxan. Hala, itsasadarraren ezkerreko ertza -Sestao, Portugalete eta Barakaldoko industria-eremuei batez ere eragiten diena- edukiera handiko bide garrantzitsu horiekin lotzen zuen sarbide berri bat sortu zen. Era berean, konexio zuzeneko bide bat eraiki zen (2+2 errei), A-8 autobidearen paraleloan, Trapagaran, Portugalete eta Santurtziko lotuneen artean, erdiko galtzada (3 errei) Bilbo-Santander norabidean mantenduz eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearekin batera erabiliz.

(18) Nocedalen eta Egirletako biribilgunearen artean BI-3971 zaharra mantentzen da.

TRAFIKOA LA AVANZADAN ETA UGALDEBIETAKO IRTENBIDEAN (KANTABRIA - GURUTZETA)

Guztizko ibilgailuak/egunean (% astunak)



UGALDEBIETAKO IRTENBIDEA. TRAFIKO DIREKZIONALAK LOTUNEETAN
EBBI (Ibil. astunak)

1. LOTUNEA: SESTAO



2. LOTUNEA: TRAPAGARAN



2. LOTUNEA bis: PORTUGALETE



3. LOTUNEA: SANTURTZI



4. LOTUNEA: SANTURTZI PORTUA



5. LOTUNEA: S. FUENTES



6. LOTUNEA: LA ARENA



b) BI-637 errepidea: Kukularra – Getxo – Sopelana

Gaitasun handiko errepide hori Arrontegiko irtenbideko BI-30 (N-637) Kukularra lotunearen eta Larrabasterraren (Sopelana hegoaldea) artean komunikatzeko bide-ardatza da. Uribe Kostako igarobideko herrigune garrantzitsuak (Berango, Sopelana, Urduliz eta Barrika) eta La Avanzada igarobideko herriguneak (Getxo eta Leioa) lotzen ditu Bilborekin eta iparraldeko ardatzarekin, Asua/Enekuri (BI-604) eta Txorierriko igarobidearen BI-30 (N-637) bidez. Halaber, Bilbo/Hegoaldeko irtenbidearekin eta Santander/Ugaldebietako irtenbidearekin ere lotzen ditu, Arrontegiko zubiaren eta Gurutzetako bide-aldagunearen bidez BI-30 (N-637).

BI-637 errepidea, guztira, 10,8 Km luze da (Mimenaga – Hegoaldeko Sopelako zati berria barne, 1,1 Km luzekoa), eta Erandioko lotunearen eta Artatzako biribilgunearen artean, gainera, zerbitzuko alboko bideak ditu, 3,9 km-koak, BI-739 errepide gisa katalogatuak. Galtzaden multzoak askotariko eraketa du errei kopuruaren aldetik, tarteen arabera:

— Kukularra – Erandio Landa (1,4 Km): 4+4 errei.
— Erandio Landa – Artatzako biribilg. (4,1 Km.): 2+2 errei eta 2+2 alboko bide (BI-738)
— Artatzako biribilgunea – Bolue – Kurtxe – Mimenaga – Sopelana H. (6,8 Km.): 2+2 errei

Errepide honetako batez besteko trafiko haztatua 2024an, 81.750 ibil/egun izan zen, eta % 3,0 astunak. Hori aldatu egiten da: Erandioko lotunea-Unibertsitatea/Astrabudua lotunea tartean 116.045 ibil. igarotzen dira, eta Mimenaga b.- Sopela hegoaldea tartean, 39.998 ibil.

TARTEAK	KM	2020	2021	2022	2023	2024	AST. %	Δ% 2023-2024	ALD% 2020-2024
KUKULARRA L. – ERANDIO/LANDA L.	1,3	86.930	100.760	106.909	106.181	106.870	3,1	0,6	5,3
ERANDIO/LANDA L.– UNIBERTSIT. L.	0,9	95.115	109.192	115.153	113.845	116.045	3,3	1,9	5,1
UNIBERTSITATE L. - LEIOA	1,9	91.785	104.851	112.897	112.476	113.848	3,1	1,2	5,5
LEIOA – ARTATZAKO B.	1,3	75.038	86.609	92.174	91.542	94.188	3,0	2,9	5,8
ARTATZAKO B. – BOLUE L.	1,4	58.867	68.022	72.443	71.624	74.235	2,9	3,6	6,0
BOLUE L. –KURTXE/MIMENAGAKO B.	2,9	41.752	48.245	51.540	51.344	52.704	2,7	2,6	6,0
MIMENAGAKO B. – HEGOKO SOPELA	1,1	34.318	38.840	39.362	39.787	39.998	1,8	0,5	3,9
GUZTIRA	**10,8**	**65.907**	**75.827**	**80.661**	**80.198**	**81.750**	**3,0**	**1,9**	**5,5**

Atxikitako ondoko grafikoetan, kontrolatutako zatian (tarte nagusia eta loturak) trafikoa nola eratuta dagoen azaltzen da, Leioako zeharbideari dagokion zatia izan ezik.

BI-637 autobiaren batez besteko trafikoa egonkor mantendu zen 2019ra arte, egunean 80.724 ibilgailurekin. 2020an, pandemiaren ondorioz, % 18,3 jaitsi zen (65.907 ibilgailu), baina 2021ean eta 2022an berriro hazi zen, 2022an aurreko mailak ia berdinduta (80.661 ibilgailu). 2023an pixka bat jaitsi zen eta 2024an % 1,9 igo zen (81.750 ibilgailu), 2019ko kopurua gaindituta.

A/5.3.1 b) grafikoa

TRAFIKOAREN ERAKETA BI-637 ERREPIDEAN (KUKULARRA-LEIOA-GETXO)



2024

ARTATZAKO BIRIBILGUNEA



TRAFIKOA ARTATZAKO BIRIBILGUNEAN
(ZIRKULAZIOKO BI NORANZKO)

ERLAZIOAK				Ibil/egun (astunak)	
1	LEIOA / BILBO	2	URIBE KOSTA	65.314	(1.899)
1	LEIOA / BILBO	3	NEGURI	12.584	(512)
1	LEIOA / BILBO	4	ERROMO	16.290	(452)
2	URIBE KOSTA	3	NEGURI	3.984	(145)
2	URIBE KOSTA	4	ERROMO	4.937	(104)
3	NEGURI	4	ERROMO	3.693	(184)

c) Bide horietan kalkulatutako trafikoa, Arrontegi zubiaren bitartez. Itsasadarreko bi ibarren artean aurreikusitako konexio berriak

Itsasadarraren mendebaldeko zatiko bi ertzen arteko lotura eraginkor bakarra (Bizkaiko Zubia izan ezik, egunean gutxi gorabehera 950 ibilgailu eramaten baititu ertz batetik bestera) Arrontegiko Zubia da (N-637), Avanzada (BI-637) eta Ugaldebietako irtenbidea (A-8) lotzen baititu Erandioko lotunearen eta Gurutzetako bide-aldagunearen artean. Zubi horretan (4+4 zirkulazioko errei) eguneko batez besteko trafikoa 2019an egunean 140.394 ibilgailukoa izan zen; % 6,7 ibilgailu astunak ziren 30 orduan erregistratutako intentsitatea orduko 7.815 ibilgailukoa izan zen zirkulazioko noranzko batean *(ikus **B/1.6.1. taula**)*, 2.314 ibil/h/er-en baliokidea[19], eta horrek E/F zerbitzu-maila duela esan nahi du, alegia, pilaketa-maila altua. E/F zerbitzu-mailak dituzten urteko orduak 198 izan ziren Bilbo – Getxo noranzkoan, eta 375 ordu Getxo-Bilbo noranzkoan. 2020. urtean, Arrontegiko Zubiko trafikoa 111.342 ibilgailura jaitsi zen eguneko (–% 20,7); 2021. urtean, % 16,3 hazi zen, eta 2022. urtean berriz ere % 7,5 egin zuen gora (139.210 ibilgailu egunean), pandemiaren aurreko urteko (2019) kopurua baino zertxobait txikiagoa (–% 0,8). 2023an, % 1,8 jaitsi zen egunean erregistratutako ibilgailuen kopurua, alegia, 136.720.

2024an trafikoa % 1,0 hazi da 2023. urtearekin alderatuta, eta egunean 138.071 ibilgailura iritsi da (% 5,8 astunak).

Itsasadarreko hesi fisikoa salbatzeko zeharkako komunikazio berriak ezartzeko premia nabarmena dagoenez, hainbat lotura-irtenbide aztertu dira (Lamiakoko ibai azpikoa eta Axpeko zubia, batez ere), eta azkenean erabaki da.

— Lamiakoko ibaipeko konexioa, Uribe Kosta/Avanzadako igarobidea (Artatzako biribilgunea) eta Ballontiko ardatza (Nervaceroko birib.) lotzen dituena. Horrek, lotura-sarearekin, A-8 autobidearekin eta (MHSrekin lotzea ahalbidetzen du.

Axpeko edo Lamiakoko lotuneak, Ballontiko ardatzarekin batera, egiazko “by-pass” bat eratuko du Ugaldegureneko (Avanzada) eta Ugaldebietako ardatzen (A-8) artean, Metropoliko eremuko mendebaldean edukiera handiko sarearen saretzea indartzen lagunduz. Horrez gainera, lehen adierazitako, trafiko-karga handiak modu zuzenagoa banatzea ahalbideratuko du, Arrontegiko zubian eta Ugaldebietako irtenbidea beraren Gurutzeta-Santurtzi tartean.

Ondoko **tauletan** (**A/5.3.1.1.**, **A/5.3.1.3.**) trafiko-matrizeak azaltzen dira, Ugaldebietako irtenbidearen, Arrontegiko irtenbidearen eta La Avanzada korridorearen lotuneen artean. Matrizeok tratamendu-programa bat erabiliz lortu dira, lotuneetako sarrerako eta irteerako trafikoak oinarri hartuta, baita bideko trafiko nagusiarekiko proportzionaltasun- eta koherentzia-irizpideak ere.

Gurutzetako banatzailean trafikoaren banaketa aztertzen badugu, 2024. urtea erreferentzia hartuta, ikus dezakegu Ugaldebietako irtenbidean egunean erregistratutako 127.225 ibilgailuetatik, Sestaoko eta Gurutzetako

(19) ibil/h/er = ibilgailu arinak, orduko eta erreiko (4 errei noranzko bakoitzean).

(BI-10) lotuneen artean: egunean 74.208 ibilgailu (% 58,3) Arrontegiko irtenbidetik doazela (bi zirkulazio-noranzkoetan) eta horietatik 24.150 ibilgailu Avanzadako korridorerantz doazela egunean edo handik datozela.

A/5.3.1.4. taulan, Ugaldebietako irtenbidearen eta Ugaldegurengo irtenbidearen (Avanzada) artean kalkulatutako erlazioak ageri dira. Ikus daitekeen bezala, lehen aipatutako eguneko 24.150 ibilgailutatik: egunean 13.233 ibilgailu Artatzako biribilgunearekin erlazioak dira, egunean 7.068 ibilgailu Leioa/Lamiakorekin, eta egunean 3.849 ibilgailu Unibertsitatea/Astrabuduarekin.

Era berean, Barakaldoko lotunearen (Arrontegiko irtenbidea) erlazioak Avanzadako korridorearekin egunean 8.496 ibilgailukoak dira. Horien artean, 4.655 ibilgailu egunean Artatzako biribilgunearekin egindako erlazioak dira, eta 2.486 ibilgailu egunean Leioa/Lamiakorekin egindakoak.

Unibertsitatea/Astrabuduarekiko erlazioak Arrontegiko irtenbidetik gertu daudelako baztertzen baditugu, egunean 27.443 ibilgailu inguruk zirkulatu ahal izango dute guztira Axpe edo Lamiako konexioa erabilita, bidesaririk gabe eraikitzen bada, Barakaldorekin eta Ugaldebieta irtenbidearekin dituzten erlazioetan, hots, Arrontegiko zubiko guztizko trafikoak % 1,0 egin du gora 2024an (138.071 ibilgailu egunean).

Bestalde, Avanzadatik Gurutzetatik Hegoaldeko irtenbiderako lotunearen bidez (bi zirkulazio-noranzkoetan) egunean erlazionatzen diren 23.952 ibilgailuetatik, aipatutako ibai-azpiko konexioa zerbitzuan jartzeak hobetu egingo lituzke erlazioak hauekin: Kadaguako lotunearekin (3.414 ibilgailu egunean) eta AP-68/Arrigorriagarekin (3.183 ibilgailu egunean)[20], MHSa autobidearekin zuzenean konektatu baita Betelurin. Hortaz, Lamiako azpi-ibaiak har dezakeen trafiko gehigarria, guztira egunean 6.597 ibilgailukoa litzateke[21].

Ondorioz, Arrontegiko zubian desbidera daitekeen trafikoa 34.040 ibilgailukoa da egunean, bi noranzkoetan, hau da, guztizko zirkulazioaren % 25,2 (138.071 ibilgailu egunean), eta Avanzada eta Uribe Kostako (Artxandako biribil.) korridoreen arteko erlazioak dira, honela banatuta:

LA AVANZADATIK BALIZKO DESBIDERATZEAREN ERLAZIOAK

	IBIL./EGUN	
	2023 urtea	2024 urtea
Ugaldebietako Irtenbidea/Ezkerraldea/AP-8 – Kantabria)	20.382	20.301
Barakaldoko Lotunea (Errontegiko irtenbidea)	7.428	7.142
Kadaguako Lotunea (Kastrexana) eta AP-8 (Arrigorriaga)	6.636	6.597
DESBIDERAG. GUZTIRA	**34.446**	**34.040**
ERRONTEGI ZUBI %	**% 25,2**	**% 24,6**

(20) Ikus hegoaldeko irtenbidearen trafiko-matrizea, azterlanaren **A/5.3.3 taula**.

(21) MHSko Peñascal-Beteluri tartea 2023ko apirilean zerbitzuan jarri da.

Aurreko urtearekin alderatuta, Arrontegiko zubitik etorkizuneko konexiora desbideratutako trafiko portzentuala 2024an baino % 1,2 txikiagoa izango litzateke.

INTERBIAK Foru Sozietate Publikoak egindako inkesta batean (2021eko azaroa) –bere kudeaketaren pean dauden bideen erabiltzaileei kontsultak egiteko ohiko programaren barruan, haien beharrak, eskaerak eta itxaropenak mugatzeko–, Bizkaian bizi diren 3.000 gidariren lagin bati egin zaio kontsulta telefonoz, eta Arrontegiko Zubirako hautabidea eraikitzeko premiarekin lotutako galderak sartu dira. Honako emaitza hauek lortu dira:

a) Inkestari erantzun dioten 10etik 4ren ustez, auto-pilaketarik handienak Arrontegiko Zubian eta La Avanzadako korridorean (Erandio – Getxo) izan dira.
b) Ekimen honen balorazioa oso handia da (8,2), eta, batez beste, hauek izan dira kontuan hartu beharrekoak: 0 “ez da batere beharrezkoa” eta 10 “guztiz beharrezkoa”.
c) 10 elkarrizketatutik 9k uste dute itsasadarraren azpiko errepide berriak Bizkaiko trafikoa arinduko duela, eta horietatik ia erdiak ohiko erabiltzaileak izango lirateke, eta % 84,2k uste dute positiboa dela proiektuak ibilgailu pribatuen eta garraio publikoaren baterako erabilera kontuan hartzea.

Hau da, Bizkaian bizi diren ibilgailu pribatuen gidariek oso harrera ona egin diote proiektuari.

A/5.3.1.1. taula

KALKULATUTAKO TRAFIKO-MATRIZEA UGALDEBIETAKO IRTENBIDEAN (A-8)

(Ibilgailu/eguneko bi zirkulazio-noranzkotan)

EREMUAK	GURUTZETA		SESTAO		PORTUGALETE		PORTUA		MHS		SAN FUENTES		LA ARENA		GUZTIRA	
	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK
SESTAO	43.386	(2.354)													**43.386**	**(2.354)**
TRAPAGARAN/ PORTUGALETE	23.128	(1.022)	5.629	(255)											**28.757**	**(1.277)**
SANTURTZI	17.226	(866)	4.968	(213)	1.630	(219)									**23.824**	**(1.298)**
PORTUA	8.516	(1.407)	2.263	(462)	1.159	(314)									**11.938**	**(2.183)**
SAN FUENTES	11.773	(326)	2.441	(200)	2.325	(173)	1.274	(424)	1.546	(296)					**19.359**	**(1.419)**
LA ARENA	6.092	(120)	1.281	(60)	1.017	(53)	409	(46)	626	(40)	213	(11)			**9.638**	**(330)**
SANTANDER	17.104	(624)	2.778	(327)	14.165	(326)	4.105	(864)	6.991	(1.655)	1.619	(122)	1.483	(372)	**48.245**	**(4.290)**
GUZTIRA	**127.225**	**(6.719)**	**19.360**	**(1.517)**	**20.296**	**(1.085)**	**5.788**	**(1.334)**	**9.163**	**(1.991)**	**1.832**	**(133)**	**1.483**	**(372)**	**185.147**	**(13.151)**

A/5.3.1.2. taula

KALKULATUTAKO TRAFIKO-MATRIZEA ERRONTEGIKO IRTENBIDEAN (BI-637)

(Ibil./eguneko zirkulazioaren bi noranzkoetan)

EREMUAK	HEGOKO IRTENB.		ZORROTZA		UGALDEBIETA I.		BARAKALDO		KUKULARRA		ERANDIO		GUZTIRA	
	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK
BARAKALDO	12.076	(385)	2.554	(73)	11.254	(346)							**25.884**	**(804)**
LUTXANA	5.435	(439)	1.746	(118)	7.346	(601)	5.062	(197)					**19.589**	**(1.355)**
KUKULARRA	9.222	(617)	2.971	(162)	30.908	(3.866)	12.776	(591)					**55.877**	**(5.236)**
ERANDIO	381	(40)	92	(8)	550	(27)	302	(16)	80	(3)			**1.405**	**(94)**
LA AVANZADA	23.952	(650)	4.682	(162)	24.150	(350)	8.496	(192)	44.185	(1.840)	10.584	(580)	**116.049**	**(3.774)**
GUZTIRA	**51.066**	**(2.131)**	**12.045**	**(523)**	**74.208**	**(5.190)**	**26.636**	**(996)**	**44.265**	**(1.843)**	**10.584**	**(580)**	**218.804**	**(11.263)**

A/5.3.1.3. taula

KALKULATUTAKO TRAFIKO-MATRIZEA AVANZADAKO IGAROBIDEAN

(Ibil./eguneko zirkulazioaren bi noranzkoetan)

EREMUAK	ERRONTEGI I.		ERANDIO		UNIBERTSITATEA		LEIOA		GUZTIRA	
	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK
UNIBERTSITATEA	16.810	(765)	1.775	(101)					**18.585**	**(866)**
LEIOA	30.865	(1.018)	3.872	(313)	7.426	(244)			**42.163**	**(1.575)**
ERROMO	9.676	(236)	753	(24)	1.406	(64)	3.596	(127)	**15.431**	**(451)**
NEGURI	7.735	(248)	595	(20)	1.091	(58)	2.663	(122)	**12.084**	**(448)**
URIBE KOSTA	40.378	(924)	3.589	(122)	7.149	(276)	15.230	(559)	**66.346**	**(1.881)**
GUZTIRA	**105.464**	**(3.191)**	**10.584**	**(580)**	**17.072**	**(642)**	**21.489**	**(808)**	**154.609**	**(5.221)**

A/5.3.1.4. taula

UGALDEBIETAKO IRTENBIDEAK AVANZADA IGAROBIDEAREKIN DITUEN GUTXI GORABEHERAKO ERLAZIOAK

(Ibil./eguneko zirkulazioaren bi noranzkoetan)

EREMUAK	UNIBERTSITATEA		LEIOA		ARTATZA BIRIB.		GUZTIRA	
	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK
SESTAO	902	(15)	1.656	(20)	3.101	(28)	**5.659**	**(63)**
PORTUGALETE	598	(8)	1.098	(11)	2.055	(15)	**3.751**	**(34)**
SANTURTZI	495	(8)	909	(11)	1.703	(15)	**3.108**	**(35)**
PORTUA	248	(14)	456	(19)	853	(26)	**1.557**	**(58)**
SAN FUENTES	402	(9)	739	(12)	1.384	(17)	**2.525**	**(38)**
LA ARENA	200	(2)	368	(3)	689	(4)	**1.257**	**(9)**
SANTANDER	1.003	(27)	1.842	(36)	3.448	(50)	**6.293**	**(114)**
GUZTIRA	**3.849**	**(84)**	**7.068**	**(112)**	**13.233**	**(154)**	**24.150**	**(350)**
BARAKALDO L.	**1.354**	**(46)**	**2.486**	**(61)**	**4.655**	**(85)**	**8.496**	**(192)**

A/5.3.2. TRAFIKOAREN BANAKETA AP-8 ORDAINTZEKO AUTOBIDEAN (BASAURI-ERMUA) ETA HEGOALDEKO IRTENBIDEAREKIN (BASAURI-GURUTZETA) DITUEN ERLAZIOAK

a) Trafikoaren banaketa AP-8ko autobidearen tarte nagusian

Kantaurialdeko autobidearen ekialdeko zatia erabiltzeko, hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoa zeharkatzen duena, Galdakaoko lotunearen eta Gipuzkoako LHMren (Ermua) arteko kanona ordaindu behar da. LHM horrek, guztira, 32,8 km-ko ibilbidea dauka, eta tartean Urgoiti, Erletxe, Zornotza, Durango eta Ermuko lotuneak ditu[22].

Bi ordainketa-sistema daude: irekia, Galdakao eta Iurreta (Durango) artean, eta itxia, Iurretaren eta Gipuzkoako LHMren artean. Sistema irekian kontrolatutako adarretako ibilgailuak Basauri-Erletxe eta lotune hauen arteko erlazioak dira, bi noranzkoetan[23]:

- Boroa M.
- Durango M.

Sistema itxian –bidaiaren jatorriaren kontrola egiten du–, bestalde, lotune eta bidesari-hesi hauek sartzen dira:

- Mendebaldeko hesia (Durangoko tarte nagusia)
- Durango Ekialdea
- Gerediaga
- Ermua

Aurreko urteekin alderatze aldera, trafikoari buruzko gure analisian gaur egungo A-8ko zatiak sartuko ditugu, alegia: Basauri–Irubide, eta Irubide–Galdakao eta Galdakao-Urgoiti, Basauriren eta Gipuzkoako LHMren arteko 36,1 km-ko luzera osoari eutsita.

A/5.3.2.a grafikoan, trafikoak autobidearen tarteetan zer-nolako banaketa izan duen ageri da, lotuneko adarretan izandako sarrera eta irteera mugimenduak.

2024. urtean, A-8/AP-8 autobidearen tarte osoan, guztira, egunean 38.348 ibilgailu erregistratu dira (% 10,9 ibilgailu astunak), eta kopurua desberdina da eremutik eremura; adibidez, Irubide-Galdakao tartean 60.005 ibilgailu igaro dira egunean, eta Ermuko lotunea-Gipuzkoako probintzia-muga tartean (36,2 km), berriz, 23.108 ibilgailu eguneko[24]. Bestalde, Durangoko hesi nagusiko trafikoa, Gipuzkoa eta Zornotza/Bilbo arteko

(22) 2015ean, Basauri eta Galdakaoren arteko AP-8ko tartea (3,3 km) bidesaria salbuetsi zen eta, hortaz, kanonaren eraginpeko luzera 36,1 kilometrokoa izatetik 32,8koa izatera pasa zen.

(23) 2008ko apiriletik aurrera, lotune horretako kanona ordaintzetik salbuetsi zen Urgoitiko mendebaldeko lotunean.

(24) Ikus **A/5.3.2.a taula**.

ibilbide luzeko trafikoa zehazten duena, egunean 28.782 ibilgailukoa izan da (horien % 11,7 ibilgailu astunak izan dira).

Kontuan hartuta 2023an batez besteko trafiko haztatua eguneko 38.351 ibilgailukoa izan zela (% 10,9 astunak), kontuan izandako tarte osoan (Basauri - Gipuzkoako lurralde historikoaren muga), 2024an, +% 1,1 izan da: arinak (+% 0,9), 33.847tik 34.162ra egunean, eta astunak (+% 2,4), 4.092tik 4.188ra egunean.

KONPARAZIOZKO AZTERKETA (2023-2024)

Tarteak	KM.	2023 urtea			2024 urtea			Δ% (2023-2024)		
		AR	AS	G	AR	AS	G	AR	AS	G
Basauri – Erletxe	7,71	43.176	4.537	47.713	43.263	4.679	47.942	0,2	3,1	0,5
Erletxe – Gipuzkoa L.H.M.	28,45	31.316	3.972	35.288	31.696	4.055	35.751	1,2	2,1	1,3
GUZTIRA	**36,16**	**33.847**	**4.092**	**37.939**	**34.162**	**4.188**	**38.351**	**0,9**	**2,4**	**1,1**

Ikus daitekeenez, 2024an, ibilgailu guztiei dagokienez, AP-8ko ordainpeko tarteak (Erletxe eta Gipuzkoako lurralde historikoaren mugaren artean) hazkunde handiagoa izan du tarte libreak (Basauri-Erletxe) baino (% 1,3 eta % 0,5, hurrenez hurren). Ibilgailu astunen kasuan, aldiz, Basauri-Erletxe tarteak hazkunde handiagoa izan du (% 1,5) Erletxe-Gipuzkoako lurralde historikoaren mugaren tartearen aldean (% 1,0). Tarte guztiak % 0,9 egin du gora ibilgailu arinekin eta % 2,4 astunekin. Ibilgailu guztiak aintzat hartuta, hazkuntza % 1,1ekoa izan da.

Bestalde *(ikus **A/5.4.2 atala**)*, 2024. urtean, korridoreko (A-8/AP-8 + N-634) trafiko osoa % 1,4 igo da: % 5,9 Basauri eta Erletxe artean, eta –% 0,1 Erletxe eta Gipuzkoako lurralde historikoaren mugaren artean. Autobideak erakarritako ibilgailuen ehunekoa % 74,2 izan da tarte librean eta % 72,2 bidesariaren tartean.

TRAFIKOAREN BANAKETA AP-8KO ENBORREAN, TARTEEN ETA IBILGAILU MOTAREN ARABERA

Urteko batez besteko eguneko ibilgailuak. 2023. urtea

Tarteak	Luzera	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztira		
					EBBI	Astunak	Astunen %
Basauri - Irubide	1,69	44.767	2.096	2.735	49.597	4.830	9,7
Irubide - Galdakao	1,63	54.445	2.406	3.154	60.005	5.560	9,3
Galdakao - Urgoiti	1,92	44.156	2.072	2.767	48.995	4.839	9,9
Urgoitu - Erletxe	2,47	34.256	1.613	2.155	38.025	3.768	9,9
BASAURI – ERLETXE GUZT. PARTZIALA	**7,71**	**43.294**	**2.001**	**2.646**	**47.940**	**4.646**	**9,7**
Erletxe - Boroa Mendebaldea	3,13	43.890	2.040	2.706	48.636	4.747	9,8
Boroa Mendebaldea-Boroa Ekialdea	1,14	32.618	1.433	2.199	36.250	3.632	10,0
Boroa Ekialdea - Amorebieta Ek.	2,56	33.626	1.480	2.275	37.381	3.755	10,0
Amorebieta Ek. - Durango	8,20	36.655	1.615	2.483	40.752	4.097	10,1
Durango - Gerediaga	3,50	33.833	1.657	2.936	38.426	4.593	12,0
Gerediaga - Ermua	7,50	23.360	1.249	2.488	27.098	3.737	13,8
Ermua - L.H.M. (Gipuzkoa)	2,42	19.373	1.135	2.600	23.108	3.735	16,2
ERLETXE - L.H.M. (GIPUZKOA) GUZTIZKO PARTZIALA	**28,45**	**31.695**	**1.510**	**2.544**	**35.749**	**4.055**	**11,3**
GUZTIRA	**36,16**	**34.168**	**1.615**	**2.566**	**38.348**	**4.181**	**10,9**



A/5.3.2 a) grafikoa

TRAFIKOAREN BANAKETA AP-8 AUTOBIDEAN. 2024 URTEA

Ibil. guztiak/egun (ibil. astunak/egun)



b) A-8/AP-8ren barne-matrizea (Basauri – L.M. Gipuzkoa): lotuneen arteko trafikoaren banaketa eta kontrolaren arabera banaketa

A/5.3.2 b) taulan, 2024ari dagokionez, matrize triangeluarraren forman (simetrikoa) kalkulatuta, jatorria/helmuga banaketa adierazten da; hain zuzen ere, AP-8 autobideak tarteka eta loturaka duen trafiko-eraketa adierazita dago, Bizkaiko tarteari dagokionez; bertan, jatorri/helmuga erlazio bakoitza aurkezteko, aintzat hartzen dira zirkulazioaren bi noranzkoak.

Ikusten denez, trafiko-matrizean eragina duen ibilgailu kopuru osoa 110.084 ibil./egun da; horietatik 23.108 ibil./egun (% 21,0) Gipuzkoako Lurralde Historikoarekiko erlazioak dira; gainerakoak, berriz, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruko erlazioak dira, eta horien zati garrantzitsua bidesaririk gabeko araubidean garatzen da.

Ibilgailuen kontrol motaren araberako sailkapena ezarriz gero, trafikoaren matrize osoaren banantzea hauxe izan da 2020. eta 2024. urteen artean:

AP-8A ERABILTZEN DUTEN IBILGAILUEN KOPURUAREN BILAKAERA, KONTROL MOTAREN ARABERA (IBIL./EGUNEKO)

a) IBIL. GUZTIAK

TRAFIKO MOTA	2020 URTEA		2021 URTEA		2022 URTEA		2023 URTEA		2024 URTEA	
	Ibil./eg.	(%)	Ibil./eg.	(%)	Ibil./eg.	(%)	Ibil./eg.	(%)	Ibil./eg.	(%)
Ordainketa-kontrol itxia	31.628	36,1	38.462	37,5	42.044	38,4	43.208	39,2	43.833	39,8
Ordainketa-kontrol irekia	19.317	22,1	22.416	21,8	23.522	21,5	23.941	21,7	24.357	22,1
Ordainketako guzt. par.	**50.945**	**58,2**	**60.878**	**59,3**	**65.566**	**59,9**	**67.149**	**60,9**	**68.190**	**61,9**
Ordaindu behar ez duten ibilg.	36.577	41,8	41.751	40,7	43.920	40,1	42.992	39,1	41.894	38,1
Ibilgailuak, guztira	**87.522**	**100,0**	**102.629**	**100,0**	**109.486**	**100,0**	**110.141**	**100,0**	**110.084**	**100,0**

b) IBIL. ASTUNAK

TRAFIKO MOTA	2020 URTEA		2021 URTEA		2022 URTEA		2023 URTEA		2024 URTEA	
	Ibil./eg.	(%)	Ibil./eg.	(%)	Ibil./eg.	(%)	Ibil./eg.	(%)	Ibil./eg.	(%)
Ordainketa-kontrol itxia	4.813	48,1	5.329	48,6	5.351	48,5	5.405	49,0	5.401	48,2
Ordainketa-kontrol irekia	1.450	14,5	1.585	14,5	1.624	14,7	1.714	15,5	1.834	16,4
Ordainketako guzt. par.	**6.263**	**62,6**	**6.914**	**63,1**	**6.975**	**63,2**	**7.119**	**64,5**	**7.235**	**64,6**
Ordaindu behar ez duten ibilg.	3.740	37,4	4.051	36,9	4.053	36,8	3.923	35,5	3.965	35,4
Ibilgailuak, guztira	**10.003**	**100,0**	**10.962**	**100,0**	**11.028**	**100,0**	**11.042**	**100,0**	**11.200**	**100,0**

Aurreko urteei eta 2012. urteari dagokienez, Gerediagako lotune berriaren eraikuntzak eragindako birbanaketara ikusi zen. Durangoko Ekialdeak Ermuarekin eta Gipuzkoarekin zituen erlazioak pixka bat murriztu ziren, Gerediaga Ekialdetik erlazio berriak sortu baitziren, aztertzen ari garen ordainketako kontrol itxiaren baitan. Gerediaga – Elorrio autobide berria abiatu ostean[25], Gerediagako lotunearekiko erlazioak 2016an % 36,5 igo ziren: 2015ean egunean 7.592 ibilgailu jasotzetik (872 astunak) egunean 10.361 hartzera (1.128 astunak) pasa zen.

2019an, guztira, 16.717 ibilgailu ibili ziren (1.758 astunak ziren) egunean Gerediaga lotuneko adarretatik; hots, 2016. urteaz gero, trafikoa % 61,4 areagotu zen, eta 2,2 aldiz gehitu zen 2015eko trafikoaren aldean –orduan N-636 autobia berria artean ez zegoen martxan–. 2020an, Gerediagako lotuneko adarretan eragindako trafikoa 13.970 ibil./egunekoa izan zen (1.758 astun); hau da, mantendu egin zen astunen trafikoa, eta arinena, berriz, % 18,4 jaitsi zen. 2021. urtean, Gerediagako lotunean trafiko osoa berriz ere 2019. urteko mailetara iritsi zen (16.759 ibil./egun eta +% 18,7). Gerediaga Mendebaldean asko igo ziren batez ere ibilgailu astunak. 2022. urtean ere % 6 gora egin zuen, nagusiki Mendebaldeko adarretan eta ibilgailu astunei zegokienez. Hala, trafiko osoa egunean 17.811 ibilgailukoa izan zen.

2024an, Gerediagan trafikoaren hazkuntza-tasa % 1,9koa izan da, eta lotune-adarretan eguneko 18.484 ibilgailura iritsi da. Mendebalderantz (Durango) ibilgailu arinen kopurua gehitu da, eta astunek egonkor eutsi diote.

Hurrengo piktogrametan A-8 – AP-8ko (Basauri - Ermua) trafiko–matrizeko bidaia guztien banaketa ageri da, ibilgailuen kontrol motaren arabera. Aipatu beharra dago kontrol irekiko trafikoak (% 22,1) Bilbok Zornotza eta Durangorekin dituen erlazioak direla eta kontrol itxikoak (% 39,8) Gipuzkoak eta Ermuak Gerediaga, Durango E., Zornotza eta Bilborekin dituenak. Halaber, ibilgailu libreak (% 38,1) hauei dagozkie: Basauri eta Txorierriko (M-ko Erletxe) lotuneen arteko tarteetatik zehar (7,7 km) egindako bidaiei. Bidaiok ondoren zerrendatzen diren lotune hauei eragiten diete: Irubide, Galdakao, Ekialdeko Urgoitia, Erletxeko Mendebaldea.

(25) 2016ko abuztuak 5.

2024. URTEA

GUZTIAK



Ibilgailu guztien bidaia guztira: 110.084 bidaiak/egun

ASTUNAK



Ibilgailu astunen bidaiak guztira: 11.200 bidaiak/egun

Jakina denez, Galdakaoko eta Urgoitiko Ekialdeko erdilotuneak 2007an zerbitzuan jarri izanak, baita Urgoitiko Ekialdeko erdilotunean kanona kendu izanak ere (2008ko apirilean), hazkunde garrantzitsua bultzatu du bidesaririk ordaindu behar ez duten ibilgailuen multzoan Basauri – Txorierri tartean. Ondorioz, Bizkaia zeharkatzen duen AP-8 autobideko ibilbidean (trafiko-matrizea), bidaia kopurua nabarmen areagotu egin da: 2006an 58.932 bidaia egiten ziren egunean; 2019an, aldiz, 111.135 bidaia egin ziren. Ordaindu beharrik ez duten bidaiei dagokienez, egunean 5.358 egiten ziren lehen –matrizeko bidaia guztiei dagokienez, % 9,1ekoa osatzen zuten–; orain, 44.280 bidaia izaten dira egunean (% 39,8).

2020an (covid-19aren pandemiako lehenengo urtea), Basauri-Gipuzkoa tarteko trafiko-matrizeko bidaien kopurua eguneko 87.522 ibilgailukoa izan zen (–% 21,2), eta doako bidaiak 36.577 ibil/egunekoa (–% 17,4); hau da, trafiko-matrizeko bidaia guztien % 41,8, hots, 2019koa baino pixka bat gehiago.

2021. urtean, guztira 102.629 ibilgailu ibili ziren, eta 2020. urteko datuen aldean hazkuntza % 17,3koa izan zen. 2022. urtean berriz ere % 6,7 egin zuen gora (109.486 ibilgailu egunean), hau da, 2019. urtean baino pixka bat gutxiago (–% 1,5; 111.135 ibilgailu egunean). 2023an, hazkuntza-tasa % 6,0koa izan zen, aurreko urtearekin konparatuta, eta 2019koa baino –% 0,9 txikiagoa.

2024. urtean, erlazioen matrizean dauden bidaia guztiei jarraikiz, lehen azaldu den bezala, egunean 110.084 ibilgailu dira, eta hazkuntza-tasa negatiboa –% 0,1ekoa da, 2023. urteko datuekin alderatuz gero. Bidesaririk gabeko ibilgailuak egunean 41.894 dira, hots, guztiaren % 38,1.

Ildo horretan esan behar da doako bidaia horiek Basauri eta Txorierriko konexioko 4 tarteetan soilik gertatzen direla, eta Irubideko, Galdakaoko, Urgoitiko eta Erletxeko lotuneei eragin dietela. Lotuneok gaur-gaurkoz ez dute kontrol-hesirik, eta guztira 7,71 km-ko luzera daukate, Basauri-Gipuzkoako lurralde historikoaren mugaren guztizko 36,61 km-ekin alderatuta.

A/5.3.2 b) taula

TRAFIKOAREN MATRIZEA URTEKO BATEZ BESTEKO EGUNEAN. (2024. URTEA) IBILG. GUZTIAK/EGUNEKO)

(Zirkulazioaren bi noranzkoetan)

JATORRIA/ HELMUGA	1 BASAURI		2 IRU-BIDE		3 GALDAKAO M.		4 URGOITI M.		5 URGOITI E.		6 TXORIERRI M.		7 TXORIERRI E.		8 BOROA M.		9 BOROA E.		10 AMOREBIETA M.		11 DURANGO M.		12 DURANGO E.		13 GEREDIAGA M.		14 GEREDIAGA E.		15 ERMUA M.		16 ERMUA E.		GUZTIRA	
	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A
1 BASAURI																																	-	-
2 IRU-BIDE																																	-	-
3 GALDAKAO	7.884	(640)	3.126	(232)																													11.010	(872)
4 URGOITI M.	15.350	(1.575)	3.620	(304)																													18.970	(1.879)
5 URGOITI E.																																	-	-
6 TXORIERRI M.	7.589	(774)	436	(51)					3.889	(389)																							11.914	(1.214)
7 ERLETXE E.																																	-	-
8 BOROA M.	8.095	(928)	1.131	(117)					140	(34)			3.021	(35)																			12.387	(1.114)
9 BOROA E.																																	-	-
10 AMOREBIETA E.																																	-	-
11 DURANGO M.	4.218	(226)	832	(55)					1.337	(93)			5.337	(322)			127	(9)	119	(15)													11.970	(720)
12 DURANGO E.																																	-	-
13 GEREDIAGA M.	2.503	(191)	511	(23)					990	(40)			2.148	(175)			169	(10)	1.142	(76)			7.444	(804)									14.907	(1.319)
14 GEREDIAGA E.																																	-	-
15 ERMUA M.	1.087	(53)	173	(16)					291	(27)			1.291	(77)			147	(17)	492	(28)			677	(36)			1.660	(93)					5.818	(347)
16 ERMUA E.																																	-	-
17 GIPUZKOA L.M.	2.871	(443)	579	(83)					1.354	(226)			10.728	(1.583)			688	(87)	1.618	(224)			1.525	(375)			1.917	(369)			1.828	(345)	23.108	(3.735)
GUZTIRA	49.597	(4.830)	10.408	(881)	-	-	-	-	8.001	(809)	-	-	22.525	(2.192)	-	-	1.131	(123)	3.371	(343)	-	-	9.646	1.215	-	-	3.577	(462)	-	-	1.828	(345)	110.084	(11.200)

Bidesaririk gabe

Kontrol irekia

Kontrol itxia

c) Erlazioak Hegoaldeko Soluzioaren (BI-10) bidez

Trafiko-matrize bat egin da, AP-8 autobideko tarteak (Galdakao – Ermua) Hegoaldeko Soluzioaren, Arrontegiko Soluzioaren eta Ugaldebietako Soluzioaren bitartez Bilboko mendebaldearekin eta hegoaldearekin dituen erlazioak jasotzen dituena; hau da, aurreko atalean egindako matrizeekin dituen erlazioak jasoz.

Matrize hori **A/5.3.2.c) taulan** dago. Ez du aintzat hartzen bidesaria duen autobideko erabiltzaileek Txorierriko korridorearen bidez (BI-30) Erletxeko konexioetatik egiten dituzten erlazioen xehakapena. Erlaziook iparraldeko ardatzarekin eginikoak dira (Erletxe-Derio-Bilbo Ip.-Getxo), eta halaber, aldizka Hegoaldeko Soluziotik eta Arrontegiko Soluziotik egin daitezkeen erlazioak ere badira, batez ere Barakaldorekin eta Ugaldebietako Soluzioarekin. Erlazio horiek Txorierriko matrizean hartzen dira aintzat. Matrizea **A/5.3.4. atalean** dago.

Ikusten denez, Irubide-Urgoiti tarteko eguneko 60.006 ibilgailu horietatik: eguneko 29.033 ibilgailu, hau da, % 48,4 bi lotune hauek osatutako korapilotik hurbil dauden eremuekiko erlazioak dira: Irubide (egunean 10.408 ibilgailu) eta Basauri (egunean 18.625 ibilgailu). Gainerakoak: egunean 30.973 ibilgailuk Malmasingo tunela zeharkatzen dute Hegoaldeko Soluziotik aipaturiko trafiko-matrize horretako eremuetara joateko[26].

Trafikoaren matrizea aztertuta ondorioztatzen denez, eguneko 31.836 ibilgailu horietatik:

— Eguneko 21.915 ibilgailuk AP-8 autobideak Bilborekin dituen erlazioetan parte hartzen dute, San Mames, Juan de Garai eta Ekialdeko Saihesbidearen sarbide-loturen bidez.
— Eguneko 1.046 ibilgailuk Kastrexanako loturarekiko erlazioetan gauzatzen dituzte (zati bat MHStik).
— Eguneko 8.012 ibilgailu Hego Soluziotik eta MHStik abiatzen dira Gurutzetako banatzailerantz, eta bertan, Ugaldebieta Soluziorantz (egunean 5.499 ibilgailu) edo Barakaldo/Gurutzetarantz (egunean 2.088 ibilgailu) jotzen dute, batez ere. Getxo, Erandio, Kukularra eta Lutxanarekiko erlazioak ia desagertu egin dira Hego Konponbideagatik, gehienbat Txorierriko korridoretik egiten baitira orain, 2003ko abenduan hori AP-8 autobidearekin lotu denetik.

HMSari dagokionez, esan behar da Larraskitun sartu eta irteten diren 7.146 ibilgailuetatik (1.632 astunak) 2.508 ibilgailuk (216 astunak) lotura dutela ekialdeko saihesbidearekin eta 4.638 ibilgailuk (1.416 astunak) Hegoaldeko Soluzioarekin (BI-10/A-8). Horietatik: 3.153 ibilgailu egunean (1.163 astun) AP-8 autobidea erabiltzen dute, bi noranzkoetan. Ondorioz, goian aipatutako erlazio batzuk (Kastrexana/Kadagua), Ugaldebieta H. eta Gurutzeta/Barakaldo, MHSaren bidez egiten dira, eta ez soilik Hegoaldeko Soluzioaren bidez, Hegoaldeko Soluzioaren trafiko-matrizeak dakarrenez (**A/5.3.3 taula**).

(26) Ikus **A/4.3.3 taula**.

A/5.3.2.c) taula

AP-8KO ETA BILBOKO METROPOLIKO EREMUAREKIKO TRAFIKO-MATRIZEA (GALDAKAO – ERMUA/GIPUZKOA) BASAURIKO LOTURAREN ETA HEGO IRTENBIDEAREN BIDEZ. 2024. URTEA.

EREMUAK	GALDAKAO		URGOITI		ERLETXE M.		AMOREBIETA		DURANGO		GEREDIAGA/DO		GUZTIRA	
	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A
LEIOA/GETXO (AVANZADA)														
ERANDIO L.-GOIKOA														
KUKULARRA/ENEKURI L.														
LUTXANA/ASUA L.	152	15	271	38									423	53
BARAKALDO L.	583	36	1.082	72									1.665	108
URUTZETA/ZORROTZA L.	108	12	191	23			57	16	39	3	30	2	425	56
UGALDEBIETA/SANTANDER IRT.	1.305	157	2.360	374			1.089	274	397	74	348	98	5.499	977
KASTREXANA L.	161	16	320	38			235	30	150	8	180	31	1.046	123
SAN MAMESEKO SARBIDEKO L.	1.043	57	1.924	123	701	37	1.531	81	880	26	1.235	70	7.314	394
JUAN DE GARAI L.	1.302	63	2.517	135	650	31	1.923	94	1.021	35	1.311	75	8.724	433
SAN ADRIAN L.(EK. SAIHESB.)	823	15	1.634	37	914	38	1.057	19	697	23	752	26	5.877	158
BASAURI/RUBIDE/A-68 L.	5.533	501	8.671	1.039	6.592	804	2.760	396	2.199	178	3.278	490	29.033	3.408
IRUBIDE-URGOITI M. GUZTIRA	**11.010**	**872**	**18.970**	**1.879**	**8.857**	**910**	**8.652**	**910**	**5.383**	**347**	**7.134**	**792**	**60.006**	**5.710**

A/5.3.3. TRAFIKOAREN BANAKETA HEGOALDEKO IRTENBIDEA (GURUTZETA—BASAURI). METROPOLIKO HEGOALDEKO SAIHESBIDERA DESBIDERA DAITEKEEN TRAFIKOA

Hegoaldeko irtenbidea Kantauriko autobideko tarte bati (BI-10/A-8) deitzen zaio; autobide-tarte horrek Ugaldebietako irtenbidea (A-8) eta Arrontegi (BI-30) lotzen ditu Barakaldoko Gurutzetako loturan Basauri/Irubideko loturekin, Malmasingo tunelaren bidez. 12,1 km-ko ibilbidea du, eta 2024. urteari dagokionez, trafikoan bolumen ezberdinak biltzen dira bertan: egunean 59.169 ibilgailu Basauriko loturaren eta A-68 (Malmasingo tunela) autobideko loturaren artean, eta 111.429 ibilgailu egunean Gurutzetako eta Kastrexanako loturen artean, eta EBBI haztatua egunean 88.757 ibilgailukoa dauka eta, ibilgailu astunak, berriz, % 4,0. *(Ikus **A/3 kapituluko** 1 korridorea)*[27].

2023an, EBBI haztatua egunean 89.643 ibilgailukoa izan zen; beraz, 2024an trafiko-aldakuntza –% 1,0ekoa izan da, eta 2019. urtearen aldean (92.985 ibilgailu egunean) apur bat jaitsi da (–% 0,9).

2008-2010 urteetan, Hegoaldeko irtenbidearen trafikoa zertxobait jaitsi zen krisi ekonomikoaren ondorioz. Hala ere, hainbat alderdik orekatu zuten, hein handi batean, hiri inguruko erlazioak areagotzeak, AP-8ko bidesaria kentzeak eta Galdakaoko erdilotunea irekitzeak.

2011., 2012. eta 2013. urteetan, Hegoaldeko irtenbideak trafiko-jaitsiera handiak erregistratu zituen, 2011n Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea (MHS) ireki zelako. 2019-2022 aldian, MHSak trafikoaren aldakuntza izan zuen COVID-19aren ondorioz. Hala bada, 2022an 12.795 ibilgailura iritsi zen egunean; 2019an (pandemia aurretik) erregistratutakoa baino kopuru txikiagoa da hori (–% 1,4).

2023. urtean, Peñascal eta Beteluriko lotunearen artean MHSko tarte berria zerbitzuan sartu zen. 3,6 km-ko luzera du, eta Peñascal hesiko trafikoa (14.479 ibilgailu egunean) lehen Larraskituko lotunera zuzenean joaten bazen, orduan lotune horren (% 57,5) eta Betelurikoaren (% 42,5) artean banatu zen, 2023ko batez besteko egun bat aintzat hartuta[28].

MHSaren batez besteko trafikoaren hazkundea 2024an, konfiguratutako bide-sistema berriaren tarteen eta luzeren arabera haztatua, % 7,8koa izan da ibilgailu guztiei dagokienez (2023an egunean 11.334 ibilgailu izatetik 2024an egunean 12.222 ibilgailu izatera igaro da) eta % 18,3koa astunen kasuan (egunean 2.896 ibilgailu izatetik egunean 3.426 ibilgailu izatera pasatu da). 2019. urteko datuekin erkatuz gero, kopuruak % 3,8 eta % 6,7 dira, hurrenez hurren *(ikus **A/5.3.7.g atala**)*.

Horrenbestez, azaldu behar da 2023an MHSaren 1. fasea osatzeko tarte berria abian jarri zenetik bide horrek askoz ibilgailu gehiago erakarri dituela eta BI-10 errepideko Larraskitu-Buia tartean (AP-68) trafikoa asko murriztu dela.

(27) Buia (AP-68)-Gurutzeta (9,2 km) tartea, Hegoaldeko irtenbidea izenekoa, egungo BI-10 (Bilboko Hegoaldeko Ingurabidea) tartearen zati da, eta gainera, Gurutzeta lotunea-Trapagaran lotunea/MHSa (3,1 km) tartea hartzen du, 12,3 km-ko luzerako Hegoaldeko Ingurabidea osatuz.

(28) 2023ko maiatzetik abendura bitartean, tarte berria abian egon zen, eta hona hemen banaketa: Larraskitu (% 45,8) eta Beteluri (% 54,2).

A/5.3.3. taulan, Hegoaldeko Soluzioko lotuneen artean dagoen trafikoaren barne-matrizearen kalkulua azaltzen da, baita Ugaldebietako Soluzioarekin, Avanzadarekin, Arrontegiko Soluzioarekin eta AP-8 bidesaridun autobidearekin dituen erlazioak ere, **A/5.3. kapitulu** honetan aztertutako edukiera handiko bideetako tarteen eta lotuneen artean aztertutako erlazio multzoa betetze aldera.

Era berean, eskema grafiko bat ere ageri da, Irubideko lotunearen, Basauriko lotunearen eta A-8 autobidearekin dagoen konexioaren (Malmasingo tunela) arteko tarteetako trafikoaren banaketarekin, Hegoaldeko Soluzioa (A-8) eta AP-8 autobidea konektatzen duten Basauriko lotunearen ingurunean dauden mugimenduak osatzeko.

A-8/BI-10 autobidearen hiri-inguruko tarte honek Bilbora sartzen den trafiko osoaren % 43,4 hartzen du Bilboko Hegoaldean (125.647 ibil./egun), 2024. urtea erreferentziatzat hartuz (guztira 289.627 ibilgailu). Gainera, Bilbo ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen pasoko trafiko nagusia hartzen du, hots, egunean Gurutzetatik A-68/Basaurira arteko ibilbidea egiten duten 27.775 ibilgailu (% 4,7 astunak), aurrerago ikusiko dugunez.

Atxikitako taulan, Gurutzetako lotunetik A-68 errepidera eta Basauri/Irubide korapilora doazen erlazioak jasotzen dira; hau da, Bilboko hirigunearekin konektatzen duten lotuneen gatibu ez den trafikoa beste bide alternatibo batetik desbideratu ahal izango da, eta oro har, Hegoaldeko Soluzio horretatik igarotzen den pasoko trafikoa da.

HEGOALDEKO IRTENBIDEKO PASOKO TRAFIKOA (ZIRKULAZIOKO BI NORANZKO)

JATORRIA/HELMUGA	AP-68		BASAURI L.		AP-8-IRUBIDE/ H.S.(*)		GUZTIRA	
AVANZADA (Leioa-Getxo)	3.402	(125)	4.583	(107)	-	-	7.985	(232)
ERRONTEGI I. (Gurutzeta-Erandio)	3.644	(413)	3.217	(52)	1.369	(41)	7.407	(477)
UGALDEBIETA I. (Gurutzeta-Santander)	4.571	(348)	4.202	(44)	3.871	(197)	12.383	(589)
PASOKO TRAFIKOA, GUZTIRA	**11.356**	**(886)**	**12.002**	**(203)**	**5.240**	**(238)**	**28.598**	**(1.327)**

(*) Ez ditu aintzat hartzen MHSko (Larraskitu) bidezko pasoko erlazioak. Erlaziook Hegoaldeko Irtenbidetik joango ez diren 2.803 ibilgailu dira guztira egunean (1.093 astun). *(ikus **A/ 5.3.8.a) taula**).*

Ikus daitekeenez, 2024an 28.598 ibilgailu igaro dira guztira egunean, eta horietatik 1.327 ibilgailu astunak dira (% 4,6). Beraz, % 3,5 jaitsi da —2023an egunean 29.634 ibilgailu izatetik, egunean 28.598 ibilgailu izatera pasatu da—, eta ibilgailu astunen harira, berriz, % 4,0 —1.382 ibilgailu astun izatetik 1.327 izatera igaro da—; izan ere, Ugaldebietako irtenbidea erabiltzen duten pasoko harremanek soilik erakusten dute MHSaren eskari potentziala.

Era berean, hau ohartarazi behar da: konparazio-azterketa egiteko, aurreko urteetako egitura bera duen aurreko taulan, ez da ageri pasoko trafikoaren jatorri/helmuga-puntu gisa Ekialdeko Saihesbidearen lotunea, Hegoaldeko irtenbideari dagokiona, non MHSari dagokion Larraskituko lotuneak zuzenean konektatzen duen. Hortaz, pasoko trafiko osagarri bat da, MHSaren ikuspuntutik, eta ez dago taula horretan jasota.

A/5.3.8. atalean, non MHSko trafikoa aztertzen den, A-8 autobideko korridorekoa izan daitekeen pasoko trafikoaren eta MHSaren erakartze-mailaren analisi zehatzagoa ageri da, 2024. urteari dagokionez.

A/5.3.3. grafikoa

A-8KO TRAFIKOAREN BANAKETA IRUBIDE – BASAURI – A-68 TARTEAN. 2024 URTEA



ERLAZIOAK A-8 AUTOBIDEAREKIN BASAURIKO LOTUNEAN		
A-8 (MALMASIN) - BI-625 (ARRIGORRIAGA)/BILBONDO	=	14.737 (700)
A-8 (MALMASIN) - BI-625 (IRUBIDE)	=	5.108 (144)
A-8 (MALMASIN) - BASAURI	=	8.449 (192)
A-8 (MALMASIN) - AP-8		30.972 (2.303)
GUZTIZKO PARTZIALA	=	59.169 (3.339)
GALDAKAO/S. SEBASTIAN (A-8) - BI-625 (ARRIGORRIAGA)	=	11.747 (2.042)
GALDAKAO/S. SEBASTIAN (A-8) - BASAURI	=	5.936 (485)
GALDAKAO/S. SEBASTIAN (A-8) - IRUBIDE	=	10.408 (881)
GUZTIZKO PARTZIALA	=	29.033 (3.408)

A/5.3.3. taula

HEGOKO IRTENBIDEKO TRAFIKO-MATRIZEA

EREMUAK	KASTREXANA L.		SAN MAMES L.		JUAN DE GARAI L.		EK. SAIHESBIDEKO L.		AP-68 ARRIGORRIAGA/ BURGOS		BASAURI L.		AP-8 IRUBIDE/ DONOSTIA		GUZTIRA	
	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A
LEIOA/GETXO (LA AVANZADA)	3.224	190	4.827	152	2.369	40	5.547	36	3.402	125	4.583	107			23.952	650
ERANDIO-GOIKOA L.	54	10	77	8	59	6	93	5	53	6	45	5			381	40
KUKULARRA/ENEKURI L.	1.980	312	1.354	61	1.336	29	2.180	22	1.002	177	1.370	16			9.222	617
LUTXANA/ASUA L.	1.186	168	1.090	79	752	24	1.106	9	454	134	560	11	287	14	5.435	439
BARAKALDO L.	2.046	141	2.295	87	1.126	25	2.973	18	1.312	67	1.242	20	1.082	27	12.076	385
GURUTZETA/ZORROTZA L.	1.787	53	1.372	45	1.221	13	1.828	6	823	29	845	34	298	14	8.174	194
UGALDEBIETA IRT./SANTANDER	10.029	610	14.964	363	6.890	71	9.371	58	4.310	348	4.202	44	3.871	197	53.637	1.691
KASTREXANA/KADAGUA L.			3.992	232	2.283	52	2.165	21	1.390	111	4.085	91	732	70	14.647	577
SAN MAMES L.					1.291	54	1.843	46	2.136	190	2.863	80	6.948	227	15.081	597
JUAN DE GARAI L.							3.026	17	3.039	51	3.282	51	8.724	433	18.071	552
SAN ADRIAN L. (EK. SAIHESB.)									2.950	372	5.262	192	5.877	158	14.089	722
LARRASKITU L. (MHS)											1.485	253	3.153	1.163	4.638	1.416
GUZTIRA	**20.306**	**1.484**	**29.971**	**1.027**	**17.327**	**314**	**30.132**	**238**	**20.871**	**1.610**	**29.824**	**904**	**30.972**	**2.303**	**179.403**	**7.880**

A/5.3.4. TRAFIKOA TXORIERRIKO KORRIDOREAN (BI-30)

a) Trafikoaren banaketa

Txorierriko korridorea, Bilboko Iparraldeko Saihesbidearen zati bat da, BI-30[29], Kukularrako lotunearen eta Erletxeko lotunearen artean, eta 17,3 km ditu guztira *(ikus **A/3.4. ataleko** 8 zenbakiko korridorea)*.

BI-30 errepidearen hasierako tartea Arrontegi Irtenbidetik abiatzen da, Gurutzetako bide-aldagunearen eta Kukularrako lotunearen artean, eta 2,8 kilometroko ibilbide osagarria dauka. Tarte hori jada aztertua dugu.

2003ko abenduan, Derio-Erletxe 9,5 km-ko tartea ireki zen, eta horrek eragin nabarmena izan zuen korridorean trafikoaren igoeran. 2004-2007 aldian, trafikoa urteko % 10 hazi zen batez beste. Dena den, 2008an hazkundea % 1,3koa baino ez zen izan —egunean 58,762 ibilgailu—. 2008tik aurrera, trafikoa pixkanaka jaitsi zen krisi ekonomikoarengatik, eta 2014an eguneko 57,335 ibilgailura iritsi zen; urteko batez besteko tasa –% 0,4 izan zen. 2015ean, trafikoak % 2,8 egin zuen gora, eta eguneko 58,912 ibilgailura heldu zen. 2012an, ibilgailu arinen trafikoak % 1,1 egin zuen behera, eta ibilgailu astunek, aldiz, % 9,4 egin zuten gora, horiek MHSra desbideratu zirelako eta Hegoaldeko irtenbidetik igarotzeko mugak jarri zitzaizkielako.

2015 eta 2019 artean, Txorierriko korridoreko trafikoak, ibilgailu guztien kasuan, % 2,9ko urteko hazkundea izan zuen batez beste, eta % 1,6koa ibilgailu astunenean; ekonomiak hobera egin izanaren isla da hori. MHSko trafikoak ere gora egin zuen urte horietan, eta Iparraldeko eta Hegoaldeko korridoreetan hazkunde paraleloa egon zen, birbanaketa berririk gabe.

Jarraian ageri den taulan, 17,3 km-ko Txorierri korridoreko (BI-30; tartea: Kukularra-Derio-Erletxe) batez besteko trafiko haztatuaren bilakaera jaso da, 2008az geroztik.

(29) Lehengo N-637

B.B. TRAFIKO HAZTATUA (IBIL./EGUN)				
URTEA	**GUZTIAK**	**ARINAK**	**ASTUNAK**	**Astunen %**
2008	58.762	53.003	5.759	9,8
2014	57.335	52.123	5.212	9,1
2015	58.912	53.139	5.773	9,8
2016	61.605	55.630	5.976	9,7
2017	63.542	57.467	6.100	9,6
2018	65.232	58.904	6.328	9,7
2019	65.930	59.701	6.149	9,3
2020	50.759	45.835	4.924	9,7
2021	59.029	53.633	5.369	9,1
2022	64.892	59.300	5.682	8,7
2023	65.692	60.210	5.482	8,3
2024	66.411	61.133	5.278	7,9
Δ % (2019-2020)	**-23,0**	**-23,2**	**-20,0**	**-**
Δ % (2020-2021)	**+16,3**	**+17,0**	**+9,6**	**-**
Δ % (2021-2022)	**+9,9**	**+10,6**	**+5,8**	**-**
Δ % (2022-2023)	**1,2**	**1,5**	**-3,5**	**-**
Δ % (2023-2024)	**1,1**	**1,5**	**-3,7**	**-**

Txorierriko korridorean, trafikoaren aldakuntza irregularra izan da 2019tik, pandemiaren ondorioak direla-eta. Batez besteko trafiko haztatua, guztira, % 16,3 hazi zen 2021ean, % 9,9 2022an, % 1,2 2023an eta % 1,1 2024an, trafikoaren eguneko 65.930 ibilgailuko batezbestekoarekin; 2019koa baino kopuru handiagoa da hori. Modu berean, azken bi urteetan trafiko astunak behera egin du, EOSaren 1. fasea (2023ko urtarrila) eta 2. fasea (2024ko uztaila) martxan jarri direlako.

Erkatze aldera, jarraian datorren taulan 2019-2024 aldian Ekialde-Mendebalde korridoreetako trafikoaren aldakuntza ageri da. Ildo horri eutsiz, Iparraldeko ardatza (Txorierri) eta Hegoaldeko ardatza (Hegoaldeko irtenbidea eta MHSa) alderatzen dira. Ikus daitekeenez, pandemiak Ekialde-Mendebalde korridoreetan trafiko osoa murriztea eragin du (2019ko datuak aintzat hartuta): –% 0,6 ibilgailu guztien kasuan eta –% 1,8 ibilgailu astunei dagokienez. Txorierriko korridorea izan da kaltetuena ibilgailu astunei erreparatzen badiegu (–% 3,0) eta MHSa (AP-8) ibilgailu guztien kasuan (–% 2,7). Hala ere, Txorierriko korridoreak 2019ko trafikoa gainditu du (+% 0,1 ibilgailu guztien kasuan).

EKIALDE – MENDEBALDE KORRIDOREAREN BILAKAERA 2019-2024 ALDIAN

URTEA	TXORIERRI: BI-30 (N-637)		HEGO S: BI-10 (A-8)		MHS (AP-8)		KORRIDOREAK, GUZTIRA, EK. ETA MEND.	
	GUZTIRA	ASTUNAK	GUZTIRA	ASTUNAK	GUZTIRA	ASTUNAK	GUZTIRA	ASTUNAK
2019	65.930	6.149	92.985	3.812	13.387	3.334	172.302	13.295
2020	50.759	4.924	74.378	3.198	9.731	2.978	134.868	11.100
2021	59.029	5.396	87.144	3.556	11.512	3.370	157.655	12.322
2022	64.982	5.682	92.153	3.793	12.370	3.410	169.505	12.885
2023	65.692	5.482	89.643	3.689	13.948	2.738	165.729	11.909
2024	66.411	5.278	88.757	3.524	11.683	3.320	166.851	12.122
Δ (2019-2020)	-23,0	-19,9	-20,0	-16,1	-27,3	-10,7	-21,7	-16,5
Δ (2020-2021)	+16,3	+9,6	+17,1	+11,2	+18,3	+13,2	+16,9	+11,0
Δ (2021-2022)	+9,9	+3,3	+5,8	+6,7	+7,5	+1,2	+7,5	+4,5
Δ (2022-2023)	+1,2	-3,5	-2,7	-2,7	-16,0	-19,7	-2,2	-7,6
Δ (2023-2024)	+1,1	-3,7	-1,0	-4,5	+12,4	+21,3	+0,7	+1,8
Δ (2019-2024)	+0,1	-3,0	-0,9	-1,6	-2,7	-0,1	-0,6	-1,8

Iparraldeko korridoreko multzoko (BI-30/BI-737) trafikoaren banaketa hurrengo **taulan eta grafikoan** (**A/5.3.4.a**) ageri da. Ikus daiteke Kukularra-Erletxe ibilbidean batez besteko trafiko haztatua 2019an eguneko 74.135 ibilgailukoa izatetik 2024an eguneko 74.258 ibilgailukoa izatera pasa dela, beraz, orokorrean aldi horretan % 0,2 igo da, honela banatuta: % 0,7 BI-30 errepideari dagokio (2019an egunean 65.930 ibilgailutik 2024ko 66.411ra) eta –% 4,4 BI-737 errepideari (eguneko 9.551tik 9.135 ibilgailura, hurrenez hurren).

BI-737 errepideko batez besteko trafiko haztatuak behera egin zuen pixkanaka 2007 eta 2015 artean. Ondoren, 2019ra arte, egonkortu egin zen; jaitsiera nabarmena izan zuen 2020an pandemiaren ondorioz, eta 2021etik aurrera berriz ere gora egiten hasi zen. Igoera neurritsuak izan zituen 2023ra arte.

A/5.3.4.a. taula

TRAFIKOAREN BANAKETA TXORIERRI KORRIDOREAN

Tarteak	Km	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Δ % Anual	
								2024-2023	2019-2024(*)
BI-30 (N-637)									
Kukularra – Derio	7,8	87.134	67.359	78.229	85.752	86.652	88.796	2,5	1,9
Derio – Erletxe	9,5	48.659	37.130	43.392	47.905	48.479	48.560	0,2	-0,2
Guzt. partziala	17,3	65.930	50.759	59.029	64.892	65.692	66.411	1,1	0,7
BI-737									
Erandio L. – Derio	6,4	7.599	5.860	6.468	7.097	6.866	7.422	8,1	-2,3
Derio – Erletxe	8,5	11.021	8.314	9.557	10.193	10.439	10.424	-0,1	-5,4
Guzt. partziala	14,9	9.551	7.260	8.230	8.863	8.904	9.135	2,6	-4,4
Korridorea, guzt.	**17,3**	**74.135**	**56.996**	**66.099**	**72.505**	**73.342**	**74.258**	**1,2**	**0,2**

(*) 2019. eta 2024. urteen arteko aldakuntza (ez da urteko tasa).

2010ean Artxandatik Deriorako tunelen tartea zabaldu zen, eta, hala, korridoreko zerbitzua hobetu. 2014tik 2019ra, Kukularra-Derio tartean trafikoa % 2,4 hazi zen urtean, eta Derio-Erletxe tartean, berriz, % 3,5. 2024an, BI-10 errepideko trafikoa % 0,7 igo zen 2019. urtearekin alderatuta, eta BI-737 errepidekoa, aldiz, % 4,4 jaitsi zen, korridore osoan % 0,2ko batezbestekoarekin.

Erantsitako eskema grafikoetan (**A/5.3.4.a grafikoa**), zirkulazioaren banaketa aurkezten da, korridorearen enborrean eta loturetan.

BI-30. Arrontegiko zubia eta Gurutzetako aldagunea (BI-10).

A/5.3.4.a. grafikoa

TRAFIKOAREN BANAKETA TXORIERRIKO KORRIDOREAN. 2024 URTEA



TXORIERRIKO KORRIDOREA. TRAFIKOA LOTUNEETAN ETA ENBORREAN
EBBI (Ibil. astunak)

1. KUKULARRAKO LOTUNEA



2. ENEKURI/TXORIERRIKO LOTUNEA



3. ARTXANDAKO TUNELAK LOTUNEA



4. LARRONDO/TXORIERRIKO LOTUNEA



5. DERIO / TXORIERRI



6. ZAMUDIOKO LOTUNEA



TXORIERRIKO KORRIDOREA. TRAFIKOA LOTUNEETAN ETA ENBORREAN JARRAIPENA EBBI (Ibil. astunak)

7. LEZAMAKO LOTUNEA



8. LARRABETZU HEGOALDEKO LOTUNEA



9. A-8 KONEXIOA (ERLETXE)



b) Trafiko-matrizea BI-30 errepidean

A/5.3.4.b taulan, BI-30 errepideko lotuneen arteko jatorri/helmuga barne-matrizea ageri da, 2024. urtea erreferentziatzat hartuta.

Ikus daitekeenez, BI-30 errepideari (N-637) Kukularrako lotunearen eta Larrabetzu Hegoaldea/A-8koaren artean eragiten dion joan-etorrien guztizko matrizeak bere baitan hartzen ditu eguneko 157.037 ibilgailu, eta horietatik 10.222 astunak (% 6,5). 2023. urteari dagokionez, bidaien matrizea (152.908 ibilgailu egunean) % 2,7 igo da, eta kopurua 2019. urtekoa (154.923 ibilgailu egunean) baino pixka bat handiagoa da (% 1,4).

Enekuri/Asua-Larrabetzu/A-8 tartera mugatzen bagara (hau da, Txorierriko korridorera), egunean 124.723 ibilgailu dira guztira, eta horietatik 8.133 ibilgailu astunak dira, egunean 32.314 ibilgailu kanpoko erlazioak baitira: hain zuzen, Kukularra eta Enekuri/Asua artean (egunean 31.203 ibilgailu), eta AP-8koak Larrabetzurekin (egunean 1.111 ibilgailu).

Matrize horretako erlazioak xehakatu dira, trafiko motaren arabera, banaketa honi jarraiki:

TRAFIKO MOTA	LOTUNEEN ARTEKO ERLAZIOAK	IBIL./EGUN (AST.)	%
PASOKO TRAFIKOA	Kukularra/Enekuri Larrabetzu heg./A-8rekin	25.059 (3.234)	20,1 (39,8)
MEND. SARTZEN DIRA	Kukularra/Enekuri Artxanda–Lezama tartearekin	60.919 (2.420)	48,8 (29,7)
EKIALD. SARTZEN DIRA	Larrabetzu/A-8, Artxanda–Lezama tartearekin	23.664 (1.791)	19,0 (22,0)
BARRUKOA	Artxanda–Lezama tarteko barruko erlazioak	15.081 (688)	12,1 (8,5)
Txorierriko korridorea, guzt. partziala		**124.723 (8.133)**	**100,0 (100,0)**
KANPOKOA	Erlaz.:Kukularra Enekurirekin eta A-8 Larrabetzu	32.314 (2.089)	-
KUKULARRA – A-8 GUZTIRA		**157.037 (10.222)**	**-**

Ikus daitekeen bezala, egunean 25.059 ibilgailuk zeharkatzen dute osorik korridore osoa (pasoko trafikoa) eta bidaia guztien % 20,1 dira. Aztertutako muturreko lotuneetatik korridorera sartzen den trafikoa guztizkoaren % 66,6 da, eguneko 84.583 ibilgailu direlarik, eta ibilgailu horietatik egunean 60.919 ibilgailu (% 48,8) Kukularra/Enekurirekin egiten diren erlazioak dira, eta egunean beste 23.664 ibilgailu (% 19,0) Larrabetzu Hegoaldea/AP-8rekin egiten diren erlazioak. Azkenik, korridoreko barneko lotuneen arteko trafikoan egunean 15.081 ibilgailukoa da (% 12,1).

Mendebaldeko muturretik, pasoko trafikoko eguneko 25.059 ibilgailuetatik: eguneko 13.345 ibilgailu (% 53,2) Kukularra/Arrontegirekin egindako erlazioak dira; 7.509 ibilgailu (% 30,0) Kukularra/Avanzadarekin egindako erlazioak dira; eta gainerako 4.205 ibilgailuak (% 16,8) Enekuri/Asuarekin egindako erlazioak dira.

Ekialdetik: eguneko 6.781 ibilgailu (% 27,1) Larrabetzu Hegoaldeko lotunearekiko pasoko erlazioak dira, 14.812 ibil./egun (% 59,1) AP-8rekiko erlazioak dira Amorebieta/Donostia noranzkoan, eta 3.466 ibil (% 13,8) AP-8arekiko erlazioa Urgoiti/Bilborako norabidean.

Txorierriko korridorea funtsezko ardatz egituratzailea da metropoliko bide-sarean, eta sartze- eta zirkulazio-trafikoak nagusitzen dira barne-trafikoaren gainetik. Derioko lotunean, Derio/Mungiarako eta aireporturako adarrek mendebaldeko sartze-trafikoen % 53,6 eta ekialdekoen % 40,8 biltzen dituzte. Egunean 52.121 ibilgailu batzen dituzte bi noranzkoetan.

2017-2024 aldian N-637 ardatzeko trafiko-matrizeak Txorierriko korridorean izandako bidaien banaketa taula honetan jaso da.

BIDAIA-BANAKETAREN BILAKAERA TRAFIKO MOTAREN ARABERA

URTEAK	PASOKOA		M. SARTZEN DIRA		E. SARTZEN DIRA		BARRUKOA		GUZTIRA	
	Guztira	Astunak	Guztira	Astunak	Guztira	Astunak	Guztira	Astunak	Guztira	Astunak
2017	26.546	4.001	54.681	2.731	20.668	1.724	15.262	729	117.151	9.185
2018	26.853	4.251	56.121	2.703	21.561	1.669	15.889	698	120.424	9.321
2019	26.316	4.073	57.261	2.839	22.942	1.724	16.349	722	122.868	9.358
2020	20.077	3.314	44.906	2.042	17.527	1.451	12.037	484	94.597	7.291
2021	23.019	3.566	52.127	2.385	20.775	1.573	14.371	593	110.292	8.117
2022	25.672	3.517	57.939	2.729	22.815	1.755	15.997	790	122.423	8.791
2023	26.112	3.503	57.731	2.441	23.103	1.676	14.430	719	121.376	8.339
2024	25.059	3.234	60.919	2.420	23.664	1.791	15.081	688	124.723	8.133
Δ 2019-2020	**-% 23,7**	**-% 18,6**	**-% 21,6**	**-% 28,1**	**-% 23,6**	**-% 15,8**	**-% 26,4**	**-% 33,0**	**-% 22,7**	**-% 22,1**
Δ 2020-2021	**% 14,6**	**% 7,6**	**% 16,0**	**% 16,8**	**% 20,4**	**% 8,4**	**% 19,4**	**% 22,5**	**% 16,6**	**% 11,3**
Δ 2021-2022	**% 11,5**	**-% 1,4**	**% 11,1**	**% 14,4**	**% 9,8**	**% 11,6**	**% 11,3**	**% 33,2**	**% 11,0**	**% 8,3**
Δ 2022-2023	**% 1,7**	**-% 0,4**	**-% 0,4**	**-% 10,6**	**% 1,3**	**-% 4,5**	**-% 9,8**	**-% 9,0**	**-% 0,9**	**-% 5,1**
Δ 2023-2024	**-% 4,0**	**-% 7,7**	**% 5,5**	**-% 0,9**	**% 2,4**	**% 6,9**	**% 4,5**	**-% 4,3**	**% 2,8**	**-% 2,5**
Δ 2019-2024	**-% 1,0**	**-% 4,5**	**% 1,2**	**-% 3,1**	**% 0,6**	**% 0,8**	**-% 1,6**	**-% 1,0**	**% 0,3**	**-% 2,8**

2024. urtean, BI-30 errepideko korridorearen trafiko-matrizean parte hartu zuten bidaia guztiak egunean 124.723 izan dira, hau da, 2019an (122.868 bidaia egunean) baino gehiago (% 0,3). Dena den, ibilgailu astunek behera egin dute (–% 2,8), korridoreko batez besteko trafiko haztatua aztertu denean adierazitakoaren ildotik[30].

(30) 2019. urteko datuekin erkatuz gero, BI-30 errepidean, Kukularra eta Erletxe bitartean, batez besteko trafiko haztatuaren aldakuntza (trafikoaren matrizea bideko enborrari esleitu ostean) % 0,2koa izan da guztizko ibilgailuetarako *(ikus **A/5.3.4 kapitulu** honetako a atala)*.

A/5.3.4.b taula

TRAFIKO-MATRIZEA TXORIERRIKO IGAROBIDEAN. 2023. URTEA

EREMUAK	KUKULARRA (La Avanzada)		KUKULARRA (Arrontegi)		ASUA (Asua)		ASUA (Enekuri)		ARTXANDAKO TUNELAK		LARRONDO		DERIO (Derio)		DERIO (Egirleta)		ZAMUDIO		LEZAMA		LARRABETZU		GUZTIRA	
	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A	G	A
1. KUKULARRA (Avanzada)																								
2. KUKULARRA (Errontegi)																								
3. ASUA (Asua)			1.742	135																			1.742	135
4. ASUA (Enekuri)	14.992	577	14.469	1.303																			29.461	1.880
5. ARTXANDAKO TUNELAK	4.785	130	2.630	96	353	15																	7.768	241
6. LARRONDO	1.824	86	2.392	194			824	42	919	35													5.959	357
7. DERIO (Mungia)	10.261	239	13.682	695	1.054	16	7.672	73	4.565	138	2.177	60											39.411	1.221
8. DERIO (Egirleta)	3.033	68	5.312	143	373	15	985	28	443	19	402	21											10.548	294
9. ZAMUDIO	1.288	85	1.631	283	327	17	1.154	38	1.212	38	343	56	2.775	237	1.546	48							10.276	802
10. LEZAMA	516	23	618	123	42	3	163	8	157	3	65	10	290	19	187	4							2.038	193
11. LARRABETZU	2.199	254	2.501	781	569	19	1.512	60	1.515	35	429	79	2.403	180	948	22	1.090	108	1.632	157			14.798	1.695
12. A-8 (Donostia)	4.389	285	9.086	1.192	295	20	1.042	152	1.329	37	417	54	3.696	225	410	16	1.158	113	714	71	287	26	22.823	2.191
13. A-8 (Bilbo)	921	95	1.758	290	199	31	588	55	138	13	307	37	3.546	253	418	9	2.321	261	1.193	121	824	48	12.213	1.213
GUZTIRA	**44.208**	**1.842**	**55.821**	**5.235**	**3.212**	**136**	**13.940**	**456**	**10.278**	**318**	**4.140**	**317**	**12.710**	**914**	**3.509**	**99**	**4.569**	**482**	**3.539**	**349**	**1.111**	**74**	**157.037**	**10.222**

A/5.3.5. KADAGUAKO IGAROBIDEA: BILBOTIK BURGOSERA, BALMASEDATIK ZEHAR (BI-636)

Kadaguako igarobidearen errepide-tartea BI-636 errepideak osatzen du; errepide horren ibilbidea A-8an hasten da Basurtu/Kastrexanako lotunean eta Burgosko probintziaren mugan amaitzen da, Balmasedako udal-mugartearen barruan, betiere 30,5 kilometroko luzera izanik eta honako toki eta udalerrietatik igaroz: Kastrexanako Gainetik, Alonsotegitik, Sudupetik, Arangurenetik, Zallatik eta Balmasedatik.

2004. urtean hasita, errepide azkar hau handitzen, hobetzen eta egokitzen hasi zen, eta, gauzak horrela, 2007. urtean abian jarri ziren hurrengo bi jarduketa hauek:

— Autobiaren tarte honetako eraikuntza-lanak: Kastrexana – Arbuio (ibilbide berria).
— Honako tartea bitan banatzeko eraikuntza-lanak: Sodupe/Padura – Aranguren.

2008ko apirilean Arbuio – Sudupeko tartea osatu zen; horrela bada, BI-636 errepideak autobia baten ezaugarriak ditu A-8tik (Bilbo) Arangureneraino (Zalla).

2019an Bilbotik eta Sodupe Hegoaldera bitarteko batez besteko trafiko haztatua (12 km) 25.422 ibilgailukoa izan zen egunean BI-636 errepidean (BI-3651 errepidea aintzakotzat hartu barik); aitzitik, 2007. urtean[31] egunean 20.110 ibilgailukoa baino ez. Ondorioz, urteko batez besteko hazkuntza % 2,0koa izan zen, krisialdi ekonomikoa izan arren. Horrek esan nahi du Arbuio-Sudupeko tarteko autobia handitu izanak indukzio-eragin nabarmena izan zuela Kadaguako korridorean.

2020an, Bilbo eta Sodupeko Hegoaldearen arteko batez besteko zirkulazio haztatua –% 20,1 jaitsi zen 2019arekin erkatuta; 2021ean, % 17,0ko hazkundea izan zuen 2020ari dagokionez; 2022an, % 4,1 hazi zen; 2023an, batez besteko zirkulazio haztatua ia ez zen aldatu, egunean 24.799 ibilgailurekin; 2019an baino kopuru txikiagoa da hori (–% 2,5). 2024an, BI-636 errepideko autobia-tartean gora egin du batez besteko trafiko haztatuak, aurreko urteko datuak kontuan hartuta, eta kopurua (25.657 ibilgailu egunean) 2019. urtekoa baino handiagoa izan da (% 0,9).

KASTREXANA – SUDUPEKO TARTEKO TRAFIKOAREN BANAKETA

TARTEAK	KM.	IBIL./EGUNA						AST %
		2019	2020	2021	2022	2023	2024	
BILBO – KASTREXANA/AP-8 (MHS)	1,8	29.321	23.054	27.108	28.754	28.340	27.915	6,9
KASTREXANA – ALONSOTEGI	1,2	23.149	18.550	21.765	22.158	22.604	25.885	4,4
ALONSOTEGI – ARBUIO	2,9	25.465	20.403	23.374	24.309	24.697	26.125	4,7
ARBUIO – SODUPEKO IPARRALDEA	4,5	24.865	19.923	23.604	24.425	24.397	24.890	4,3
SUDUPEKO IP. – SUDUPEKO H.	1,6	24.229	19.413	22.999	23.798	23.774	24.255	4,1
	12,0	**25.422**	**20.303**	**23.759**	**24.736**	**24.799**	**25.657**	**4,8**

(31) Autobidea martxan jarri aurreko urtea.

2007 eta 2019 artean, BI-636ko eta haren korridoreko batez besteko trafikoa modu iraunkorrean igo zen, % 1,6tik % 1,8rako urteko hazkunde-tasekin. Dena den, 2020an % 20,5 inguruko beherakada izan zen 2019arekin alderatuta, eta, ondoren, susperraldi partziala 2021etik 2023ra, baina pandemiaren aurreko mailetara iritsi gabe.

2024an, % 4,5 hazi, eta, azkenean, 18.345 ibilgailuko trafikoa izan da egunean bide horretan, eta 19.372 ibilgailukoa egunean korridore osoan. Zifra horiek 2019. urtekoak (% 1,4) baino handiagoak izan dira[32].

A/5.3.5. grafikoa

KADAGUAKO IGAROBIDEA. TRAFIKOAREN BANAKETA IGAROBIDEAN: A-8 – SUDUPE TARTEA. 2024. URTEA



(32) Ikus 17 korridorea, **A/3 kapitulua**.

A/5.3.6. BALLONTIKO ARDATZA: PORTUGALETE – KUETO TARTEA

Ballontiko ardatza metropoliko bide gisa (2+2 errei) proiektatu da (BI-728/BI-628), itsasadarreko ezkerraldean dauden biztanle-guneetako errepide-sarea egituratzeko helburuarekin, Karmen ingurutik (Sestao eta Barakaldoren arteko muga) Nocedaleraino (Ortuella), betiere honako udalerri hauei lotutako trafikoak bideratuz: Barakaldo, Sestao, Trapagaran, Portugalete, Santurtzi, Ortuella eta Abanto. Ibilbide osoan aurreikusitako konexioak hurrengoak dira: Karmeneko biribilgunea (BI-3739), Kuetoko biribilgunea (BI-644), Markontzagako lotunea (BI-3746), Galindoko biribilgunea (BI-3747)[33] Rivasko lotunea (Nervacero), Portugaleteko lotunea (BI-3749/A-8), Balpardako biribilgunea (BI-3791/A-8), Egirletako biribilgunea (BI-3791) eta Nocedaleko lotunea (N-634).

2006. urtean abian jarri zen Nocedaletik Balpardarainoko tartea; gauzak horrela, tarte hori BI-3791 errepidearen saihesbideko autobia gisa eraiki zen, haren barnean Balbardako eta Santo Domingo-Egirletako biribilguneen eta Nocedal/N-634 errepideko lotunearen eraikuntza-lanak sartuz. Egirletako biribilguneko besoek A-8rekiko mugimenduak errazten dituzte Santanderrerako norabidea, bai eta Santurtziko Portuko loturarekikoak ere; lehenago ez zegoen halako konexiorik, eta Nocedal eta Santurtziko mugimenduak oztopatzen zituen Santanderrerako bi norabideetan.

2019an Nocedal – Balpardako errepide berri horren tarte nagusian erregistratutako trafikoa 11.211 ibil.-koa izan da egunean; % 6,7 ibil. astunak izan dira; aitzitik, 2005ean egunean 7.907 ibil. erregistratutako errepide zaharrean (BI-3791) 1.091 ibil. eguneko, 2019. urtean. Beraz, igarobidearen tarte horretako trafikoaren gehikuntza 4.395 ibil.koa izan da egunean, hots, 2005-2019 bitartean hazkundea urtean % 3,2koa izan da. Gallartako Nocedal/N-634 errepidearen inguruan kokatutako industrialde garrantzitsuak erlazio berri horiek sorrarazi ditu nagusiki.

Hurrengo taulan 2020-2024 aldian tarte honi dagokion trafikoaren bilakaera ageri da, autobia berria (B-728) eta errepide zaharra (BI-3791) aipatuz, Nocedal-Balparda korridorearen zati izaten jarraitzen baitu.

2024an, –% 4,1eko hazkunde negatiboa izan da BI-628 errepidean —egunean 12.645 ibilgailu izatetik 12.132 ibilgailu izatera igaro da—, eta –% 1,1ekoa BI-3791 errepidean. Ondorioz, Nocedal-Balparda tartean –% 3,8 murriztu da.

(33) Leku horretan A-8 autobiderako (Trapagarango lotunea) eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbiderako konexio zuzen bat eraiki zen, A´-8 autobideko Portugaleteko eta Sestaoko lotuneen artean.

NOCEDAL-BALPARDA TARTEAN TRAFIKOAREN BILAKAERA (2020-2024)

BIDEA	2020	2021		2022		2023		2024		AST.
	EBBI	EBBI	Δ%	EBBI	Δ%	EBBI	Δ%	EBBI	Δ%	
BI-629	9.169	10.257	11,9	11.399	11,1	12.645	10,9	12.132	-4,1	1.210
BI-3791	908	1.087	19,7	1.130	4,0	1.141	1,0	1.128	-1,1	76
GUZTIRA	**10.071**	**11.344**	**12,6**	**12.529**	**10,4**	**13.786**	**10,0**	**13.260**	**-3,8**	**1.286**

2007an ardatz horren tarte nagusia jarri zen abian, Portugalete, Markontzaga eta Kuetoren artean, baita BI-3739 – Karmeneko adarraren bikoizketa eta Sestaoko eta Barakaldoko bi ibarrak Bilboko Itsasadarreko Galindo ibaiaren bokalearen gainean lotzen dituen zubi berria ere.

Horrenbestez, Ballontiko Ardatza amaitzeko, Kuetoko biribilgunearen eta gaur egun BI-644 errepide barruan sartutako BI-3739 errepidearen arteko tartearen bikoizketa eta Portugalete eta Santurtzi (Balpardako biribilgunea) lotzeko tartea falta dira.

Ballontiko ardatzaren ondoko lurretan, Portugaleteko hirigunearen hegoaldean, eraikitako 52.500 m^2 eta aparkatzeko 2.400 plaza dituen Ballonti izeneko merkataritza-zentro berria jarri zen abian 2008ko maiatzean. Merkataritza-zentro hori duela gutxi egindako errepide berriarekin konektatzen da Ballontiko ardatzeko Galindoko biribilgunean.

Hauek izan dira 2020. eta 2024. urteen artean Ballontiko ardatzeko tarte berrietan erregistratu diren trafikoak:

TARTEAK	KM	IBIL./EGUN					
		2020	2021	2022	2023	2024	AST.
Portugalete birib. (BI-3749)–Nervacero birib	0,9	7.539	8.599	9.733	9.776	10.334	525
Nervacero birb. – Galindo birib.	0,4	13.612	14.996	16.632	17.939	18.460	1.241
Galindo birib. – Markonzaga L.	0,6	16.736	17.834	21.408	23.091	23.762	1.598
Markonzaga L. – Kueto birib. (BI-644)	0,7	15.870	16.610	19.319	20.579	20.265	1.203
	2,6	**10.954**	**13.871**	**16.069**	**17.013**	**17.357**	**1.065**

2021., 2022., 2023. eta 2024. urteetan Portugaleteko eta Kuetoko biribilguneen artean batez besteko trafiko haztatuaren aldakuntzek (+% 26,6, +% 15,8, +% 5,9 eta +% 2,0, hurrenez hurren) ekarri dute Ballontiko ardatzaren tarte horretan egunean 17.357 ibilgailu ibiltzea (egunean 1.065 ibilgailu astun).

Ballontiko ardatzeko Portugalete-Kueto tartea abian jartzearen ondorioak zertxobait igarri ziren 2006-2011 aldian A-8 autobidean. Portugaleteko lotunea-Sestaoko lotunea tartean trafikoak beherantz egin zuen (2006. urtean egunean 119.144 ibilgailuko trafikoa zegoen, eta 2019. urtean, aldiz, egunean 102.434 ibilgailuko trafikoa). Era berean, BI-644 errepidean Sestaoko lotunearen (A-8) eta Kuetoren artean beherakada nabarmena izan zen, 2006an Sestaoko lotunearen eta Aparcavisa/Megaparkeko biribilgunearen artean trafikoa egunean 68.953 ibilgailu izatetik, 2019an 54.485 izatera igarota. 2024an, tarte horietako trafikoak 100.174ra (% 1,7) eta 54.745ra (% 1,9) igo dira, hurrenez hurren.

MHS abian jarri zenean, konexio berri bat sortu zen A-8 autobideko Ballontiko Ardatzeko Galindoko biribilgunearen eta MHSaren artean, Trapagako lotunearen bidez. Halaber, konexio-bide berri bat sortu zen itsasadarraren ezkerraldean, A-8 autobideko Trapagarango, Portugaleteko eta Santurtziko lotuneen artean. Horrek berekin ekarri du A-8 autobidean, baita Ballontiko Ardatzean ere, trafikoa berriz nabarmen jaistea. 2015etik, trafiko-tasa ia ez da aldatu.

2019an, BI-728 errepidearen batez besteko trafiko haztatua, Portugaleteko eta Kuetoren arteko tartean, 15.882 ibil/egun izan zen, 2018. urtearekin alderatuta %1,2ko hazkunde-tasarekin, eta 2016. urtetik aurrera ikusitako joera positiboarekin jarraitu zuen, aurreko urteetan izandako beherakaden ondoren.

Horren ondorioz, Ballontiko ardatzak berak eragindako trafikoa sortuagatik ere, hura abian jarri denez gero, itsasadarreko Ezkerraldearekin, Portugalete eta Barakaldoren artean, zerikusia duen trafikoa modu orekatuagoan birbanatu da. Era berean, Trapagako lotune berriak, itsasadarraren ezkerraldeari MHSrako sarbidea errazteaz gain, birbanatzeko efektua indartu egin du.

A/5.3.6. grafikoa

BALLONTIKO ARDATZA: PORTUGALETE – KUETO TARTEA

TRAFIKOAREN BANAKETA



A/5.3.7. METROPOLIKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEA BETELURI (ARRIGORRIAGA) – SANTURTZI (AP-8/MHSA) TARTEA. TRAFIKOAREN BANAKETA 2023 URTEAN

a) Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen deskribapen laburra

2011ko irailaren 10ean, etorkizunean Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea (AP-8) izango zenaren 1. faseko zati bat abian jarri zen, A-8 autobiderako alternatiba gisa. Ekialdetik Mendebaldera ibilbidea Larraskitu/Peñascal lotunean hasten da (San Adrián/Miraflores lotunearen hedadura modura) eta Portuko (Santurtzi) lotunearen mendebaldean amaitzen da, gutxi gorabehera 15,5 km egin ondoren.

Abian dagoen zerbitzuaren bide berriaren zati nagusia Peñascaleko auzoan hasi zen eta A-8 autobidearen hegoaldetik trazatu berriko ibilbide bati jarraitzen dio, BI-636 errepidearekin Kadaguako lotunean konektatuz Alonsotegi/Kastrexana inguruan; abiapuntu horretatik mendebalderantz jarraitzen du A-8ra hurbilduz, harik eta ostera ere Trapagarango lotune berriarekin konektatzen den arte (Sestaoko eta Portugaleteko lotuneen artean). Puntu horretatik, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbideak A-8ko ardatz nagusiaren zati izaten jarraitzen du, Santurtziko lotunearekin (Santander -Donostiako noranzkoan) konektatuz eta ibilbidea Portuko lotunearen mendebaldean (Ugaldebieta, San Fuentes) amaituz.

Aipatu beharra dago, Trapagarango eta Saihesbidearen amaierako (Portuaren loturaren mendebaldea) loturen arteko ibilbidean, bidesaria duen autobide berriaren (AP-8) erabiltzaileek Santander—Donostia norabidean errail bereizia erabiltzen dutela (A-8aren bi galtzaden artean), baina kontrako norabidean, A-8ko erabiltzaileek erabiltzen dituzten errail berak erabiltzen dituztela. Bestalde, gaitasun handiko alboko-bidea eraiki da, bi norabideko zirkulazioarekin, itsasadarraren ezkerraldetik. Bideak Trapagaran, Portugalete eta Santurtziko loturak elkarrekin konektatzen ditu, Ballontiko ardatzeko (BI-728), A-8ko eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbide berriko (AP-8) konexio guztiak errazte aldera.

2023ko apirilean, Peñascal-Beteluri (Arrigorriaga) tartea zerbitzuan sartu zen. 3,6 km-ko luzera du, eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen (MHS) 1. fasea osatu da, beraz, autobideko ardatz nagusiak guztira 17,1 km-ko luzera du. gainera, Larraskitu-Peñascal 2 km-ko aurreko tartea adar bihurtu da. Hala, MHSaren ardatz-jatorria (ekialdetik) AP-68 (Beteluri) autobidearekin konexioa da. Zuzenean hartzen ditu Arrigorriagarekin/Arabarekin erlazioen sarrerak eta irteerak. Larraskituko adarra, ordea, A-8 autobidearekin konektatzen da, eta lehen ekialdetik sartzen zen trafiko guztiari erantzun zion. Orain zuzenean hartzen ditu Bilbo Ekialdearekin/Basaurirekin/Gipuzkoarekin erlazioak, eta Peñascalen elkartu/banatzen dira lehen aipatu diren trafikoekin (AP-68 autobidekoak).

Hauek dira MHSaren konexioek osatzen dituzten zati berriak eta horien luzera ardatz nagusian:

TARETAK	LUZERA (KM)
1. Beteluriko lot. (AP-68)-Peñascaleko lot.	3,55
2. Peñascaleko lot.-Kadaguako lot. (BI-636)	2,10
3. Kadaguako lot.–Trapagarango lot. (A-8/BI-10)	7,15
4. Trapagarango lot.–Santurtziko lot. (A-8)	2,25
5. Santurtziko lot.–Portuko mendebaldeko lot. (Ugaldebieta)	2,00
MHSa, GUZTIRA	**17,05**
LARRASKITU – PEÑASCAL ADARRA	**2,00**
MHSa + LARRASKITU TARTEAK, GUZTIRA	**19,05**

AP-68 autobidearekin egindako konexio-tarteari esker, azaldutakoaren bidetik, MHSaren lehenengo fasea osatu da, beraz, Kantabria, Itsasadarraren Ezkerralde eta Kadaguako erlazioei dagokienez, AP-68 autobidearekin zuzeneko konexioa egin daiteke Arabari, Erdiko Lautadari eta Ebroko ardatzari begira. Epe ertainera, aurreikusita dago aipatu saihesbidearen 2. fasea eraikitzea AP-68ren (Beteluri) eta AP-8ren (Kortederra) artean Zornotza Mendebaldean. Trazatu berriari beste 11 km gehituko dizkio, eta horrenbestez, etorkizunean, AP-8 autobideak jarraitutasun-erregimenean funtzionatuko du Bizkaiko lurralde historikoaren barruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugatik (Ermua) Portuko Mendebalderaino (Ugaldebieta).

b) Egindako barne matrizeak (2024. urtea) eta 2020-2024 aldian alderatzea

Interbiak Foru Sozietate Publikoak, Bizkaiko tartean AP-8 kudeatzeaz eta ustiatzeaz arduratzen denak, emandako datuak oinarri hartuta, 2024. urteko batez besteko egunari dagozkion trafiko-matrizeak egin dira eta **A/5.3.7.b.2. taulan** aurkezten dira. Aurretik zeuden konexioak eta lotuneak hartu dira erreferentzia zonaltzat.

Ikus daitekeen bezala, urteko batez besteko eguneko trafiko-matrizeari eragiten dion bidaien guztizkoa egunean 17.987 ibilgailukoa da (zirkulazioko bi noranzkotan), eta ibilgailu horietatik 4.922 ibilgailu astunak dira (% 27,4).

Hesien arteko erlazioak aztertzen baditugu, trafiko motaren arabera sailka ditzakegu. Hau izango litzateke sailkapen hori:

— Pasoko trafikoa Larraskituko eta Ugarteko hesien artean.
— Sartzen den trafikoa Kadaguako hesiaren eta Larraskitu eta Ugarteko hesien artean.

2024. urteko batez besteko egunari dagokionez, jatorri/helmuga-matrizeko bidaien banaketa, trafiko motaren arabera, hau izan da:

A/5.3.7.b.1. taula

METROPOLIKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEKO TRAFIKO-MATRIZEAREN BANAKETA, IBILGAILU MOTAREN ARABERA

TRAFIKO MOTA ETA ERLAZIOAK (*)	IBIL./EGUN			AST. %
	ARINAK	ASTUNAK	GUZTIRA	
PASOKO TRAFIKOA				
- Larraskitu - Ugarte	3.924	1.591	5.515	28,8
- Ugarte - Larraskitu	5.116	1.965	7.081	27,8
Pasoko trafikoa, guztira	**9.040**	**3.556**	**12.596**	**28,2**
SARTZEN DEN TRAFIKOA				
- Peñascal - Kadagua	1.192	513	1.705	30,1
- Kadagua - Peñascal	1.009	499	1.508	33,1
Peñascal – Kadagua azpiguztizkoa	**2.201**	**1.012**	**3.213**	**31,5**
- Kadagua - Ugarte	1.064	253	1.317	11,7
- Ugarte - Kadagua	760	101	861	11,7
Ugarte – Kadagua azpiguztizkoa	**1.824**	**354**	**2.178**	**11,7**
Guztira sartzen den trafikoa	**4.025**	**1.366**	**5.391**	**23,5**
GUZTIRA MATRIZEKO TRAFIKOA	**13.065**	**4.922**	**17.987**	**27,4**

(*) Peñascaleko Hesia= Larraskitu + Beteluri
Ugarteko hesia = Trapagaran + Santurtzi + Portua/Kantabria

Hau da, **guztizko pasoko trafikoa** (Kantabria/Ezkerraldea (Ugarte) Larraskitu/Beteluri/Peñascalekin dituzten erlazioak) 12.596 ibilgailukoa da egunean, eta horietatik 3.556 astunak dira. Peñascal hesiaren eta Portua/Kantabriaren arteko erlazioak dira garrantzitsuenak, egunean 9.482 ibilgailu, bi noranzkoetan. Erlazio horiek saihesbidearen ibilbide osoa egiten dute. Gainerako pasoko trafikoa egunean 3.114 ibilgailukoa da, eta Peñascalen eta Itsasadarraren Ezkerraldearen arteko erlazioei dagokie, Trapagarango eta Santurtziko lotuneen bidezkoak. Aurrekoaren aldean, zenbateko hori nahiko baxua da; edonola ere, esan beharra dago saihesbidearen erabilera-luzera txikiagoa dela ibilgailu horientzat, ibilbidea osorik egiten dutenentzat baino, baina kanona berdina da bientzat. Gainera, krisi ekonomikoaren ostean Larraskituraino doan A-8ko ibilbidean pilaketak murriztu direnez, MHSa abian jarri denez eta Hegoaldeko irtenbidean kamioei mugak jarri zaizkienez gero, MHSaren bide alternatiboa ez zaie horren erakargarri egiten Itsasadarraren Ezkerraldeko ibilgailu arinei; eta, jakina, kanona ordaindu behar izateak ere disuasio-eragina dauka.

Kadaguako lotunean, **sartze-trafiko** guztia bideratzen da, eta egunean 5.392 ibilgailu pasatzen dira, horietatik 1.366 astunak. Kopuru horretatik 3.213 ibilgailu (1.012 astunak) Peñascaleko tartetik pasatzen dira (% 60,0) Larraskiturekin eta Beteluriekin erlazionatzeko; gainerakoek (2.179 ibilgailu egunean, 354 astun) Ugarteko hesia zeharkatzen dute Itsasadarraren Ezkerraldearekin (974 ibilgailu egunean) eta Portua/Kantabriarekin (1.204 ibilgailu egunean) erlazionatzeko.

Azkenik, Trapagarango (egunean 2.518 ibilgailu) eta Santurtziko lotuneak (egunean 1.570 ibilgailu) ez dituzte bidesaridun erlazioak Kantabriarekin (ez da kontrolatzen) eta Ugarteko hesia zeharkatzen dute Kadaguarekin (egunean 974 ibilgailu) eta Peñascal hesiarekin (egunean 3.114 ibilgailu) erlazionatzeko, lehen esan den bezala.

Bestela esanda, MHSko trafiko-matrizea (12.596 ibilgailu egunean) eratzen duten ibilgailuen % 70,0 pasoko erlazioak dira Peñascalen eta Ugarteren artean, eta horien % 75,3 (9.482 ibilgailu egunean) Portua/Kantabriarekiko erlazioak dira, eta gainerako % 24,7 (3.114 ibilgailu egunean) Itsasadarraren Ezkerraldearekin egindakoak, Trapagarango eta Santurtziko lotuneen bidez.

MHSko trafiko-matrizeko (egunean 5.392 ibilgailu) ibilgailuen % 30,0 sartzeko erlazioak dira, Kadaguako lotunea eta BI-636 autobia erabiltzen dutenak, Alonsotegi/Balmasedara edo A-8 autobiderantz (Gurutzeta/Bilbo) Erlazio horien % 59,6 (3.213 ibilgailu egunean) korridorearen ekialdearekin (Larraskitu/Beteluri) egindako erlazioak dira, eta gainerako % 40,4a (2.178 ibilgailu egunean) mendebaldearekin egindakoak: Itsasadarraren Ezkerraldea (egunean 974 ibilgailu) eta Portua/Kantabriarekin (egunean 1.204 ibilgailu).

MHSko trafiko-matrizearen zati diren ibilgailu astunen guztizko kopurua batez besteko egun batean 4.922 ibilgailukoa da. Ehuneko hori oso altua da, ibilgailu guztien % 27,4 zehazki, eta horietatik egunean 3.556 ibilgailu astun (% 72,2) pasokoak dira: 2.910 Larraskituren eta Kantabriaren artean, eta 646 hesi horren eta Itsasertzaren Ezkerraldearen artean. Sartzen den ibilgailu horien trafikoa egunean 1.366 ibilgailu astunekoa da, eta Kadaguako lotunea erabiltzen dute bere erlazioetan. Horietatik egunean 1.012 ibilgailu astun (% 74,1) Ekialdearekiko (Peñascal) erlazioak dira, eta 354 (% 25,9) bakarrik Kantabria (egunean 253 ibilgailu astun) eta Ezkerraldearekikoak (egunean 101 ibilgailu astun).

A/5.3.7.b.2. taula

METROPOLIKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEKO TRAFIKO-MATRIZEAK (2024. URTEA)

URTEKO BATEZ BESTEKO EGUNA (ZIRKULAZIO-NORANZKOAK BEREIZIZ)

IBILGAILU GUZTIAK	BETELURI/ ARRIGORRIAGA (AP-68)	LARRASKITU/ BASAURI BI-10/A-8)	KADAGUA (BI-636)	TRAPAGARAN (BI-10/A-8)	SANTURTZI/ ORTUELLA (A-8)	PORTUA/ KANTABRIA (A-8)	GUZTIRA
1. BETELURI/ARRIGORRIAGA (AP-68)			1.170	350	208	2.563	**4.292**
2. LARRASKITU/BASAURI (BI-10/A-8)			535	504	316	1.573	**2.928**
3. KADAGUA (BI-636)	503	1.005		334	210	773	**2.825**
4. TRAPAGARAN (BI-10/A-8)	460	612	258				**1.330**
5. SANTURTZI/ORTUELLA (A-8)	237	427	172				**836**
6. PORTUA/KANTABRIA (A-8)	3.171	2.175	431				**5.777**
GUZTIRA	**4.371**	**4.218**	**2.567**	**1.188**	**734**	**4.909**	**17.987**

IBILGAILU GUZTIAK	BETELURI ARRIGORRIAGA (AP-68)	LARRASKITU/ BASAURI BI-10/A-8)	KADAGUA (BI-636)	TRAPAGARAN (BI-10/A-8)	SANTURTZI/ ORTUELLA (A-8)	PORTUA/ KANTABRIA (A-8)	GUZTIRA
1. BETELURI/ARRIGORRIAGA (AP-68)			282	108	55	900	**1.344**
2. LARRASKITU/BASAURI (BI-10/A-8)			231	94	56	379	**759**
3. KADAGUA (BI-636)	272	227		40	23	191	**753**
4. TRAPAGARAN (BI-10/A-8)	138	90	15				**244**
5. SANTURTZI/ORTUELLA (A-8)	51	54	26				**131**
6. PORTUA/KANTABRIA (A-8)	1.130	501	60				**1.691**
GUZTIRA	**1.592**	**872**	**613**	**242**	**133**	**1.470**	**4.922**

URTEKO BATEZ BESTEKO EGUNA (MATRIZE TRIANGELUARRA: ZIRKULAZIOKO BI NORANZKOAK MULTZOKATUZ)

EREMUAK	LARRASKITU/ EKI. SAIHES./A-8		BETELURI ARRIGORRIAGA / AP68		KADAGUA		GUZTIRA	
	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.
KADAGUA	1.540	458	1.673	554			**3.213**	**1.012**
TRAPAGARAN	1.115	184	810	246	592	55	**2.518**	**485**
SANTURTZI	743	110	445	106	382	49	**1.570**	**264**
PORTUA/KANTABRIA	3.748	880	5.734	2.030	1.204	251	**10.686**	**3.161**
GUZTIRA	**7.146**	**1.632**	**8.663**	**2.936**	**2.178**	**354**	**17.987**	**4.922**

Ondorengo taulan MHSaren trafiko-matrizea osatzen duten eguneko ibilgailuen bilakaera ageri da, betiere aipatzen diren urte horien barruan.

MHSAN TRAFIKOAREN EGUNEKO GUZTIZKO MATRIZEAREN ALDERAKETA

URTEAK	ARINAK	ASTUNAK	GUZTIRA	% ASTUNAK
2019	11.492	3.760	15.252	24,7
2020	7.735	3.372	11.106	30,4
2021	9.308	3.793	13.102	28,9
2022	10.104	3.837	13.941	27,5
2023	12.155	4.175	16.332	25,6
2024	13.065	4.922	17.987	27,4
Δ% (2019-2020)	**-32,7**	**-10,3**	**-27,2**	**-**
Δ% (2020-2021)	**+20,3**	**+12,5**	**+18,0**	**-**
Δ% (2021-2022)	**+8,6**	**+1,2**	**+6,4**	**-**
Δ% (2022-2023)	**+20,3**	**+8,9**	**+17,2**	**-**
Δ% (2023-2024)	**+7,5**	**+17,9**	**+10,0**	**-**
Δ% (2019-2024)	**+2,6**	**+5,5**	**+3,4**	**-**

Pandemiaren lehen urtean (2020), trafikoak behera egin zuen oro har, eta HMSak bidaia-bilketa txikiagoa izan zuen (–% 27,2); hala, 2019an 15.252 bidaia eguneko, eta 2020an 11.106 bidaia eguneko. Pandemiaren eragina handiagoa izan zen ibilgailu arinetan (–% 32,7) astunetan baino (–% 10,3); izan ere, A-8ko zirkulazioaren egoera hobetzean, korridoreko trafikoa orokorrean murriztearen ondorioz, MHSaren erakarpena nabarmen txikiagoa izan zen ibilgailu arinetan (bidesariaren disuasio-efektua) aurreko urtearekin alderatuta, Ibilgailu astunek Hegoaldeko Soluziotik igarotzea mugatuta dutenez, MHSa erabiltzera baldintzatuago daude.

2021. eta 2022. urteetan, pandemiaren ondoreak gutxira egin zuen nabarmenki mugikortasunaren eta trafikoaren ikuspuntutik, beraz, guztizko bidaiak % 25,5 hazi ziren bi urteetan (urteko % 18,0 eta % 6,4, hurrenez hurren). Hala, 2022ko matrizeari erreparatuz, guztizko bidaiak 13.942 ibil./egun izan ziren. 2019. urtearekin alderatuz gero, aldaketa –% 8,6koa da. Trafiko-aldaketak portaera desberdina ikusi zuen ibilgailu motaren arabera. 2021. datuei erreparatuz, ibilgailu arinak % 12,1 jaitsi ziren, ibilgailu astunek, ordea, % 2,0 egin zuten gora, lehen aipatu diren arrazoiak direla eta.

2023. urtean, trafiko-matrizearen bidaia-kopuruaren guztizko hazkuntza % 17,2koa izan da, eta guztira egunean 16.332 ibilgailu ibili dira. Aipatu behar da 2023. urtean nagusiki ibilgailu arinak gehitu direla (+% 20,3); bien bitartean, astunek +% 8,9 egin dute gora, eta 2019ko datuak erreferentziatzat hartuta, hona hemen aldakuntzak: +% 5,8 ibilgailu arinen kasuan eta +% 11,1 ibilgailu astunen kasuan, beraz, batez beste lehen aipatu den +% 7,1eko hazkuntza da.

2024rako, trafikoaren hazkunde-tasen zifrak positiboak izan dira: 2023arekin alderatuta, % 10,0 eta, 2019ko zenbatekoarekin konparatuta, aldiz, +% 3,4.

2024ko trafiko-matrizean jaso diren bidaien hazkuntzek nagusiki ibilgailu arinen erlazioei eragin diete, batetik, Larraskitu/Betelurirekin Kadaguako lotunean eta Ezkerraldean eta, bestetik, Ezkerraldearekin eta Kantabriarekin Kadaguako lotunean, lehen aipatu diren arrazoiengatik 2020-2022 aldian nabarmenki jaitsi arren. Hala, MHSaren bidez Kadaguan sartzen den trafikoa gailendu da, bai ibilgailu arinen, bai ibilgailu astunen kasuan.

c) Trafikoaren banaketa MHSko ardatz nagusian eta adarretan. Batez besteko eguna 2024

2024an, MHSaren ardatz nagusian batez besteko trafiko haztatua egunean 12.817 ibilgailukoa izan da; horietatik % 28,4 ibilgailu astunak izan dira (3.637 ibilgailu astun egunean).

Batez besteko lanegunari dagokionez, batez besteko ibilgailu-kopuru haztatua 14.382 izan da egunean; horietatik % 33,4 ibilgailu astunak izan dira (4.797 ibilgailu astun egunean).

Erantsitako **tauletan** (**A/5.3.7.c**) trafikoaren banaketa ageri da MHSaren ardatz nagusian, betiere ibilgailu eta tarte moten arabera, batez besteko egunean eta lanegunean. Alderatzeko, Larraskitu-Peñascal adarra sartu da, aurreko urteetan ardatz nagusiaren zati baitzen.

Ibilgailurik gehien hartzen duen tartea Peñascal-Kadaguakoa da, batez besteko egunean 15.809 ibilgailu hartzen ditu eta: 11.240 ibilgailu arin eta 4.568 ibilgailu astun ditu; atzetik, garrantziari dagokionez, Kadaguako lotunea-Trapagarango lotunea tarteak, guztira 14.774 ibilgailu egunean, 10.864 ibilgailu arinekin (aurreko tarteak baino pixka bat gutxiago), baina astunen kopurua nabarmen txikiagoarekin (3.910 ibilgailu egunean)[34]. Kadaguako mendebaldeko gainerako tarteetan, Trapagarango lotunearen eta Portuko lotunearen (Santurtzi) artean, EBBIa 12.256 eta 8.663 ibil./egun bitartean aldatzen da; astunen trafikoa, berriz, egunean 3.425 eta 2.936 ibilgailu artean. Ekialdetik Kadagua-Peñascal tarteko trafikoa banatu egiten da eguneko 8.663 ibilgailu (2.936 ibilgailu astun) Beteluritantz jarraitzeko eta egunean 7.146 ibilgailu (1.632 ibilgailu astun) Larraskituko lotunerantz desbideratzeko.

Lanegunetan Peñascal-Kadaguako tarteko trafikoa 17.917 ibilgailukoa da egunean; 6.041 ibilgailu astunak dira. Hurrengo tartean, Kadagua-Trapagarangoan, ibilgailuen kopurua guztira 16.668koa da egunean; horietatik 5.156 ibilgailu astunak dira.
Peñascal eta Ugarte kontrol-hesien artean (Kadaguako lotunea zeharkatzen da), pasoko trafikoa eguneko 12.596 ibilgailukoa da, eta batez besteko egun batean 3.556 astunak dira, hortaz, Peñascal-Kadagua tarteko trafiko guztiaren % 79,7 da. Hurrengo atalean, zenbateko horrek dakarren ehunekoa aztertzen da, betiere aztertzen ari garen Ekialde-Mendebalde korridorearen pasoko trafiko osoari dagokionez.
Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, saihesbideko ibilgailu astunen ehunekoa nahiko handia da, bereziki Beteluri/Peñascaleko lotunea-Kadaguako lotunea tartean; izan ere, egunean batez beste ibilgailu guztien % 33,9 astunak dira (2.936 ibilgailu astun egunean) eta lanegunetan % 33,7 dira (2.534 ibil. astun egunean).

(34) Horrek hau adierazten du: Kadaguako eremutik (Alonsotegi-Balmaseda) Larraskitura eta Betelurira sartzen diren ibilgailu astunez gain, Kastrexanako lotunean A-8/BI-10etik desbideratzen diren kamioien fluxua dago, Gurutzeta/Kantabriatik datorrena. Kamioi horiek, neurri batean, pasoko kamioiak dira eta ez dute Ugarteko hesia zeharkatzen, eta Beteluri/Larraskitura Kadaguako lotunean sartzen dira.

AP-8 autobidean, adibidez, Durangoko bidesariaren hesi nagusia erreferentziatzat hartzen badugu (2023. urteko batez besteko egunean ibilgailu astunen % 11,7), ehunekoari erreparatuz, MHSan ibilgailu astunen trafikoa erreferentziazko bidesari-hesian baino 2,5 aldiz gehiago dela ondoriozta daiteke. Dena den, are adierazgarriagoa da trafiko arinaren eta astunaren intentsitateari erreparatzen bazaio. Peñascal-Kadagua tartean EBBIa egunean batez beste 15.809 ibilgailukoa da eta astunen ehunekoa % 28,9koa (4.568 ibilgailu astun egunean). Kopuru horretan Beteluriko eta Larraskituko trafikoak sartzen dira.

Beste alde batetik, ibilgailu astunen banaketa P_1 + P_2 tarifa-taldeen arabera alderatzen baldin badugu, ikus dezakegu AP-8ko Durangoko hesian P_1-eko ibilgailu astunen kopurua % 34,5ekoa dela astun guztien aldean eta MHSan kopuru hori % 16,9koa dela (Peñascaleko tartean), nahiz eta A-8ko igarobide horren izaera hiri-ingurukoagoa izan eta, ondorioz, P_1-ek eragin handiagoa eduki, Bilbo inguruan dauden banaketa-kamioi eta furgoneten kopuru handia dela eta. A-8tik (Hegoaldeko irtenbidea) kamioiek aipatutako tartean igarotzeko duten debekua gehienez ere 3,5eko tonako gehieneko kargara mugatzeak berekin dakar ibilgailu mota hauen kopuru handi bati debekuak ez eragitea (ibilgailu astun horien luzera 6-7 metrokoa izan ohi da), ez eta autobusei ere. Gauzak horrela, euren ibilbidean A-8 erabiltzen jarraitzen dute, bidesariak daukan disuasio-izaera dela eta; gauza bera gertatzen da ibilgailu arinekin ere (<6m).

A/5.3.7.c. taula

TRAFIKOAREN BANAKETA AP-8KO TARTE NAGUSIAN, TARTEEN ETA IBILGAILU MOTAREN ARABERA. 2024. URTEA

IBILGAILUAK BATEZ BESTEKO EGUNEAN

ENBORRA	KM	ARABA/GIPUZKOARANTZ			KANTABRIARANTZ			NORANZKOAK GUZTIRA		
		GUZ.	AST.	AST. %	GUZ.	AST.	AST. %	GUZ.	AST.	AST. %
BETELURI-PEÑASCAL	3,55	4.371	1.592	36,4	4.292	1.344	31,3	8.663	2.936	33,9
PEÑASCAL-KADAGUA	2,10	8.589	2.464	28,7	7.220	2.104	29,1	15.809	4.568	28,9
KADAGUA-TRAPAGARAN	7,15	7.943	2.066	26,0	6.831	1.845	27,0	14.774	3.910	26,5
TRAPAGARAN-SANTURTZI/ ORTUELLA	2,25	6.613	1.822	27,6	5.643	1.603	28,4	12.256	3.425	27,9
SANTURTZI/ORT-PORTUA/ UGALDEBIETA	2,00	5.777	1.691	29,3	4.909	1.470	29,9	10.686	3.161	29,6
TARTEAK GUZTIRA	**17,05**	**6.849**	**1.940**	**28,3**	**5.968**	**1.696**	**28,4**	**12.817**	**3.637**	**28,4**

ADARRA	KMS	GIPUZKOARANTZ			KANTABRIARANTZ			NORANZKOAK GUZTIRA		
		GUZ.	AST.	AST. %	GUZ.	AST.	AST. %	GUZ.	AST.	AST. %
LARRASKITU-PEÑASCAL	2,00	4.218	872	20,7	2.928	759	25,9	7.146	1.632	22,8
TARTEAK GUZTIRA MHS+LARRASKITU ADARRA	**19,05**	**6.573**	**1.828**	**27,8**	**5.649**	**1.598**	**28,3**	**12.222**	**3.426**	**28,0**

IBILGAILUAK LANEGUNEAN

ENBORRA	KM	ARABA/GIPUZKOARANTZ			KANTABRIARANTZ			NORANZKOAK GUZTIRA		
		GUZ.	AST.	AST. %	GUZ.	AST.	AST. %	GUZ.	AST.	AST. %
BETELURI-PEÑASCAL	3,55	4.803	2.112	44,0	4.839	1.768	36,5	9.642	3.881	40,2
PEÑASCAL-KADAGUA	2,10	9.637	3.265	33,9	8.280	2.776	33,5	17.917	6.041	33,7
KADAGUA-TRAPAGARAN	7,15	8.854	2.722	30,7	7.813	2.434	31,2	16.668	5.156	30,9
TRAPAGARAN-SANTURTZI/ ORTUELLA	2,25	7.242	2.401	33,2	6.406	2.108	32,9	13.648	4.508	33,0
SANTURTZI/ORT-PORTUA/ UGALDEBIETA	2,00	6.214	2.233	35,9	5.528	1.929	34,9	11.742	4.163	35,4
TARTEAK GUZTIRA	**17,05**	**7.585**	**2.562**	**33,8**	**6.798**	**2.235**	**32,9**	**14.382**	**4.797**	**33,4**

ADARRA	KMS	GIPUZKOARANTZ			KANTABRIARANTZ			NORANZKOAK GUZTIRA		
		GUZ.	AST.	AST. %	GUZ.	AST.	AST. %	GUZ.	AST.	AST. %
LARRASKITU-PEÑASCAL	2,00	4.834	1.153	23,8	3.441	1.007	29,3	8.274	2.160	26,1
TARTEAK GUZTIRA MHS+LARRASKITU ADARRA	**19,05**	**7.296**	**2.414**	**33,1**	**6.445**	**2.106**	**32,7**	**13.741**	**4.521**	**32,9**

A/5.3.7.c1 grafikoa

TRAFIKOAREN BANAKETA METROPOLIKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEKO TARTE NAGUSIAN ETA LOTUNEETAN. 2024. URTEA

IBIL. GUZTIAK/EGUN (IBIL. ASTUNAK)

PASOKO TRAFIKOA (TRAPAGARAN - LARRASKITU) 12.596 (3.556)



A/5.3.7.c1' grafikoa

TRAFIKOAREN BANAKETA BATEZ BESTEKO EGUNEAN. 2024. URTEA

IBIL. GUZTIAK (IBIL. ASTUNAK)



d) Hileko trafikoaren bilakaera. 2024. urtea

Hurrengo **A/5.3.7.d. taulan eta grafikoan** MHSko batez besteko trafiko haztatuaren hileko bilakaera aurkezten da, bi noranzkoetan.

Arestian aipatu den bezala, urtean batez besteko eguneko trafiko haztatua (EBBI) 12.817 ibilgailukoa izan da egunean; horietatik % 28,4 ibilgailu astunak izan dira (3.637 ibilgailu astun egunean). Trafiko handieneko hilabetea uztaila da, 16.449 ibilgailu eguneko, hau da, eguneko batezbestekoa baino % 31,0 gehiago, eta txikiena urtarrilean, eguneko 9.689 ibilgailu, hau da, EBBIkoa baino % 23,5 gutxiago eta uztailekoa baino % 41,1 gutxiago.

Ibilgailu astunen trafikoa (egunean batez beste 3.637 astun), oro har, nahiko homogeneoa da urtean zehar. Gehieneko kopurua 4.366 astun egunean izan da urrian (urteko batezbestekoa baino % 20,0 gehiago), eta gutxienekoa urtarrilean (3.012 ibilgailu egunean). Hala, urteko batezbestekoarekiko –% 17,2 eta ibilgailu astunen trafiko handieneko hilabetearekiko (urria) –% 31,0 izan da.

A/5.3.7.d) taula

MHS-KO BATEZ BESTEKO TRAFIKO HAZTATUAREN HILEKO BILAKAERA. 2024

HILAK	GUZTIAK		ARINAK		ASTUNAK	
	IBIL./EGUN	EBBI %	IBIL./EGUN	EBBI %	IBIL./EGUN	EBBI %
Urtarrila	9.689	75,6	6.677	52,1	3.012	23,5
Otsaila	10.470	81,7	7.064	55,1	3.406	26,6
Martxoa	10.787	84,2	7.725	60,3	3.063	23,9
Apirila	12.219	95,3	8.502	66,3	3.718	29,0
Maiatza	12.842	100,2	9.033	70,5	3.808	29,7
Ekaina	13.316	103,9	9.736	76,0	3.580	27,9
Uztaila	16.449	128,3	12.472	97,3	3.977	31,0
Abuztua	16.358	127,6	13.151	102,6	3.207	25,0
Iraila	14.082	109,9	10.044	78,4	4.038	31,5
Urria	13.484	105,2	9.118	71,1	4.366	34,1
Azaroa	12.562	98,0	8.470	66,1	4.092	31,9
Abendua	11.546	90,1	8.174	63,8	3.372	26,3
Urt.-Abe.	**12.817**	**100,0**	**9.181**	**71,6**	**3.637**	**28,4**



e) Trafikoaren eguneko aldaketa urteko batez besteko aste batean MHSn

Lanegunetan (astelehenetik ostiralera), egunean 14.382 ibilgailuko batez besteko trafikoa izan da, hau da, % 12,2 handiagoa eguneko batezbestekoa baino; ostiralak nabarmentzen dira 15.481 ibilgailurekin egunean, alegia, % 20,8 handiagoa eguneko batezbestekoa baino. Asteburuetan, igandeetan trafiko handiagoa erregistratzen da larunbatetan baino, eta horrek adierazten du aisialdiagatik eta bigarren etxebizitzagatik Kantabriarekin egiten diren erlazioek garrantzia handia dutela; igandeko trafikoa eguneko batezbestekoaren % 75,7 da.

Ibilgailu astunei dagokienez, aipatu behar da eguneko batez besteko trafikoa lanegunetan eguneko 4.797 ibilgailukoa dela, batez besteko eguna % 31,9 gainditiuz, ibilgailu astunen % 33,4ko ehunekoarekin lanegunean, eguneko batezbestekoaren % 37,4rekin alderatuta. 2019an, astunen ehuneko horiek % 32,2 eta % 24,4 ziren, hurrenez hurren.

A/5.3.7.e. taula

TRAFIKOAREN ALDAKETA BATEZ BESTEKO ASTE BATEAN MHS-N. 2024 URTEA

EGUNA	GUZTIAK		ARINAK		ASTUNAK	
	IBIL./EGUN	EBBI %	IBIL./EGUN	EBBI %	IBIL./EGUN	EBBI %
Astelehena	14.197	110,8	9.510	74,2	4.687	36,6
Asteartea	13.805	107,7	8.713	68,0	5.092	39,7
Asteazkena	13.816	107,8	8.822	68,8	4.993	39,0
Osteguna	14.614	114,0	9.640	75,2	4.974	38,8
Ostirala	15.481	120,8	11.239	87,7	4.242	33,1
Larunbata	8.098	63,2	7.265	56,7	833	6,5
Igandea	9.699	75,7	9.161	71,5	538	4,2
Laneguna	**14.382**	**112,2**	**9.585**	**74,8**	**4.797**	**37,4**
Asteko b.b. eguna	**12.817**	**100,0**	**9.181**	**71,6**	**3.637**	**28,4**
"S" koefizientea	**0,891**		**0,958**		**0,758**	



f) MHS-ren partaidetza A-8 autobidearen trafikoan. 2024. urtea

Martxan den Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen 1. fasea A-8 autobiderako aukerako bide gisa eraiki da, Portuaren (Santurtzi) eta Larraskituko eta Beteluriko lotunearen arteko tarterako, hain zuzen ere. Horrenbestez, eragina dauka Ugaldebietako Soluzioan Portuko lotunearen eta Gurutzetaren arteko tartean; baina, batez ere, Hegoaldeko Soluzioari eragiten dio Gurutzetaren eta Buiaren artean (AP-68). Izan ere, metropoliko erlazioetan Bilborako sarbideak errazteko asmoz, tarte hori hiri-izaera handiagoa duen errepide bihurtzea ahalbidetzen du, pasoko trafikoa (ibilgailu astunak nagusiki) MHStik desbideratuta.

Atxikitako taulan ikus daitekeen legez, korridoreko eraginpeko tartean, batez besteko trafiko haztatua egunean 112.618 ibilgailukoa izan zen 2024an, eta ibilgailu horietatik egunean 13.730 ibilgailuk (% 12,2) Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea erabili zuten. Ibilgailu astunen batez besteko trafiko haztatua egunean 8.376 ibilgailukoa izan zen, eta horietatik egunean 3.844 ibilgailuk (% 45,9) Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea erabili zuten.

A/5.3.7.f. taula

TRAFIKOAREN BANAKETA MHSREN ETA A-8AREN ARTEAN. 2024. URTEA

Tartea	A-8			MHS			Guztira		MHS %	
	Luzera	EBBI	Astunak	Luzera	EBBI	Astunak	EBBI	Astunak	EBBI	Astunak
Portuko L.-Santurtzi L.	1,5	70.914	4.492	1,5	10.686	3.161	81.600	7.653	13,1	41,3
Santurtzi L.-Trapaga L.	2,4	97.909	5.798	2,5	12.256	3.425	110.165	9.223	11,1	37,1
Trapaga L.- Gurutzeta L.	3,1	117.150	6.242	3,8	14.774	3.910	131.924	10.152	11,2	38,5
Azpitartea Portuko L. – Gurutzeta L.	**7,0**	**100.645**	**5.715**	**7,8**	**13.181**	**3.611**	**113.826**	**9.325**	**11,6**	**38,7**
Gurutzeta . – Kadagua L.	3,3	110.874	3.966	3,5	14.774	3.910	125.648	7.876	11,8	49,6
Kadagua L. – Larraskitu L.	4,3	93.842	2.887	4,2	15.809	4.568	109.651	7.455	14,4	61,3
Larraskitu L. – Buia/AP-68	1,6	80.040	4.949	1,6	8.663	2.936	88.703	7.885	9,8	37,2
Gurutzeta L. - Buia L./AP-68	**9,2**	**97.551**	**3.633**	**9,3**	**14.190**	**4.040**	**111.741**	**7.672**	**12,7**	**52,7**
Guztira Portuko L.- Larraskitu L.	**16,2**	**98.888**	**4.532**	**17,1**	**13.730**	**3.844**	**112.618**	**8.376**	**12,2**	**45,9**

Hegoaldeko irtenbideari dagozkion kopuruak aztertzen baditugu, ikusiko dugu Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidera bideratutako ibilgailu guztien guztizko kopurua egunean 14.190 ibilgailukoa izan dela, eta horietatik egunean 4.040 ibilgailu astunak izan direla[35]. Hori dela eta, azpitarte horretan Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen partaidetza-ehunekoa % 12,7koa eta % 52,7koa izan da, hurrenez hurren.

(35) Gorostiza – Larraskitu tartea. Ikus A/3 kapitulua (1. korridorea. Hegoaldeko irtenbidea).

A/5.3.7.f. grafikoa

TRAFIKOAREN BANAKETA METROPOLIKO HEGOKO SAIHESBIDEAREN ETA A-8REN ARTEAN. 2024. URTEA

EBBI (Ibilgailu astunak/egun)



Horren ondorioz, trafikoaren jaitsiera gorabehera (COVID-19ak eraginda) adierazi behar da 2020. urtean Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea ibilbide luzeko bidaiak (pasoko trafikoa) bideratzeko bide gisa finkatu dela, eta ibilgailu astun ugari erakarri dituela, eta lehen Hegoaldeko irtenbidea (A-8) erabiltzen zuten salgai arriskutsuen garraio osoa ere erakarri duela. Horrenbestez, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbideak funtsezko zeregina du lurraldearen egituraketan. Izan ere, Bilboko hirigunera arinago sartzea ahalbideratzen du, Hegoaldeko irtenbidea (A-8) pasoko trafikoaz liberatutako arteria-bide hiritarrago bihurtzean, lehenago adierazi dugun bezala.

A-8 autobideari dagokionez Santurtziko L. Sestaoko L.ko tartean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea egiteak bitarteko lotura berria sortzea ekarri du, Ballontiko Ardatzarekiko (Trapagako L.) lotura berria dena, baita Trapaga, Portugalete eta Santurtziko loturak batzen dituen gaitasun handiko alboko bidea ere, Itsasadarreko ezkerraldean. Hala, nabarmen hobetu da sarearen mailatua inguruetan, eta Itsasadarraren ezkerraldeak A-8rekin eta azpiegitura berriarekin duen irisgarritasun orokorra ere hobea da.

Jarduketa-multzo horri esker, hobetu egin da Gurutzetako korapiloraino hedatzen den korridoreko tarte horretako zerbitzu-maila. Kadagua–Buia tartean, berriz, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbideak 2024. urtean lanegunetan BI-10 errepidetik egunean 17.917 ibilgailu desbideratzeko aukera ematen du, eta horietatik 6.041 egunean ibilgailu astunak dira.

Ibilgailu astunek bide horretako maila funtzionalean duten eragin handia dela-eta, Hego Konponbidea deritzoneko pilaketa aldiak ia desagertu dira jaitsiera horiei esker, azterturiko bi tarteetan. Lehenago, aldiz, ia bete-beterik egoten zen errepidea egunik ordu gehienetan, askotan ibilgailuen auto-pilaketa etengabeekin zirkulazio handiaren ondorioz; ibilgailu astunak ziren, hain zuzen, arazoaren eragile handi bat.

Horrenbestez, esan dezakegu 1. fasea osatzeari esker, MHSa dagoeneko betetzen ari dela aurreikusitako helburu nagusienetako bat, hau da, A-8/BI-10 autobidearen aukerako bidea izatea, pasoko trafikoaren zati handi bat (nagusiki ibilgailu astunak) desbideratu eta Bilboko hirigunera arinago joatea ahalbidetuko duena[36].

(36) MHSaren I. faseko obrak ia amaituta daude 2022. urtearen amaieran eta, ondorioz, Peñascal-Beteluri tartea gehitu da, eta AP-68 autobidearekin konexioa egin da. Hala, 2023ko apirilean zerbitzuan jarri da.

g) Trafikoaren bilakaera MHSko enborrean, tarteen arabera. 2019-2024 aldia

2023. urtean MHSko bide-sistemaren konfigurazioa aldatu da Beteluri-Peñascal tartea zerbitzua ematen hastearekin eta, ondorioz, jatorri-jomuga matrizearen banaketa ibilbide luzeagoan egiten da, 15 km-tik 19,1 km-ra pasa baita, Larraskituko adarra barne. Lehen Larraskitu saihesbideko ardatz nagusiaren barruan zegoen.

Hortaz, aurreko urteak abiapuntutzat hartuta, batez besteko trafiko haztatua tartez tarte alderatu da, eta guztizko ibilgailuak nahiz astunak bereizi dira. Tarteei dagokienez, honako modu honetan banatu dira:

— Aldaketa geometrikorik edo funtzionalik izan ez duten tarteak. Horrenbestez, alderatzeko orduan, denboran homogeneoak dira: 13,5 km-ko guztizko partziala, Portuko lotunetik Peñascaleko bidebanatzeraino.
— Tarte berriak (Peñascal-Beteluri, 3,55 km) edo aldaketa funtzional nabarmena izan dutenak (Peñascal-Larraskitu, 2,00 km). Bilakaera aztertzeko bereiztea komeni da.

Irizpide hori aintzat hartuta, ondoren azaltzen diren taulak egin dira MHSaren tarteetan, Portuko mendebaldetik (Ugaldebieta) Larraskituko (A-8) eta Beteluriko (AP-68) lotuneetara, erregistratu diren trafikoen bilakaera (guztizko ibilgailuak eta astunak) aurkezteko. Guztira, 19,1 km-ko luzera du.

2024. urtean, batez besteko trafiko haztatuak % 13,7ko hazkuntza izan du ibilgailu guztien kasuan eta % 24,0koa ibilgailu astunen kasuan, 2023ko datuak erreferentziatzat hartzen badira.

2019-2024 aldian, trafikoaren urteko batez besteko hazkuntza-tasa, oraingo bide-sistema erreferentziatzat hartuta, urteko % 5,9ko metatua da ibilgailu guztien kasuan, eta egunean 9.192 ibilgailutik 12.222 ibilgailura pasa da.

2019. urtea abiapuntutzat hartzen bada, % 33,0 aldatu da ibilgailu guztien kasuan eta % 38,6 astunen kasuan, hala, egunean 2019ko 9.192 (2.472) ibilgailuetatik 2024. urteko 12.222 (3.426) ibilgailuetara pasa da.

Dagoeneko azaldu da 2023. urtean trafiko-matrizearen bidaia-kopuruaren hazkuntza (% 17,2) eta, ondorioz, autobiaren ardatz nagusiko batez besteko trafiko haztatuaren antzeko hazkuntza (MHSaren oraingo bide-sistemak dituen tarteekin eta luzerekin) kontrako esparruan gertatu dela Bizkaiko bide-sarearen bilakaerari dagokionez eta A-8/BI-10 korridorean eta MHSan trafikoak etenaldia izan duenean. Ondorioz, MHSaren hazkuntzak Peñascal-Beteluri tarte berria funtzionatzen hastean ibilgailu gehiago lortzeko gaitasunari erantzun dio. Hala, batez ere AP-68 autobidearekin (Arrigorriaga-Araba) zerikusia duten trafikoetarako erakargarriagoa da[37].

(37) Ikus 5.3.7.b) atala

A/5.3.7.g) taula

TRAFIKOAREN BILAKAERA MHSKO ENBORREAN, TARTEEN ARABERA. 2019-2024 ALDIA

a) Ibilgailu guztiak/Urteko batez besteko egunean

Tarteak	Luzera (Km)	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Δ %		ALDA-KUNTZA 2019-2024
								2023-2024	2019-2024	
Portuko L. – Santurtzi L.	2,00	9.676	6.948	8.153	8.974	9.727	10.686	9,9	2,0	10,4
Santurtzi L. – Trapagaran L.	2,25	10.961	7.899	9.297	10.130	11.129	12.256	10,1	2,3	11,8
Trapagaran L. – Kadagua L.	7,15	12.935	9.283	11.038	11.886	13.343	14.774	10,7	2,7	14,2
Kadagua L. – Peñascal L:	2,10	13.783	10.124	11.928	12.795	14.479	15.809	9,2	2,8	14,7
DENBORAN TARTE HOMOGE-NEOETAN GUZTIZKO PARTZIALA	**13,50**	**12.255**	**8.837**	**10.459**	**11.303**	**12.615**	**13.910**	**10,3**	**2,6**	**13,5**
Peñascal L. – Larraskitu L.	2,00	13.783	10.124	11.928	12.795	8.329	7.146	-14,2	-12,3	-48,2
Peñascal L. – Beteluri L.	3,55	-	-	-	-	6.150	8.663	40,9	-	-
ORAINGO TARTEAK, GUZTIRA	**19,05**	**9.192**	**6.631**	**7.844**	**9.353**	**10.960**	**12.222**	**11,5**	**5,9**	**33,0**

b) Ibilgailu astunak/Urteko batez besteko egunean

Tarteak	Luzera (Km)	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Δ %		ALDA-KUNTZA 2019-2024
								2023-2024	2019-2024	
Portuko L. – Santurtzi L.	2,00	2.513	2.243	2.489	2.580	2.672	3.161	18,3	4,7	25,8
Santurtzi L. – Trapagaran L.	2,25	2.627	2.356	2.624	2.732	2.872	3.425	19,3	5,4	30,4
Trapagaran L. – Kadagua L.	7,15	2.957	2.625	2.988	3.028	3.226	3.910	21,2	5,7	32,2
Kadagua L. – Peñascal L:	2,10	3.664	3.294	3.705	3.745	3.955	4.568	15,5	4,5	24,7
DENBORAN TARTE HOMOGE-NEOETAN GUZTIZKO PARTZIALA	**13,50**	**2.946**	**2628**	**2.965**	**3.024**	**3.198**	**3.821**	**19,5**	**5,3**	**29,7**
Peñascal L. – Larraskitu L.	2,00	3.664	3.294	3.705	3.745	2.037	1.632	-19,9	-14,9	-55,5
Peñascal L. – Beteluri L.	3,55	-	-	-	-	1.918	2.936	53,1	-	-
ORAINGO TARTEAK, GUZTIRA	**19,05**	**2.472**	**2.208**	**2.490**	**2.536**	**2.838**	**3.426**	**20,7**	**6,7**	**38,6**

A/5.3.8. PASOKO TRAFIKOA ETA BILBORA SARTZEN DEN TRAFIKOA EKIALDEA-MENDEBALDEA IGAROBIDETIK ETA METROPOLIKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEAREN ERAKARTZE-MAILA

a) Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen erakartzeari eragiten dioten trafiko motak

Metropoliko Hegoaldeko Saihesbideko trafikoaren eskaera potentziala, hau da, bidesaririk ez balego lortuko litzatekeen trafikoa trafiko mota hauez osatuta egongo litzateke:

— **Pasoko trafikoa** (Mendebaldea-ekialdea eta alderantziz) bide berriaren muturren artean, eta horrenbestez, bidesaridun ibilbide osoa zeharka zezakeena. Gure kasuan, teorian, trafiko hau A-8/AP-68ren bidez Kantabria/Portuko lotunea eta Larraskitu (BI-10/A-8) eta Beteluriko lotuneen artean egiten diren erlazioek osatu beharko lukete zirkulazioaren bi noranzkoetan.
— Mendebaldetik eta ekialdetik **sartzen den trafikoa** korridoreko erdiko eremuekin, Kadaguako lotunearen bitartez: Gurutzeta/Arrontegi (BI-30), Kadagua (BI-636) eta Bilbo (San Mames/Joan de Garai).

Bidesaridun autobideak ezin du erakarri igarobideko **barne-trafikoa** A-8tik gertu dauden lotuneen artean, bai eta **mendebaldetik sartzen den trafikoa (Kantabria)** itsasadarreko ezkerreko ertzarekin. Izan ere, Ugarte bidesariaren mendebaldeko kokapena dela eta, puntu hori Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen hasierako edo amaierako erreferentzia bihurtzen da (zirkulazio-noranzkoaren arabera).

Azterlanaren atal honetan, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen erakartzeari eragin diezaioketen pasoko matrizearen eta sartzen den matrizearen kalkulu bat egiten da, eta egiatan Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidean lortutakoarekin *(ikus **A/5.3.7.b. atala**)* alderatzen da, bide berriak bere eskaera potentzialarekiko (era berean, logikoa den bezala, igarobideko guztizko trafikoaren zati bat da) zer erakartze-maila duen ebaluatze aldera.

b) Pasoko trafikoa Hegoaldeko irtenbidetik eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidetik. 2024 urtea

Pasoko trafikotzat jo da Trapagarango eta Larraskitu/Beteluriko lotuneen arteko ibilbide osoa egiten duena; hau da, A-8tik MHSaren bidez desbideratu ahal dena, Bilboko Hegoaldeko Soluzioa (BI-10) saihesteko. Horixe da Metropoliko Hegoaldeko Saihesbide berriaren eskaerarik garrantzitsuena.

Ondoko taulan, pasoko trafiko hori eratzen duen jatorri/helmuga-trafikoaren matrizea azaltzen da (zirkulazioko bi noranzkotan ibilgailu/egunetan adierazita), 2024. urteko Aforo Plana egiteko prozesuan, aurrerapen gisa, egindako informazioaren arabera.

Ikus daitekeen bezala, Ugarteko hesiaren mendebaldera aintzat hartutako eremuak (lotuneak) hauek dira, kaltetutako tartearen mendebaldeko muturra erreferentziatzat hartuta:

— San Fuentes/Kantabria L. (A-8)
— Portuko L. (N-644)
— Santurtzi L. (A-8)
— Trapagaran L. (A-8/BI-10)

Eta Larraskitu/Beteluriren ekialdera aintzat hartutako eremuak (lotuneak), berriz, hauek izan dira:

— Ekialdeko Saihesbidea (BI-20)
— Buia (AP-68)
— Basauri – Irubide L. (BI-625)
— Basauri – Arrigorriaga L. (BI-625)
— Galdakao L. (A-8)
— Urgoiti L.[38] (A-8)
— Erletxe/Donostia[42]

Halaber, bereizita aintzat hartu dira Sestao/Barakaldok (BI-644) Larraskituren ekialdean dauden eremuekin dituen erlazioak, zehazteko Itsasadarraren Ezkerraldeko zer ertzek erabiltzen duen A-8ko lotune hori (Sestao/Barakaldo) Larraskiturekin eta BI-10 autobideko ekialdearekin erlazioak egiteko, Hegoaldeko Soluzioaren bidez. Teorian, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen bezeroak izango lirateke, Ballontiko ardatza eta Trapagarango lotunea erabiliz.

Tarte berria (Peñascal – Beteluri) abian jartzeak ibilgailu arinen erabiltzaileak anima ditzake AP-68 autobidearekin (Arrigorriaga) erlazioetan MHSa erabiltzera, nahiz eta azken urteetan BI-10 errepideko Trapagaran-Larraskitu-Buia (AP-68 ibilbidean auto-ilara gutxiago egon.

(38) Kontuan hartu behar da AP-8 (Galdakao - Gipuzkoa) errepideari dagozkion pasabide-erlazioak gaur egun Hegoko Irtenbidea/MHS igarobidea erabiltzen dutenak direla, eta ez dituela barne hartzen Gurutzetan Txorierrirantz desbideratutako trafikoak, hortik igarotzen baita kaltetutako astunen trafiko gehiena, eta saihestu egiten du nahitaezko bidesaria ordaintzea Hegoaldeko Konponbidetik (BI-10) igarotzea mugatu ondoren.

A/5.3.8.b) taula

PASOKO TRAFIKO-MATRIZEA (IBIL./EGUN) ZIRKULAZIOAREN BI NORANZKOETAN. 2024. URTEA

A) A-8tik

LOTUNEAK	EK. SAIHESB. LOT		AP-68 (ARRIG.)		BASAURI L.		GALDAKAO L.		URGOITIKO L.		ERLETXE/ DONOSTIA		GUZTIRA	
	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.
San Fuentes/Kantabria L.	2.576	9	1.185	55	1.155	7	188	5	354	11	522	15	5.979	103
Portuko L. (N-644)	627	12	288	73	281	9	46	7	86	15	127	20	1.456	135
Santurtzi L.	1.269	7	584	45	569	6	93	4	174	9	257	12	2.945	83
Portugalete/Trapagaran L. (BI-628)	1.704	9	784	53	764	7	124	5	234	11	345	14	3.955	98
Azpiguztizkoa	**6.175**	**38**	**2.840**	**226**	**2.769**	**29**	**451**	**21**	**848**	**47**	**1.252**	**61**	**14.335**	**420**
Sestao/Barakaldo L.	3.196	20	1.470	122	1.433	15	233	11	439	25	648	33	7.419	227
GUZTIRA	**9.371**	**58**	**4.310**	**348**	**4.202**	**44**	**685**	**32**	**1.287**	**72**	**1.899**	**93**	**21.754**	**647**

B) Metropoliko Hegoko Saihesbidetik (AP-8)

LOTUNEAK	EK. SAIHESB. LOT		AP-68 (ARRIG.)		BASAURI L.		GALDAKAO L.		URGOITIKO L.		ERLETXE/ DONOSTIA		GUZTIRA	
	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.	GUZT.	AST.
Portua/Kantabria	1.315	104	5.734	2.030	779	122	292	90	550	204	811	265	9.482	2.815
Santurtzi L.	261	21	445	106	154	24	58	18	109	40	161	53	1.188	261
Portugalete/Trapagaran L.(BI-628)	391	31	810	246	232	36	87	27	164	61	241	79	1.926	480
GUZTIRA	**1.968**	**155**	**6.989**	**2.382**	**1.165**	**182**	**437**	**135**	**822**	**305**	**1.214**	**397**	**12.595**	**3.556**

IGAROBIDEA, GUZTIRA														
S. Fuentes - Trapagaran (Azpiguzt.)	**8.143**	**193**	**9.830**	**2.608**	**3.934**	**211**	**888**	**155**	**1.671**	**352**	**2.465**	**457**	**26.931**	**3.976**
S. Fuentes - Gurutzea (Guztira)	**11.339**	**213**	**11.299**	**2.730**	**5.367**	**226**	**1.122**	**167**	**2.110**	**377**	**3.113**	**490**	**34.349**	**4.203**

Erantsitako taulan ikus daitekeenez, Kantabria/Trapagaran eta Larraskitu/Basauri/Erletxe arteko erlazioetan pasoko trafikoa, Hegoaldeko irtenbidean (BI-10/A-8) eta AP-8 autobidean, 2024. urtean, 14.335 ibilgailu eguneko eta 420 ibilgailu astun izan dira; hau da, ibilgailu guztien kopurua % 4,0 igo da 2023. urtearekin alderatuta (13.783 ibilgailu egunean).

BI-10 autobideko Sestao/Barakaldoko lotunea aintzat hartzen badugu, pasoko ibilgailuen guztizkoa egunean 21.754 ibilgailukoa izango da, eta horietatik 647 ibilgailu astunak izango dira, lotune horren eta Larraskituren artean.

Trapagarango lotunearen eta Larraskitu/Beteluriko lotunearen artean, 2024an egunean 12.595 ibilgailuko batez besteko trafikoa izan zen, 3.556 ibilgailu astunekin *(ikus **A/5.3.7.c atala**)*. Guztira, % 9,6 igo zen trafikoa, eta % 18,4 ibilgailu astunetan. Ondorioz, Hegoaldeko korridorean (Hegoaldeko irtenbidea barne) pasoko trafiko guztia 2024. urtean egunean 26.931 ibilgailukoa izan da (3.976 astunak), beraz, halako trafikoari dagokionez (pasokoa), MHSaren erakarpen-ehunekoa (Sestao/Barakaldo lotunetik lor daitekeena kontuan hartu gabe) % 39,4koa da ibilgailu arinen kasuan eta % 89,4koa ibilgailu astunen kasuan. Horiek dira, hain zuzen, Hegoaldeko korridoretik (Hegoaldeko s. + MHSa) pasatzen direnak.

PASOKO TRAFIKOA HEGOALDEKO IGAROBIDETIK (A-8 – MHS).
IBILGAILUAK/BATEZ BESTEKO EGUNA. 2024. URTEA

PASOKO BIDE-ARDATZA	ARINAK	ASTUNAK	GUZT.	EKARPENAREN %		
				ARINAK	ASTUNAK	GUZT.
HEGOKO IRTENBIDETIK	13.915	420	14.335	60,6	10,6	53,2
MHS-TIK	9.039	3.556	12.595	39,4	89,4	46,8
GUZTIRA	**22.954**	**3.976**	**26.931**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Erakartze-ehuneko horiek adierazten dute ibilgailu arinen maila nahiko txikia dela (% 39,4), esan bezala, bidesariaren disuasio-efektuagatik eta A-8 ordezko bidearen zerbitzu-maila hobetzeagatik. Ibilgailu astunen trafikoari dagokionez, harrera handia da (% 89,4); izan ere, ibilgailu horiek Hegoaldeko irtenbidean igarotzeko mugak dituzte, Kastrexana/Kadaguako lotunearen eta Ekialdeko saihesbidea/Larraskituko lotunearen artean[39].

c) Kadaguako lotunetik sartzen den trafikoa

Kagaduako lotuneak sartzen den trafikoa esaten dioguna berriz banatzeko ardura du, bai mendebaldetik (Kantabriaren eta itsasadarraren ezkerreko ertzaren erlazioak Kadaguako ardatzarekin (BI-631) eta Bilborekin Sabino Aranatik), bai ekialdetik (Gipuzkoa/Basauri/Arrigorriagaren erlazioak AP-8ko, BI-625eko eta AP-68ko ardatzetatik Kadaguako ardatzarekin (BI-636) eta Gurutzeta/Rontegirekin.

Lotune hori erabiltzen duten sartzeko erlazioak honela xehaka daitezke:

(39) Arestian esan dugunez, Hegoaldeko irtenbidetik doazen ibilgailu astunen trafikoaren zati handi bat Bilbora sartzen diren kamioiak, autobusak eta 3,5 tona baino gutxiagoko eta 6 metro baino luzera handiagoko kamioi eta furgonetak dira.

A) MHS-TIK EKIALDETIK SARTZEN DEN. 2024 URTEA

MENDEBALDEA	Kantabria – Kadagua	KADAGUA MENDEBALDEKO BANAKETA
Portua/Kantabria Santurtziko L. Trapagarango L. (BI-628)	1.204 (251) 382 (49) 592 (55)	UGARTE – ALONSOTEGI/ KADAGUAKO ERL.: 1.306 (212) ibil./egun UGARTE – A-8/BILBOKO ERL. 872 (142) ibil./egun
Mendebaldetik sartzen den trafikoa	**2.178 (355)**	KADAGUA MENDEBALDEKO ERLAZIOAK, GUZ: 2.178 (354) ibil./egun

B) MHS-KO EKIALDETIK SARTZEN DEN TRAFIKOA

EKIALDEA	Kadagua	KADAGUA EKIALDEKO BANAKETA
Eki. Saihesb. (BI-631) AP-68 (Araba) Basauri (BI-625) AP-8 (Gipuzkoa)	697 (200) 1.673 (554) 428 (123) 468 (135)	LARRASKITU – ALONSOTEGI/KADAGUAKO ERL.: 1.285 (405) ibil./egun LARRASKITU–GURUTZETA/ERRONTEGIKO ERLAZIOAK: 1.928 (607) ibil./egun
Larraskitu guztira	**3.213 (1.012)**	EKITALDEKO KADAGUAKO ERLAZIOAK, GUZTIRA: 3.213 (1.012) ibil./egun

Horren ondorioz, Kadaguako lotuneko *(ikusi **A/5.3.7.b.2 taula** trafiko-matrizean)* guztizko trafikoa egunean 5.391 ibilgailukoa da (horietatik 895 ibilgailu astunak dira), eta honela banatzen dira:

- Kadagua Mendeb: 2.178 (354) ibil./egun
- Kadagua Ekiald: 3.213 (1.012) ibil./egun
- Kadagua guztira: 5.391 (1.366) ibil./egun

Horrek esan nahi du % 11,2ko hazkundea izan dela 2023arekin erkatuta.

Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen egungo ibilbidea dela eta, zaila izango da Bilborekin eta Gurutzeta/Arrontegirekin sartzen diren erakartze handiagoak izatea. Izan ere, Kadaguako ardatzarekiko erlazioak soilik aterako dute onura lotune horren kokapenetik, eta saihesbidearen 2. fasea (Beteluri (AP-68)-Kortederra (AP-8)) eraikitzen denean soilik izango da erakargarria ekialdearen Gurutzetarekiko eta Arrontegirekiko sartzen diren erlazioetarako. Ez da ahaztu behar, zentzu horretan, ekialdearen erlazioak Leioa/Getxorekin (Avanzada) indar daitezkeela Trapagarango lotunearen eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen bidez, Lamiakoko ibai-azpiko konexioa eraikiz. Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen erakartzearen oinarri zen proiektuetako bat zen zubi horiek eraikitzea, Arrontegiko Soluzioan trafikoa murrizteko helburuaz gain.

Pandemia eta krisialdi ekonomiko berria amaitzea eta korridoreko trafikoa berriz indartzea funtsezkoak dira jarduketa horiek garatzeko eta Metropoliko Hegoaldeko Saihesbideak trafiko mota hori gehiago erakartzeko.

A/5.3.9. GEREDIAGA – ELORRIO AUTOBIA (N-636)

Autobia Bizkaiko Irisgarritasun Iraunkorreko Planaren (2009-2013) barruan sartzen da, eta Bizkaiko eskualdeak egituratzeko 6 ardatz sortzea ezarri da bertan, bide azkarraren edo autobiaren ezaugarriekin.

Gerediaga - Elorrio autobidea (N-636), 6,5 Km-koa, AP-8 autobidean hasten da Gerediagako lotunean, eta Elorrioko saihesbidean amaitzen da (saihesbideari jarraipena emanda). Bitarteko lotura du Muntsaratz aldean, eta Abadiñoko eta Atxondoko industrialdeetan eta herrietan sartzea ahalbidetzen du. Obrak 2012an hasi ziren, eta 2016ko abuztuaren 8an jarri zen martxan.

Autobia horrek lehengo N-636 errepideko zatiaren trafikoa hartu du (Durango - Abadiño - Elorrio); izan ere, tokiko BI-3336 errepidea bihurtu da Bilbok eta Durangok Elorrio/Gipuzkoarekin dituen erlazioetan, Kanpazarretik. A-8 autobidean, lehen Iurretako lotunetik egiten ziren erlazioak orain Gerediagako lotuneen bidez egiten dira eta, beraz, trafikoak gora egin du lotuneon artean.

Ondoko eskema grafikoan eta taulan, ukituriko bide-sarean eginiko trafikoaren banaketa berria ageri da, 2019-2024 aldian.

N-636 ERREPIDEAREN ERAKARPENA (2019-2024)

TARTEA	L (Km)	2019		2020		2021		2022		2023		2024		ALDAKUNTZA (2019-2023)	
		IBIL./EG.	AST.	IBIL./EG.	AST.	IBIL./EG.	AST.	IBIL./EG.	AST.	IBIL./EG.	AST.	IBIL./EG.	AST.	IBIL./EG.	AST.
GEREDIAGA - MUNTZARATZ	3,1	11.743	1.388	9.953	1.384	11.824	1.470	13.199	1.590	13.572	1.599	13.715	1.606	16,8	15,7
MUNTZARATZ - E. SAN AGUSTÍN	2,5	11.025	1.305	9.252	1.287	10.962	1.370	11.944	1.435	12.252	1.439	12.371	1.416	6,4	8,5
E. SAN AGUSTÍN - E. BETSAIDE	1,6	8.820	1.283	7.449	1.216	8.799	1.288	9.113	1.278	9.159	1.259	9.295	1.231	27,0	-4,1
E. BETSAIDE - ELORRIO S.	1,5	6.526	1.092	5.525	1.059	6.477	1.125	6.890	1.148	6.848	1.104	7.857	1.210	34,9	10,8
ELORRIO S. - L.T.H. GIPUZKOA	5,7	6.481	1.095	5.211	986	6.002	1.082	6.364	936	6.439	1.026	6.478	900	-	-17,8
GUZTIRA	**14,4**	**8.667**	**1.216**	**7.215**	**1.157**	**8.477**	**1.243**	**9.164**	**1.224**	**9.331**	**1.264**	**9.516**	**1.211**	**11,5**	**-4,2**

TRAFIKOAREN BANAKETA BERRIA GEREDIAGA – ELORRIO AUTOBIA BERRIA MARTXAN JARRITA(40)



(40) Irekitze-data: 2016ko abuztuak 8

BI-637. La Avanzada errepidea, Leioa. Boulevard berriaren ikuspegi orokorra.

Aurreko urteetako analisian ondorioztatutakoaren ildotik, gaur egungo korridoreko trafiko osoa (N-636+BI-3336) 2019 urtearen aldean 16.335 (1.611) ibilgailukoa izan da eguneko. Bestalde, 2015. urtean (autobia abian jarri aurretik), trafiko osoa BI-3336 errepidetik (antzinako N-636), 12.813 (1.294) ibilgailukoa zen eguneko, beraz, indukzio efektu oso handia gertatu zen autobia martxan egon zen lehen 4 urteetan. Horrela, urteko batez besteko hazkuntza tasa metatua % 6,0 izan zen ibilgailu arinetan, eta % 5,6, astunetan. Autobia berriak 2019an izandako trafikoa % 67,5 izan da 2019. urtea erreferentziatzat hartuz, E. Muntzaratz – E. San Agustín atalean, BI-3336aren % 32,5aren aurrean, ibilgailu arinetan, eta % 81 eta % 19koa hurrenez hurren, astunetan.

N-636 zaharra (gaur egungo BI-3336) erabiltzen dutenek Abadiño eta Elorrio/Gipuzkoa arteko bidaiak egiten dituzte eta trafiko hori E-175A estazio iraunkorrean kontrolatzen da. 2015. urtean, adierazi denez, 12.813 ibilgailukoa izan zen eguneko, eta 2019an, 5.310 (306) ibilgailukoa eguneko. 2024. urtean 3.995 (270) ibilgailu izan dira eguneko.

Erantsitako taulan batez besteko trafiko haztatuaren urteko aldakuntza ikusten da, N-636 (gaur egungoa) ibilbidean, Gerediaga eta Gipuzkoako lurralde historikoaren mugaren artean, 14,4 kilometrokoa. 2020. urtean, N-636 errepideko batez besteko trafiko haztatua % 16,8 jaitsi zen, eta 2019an egunean 8.667 ibilgailu izatetik 7.215 ibilgailu izatera pasa zen. 2021. urtean, trafikoa % 17,5 handitu zen, eta 8.477 ibilgailura igo zen. 2022. urtean, % 8,1 handitu zen berriro, eta 9.164 ibilgailura heldu zen; pandemiaren aurretik zegoena baino % 5,7 handiagoa da hori. Beraz, pandemiak eragindako trafiko-galera azkarren berreskuratu duen tarteetako bat da. Ibilgailu astunen trafikoaren bilakaerak aldakuntza txikiagoak izan ditu, eta 2022an, 2019an baino zertxobait handiagoa izan zen, +% 0,7 hain zuzen.

Azkenik, 2024. urtean, trafikoak % 2,0 egin zuen gora ibilgailu guztietan, eguneko 9.516 ibilgailura iristeko, hots, 2019an zeudenak baino % 9,8 gehiago. Ibilgailu astunei dagokienez, 2024. urtean hazkuntza negatiboa izan da (–% 4,2), eta kopurua (1.211 ibilgailu astun egunean) 2019. urtekoa baino % 0,4 handiagoa da.

HAZTATURIKO BATEZ BESTEKO TRAFIKOAREN ALDAKETA N-636 ERREPIDEAN (14,4 KM)

URTEA	IBIL./B.B EGUN			Δ %		
	ARINAK	ASTUNAK	GUZTIRA	ARINAK	ASTUNAK	GUZTIRA
2019	7.451	1.216	8.667	-	-	-
2020	6.058	1.157	7.215	-18,7	-4,9	-16,8
2021	7.234	1.234	8.477	19,4	7,4	17,5
2022	7.948	1.224	9.164	9,8	-1,5	8,1
2023	8.065	1.264	9.329	1,5	3,3	1,8
2024	8.305	1.211	9.516	3,0	-4,2	2,0
Δ%(*) (2019-2024)	**11,5**	**-0,4**	**9,8**	**-**	**-**	**-**

5 urteko aldakuntza. Ez da urteko tasa.

2024. urtean, korridoreko trafiko osoa Muntzaratz lotunea-San Agustin lotunea (N-636 + BI-3336) tartean, 16.366 ibilgailukoa izan da eguneko, 1.686 ibilgailu astunekin, beraz, N-636 autobiako ibilbide berriaren tartean, 12.371 ibilgailurekin eguneko, ibilgailu guztien % 74,9 eta ibilgailu astunen % 84,0 hartzen du. Gainerakoak, adierazi dugunez, Abadiño eta Elorrio/Gipuzkoaren arteko erlazioak dira.

A/5.4. TRAFIKOAREN BILAKAERA AP-8 AUTOBIDEAN. AUTOBIDEAREN ERAKARPENA IGAROBIDEAREN OSOTASUNAREN ALDEAN (AP-8/N-634)

A/5.4.1. TRAFIKOAREN BILAKAERA 2019-2024 ALDIAN

Honezkero **A/5.3.2. atalean** azaldu dugun bezala, A-8/AP-8 Basauri-Erletxe-Gipuzkoako lurralde historikoaren muga ibilbideak 36,2 kilometro dauzka guztira eta, 2024. urtean, eguneko 38.348 ibilgailuko trafiko haztatua izan du batez beste; horietatik 4.181 ibilgailu astunak izan dira (% 10,9) eta trafikoaren banaketa desberdina izan da tarteen arabera: bada, Irubide-Galdakao tartean, esaterako, eguneko 60.005 ibilgailu erregistratu dira, eta Ermua-Gipuzkoako lurralde historikoaren muga tartean, berriz, eguneko 23.108. Durangoko hesi nagusiak Gipuzkoa eta Zornotza/Bilbo arteko ibilbide luzeko trafikoa zehazten du eta 28.782 ibilgailukoa izan da egunean; ibilgailu horien % 11,7 astunak izan dira.

Kontuan izanik 2023an ibilbide horretako batez besteko trafiko haztatua 37.937 ibilgailukoa izan zela egunean (4.092 astunak), 2024. urtean guztira erregistratutako trafikoa % 1,1 hazi da: ibilgailu arinak % 1,0 areagotu dira, eta astunak % 2,2. 2019. urteko datuei erreparatuz, hona hemen izandako aldakuntza: arinak % 1,0; astunak % 5,6 eta guztizkoak % 1,5, hau da, 2024. urtean (38.348 ibilgailu egunean) 2019. urteko (37.786 ibilgailu egunean) batez besteko trafiko haztatuaren antzeko maila lortu da.

A/5.4.1 taula

BATEZ BESTEKO TRAFIKO HAZTATUAREN BILAKAERA, TARTE ELKARTUETAN (IBIL./EGUN.)

URTEAK	TARTE ELKARTUAK						TARTEAK, GUZTIRA		
	BASAURI – ERLETXE (7,71 Km.)			ERLETXE – L.T.H. GIPUZKOA (28,45 Km.)			BASAURI – L.T. GIPUZKOA (36,16 Km.)		
	AR	AS	G	AR	AS	G	AR	AS	G
2017	40.996	4.322	45.318	29.012	3.756	32.769	31.567	3.877	35.444
2018	42.665	4.361	47.026	30.358	3.838	34.197	32.982	3.950	36.932
2019	42.601	4.283	46.884	31.448	3.873	35.321	33.826	3.961	37.786
2020	33.337	3.609	36.946	22.134	3.446	25.580	24.523	3.481	28.004
2021	39.535	4.289	43.824	27.396	3.814	31.209	29.984	3.915	33.899
2022	42.934	4.492	47.426	30.310	3.912	34.222	33.001	4.036	37.037
2023	43.176	4.537	47.713	31.316	3.972	35.288	33.847	4.092	37.937
2024	43.294	4.646	47.940	31.695	4.055	35.749	34.167	4.181	38.348
Δ% 2019-2020	**-21,7**	**-15,7**	**-21,2**	**-29,6**	**-11,0**	**-27,6**	**-27,5**	**-12,1**	**-25,9**
Δ% 2020-2021	**18,6**	**18,8**	**18,6**	**23,8**	**10,7**	**22,0**	**22,3**	**12,5**	**21,1**
Δ% 2021-2022	**8,6**	**4,7**	**8,2**	**10,6**	**2,6**	**9,7**	**10,1**	**3,1**	**9,3**
Δ% 2022-2023	**0,6**	**1,0**	**0,6**	**3,3**	**1,5**	**3,1**	**2,6**	**1,4**	**2,4**
Δ% 2023-2024	**0,3**	**2,4**	**0,5**	**1,2**	**2,1**	**1,3**	**0,9**	**2,2**	**1,1**
Δ% 2019-2024 *	**1,6**	**8,5**	**2,3**	**0,8**	**4,7**	**1,2**	**1,0**	**5,6**	**1,5**

* 2019. eta 2024. urteen arteko aldakuntza (ez da urteko tasa).





Basauri-Erletxe gehitutako tarteari dagokionez, gogora ekarri behar da 2006. urtean abian jarri zela Galdakaoko erdilotunea (hala, AP-8 autobidea Bilbo eta Galdakao arteko erlazioetarako erabili ahal izan zen), eta % 12,5eko hazkuntza handia izan zen 2007. urtean 2006. urtearekin alderatuta, egunean 31.983 ibilgailuko batezbestekoa izatetik egunean 35.967 ibilgailuko batezbestekoa izatera igarotzeraino. 2008. urtean, Urgoitiko kanona askatzearen ondorioz (2008ko apirila) berriz ere hazkuntza izan zen 2007. urtearekin alderatuta, % 17,8koa hain zuzen, egunean 42.353 ibilgailuko batezbestekoa izateraino. Zifra hori ia egonkor mantendu zen 2015era arte (42.207 ibilgailu eguneko, krisi ekonomikoaren ondorioz).

2015-2019 aldian, trafikoak % 2,1eko tasa izan zuen tarte horretan (Basauri-Erletxe), eta 2019an 46.884 izan zen; kopuru hori 36.946ra jaitsi zen 2020an, –% 21,2ko tasarekin. 2021ean, batez besteko trafiko haztatua eguneko 43.824 ibilgailukoa izan zen, hau da, 2020an baino % 18,6 gehiago. 2022. urtean berriz igo zen (% 8,2), 2021. urteko datuekin erkatuta, eta apur bat gainditu zuen 2019. urteko trafikoa (+% 1,2). 2023an, % 0,6 bakarrik hazi zen. Azkenik, 2024ko kopurua eguneko 47.940 ibilgailukoa izan da, hau da, aurreko urtean baino % 0,5 eta % 2,3 gehiago, 2019arekin alderatuta.

Ordainpeko tarteari dagokionez (Erletxe-Gipuzkoako lurralde historikoaren muga), esan daiteke 2016-2019 aldian trafikoaren urteko hazkuntza-tasa % 5,6 izan zela: egunean 29.969 ibilgailu izatetik 35.321 ibilgailu izatera igaro zen. 2020. urtean kopuru hori eguneko 25.580 ibilgailura jaitsi zen (–% 27,6), 2021. urtean, ordea, 31.209 igo (+% 22,0) eta 2022an berriz egin zuen % 9,7 gora, eguneko 34.222 ibilgailura iritsi arte, hau da, 2019. urtean baino –% 3,1 gutxiago. 2023an, ordainpeko tarte horretako trafikoaren hazkundea % 3,1ekoa izan zen. 2024An ere hazkundea izan da baina txikiagoa, % 1,3koa 2023koaren aldean.

2016-2019 aldian ordainpeko tarte horretan izandako hazkunde handiari dagokionez, 2016an eta 2017. urtean ildo horretan eragin positiboa izan zuten bi jarduketa horiek egin zirelako justifikatzen da:

a) N-636 autobide berria (Gerediaga–Elorrio), trazadura berrikoa, martxan jartzea, Durango–Elorrio korridoreko trafikoa birbanatu egin baitu. Horren ondorioz, trafikoa pixka bat areagotu da AP-8ko Durango–Gerediaga tartean.

b) 2017ko urtarrilean diru-laguntza bat ezarri zen Bizkaiko zergadunei errepidearen erabileran hileko 30 euroko[41] gastua gainditu ondoren gainerako guztia (% 100) diruz laguntzeko. Diru-laguntza horrek eragin du, neurri handi batean, AP-8 errepideko ordainpeko zatian ibilgailu arin gehiago ibiltzea, onuradunek maizago erabili dutelako eta bidaia luzeagoak egin dituztelako.

Bi jarduketa horiek eragina izan dute trafikoaren hazkunde handian (batez ere ibilgailu arinen kasuan), AP-8ko kontrol-sistema itxiko erlazio-matrizean. 2015ean egunean 30.772 bidaia erregistratzetik (4.186 astunenak) eguneko 41.965 bidaia (5.260 astunenak) erregistratzera pasa zen 2019an. Hots, bi urtekoen artean, ibilgailuak, orotara, % 36,4 areagotu ziren, eta astunak, berriz, % 25,7. Datu horiek AP-8 eta N-634 errepideetako korridoreetako trafiko-banaketa berriak azaltzen dituzte, bereziki Durango – Ermua tartean.

2020an, kontrol-sistema itxi horri zegokion igarotze-matrizea eguneko 31.629 ibilgailutara jaitsi zen (–% 24,6), eta 2015eko mailetara itzuli zen, pandemiaren ondorioz; 2021ean, berriz, eguneko 38.462 ibilgailutara igo zen (+% 21,6), eta 2019. urtearekin alderatuta, –% 8,3 aldatu da. 2022. urtean joan-etorriak % 9,3 igo ziren, 2021. urteko datuekin alderatuta, hau da, egunean 42.044 ibilgailu, 2019. urteko datuen antzera (+% 0,1).

(41) 166/2016 Foru Dekretua; horren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoan zergadun diren pertsona fisikoentzako diru-laguntzen sistema berrikusi zen, gehienez ere hilean 30 € ordain dezaten (2017ko ekainetik aurrera) bidesarietan; hau da, joan-etorrietarako garraiobide-publikoak erabiltzekotan ordainduko luketen zenbatekoaren antzekoa.

A/5.4.1. grafikoa

TRAFIKOAREN BILAKAERA AUTOBIDEAN (2019-2024 ALDIAN)

IBIL./B.B. EGUN: Ibilgailu guztiak (astunak)



Durangoko hesi nagusian (ibilbide luzea) erregistratutako trafikoak % 5,3ko urteko tasa izan zuen 2016-2019 aldian, eta egunean 27.706 ibilgailu izatera iritsi zen. 2020. urtean aipatutako zifra eguneko 19.578 ibilgailura jaitsi zen (–% 28,7), 2021. urtean eguneko 24.457 ibilgailura egin zuen gora (+% 23,8) eta 2022an joera berari eutsi zion % 10,9 hazteko (eguneko 27.130 ibilgailu). Kopuru hori 2019. urtekoa baino txikiagoa da (eguneko 27.706 ibilgailu), eta aldakuntza –% 2,1ekoa. 2023an, hesi horretako trafikoaren hazkundea % 4,1ekoa izan zen, eta, guztira, 28.248 ibilgailu erregistratu ziren egunean.

2024an, hazkundea % 1,9koa izan da ibilgailu guztien kasuan, eta % 3,0koa astunen kasuan, 2023arekin konparatuta. 2019. urtearekin erkatua, aldakuntza % 3,9 eta % 6,9koa izan da, hurrenez hurren.

TRAFIKOAREN BILAKAERA DURANGO TARTE NAGUSIAN ETA BIDE-ORDAINSARIKO LOTUNEETAN (SISTEMA IREKIA)

Ibilgailu guztiak/egunean (ibilgailu astunak/egunean)

URTEAK	BOROA M.			DURANGO M.			DURANGOKO ENB.		
	AR	AS	G	AR	AS	G	AR	AS	G
2017	10.516	907	11.423	10.755	635	11.390	21.914	3.050	24.964
2018	11.204	979	12.183	11.147	642	11.789	23.581	3.106	26.667
2019	11.614	999	12.613	11.622	658	12.280	24.547	3.159	27.706
2020	9.055	861	9.916	8.813	588	9.401	16.964	2.794	19.758
2021	10.348	939	11.287	10.483	645	11.128	21.361	3.093	24.454
2022	10.828	939	11.767	11.081	674	11.755	23.916	3.214	27.130
2023	10.954	1.001	11.955	11.274	713	11.987	24.968	3.280	28.248
2024	11.273	1.114	12.387	11.250	720	11.970	25.404	3.378	28.782
Δ% 2019-2020	**-22,0**	**-13,8**	**-21,4**	**-24,2**	**-10,6**	**-23,4**	**-30,9**	**-11,6**	**-28,7**
Δ% 2020-2021	**14,3**	**9,1**	**13,8**	**18,9**	**9,7**	**18,4**	**25,9**	**10,7**	**23,8**
Δ% 2021-2022	**4,6**	**0,0**	**4,3**	**5,7**	**4,5**	**5,6**	**12,0**	**3,9**	**10,9**
Δ% 2022-2023	**1,2**	**6,6**	**1,6**	**1,7**	**5,8**	**2,0**	**4,4**	**2,1**	**4,1**
Δ% 2023-2024	**2,9**	**11,3**	**3,6**	**-0,2**	**1,0**	**-0,1**	**1,7**	**3,0**	**1,9**
Δ% 2019-2024 *	**-2,9**	**11,5**	**-1,8**	**-3,2**	**9,4**	**-2,5**	**3,5**	**6,9**	**3,9**

* 4 urteko aldakuntza. Konparazio zuzena da, ez da urteko tasa.





Bidesari irekiko lotuneetan jasotako guztizko trafikoari dagokionez, adierazi behar da Boroako Mendebaldeko lotunean gora egin duela 2023. urtearekin alderatzen badugu (% 3,6); Durangoko Mendebaldeko lotunean, berriz, –% 0,1 jaitsi da. Ibilgailu astunak % 11,3 igo dira Boroako Mendebaldean eta % 1,0 Durangoko Mendebaldean. 2019. urtearekin erkatuta, 2024. urtean honako zifra hauek lortu dira: –% 1,8 Boroako Mendebal-

dean eta –% 2,5 Durangoko Mendebaldean, ibilgailu guztiei dagokienez, eta +% 11,5 eta +% 9,4, hurrenez hurren, ibilgailu astunei dagokienez.

Azkenik, aipatu behar da Txorierriko (Erletxe) lotuneko trafikoa, Ekialderantz (Zornotza, Durango, Gipuzkoa), % 1,5 murriztu dela 2024an, 2023aren aldean: 2022an, 22.867 ibilgailu eguneko; 2024. urtean, 22.524 ibilgailu eguneko. 2019arekin alderatuta (24.809 ibilgailu egunean) trafikoaren aldakuntza –% 9,2 da.

Gerediaga–Elorrio autobia martxa jarri izanak trafikoaren birbanaketa handia ekarri du Durangoko ekialdeko eta Gerediagako lotuneetako trafikoan, **A/5.4.1. grafikoan** eta ondoko taulan ageri den legez:

TRAFIKOAREN BILAKAERA (IBIL./EGUN)

LOTUNEAK	2015. URTEA		2019. URTEA		2020. URTEA		2022. URTEA		2023. URTEA		2024. URTEA	
	Guztiak	Astunak	Guztiak	Astunak	Guztiak	Astunak	0 pt	Pesados	Totales	Pesados	Totales	Pesados
Durango Mend.	11.030	651	12.280	658	9.401	588	11.755	674	11.987	713	11.970	720
Durango Ekiald.	4.400	451	8.210	1.024	7.222	1.200	9.366	1.301	9.566	1.294	9.646	1.215
Gerediaga Mend.	4.033	265	12.461	1.078	10.793	1.179	13.998	1.318	14.524	1.368	14.909	1.319
Gerediaga Ekiald.	3.558	606	4.216	680	3.177	498	3.813	514	3.620	492	3.577	462

Kontuan hartuta aipatutako autobia 2016ko abuztuan jarri zela martxan, gehien kaltetutako adarretako trafikoaren aldaketa osoa 2015 eta 2019 arteko erreferentzia-urteetan izan da:

	Δ Guztizkoaren %
– Durango Ekialdea:	86,6
– Gerediaga Mendebaldea:	209,0

2024. urtean, Durangoko Ekialdearekiko eta Gerediaga Mendebaldearekiko erlazioak 2019koak baino handiagoak direla ikusi da, +% 17,5eko eta +% 19,6ko aldakuntzekin, hurrenez hurren, ibilgailu guztietan, eta +% 18,7koa eta +% 22,4koa astunetan. Hala, N-634 eta AP-8ren arteko trafikoaren birbanaketa-efektuak funtzionatzen jarraitzen du Gerediaga-Ermua tartean.

TRAFIKOAREN ALDAKUNTZA (%)[42]

ENLACES	2015-2019		2023-2024		2019-2024	
	Guztiak	Astunak	Guztiak	Astunak	Guztiak	Astunak
Durango Mend.	11,3	1,1	-0,1	1,0	-2,5	9,4
Durango Ekiald.	86,6	127,1	0,8	-6,1	17,5	18,7
Gerediaga Mend.	209,0	306,8	2,7	-3,6	19,6	22,4
Gerediaga Ekiald.	18,5	12,2	-1,2	-6,1	-15,2	132,1

(42) Guztizko aldakuntza. Ez da urteko tasa.

A/5.4.2. TRAFIKOAK IGAROBIDEAN DUEN BANAKETA ETA AP-8 AUTOBIDEAREN ERAKARPENA

a) Erakarpena 2024. urtean

Ordainpeko A-8aren aukerako bide arrunta, Basauri – Durango – LHM (Gipuzkoa) igarobidean, N-634 errepidea da. Errepide hori autobidearekiko paraleloan doa ia ibilbide osoan, eta 38,6 km-ko luzera dauka, Basauri/Irubideren eta Gipuzkoako LHMren artean.

Tarte berdintsuen araberako banaketa egin da, korridoreko guztizko trafikoaren banaketarekiko erkaketa egiteko bi bideen artean, baita autobidearen erakarpen-ahalmena tarte horien arabera zehazteko ere.

Emaitzen arabera, 2024. urtean korridoreko trafiko guztiaren gainean (agitazio-trafikoa barne) autobideak batezbesteko haztatuan ibilgailu guztien % 72,8 eta ibilgailu astunen % 74,1 erakarri du. Hortaz, 2024. urtean trafiko gutxiago ibili da N-634 aukerako errepidean, eta batezbesteko haztatua eguneko 13.428 ibilgailutik (2023) eguneko 14.346 ibilgailura (2024) pasa da.

Erakarpena, ordea, aldatu egiten da tarteen arabera; hala, Irubide-Galdakao tartean % 86,7koa izan zdaen, baina Basauri-Irubide tartean, berriz, % 63,9koa, ibilgailu guztiei erreparatuz gero. Ibilgailu astunentzako erakarpena % 90,6tik % 57,7ra bitartekoa da Ermua-Gipuzkoako lurralde historikoaren muga tartean eta % 57,7koa Amorebietako Mendebaldea (Boroa)-Amorebietako Ekialdea (Montorra) tartean.

Esan behar da autobideak erakartzeko moduko igarobideko ahalezko trafikoa, izan ere, erregistraturikoa baino txikiagoa dela, bai N-634 errepidetik doan agitazio-trafikoa edo tokiko trafikoaren eraginez, bai loturen kokalekuak ibilbide laburreko erlazio batzuk erakartzeko aukerarik ez ematearen ondorioz. Ildo horretan, orain dela gutxi eraikitako erdi loturek (Galdakao Mendebaldea, Urgoiti Ekialdea, Txorierri Mendebaldea eta Boroa Ekialdea) iragazkortasun eta erakarpen aukera gehiago eman dizkiote autobideari, batez ere Basauri eta Erletxe artean. Hala, Gerediagako lotura martxan jarri ondoren, Durango/Matiena – Berriz zonaldeari zerbitzua hobeto ematen zaio, eta zonaldeko ibilbide laburreko eskaria hartzen du. Era berean, N-636 autobidea (Gerediaga–Elorrio) martxan jarri izanak lagundu du Durango–Gerediaga (nagusiki) eta Gerediaga–Ermua tarteen erakarpena pixka bat areagotzen.

A/5.4.2.a. grafikoa

IGAROBIDEA: BASAURI-DURANGO-GIPUZKOA LHL AUTOBIDE/ERREPIDEKO TRAFIKOAREN BANAKETA

EBBI (Ibil. astunak/eguneko). 2024. URTEA



A/5.4.2.a. taula

TRAFIKOAK IGAROBIDEAN DUEN BANAKETA ETA AP-8 AUTOBIDEAREN ERAKARPENA. 2024. URTEA

TARTEA	AUTOBIDEA			N-634 ERREPIDEA			IGAROBIDEA, GUZTIRA		IGAROBIDEKO ERAKARPEN %	
	Luzera	EBBI	Astunak	Luzera	EBBI	Astunak	EBBI	Astunak	EBBI	Astunak
BASAURI - IRUBIDE	1,69	49.597	4.830	1,7	28.047	1.914	77.644	6.744	63,9	71,6
IRUBIDE - GALDAKAO	1,63	60.005	5.560	2,0	9.203	811	69.208	6.371	86,7	87,3
GALDAKAO - URGOITI	1,92	48.995	4.839	2,5	16.549	1.117	65.544	5.956	74,8	81,2
URGOITI - TXORIERRI/ERLETXE	2,47	38.025	3.768	1,8	14.443	1.454	52.468	5.222	72,5	72,2
Basauri – Erletxe azpitartea	**7,71**	**47.940**	**4.646**	**8,0**	**16.682**	**1.286**	**64.622**	**5.932**	**74,2**	**78,3**
TXORIERRI/ERLETXE - AMOREBIETA M.	3,13	48.636	4.747	3,5	20.889	2.414	69.525	7.161	70,0	66,3
AMOREBIETA M. - AMOREBIETA E.	3,70	37.032	3.717	4,0	20.057	2.723	57.089	6.440	64,9	57,7
AMOREBIETA E. - DURANGO	8,20	40.752	4.097	7,8	17.375	2.191	58.127	6.288	70,1	65,2
DURANGO - GEREDIAGA	3,50	38.426	4.593	3,5	15.532	1.082	53.958	5.675	71,2	80,9
GEREDIAGA - ERMUA	7,52	27.098	3.737	11,1	6.504	504	33.602	4.241	80,6	88,1
ERMUA - LHL (Gipuzkoa)	2,40	23.108	3.735	0,7	6.943	386	30.051	4.121	76,9	90,6
Erletxe - LHL (Gipuzkoa) azpitartea	**28,45**	**35.752**	**4.055**	**30,6**	**13.735**	**1.506**	**49.487**	**5.561**	**72,2**	**72,9**
TARTEAK, GUZTIRA	**36,16**	**38.351**	**4.181**	**38,6**	**14.346**	**1.460**	**52.696**	**5.641**	**72,8**	**74,1**

b) Autobidearen partaidetzaren bilakaera igarobideko trafikoan, ordainpeko tartean

Trafikoaren tarteen araberako banaketan izandako konparazioetan (autobidea/errepidea) desitxuraketarik gerta ez dadin Txorierriko igarobidearen eta AP-8aren arteko loturaren eta Ermuko Saihesbide berriaren ondorioz[43], Erletxe – Ermua artean baizik ez dugu egingo konparaziozko azterketa hori; izan ere, erreferentzia nagusiko tartea da, ordainpeko autobidearen kudeaketa operatiboaren ikuspuntutik.

A/5.4.2.b.1 taulan ikus daitekeenez, Erletxe-Ermua tartean AP-8 autobideko trafikoa guztira –% 1,0 jaitsi da 2024an, eta N-634 errepidean, aldiz, trafikoa % 2,1 igo da, eta horrek –% 0,2ko aldakuntza dakar korridore osorako tarte horretan.

Autobideak trafikoa erakartzeko gaitasunari dagokionez, aipatutako taulak adierazten digu 2019an korridoreko trafiko guztiarekiko (agitazio-trafikoa barne) autobideak erakartzeko maila Erletxe-Ermua tartean % 70,9koa izan zela; 2020an, berriz, % 68,4koa; 2021ean, 2022an eta 2023an % 69,7, % 71,2 eta %73,2ra igo zen, hurrenez hurren. 2024. urtean % 72,6ra egin du behera.

A/5.5.2.b2 taulan ikus daiteke ibilgailu astunen erakarpena % 68,6koa izan zela 2019an; zifra hori ia mantendu egin da 2020an eta 2021ean, 2022. urtean % 69,5era igo da, 2023an % 71,9ra eta 2024an % 72,6ra. Hau da, AP-8 autobideak, 2016. eta 2019. urteen artean, korridore osoan trafiko gehiago erakarri ondoren, eutsi egin dio ibilgailu astunen eskariari azken bi urteetan, AP-8ren erakarpenari dagokionez. Dena den, korridore guztian ibilgailu astunen trafikoa apur bat jaitsi da: egunean 5.653 ibilgailu astun 2022an eta egunean 5.559 ibilgailu astun 2023an; 2024an, berriz, egunean 5.623 ibilgailu astun. Kontuan izan behar da ibilgailu mota horien karga-ahalmena egunero handitzen dela.

(43) Ermuko saihesbide berriarekin, AP-8ko lotunea mendebalderantz eraman da 2 km inguruantz, eta 2019tik N-634 errepideko trafikoa Ermua Mendebaldea – Gipuzkoako LHM azpimultzoarekin birbanatu da. Ondorioz, azterketa konparatiboa 2016tik egiten denez, azterketatik kanpo utzi da 2,40 km-ko luzerako azpitarte hori.

A/5.4.2.b.1. taula

TRAFIKOAREN BILAKAERA IGAROBIDEAN. (IBILGAILU GUZTIAK/EGUN)

AZTERTURIKO TARTEAK	KM	TRAFIKOAKREN BILAKAERA (EBBI)						URTEKO HAZKUNDEA (%)	
		2019	2020	2021	2022	2023	2024	2023-2024	2019-2024
AP-8 AUTOBIDEA:									
Erletxe – Amorebieta M.	3,13	48.489	35.827	43.008	46.438	47.719	48.636	1,9	0,1
Amorebieta M. – Amorebieta E.	3,70	37.007	26.780	32.381	35.174	36.513	37.032	1,4	0,0
Amorebieta E. – Durango	8,20	39.986	29.159	35.582	38.885	40.235	40.752	1,3	0,4
Durango – Gerediaga	3,50	35.916	26.980	33.053	36.496	37.815	38.426	1,6	1,4
Gerediaga – Ermua	7,52	27.678	19.364	23.745	26.311	29.912	27.098	-9,4	-0,4
Guztizko partz.	**26,05**	**36.485**	**26.502**	**32.263**	**35.315**	**37.300**	**36.917**	**-1,0**	**0,2**
N-634 ERREPIDEA:									
Erletxe – Amorebieta M.	3,50	21.946	16.987	20.345	21.130	20.034	20.889	4,3	-1,0
Amorebieta M. – Amorebieta E.	4,00	21.749	18.271	19.146	20.032	19.642	20.057	2,1	-1,6
Amorebieta E. – Durango	7,80	19.187	16.130	18.911	18.814	17.279	17.375	0,6	-2,0
Durango – Gerediaga	3,50	16.754	13.311	16.071	16.286	15.929	15.532	-2,5	-1,5
Gerediaga – Ermua	10,90	6.665	5.365	6.004	6.115	6.102	6.504	6,6	-0,5
Guztizko partz.	**29,70**	**14.975**	**12.236**	**14.040**	**14.292**	**13.661**	**13.943**	**2,1**	**-1,4**
IGAROBIDEA:									
Erletxe – Amorebieta M.	3,50	70.435	52.814	63.353	67.568	67.753	69.525	2,6	-0,3
Amorebieta M. – Amorebieta E.	4,00	58.756	45.051	51.527	55.206	56.155	57.089	1,7	-0,6
Amorebieta E. – Durango	7,80	59.173	45.289	54.493	57.699	57.514	58.127	1,1	-0,4
Durango – Gerediaga	3,50	52.670	40.291	49.124	52.782	53.744	53.958	0,4	0,5
Gerediaga – Ermua	10,90	34.343	24.729	29.749	32.426	36.014	33.602	-6,7	-0,4
GUZTIRA	**29,70**	**51.460**	**38.738**	**46.303**	**49.607**	**50.961**	**50.860**	**-0,2**	**-0,2**

AUTOBIDEAREN PARTAIDETZAREN BILAKAERA IGAROBIDEAREN TRAFIKOAN

AZTERTURIKO TARTEAK	KM	TRAFIKOAKREN BILAKAERA (EBBI)						ERAKARTZE-TASAREN HANDITZEA (%)(*)	
		2019	2020	2021	2022	2023	2024	2023-2024	2019-2024
Erletxe – Amorebieta M.	3,13	68,8	67,8	67,9	68,7	70,4	70,0	-0,7	0,3
Amorebieta M.– Amorebieta E.	3,70	63,0	59,4	62,8	63,7	65,0	64,9	-0,2	0,6
Amorebieta E. – Durango	8,20	67,6	64,4	65,3	67,4	70,0	70,1	0,2	0,7
Durango – Gerediaga	3,50	68,2	67,0	67,3	69,1	70,4	71,2	1,2	0,9
Gerediaga – Ermua	7,52	80,6	78,3	79,8	81,1	83,1	80,6	-2,9	0,0
Guztira	**26,05**	**70,9**	**68,4**	**69,7**	**71,2**	**73,2**	**72,6**	**-0,8**	**0,5**

(*) Erakarpen portzentajeen aldea.

A/5.4.2.b.2. taula

TRAFIKOAREN BILAKAERA IGAROBIDEAN. (IBILGAILU ASTUNAK/EGUNA)

AZTERTURIKO TARTEAK	KM	TRAFIKOAKREN BILAKAERA (EBBI)						URTEKO HAZKUNDEA (%)	
		2019	2020	2021	2022	2023	2024	2023-2024	2019-2024
AP-8 AUTOBIDEA:									
Erletxe – Amorebieta M.	3,13	4.416	3.864	4.264	4.406	4.537	4.747	4,6	1,5
Amorebieta M. – Amorebieta E.	3,70	3.531	3.108	3.398	3.510	3.616	3.717	2,8	1,0
Amorebieta E. – Durango	8,20	3.817	3.382	3.738	3.888	3.993	4.097	2,6	1,4
Durango – Gerediaga	3,50	4.183	3.994	4.435	4.515	4.574	4.593	0,4	1,9
Gerediaga – Ermua	7,52	3.785	3.313	3.676	3.711	3.698	3.737	1,1	-0,3
Guztizko partz.	**26,05**	**3.888**	**3.463**	**3.829**	**3.930**	**3.998**	**4.084**	**2,2**	**1,0**
N-634 ERREPIDEA:									
Erletxe – Amorebieta M.	3,50	2.738	2.298	2.978	2.712	2.376	2.414	1,6	-2,5
Amorebieta M. – Amorebieta E.	4,00	3.195	2.868	2.899	3.038	2.773	2.723	-1,8	-3,1
Amorebieta E. – Durango	7,80	2.661	2.319	2.676	2.528	2.337	2.191	-6,2	-3,8
Durango – Gerediaga	3,50	1.236	1207	1.396	1.168	1.115	1.082	-3,0	-2,6
Gerediaga – Ermua	10,90	507	436	458	527	444	504	13,5	-0,1
Guztizko partz.	**29,70**	**1.784**	**1.568**	**1.777**	**1.724**	**1.562**	**1.539**	**-1,4**	**-2,9**
IGAROBIDEA:									
Erletxe – Amorebieta M.	3,50	7.154	6.162	7.242	7.118	6.913	7.161	3,6	0,0
Amorebieta M. – Amorebieta E.	4,00	6.726	5.976	6.297	6.548	6.389	6.440	0,8	-0,9
Amorebieta E. – Durango	7,80	6.478	5.701	6.414	6.416	6.330	6.288	-0,7	-0,6
Durango – Gerediaga	3,50	5.419	5.201	5.831	5.683	5.689	5.675	-0,2	0,9
Gerediaga – Ermua	10,90	4.292	3.749	4.134	4.238	4.142	4.241	2,4	-0,2
GUZTIRA	**29,70**	**5.672**	**5.032**	**5.605**	**5.653**	**5.559**	**5.623**	**1,1**	**-0,2**

AUTOBIDEAREN PARTAIDETZAREN BILAKAERA IGAROBIDEAREN TRAFIKOAN

AZTERTURIKO TARTEAK	KM	TRAFIKOAKREN BILAKAERA (EBBI)						ERAKARTZE-TASAREN HANDITZEA (%)(*)	
		2019	2020	2021	2022	2023	2024	2023-2024	2019-2024
Erletxe – Amorebieta M.	3,13	61,7	62,7	58,9	61,9	65,6	66,3	1,0	1,4
Amorebieta M.– Amorebieta E.	3,70	52,5	52,0	54,0	53,6	56,6	57,7	2,0	1,9
Amorebieta E. – Durango	8,20	58,9	59,3	58,3	60,6	63,1	65,2	3,3	2,0
Durango – Gerediaga	3,50	77,2	76,8	76,1	79,4	80,4	80,9	0,7	1,0
Gerediaga – Ermua	7,52	88,2	88,4	88,9	87,6	89,3	88,1	-1,3	0,0
Guztira	**26,05**	**68,6**	**68,8**	**68,3**	**69,5**	**71,9**	**72,6**	**1,0**	**1,2**

(*) Erakarpen portzentajeen aldea.

A/5.4.3. ERLETXEKO LOTURAREN ETA TXORIERRIKO IGAROBIDEAREN BIDEZKO ERLAZIOAK (BI-30/N-637)

AP-8 autobideak, 2005ean, 11.662 ibilgailuko erlazioak zituen egunean Txorierrirekin; 2019an, aldiz, egunean 36.815 ibilgailukoak izan ziren, hau da, urteko % 8,6ko hazkundea. Erletxeko erdi lotura zaharrean N-634rekin zeuden lotura adarrak behin deuseztatuta, zuzeneko adar guztiak aintzat hartuta atera dira adierazitako kontuak. 2019. urtean Erletxeko lotunean guztizko erlazio horiek honako modu honetan banatu ziren: 24.809 (% 67,4) Gipuzkoa noranzkoan eta 12.005 (% 32,6) Bilbo noranzkoan.

2020. urtean Txorierrirekin AP-8ren erlazioak 27.416ra jaitsi ziren (–% 25,5), 2021ean, ordea, 32.053ra egin zuten gora (+% 16,9) eta 2022. urtean 2021eko joerari eutsi zioten (+% 9,7), eguneko 35.154 ibilgailura iritsi arte, hau da, 2019koa baino gutxiago (–% 4,5). 2022. urtean Erletxeko Ekialdearen (Gipuzkoa) eta Erletxeko Mendebaldearen (Bilbo) artean trafikoaren banaketa eguneko 22.269 ibilgailukoa (% 63,3) eta 12.885 ibilgailukoa (% 36,7) izan da, hurrenez hurren.

2023. urtean, Txorierriko korridorearekin AP-8 autobidearen guztizko erlazioa eguneko 35.653 ibilgailura iritsi zen, hau da, 2022. urtean baino % 1,4 gehiago, baina 2019. urtean baino % 3,2 gutxiago. Hona hemen erlazio horien banaketa: 22.867 ibilgailu egunean Erletxeko Ekialdeko adarretan zehar (Gipuzkoa norabidean) eta 12.787 Erletxeko Mendebaldea/Bilbo norabideko adarretan zehar.

2024. urterako, erregistratutako kopurua eguneko 35.036 ibilgailukoa izan da (aurreko urtean baino –% 1,7 gutxiago ibilgailu guztien kasuan), eta eguneko 3.404 ibilgailu astunekoa (% 2,7ko igoera ibilgailu astunen kasuan). Banaketa hau da: 22.823 ibilgailu egunean Erletxeko Ekialdeko adarretan zehar (Gipuzkoa norabidean) eta 12.213 Erletxeko Mendebaldea/Bilbo norabideko adarretan zehar.

Erantsitako taulan AP-8 autobideak Txorierriko korridoretik dituen erlazioen matrizea ageri da, 2024. urteari dagokionez; Txorierri-Gipuzkoa (Erletxeko Ekialdea) erdilotuneko mugimenduak banandu egin dira Txorierri-Bilbo (Erletxeko Mendebaldea) erdilotunekoetatik.

Ikusten denez, Erletxe-Gipuzkoak Kukularrako lotunearekin dituen erlazioak, guztira, eguneko 13.475 ibilgailukoak izan ziren; horietatik eguneko 4.389 ibilgailu Avanzada-Getxo sarbidearekiko erlazioak dira, eta eguneko 9.086 ibilgailu Barakaldorekiko eta Ugaldebieta irtenbidearekiko, gehienbat. Txorierrik A-8rekin Durango/Gipuzkoa norabidean (Erletxeko Ekialdea) dituen erlazioen hazkuntza izugarria izan da: 2005ean egunean 10.418 ibilgailu[44] izatetik 2019an 24.809 ibilgailu izatera igaro da, urteko hazkuntza-tasa % 6,4 izanik. 2020. urtean trafiko hori (Erletxeko E.), egunean 17.748 ibilgailura jaitsi zen (–% 28,5), 2021ean egunean 20.691 ibilgailura igo da eta % 16,6ko hazkuntza izan zuen. 2022. urtean berriz ere % 7,6 gora egin zuen, eguneko 22.269 ibilgailura iritsi arte. 2023an, adar horietatik (Erletxeko Ekialdea) egunean 22.867 ibilgailu ibili ziren: 2022. urtean baino % 2,7 gehiago, baina 2019. urtean baino –% 7,8 gutxiago. 2024an, zifra 22.823ra heldu da; jaitsiera txikia izan da 2023aren aldean, % 0,2koa.

(44) Erletxeko ekialdeko adarretako trafikoa, 2005. urtean, hau izan zen guztira: 12.616 ibilgailu egunean; horietatik 2.198 ibilgailu N-634 errepidearekiko (ez Txorierrirekin) erlazioak ziren, oraintsu ezabatu diren antzinako adarren bidezkoak; antzinako adar horiek Urgoitiko Ekialdeko erdilotura martxan jarrita ezabatu dira, baita AP-8 autobidea Txorierrirekin (Bilbo-Txorierri noranzkoan) lotzeko adar berria ere.

Era berean, Basauri-Txorierri adarra martxan jartzeak, Bilbo norabidean Basauritik joanda Txorierriko konexioa osatuz (Erletxeko Mendebaldea), berekin ekarri du trafikoaren kopurua handitzea: 2006an egunean 5.358 ibilgailukoa zen (zirkulazioko bi noranzkotan) eta 2019an egunean 12.005 ibilgailukoa izatera iritsi zen (urteko +% 6,4ko tasa). 2020. urtean trafiko hori (Erletxeko Mendebaldea), egunean 9.668 ibilgailura jaitsi zen (–% 19,5), 2021ean egunean 11.366 ibilgailura igo zen eta % 17,6ko hazkuntza izan zen. 2022. urtean berriz ere % 13,4 gora egin zuen, eguneko 12.884 ibilgailura iritsi arte. 2023. urtean, arinki jaitsi dira 2022. urtekoekin alderatzen baditugu (% 0,7), beraz, egunean 12.787 ibilgailuk jardun dute, hortaz, 2019an baino % 6,5 gehiago izan dira.

2024. urtean, Bilbora daramaten adarretatik (Erletxeko Mendebaldea) Txorierriko erlazioak jaitsi egin dira 2023. urtekoekin alderatzen baditugu (–% 4,5), beraz, egunean 12.213 ibilgailuk jardun dute.

Horri dagokionez, hau adierazi behar da: Gurutzetako korapilo banatzailea birmoldatzea eta, horren ondoren, Kukularra-Derio tartean erreiak handitzea eta Txorierriko igarobidea AP-8 autobidearekin guztiz lotzeko jarduketak egitea lagungarriak izan da iparraldeko ardatza (Txorierri) gehiago erabiltzeko prozesua sustatzeko, pasoko erlazioetarako (Gurutzeta-Kukularra-AP-8); horrek mesede egin dio Hegoaldeko irtenbideko trafikoaren iraunkortasunari eta bi ardatzen arteko banaketa orekatuagoari.

AP-8 AUTOBIDEAK TXORIERRIKO IGAROBIDEAREKIN DITUEN ERLAZIOAK (2024. URTEA)

EREMUAK	A-8 (ERLETXE-DONOSTIA)		A-8 (ERLETXE - BILBAO)	
	GUZTIAK	ASTUNAK	GUZTIAK	ASTUNAK
1. Kukularra/Avanzada/Getxo	4.389	285	921	95
2. Kukularra/Errontegi/Santander	9.086	1.192	1.758	290
3. Asua/Asua	295	20	199	31
4. Asua/Enekuri	1.042	152	588	55
5. Artxandako tunelak	1.329	37	138	13
6. Larrondo	417	54	307	37
7. Derio (Derio)	3.696	225	3.546	253
8. Derio (Egirleta)	410	16	418	9
9. Zamudio	1.158	113	2.321	261
10. Lezama	714	71	1.193	121
11. Larrabetzu	287	26	824	48
GUZTIRA	**22.823**	**2.191**	**12.213**	**1.213**

Bilbo–Erletxeko trafikoak Txorierrirekin dituen erlazioei dagokienez (kanonik gabeak), ikusi dugu gehienak Derio–Larrabetzu tartean pilatzen diren arren, gaur egungo bide-baldintzek aukera ematen dutela N-240 (Urgoiti) nahiz N-634 (Galdakao/Zornotza) errepideetan La Avanzadarekin zein Arrontegirekin erlazioak ezartzeko; erlazio horiek, lehen, Hego Irtenbidetik egiten ziren.

Aitzitik, 2008an Urgoiti Mendebaldeko lotuneko kanona askatzeak badirudi eragina izan duela Hego irtenbidea gehiago erabiltzeko N-240 errepidetik Gurutzeta/Barakaldo/Santanderrekiko erlazioetarako. Aldi berean, N-634 errepideko trafikoa nabarmenki murriztu da Urgoiti - Irubide tartean.

A/5.5. IBILGAILU ASTUNEN KASUAN AZPIEGITURAK ERABILTZEAGATIKO ORDAINKETA-SISTEMA (EOS) EZARTZEA ETA APLIKATU ONDOREN ERAGINPEKO IBILGAILUEK BIDE-BANAKETAN ERAGITEKO MODUA 2024. URTEAN

A/5.5.1. ALDERDI OROKORRAK

Uztailaren 20ko 7/2022 Foru Arauak (Bizkaiko lurralde historikoko zenbait errepide erabiltzeagatik salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailu astunentzako kanona ezartzen du) Europako zuzentarauak sustatzen duen "erabiltzaileek ordaintzea" printzipioari erreparatzen dio, eta zenbait errepidetan "erabiltzeagatiko ordainketa sistema" ezartzea aukeratu du. Beren-beregi 3,5 tonatik gorako ibilgailu astunei eragingo die, baldin eta errepidez salgaiak garraiatzen badituzte.

Foru arauaren arabera, errepidez salgaien garraio astunak inpaktu handia du, bai finantzen arloan (bide-azpiegiturak mantentzea), bai ingurumenean (emisioak eta kutsadura akustikoa). Horrez gain, erabiltzeagatiko ordainketa-sistema zuzena da zergapetukako bideak erabiltzen dituzten garraiolariek neurriz lagun dezaten eraginpeko errepideen erabilerarekin zerikusia duten kostuak finantzatzen.

"Kanona sistema irekia kontuan hartuta zehazten da, Free Flow teknologiaren bidez. Ibilgailuak zergapeko tarteetan doazenean, zenbait puntutan bidearen gainean ezarrita dauden atariak zeharkatuko dituzte ordaintzeko. Puntu bakoitzetik pasatzen direnean, dagokien zenbatekoa atxikiko zaie".

Foru arauaren 1. artikuluak (xedea) honako errepide hauek erabiltzeagatiko kanona ezarri eta arautzen du, errepide horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak baitira:

a) Kantauriko A-8 autobidea eta BI-10 errepidea Basurtutik (119,500 k.p.) El Hayaraino (139,219 k.p.). Luzera: 19,719 km
b) Trapagaran-Bilbo N-240 errepidea (Barazar), Urgoititik (55,773 k.p.) eta Ubidea saihesbidetik (23,050 k.p.). Luzera: 32,723 km
c) Beasain-Durango N-636 errepidea (Kanpazar) Gipuzkoarekin puntu mugakidetik (34,980 k.p.) Durangoraino (49,350 k.p.): 14,37 km
d) Gurutzeta-Arrontegi-Erletxe BI-30 errepidea (N-637 ohia), Gurutzetako lotunearen (8,000 k.p.) eta Erletxeko lotunearen (28,180 k.p.) artean. Luzera: 20,18 km
e) BI-625 errepidea, Laudiotik (372,560 k.p.) Basauriraino (387,310 k.p.). Luzera: 14,75 km

Aipatutako foru-araua bi fasetan ezarri da:

— 1. fasea: 2023ko urtarrilaren amaieran martxan jartzea bi errepidetan:
  - N-240 errepidea, Urgoiti eta Ubidea lotuneen artean (32,7 km)
  - BI-625 errepidea, Laudiotik Basauriraino Arrigorriagatik (14,4 km)

— 2. fasea: 2024ko uztailean martxan jartzea gainerako hiru errepideetan:
  - N-636 Beasain-Durango (Kanpazar) (14,4 km).
  - BI-30 (N-637 zena) Gurutzeta-Arrontegi.Erletxe (20,2 km).
  - A-8 Kantauriko autobidea eta BI-10, Basurtutik El Hayara (19,7 km).

Azterlan honen **A/8.2.1.c) atalean** kontrol-sistema eta “Free-Flow” ordainketa-puntuak instalatzeko obren deskribapen laburra egiten da. Interbiak erakundeak 3 lotetan kontratatu ditu, eta lehenengoa lehen azaldu dena abian jartzeari dagokio. Sarrerari jarraikiz, EOSa ezartzearen helburua da bideen erabilera-kostuen zati bat estaltzea eta ibilgailu astunek gai horretan zeresan handia dute. Finantzaketa horrekin bideak mantendu nahi dira, bide-segurtasuna, aparkalekuen eta salgaien garraioari arretaren sistemak hobetu ere bai eta, horretarako, pertsonen eta salgaien Europako korridore global gisa Bizkaiko bide-azpiegituren funtzionamenduaren arloan Europako Batzordeak emandako gomendioak beteko dira.

Hitz batez, hona hemen erabiltzeagatiko ordainketaren xedea:

— Aplikatuko den errepideen sarean baldintza ezin hobeak bermatzea.
— Mugikortasuna eta bide-segurtasuna hobetzea.
— Kudeaketa eraginkorragoa eta orekatuagoa ahalbidetzea sarea kontserbatzeari, mantentzeari eta ustiatzeari begira nahikoa inbertsioa bermatzeko.
— Bizkaia EBk ezarritako deskarbonizazio-gidalerroekin lerrokatzea, eta 3,5 tonatik gorako kamioiek CO2 emisioak murritz ditzaten bultzatzea.

A/5.6.1 grafikoa

GARRAIO ASTUNEN KASUAN BIZKAIAN ERABILTZEAGATIKO ORDAINKETA-SISTEMA BERRIA EZARTZEA



IBILGAILUEN SAILKAPENA

Aipatutako errepideetan erabiltzeko ordainketa ibilgailu astunei aplikatuko zaie. baimendutako gehienezko pisua 3,5 tona baino handiagoa duten salgaiak:

ASTUNAK I

Baimendutako gehienezko pisua 3,5 tona baino gehiago eta 12 tona baino gutxiago



ASTUNAK II

Gehienezko pisua baimendutako berdin edo 12 tona baino gehiago

A/5.5.2. ERABILTZEAGATIKO ORDAINKETA-SISTEMA APLIKATU ONDOREN ERAGINPEKO IBILGAILUEK BIDE-BANAKETAN ERAGITEKO MODUA. 2024. URTEA

Azpiegiturak erabiltzeagatiko ordainketa-sistemaren (EOS) 2. fasea ezarri den bide-tarteetan ibilgailu astunen trafiko-aldakuntza honako hau izan da 2024. urtean[45]:

BIDEA	TARTEA	LUZERA (KM)	IBIL. ASTUNAK/EGUN		ALDAKETA	
			2023	2024	IBIL./EGUN	Δ %
BI-10	Kastrexana L. - Gurutzeta L.	3,3	4.174	4011	-163	-4%
BI-10/A-8	Gurutzeta L. - Portua	7,0	5.972	5707	-265	-4%
A-8	Portua - Kantabria L.M.	9,8	4.459	4.693	234	5%
BI-30	Gurutzeta L. - Kukularra L.	2,8	8.243	7.919	-324	-4%
BI-30	Kukularra L. - Erletxes L.	17,3	5.452	5.246	-206	-4%
N-636	Durango-Elorrio-Gipuzkoa L.M	14,4	1.082	1.009	-73	-7%

EOSaren 2. fasea ezarri den bideetan izandako eraginari erreparatuta, ikus daiteke trafiko astunaren intentsitateak % 4 eta % 7 artean murriztu direla, Portuaren eta Kantabriako probintzia-mugaren arteko A-8 autobidearen tartean izan ezik, izan ere, bide alternatiborik ez dagoenez, EOSaren ezarpenari egotzi ezin zaion hazkundea gertatu da.

Garrantzitsua da azpimarratzea erakutsitako datuok trafiko astunaren batezbestekoa islatzen dutela; 2024aren kasuan, EOSaren 2. fasea 2024ko bigarren seihilekoan bakarrik egon da martxan (2024ko uztailaren 1etik aurrera), hots, 2024aren erdian bakarrik eragin dio trafiko astunari. Hori dela eta, 2025ean ibilgailu astunen intentsitatea 2024koa baino txikiagoa izatea espero da.

EOSari esker, trafiko astuna birbanatu ahal izan da; metropoli-eraztunetik urrundu eta MHS (AP-8), AP-68 eta antzeko ibilbide alternatiboetatik birbideratu da.

BIDEA	TARTEA	LUZERA (KM)	IBIL. ASTUNAK/EGUN		ALDAKETA	
			2023	2024	IBIL./EGUN	Δ %
A-8	Basauri L. - AP-68 (Buia)	2,9	3.041	3313	272	9%
BI-10	AP-68 (Buia) - Eki. Saihes.	1,6	5.226	4.963	-263	-5%
AP-68	Buia - Araba L.M.	22,5	3.734	3.979	245	7%
MHS (AP-8)	AP-68 (Beteluri) - Gorostiza	11,3	2.734	3.318	584	21%
MHS (AP-8)	Gorostiza - Portuko L.	17	2.983	3.579	596	20%

Lehen aipatutako bideez gain, Malmasingo tunela (A-8 autobideko Basauriko lotunea-AP-68 (Buia) tartea) eta antzeko tarteak ere badaude, ibilgailu astunen trafikoaren hazkundea jasango dutenak.

(45) EOSaren 2. fasea 2024ko uztailaren 1ean hasi zen ezartzen N-636, BI-30 eta A-8/BI-10 errepideetan.

A/5.6. RAC-EKO H AZPIEGITURAREN JATORRIA-HELMUGA MATRIZEAK, BLUETOOTH BALIZEN BIDEZ

Historikoki nabari daitekeenez, Bizkaiko edukiera handiko sareko mugikortasun-eskari handiena Sestao eta Basauri (BI-10/A-8) tartean, Artaza eta Derio (BI-637 eta BI-30) tartean eta Arrontegiko zubiko sarean (Gurutzeta eta Kukularrako bide-aldaguneekin) kontzentratzen da.

Horrek agerian uzten du beharrezkoa dela mugikortasunaren azterketa bat izatea RACeko tarte horietan (RACeko H deitzen zaie), benetako eskariaren eta tarte horietako erabiltzaileen aurrean duen erantzun funtzionalaren berri izateko. H azpiegituran dago RACeko mugikortasunik handiena eta trafiko-bolumen handiena duen azpiegitura, hots, Arrontegiko zubia.

Bizkaiko Foru Aldundiak 84 Bluetooth baliza berri jarri ditu errepide-sareko kokapen estrategiko batzuetan. Aurten, lehen aldiz erabiliko dugu azpiegitura berritzaile horren informazioa, Bizkaiko Foru Aldundiaren errepide-sareko trafikoaren bilakaera aztertzeko.

Baliza horiek erabiltzaileen ibilgailuetako Bluetooth gailuak detektatzen dituzte. Bi baliza desberdinetatik pasatzean eta erabiltzailea identifikatzean, sistemak denbora kalkulatzen du, baita ibilbide hori egiteko erabilitako abiadura ere, eta baliza arteko trafiko-bolumena kuantifikatzen du.

Azterketa mugikortasun-matrizeen kalkuluan oinarritu da, H azpiegiturarako sarrerak definitzen dituzten 4 tarteen arteko portzentajezko erlazioen bidez:

- Santurtzi-Gurutzeta (BI-10/A-8)
- Gurutzeta-Basauri (BI-10/A-8)
- Algorta-Kukularra (BI-637).
- Kukularra-Derio/Lezama (BI-30).

Azterketa egiteko, H azpiegiturako sarrera-tarte bakoitzeko balizak multzokatzen dira (Avanzada, Txorierri, Ezkerraldea eta BI-10/A-8 Hegoaldeko irtenbidea), eta sarrera bakoitzeko matrizeak sortzen dira.

Azterketa horiek BT teknologia erabiliz egiten dira, sentsoreak detektatzeko gunetik zirkulatzen duten ibilgailuetako gailu mugikorren MAC helbideak identifikatuz eta sare sentsorizatuaren barruko ibilbidean zehar horien jarraipena eginez.

Kontuan izan behar da sentsoreek ez dutela sentsorea detektatzeko eremuan zirkulatzen duten ibilgailuen % 100 detektatzen. Dena den, nabarmendu behar da ibilgailu guztien % 40 eta % 60 artean detektatzen dela, kokapenaren arabera. Horrek esan nahi du lortutako balioen lagina estatistikoki esanguratsua dela trafikoaren banaketaren ehunekoa ezagutzeko. Hori dela eta, jatorritzat hartzen den BT sentsorearen kokape-

netik igarotzen diren ibilgailu guztien ehuneko gisa erabiltzen da jatorria/helmuga matrizea; ezin da trafikoari buruzko datu absoluturik eman.

Atal honetan, Kukularrako eta Gurutzetako korapiloetan atzemandako joan-etorri osoen banaketari buruzko aurretiazko azterlan bat aurkezten da, bai eta 2024an H azpiegitura osatzen duten errepideen arteko banaketen azterlan berrikusia ere.

H azpiegituraren matrizerako, baliza finkoen multzokatze batzuk ezarri dira, korapiloen analisian ez bezala, H azpiegituraren "adarren" arteko mugimenduak aztertzeko. Hau da, errepide bakoitzean jatorria duten joan-etorrien datuak lortu nahi dira, Arrontegiko saretan elkartzen diren gainerakoen aldean. Eragin-eremuak eskema honetan zehazten dira.



Sarrera bakoitzean urteko **lanegunetako** (astelehenetik ostegunera) **matrize bereizgarriak** lortu dira. Helmugen barruan, "Gainerakoak" txertatu da. Bertan bilduko dira H azpiegituran sarreraren batean identifikatu diren baina aztertutako balizen barruan helmuga definitu ezin izan zaien joan-etorriak. Informazio-iturri berritzaile hori erabiltzen dugun lehen urtea denez, azterketa aldatu egin daiteke datozen urteetan.

A/5.6.1. JATORRIA A-8 HEGOALDEKO IRTENBIDEA DUEN MATRIZEA



- A-8 Hegoaldeko Irtenbidetik abiatzen diren joan-etorrien ia erdiak (% 43) Ezkerraldea du helmuga.
- Gainerako helmugak honela banatzen dira: % 20 Avanzadara , eta % 14 Txorierrira; % 23ren helmuga ezin izan da zehaztu.

Laneg. (A - O)	% La Avanzada	% Ezkerraldea	% Txorierri	% Gainerakoa
6:00	12	39	23	26
7:00	17	37	22	25
8:00	24	33	18	25
9:00	22	37	17	24
10:00	19	42	15	24
11:00	17	45	15	23
12:00	18	44	15	23
13:00	19	43	14	24
14:00	20	46	13	22
15:00	21	45	13	22
16:00	20	45	13	22
17:00	19	49	12	21
18:00	20	48	10	22
19:00	21	47	10	22
20:00	21	45	10	24
21:00	19	45	11	25
22:00	18	47	11	24
23:00	19	46	12	23

A/5.6.2. JATORRIA AVANZADA DUEN MATRIZEA



- Avanzadatik abiatzen diren joan-etorrien % 37k Txorierri du helmuga.
- Gainerako helmugak honela banatzen dira: % 29 A-8 Hegoaldeko irtenbidera, eta % 19 Ezkerraldera; % 15en helmuga ezin izan da zehaztu.

Laneg. (A - O)	% A-8 Hego	% Ezkerraldea	% Txorierri	% Gainerakoa
6:00	34	17	40	9
7:00	32	15	43	10
8:00	28	16	44	12
9:00	28	18	41	14
10:00	27	20	38	15
11:00	26	20	37	16
12:00	29	20	36	16
13:00	30	19	36	15
14:00	30	20	35	16
15:00	31	20	34	15
16:00	26	21	37	16
17:00	29	21	34	16
18:00	29	21	34	17
19:00	27	20	35	17
20:00	29	19	34	18
21:00	30	19	34	18
22:00	29	22	32	17
23:00	31	17	37	15

A/5.6.3. JATORRIA EZKERRALDEA DUEN MATRIZEA



- Ezkerraldetik abiatzen diren joan-etorrien erdiak (% 51) A-8 Hegoaldeko irtendidea du helmuga.
- Gainerako helmugak honela banatzen dira: % 22 Txorierrira eta % 15 Avanzadara; % 13ren helmuga ezin izan da zehaztu.

Laneg. (A - O)	% A-8 Hego	% La Avanzada	% Txorierri	% Gainerakoa
6:00	48	10	29	13
7:00	47	12	28	14
8:00	46	16	24	15
9:00	50	15	22	13
10:00	52	13	21	13
11:00	52	13	21	14
12:00	52	14	21	14
13:00	51	15	23	12
14:00	51	17	20	12
15:00	51	17	20	12
16:00	51	16	20	13
17:00	52	16	20	13
18:00	52	18	19	12
19:00	52	18	18	12
20:00	54	18	18	11
21:00	54	16	21	10
22:00	55	15	20	10
23:00	55	14	21	10

A/5.6.4. JATORRIA TXORIERRI DUEN MATRIZEA



- Txorierritik abiatzen diren joan-etorrien % 36k Avanzada du helmuga.
- Gainerako helmugak honela banatzen dira: % 24 Ezkerraldera eta % 18 A-8 Hegoaldeko irtenbidera; % 22ren helmuga ezin izan da zehaztu.

Laneg. (A - O)	% A-8 Hego	% La Avanzada	% Ezkerraldea	% Gainerakoa
6:00	25	20	30	26
7:00	22	31	23	24
8:00	19	37	22	22
9:00	20	34	24	23
10:00	20	33	25	23
11:00	19	33	25	23
12:00	19	35	24	22
13:00	18	37	23	22
14:00	19	36	25	21
15:00	18	36	25	21
16:00	18	35	26	21
17:00	18	34	26	22
18:00	17	37	25	22
19:00	15	43	22	20
20:00	15	46	20	19
21:00	16	43	20	22
22:00	17	33	28	22
23:00	18	41	23	18

A/5.7. ZERBITZU MAILEN AZTERKETA EDUKIERA HANDIKO ERREPIDEETAN

A/5.7.1. OROKORTASUNAK

Bide bateko ezaugarri funtzionalak hiru parametroren arabera aztertzen dira: trafiko korrontearen dentsitatea, zirkulazioaren abiadura eta trafikoaren intentsitatea. Sei zerbitzu-maila (ZM) definitzen dira, A, B, C, D, E eta F letrekin izendatuak. Hona hemen zerbitzu-maila hauetako bakoitzaren deskribapen labur bat, erabiltzaileak edukiera handiko bideetan duen zirkulazioaren ikuspegitik.

ZM-A) Ibilgailuak abiadura librean ibiltzen dira, maniobratzeko gaitasunean ia murrizketarik izan gabe, inguruko ibilgailuetatik batez bestean 160 metro inguruko tartea dutelarik.

ZM-B) Ibilgailuak ia-ia abiadura librean ibiltzen dira, maniobratzeko gaitasunean murrizketa txiki bat dutelarik, eta inguruko ibilgailuetatik batez bestean 100 metro inguruko tartea dutelarik.

ZM-C) Abiadura libreari eusteko nolabaiteko zailtasuna dago, eta maniobratzeko askatasunean nahiko murrizketa handiarekin zirkulatzen da. Errailez aldatzean kontuz ibili behar da. Autoen artean 65 metro inguruko tartea dago batez bestean, turismo baten 11-12 luzera, eta ilarak sortzen hasten dira, erreietako bat blokeatuta geratzen denean.

ZM-D Trafikoaren intentsitatea handitzea zirkulazioaren abiadura pixka bat jaisten hasten da, eta zirkulazio-korrontearen barruan maniobratzeko askatasuna ere nabarmen murrizten da (oso zaila izaten da errail batetik bestera igarotzea) eta gidaria fisikoki deseroso sentitzen hasten da. Ibilgailuen arteko tartea 30 metrotara murritz daiteke (turismo baten 5-6 luzera), eta gorabehera txikiena gertatuta ere, ilara handiak sor daitezke.

ZM-E) Zerbitzu-maila honen mugan, ia ez dago hutsunerik zirkulazio-korronteen eta ibilgailuen artean 6 metroko tartea dago (auto bat). Horrenbestez, bidearen edukiera osoa beteta dago, eta 80 km/h-ko inguruko gehieneko abiadurak har daitezke, trafikoan erregulartasuna badago. Ibilgailu batek errailez aldatzeagatik soilik, gainerako ibilgailuak behartuta dauden igarotzen uztera, eta uhin aztoratzailea fluxutik gora hedatzen dira. Hori dela eta, abiadura maiz murriztu ohi da. Edozein gorabeherak gelditze larriak eragin ditzake, eta baita ilara luze-luzeak ere.

ZM-F) Kolapso-egoeran edo inbutu-egoeran zirkulatzen da, zirkulatu nahi duen trafikoaren bolumena handiagoa baita bide horren edukiera baino. Zerbitzu-maila horrek bere horretan jarraitzen duen bitartean, ilarak fluxutik gora hedatuko dira, distantzia handietara iritsi arte.

Zerbitzu-mailak zerbitzuaren dentsitatearen arabera (D_S) zehazten dira, kilometro eta errei bakoitzeko ibilgailu arinetan adierazia (Ia/km/e), taula honen arabera:

ZERBITZU MAILA	A	B	C	D	E	F
Dentsitatea (DS) (Ia/km/e)	7	11	16	22	28	>28

A/5.7.2. ZERBITZU MAILAK ESTAZIO IRAUNKORRAK DITUZTEN TARTEETAN

Atal honen bidez, zehaztu nahi da zer zerbitzu-mailara iristen diren proiektuko 30. orduan edukiera handiko bideak, estazio iraunkorrak dauden lekuetan.

Hauek dira azterketa honetan aintzat hartu diren estazioak, eta 2023. urtean zenbat trafiko erregistratu den adierazten da ibilgailu/egunekotan.

A/5.7.2.1. taula

TRAFIKOA HAUTATUTAKO ESTAZIO IRAUNKORRETAN

ESTAZIOA		Errepidea	EBBI	Astunen %	Errei kop.
21A	KASTREXANA L.-GURUTZETA L. (GUZTIRA)	BI-10	111.429	3,6	(3+3)
21a1	KASTREXANA L.-GURUTZETA L. (BI-S)	BI-10	57.437	3,7	3
21a2	KASTREXANA L.-GURUTZETA L. (S-BI)	BI-10	53.992	3,6	3
45A	ERRONTEGI ZUBIA (GUZTIRA)	BI-30	138.071	5,8	(4+4)
45a1	ERRONTEGI ZUBIA (BI-GETXO)	BI-30	66.755	5,9	4
45a2	ERRONTEGI ZUBIA (GETXO-BI)	BI-30	71.316	5,7	4
83A	UNIBERTSITATE L. (SANTIMAMI)-UDONDO/LAMIAKO	BI-637	113.848	3,1	(4+4)
83a1	UNIBERTSITATE L.- UDONDO/LAMIAKO L.	BI-637	56.836	3,1	4
83a2	UDONDO/LAMIAKO –UNIBERTSITATE L.	BI-637	57.012	3,1	4
99A	TXORIERRI IGAROBIDEA (GUZTIRA)	BI-30	85.978	6,6	(3+3)
99a1	ENEKURI L. – ARTXANDAKO T.	BI-30	43.380	6,4	3
99a2	ARTXANDAK T.- ENEKURI L.	BI-30	42.598	6,8	3
179A	SESTAO L.-TRAPAGARAN L. (GUZTIRA)	BI-10	103.199	5,4	(3+3)
179a1	SESTAO L.-TRAPAGARAN L. (BI-S)	BI-10	51.835	5,5	3
179a2	PORTUGALETE L.-SANTURTZI L. (S-BI)	BI-10	51.364	5,4	3
183A	LA ARENA-SANTANDER P.M. (GUZTIRA)	A-8	48.243	8,9	(2+2)

Edukiera handiko bide batean gehieneko zerbitzu-intentsitatea, 15 minutuko muturreko aldian, orduko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (Ia/h/e), ondoren adierazitakoaren arabera formulatu ahal da:

$$GZI = \frac{IH\text{-}30}{MOF \times N \times f_A \times f_{VP} \times f_C}$$

Gure kasuan:

— Trafikoaren intentsitatea 30. orduan (IH-30) bolumen honetako **B/1.6. atalean** aurkezten da[46].

— Trafikoaren banaketa noranzkoaren arabera, galtzadako guztizko trafikoa erregistratzen duen estazioan (183A): %60/40

— MOF (muturreko orduko faktorea) = 0,95 (nolabaiteko erregulartasuna adierazten du, muturreko orduan)

— F_A = 1,0 (3,5 m-ko erreiak eta 2,0 m-ko bazterbideak)

— F_C = 0,95 (ohikoak ez diren gidarien presentzia jasotzen du, batez ere asteburuan).

— $F_{IA} = 1/\ 1+Pc\ (Ec-1)$ $\begin{cases} P_C = \text{Astunen ehunekoa} \\ E_C = \text{Ibilgailu arinen baliokidea. Batez besteko termino gisa hau onartu da: } E_C = 2 \end{cases}$

— N = Galtzada bakoitzeko errei kopurua (zirkulazioaren noranzko bat).

— Abiadura edo fluxu librea: 80-90 Km./h., oro ohar, aztertutako bideak hiri-ingurukoak izateagatik.

A/5.7.2.2. taulan, intentsitateak ageri dira dira proiektuko orduan, gehieneko zerbitzu-intentsitatea (GIM) eta edukiera handiko bideen artean hautatutako tarteen zerbitzu-maila (Z/M). Era berean, **A/5.7.2.3. taulan**, gehieneko zerbitzu-intentsitateak eta zerbitzu-mailak 2019-2024 aldian izandako bilakaera ikus daiteke.

Oro har, 2024an lortutako zerbitzu-mailak D eta E artekoak dira, F saturazio-mailara iritsi gabe, 2019an eta aurrekoetan gertatzen zen bezala (tarte batzuekin). 2023aren aldean, 2024. urtean zerbitzu-mailak egonkor mantendu dira.

Ikus daitekeen bezala, aztertutako ia tarte guztiek ia-ia D/E mailakoak diren zerbitzu-mailak dituzte. Horrek adierazten du fluxu trinkoa maiz egoten dela, batez ere IH-30ean 1.800 ibil/h/er baino gehiagoko intentsitatea duten tarteetan.

Hegoaldeko irtenbideari (BI-10) eutsiz, 2024an E zerbitzu-maila dauka, zirkulazioko bi noranzkoetan, 3+3 erraiko Kastrexanako lotunea–Gurutzetako lotunea delako tartean. Proiektuko orduari dagokionez, berriz,

(46) 30. ordua hautatu da, IH-30 zerbitzu-intentsitatea esanguratsuena baita, kongestio-egoerak neurtze aldera. Proiektuko ordu gisa erabili hori da, bideak dimentsionatzeko, 100. ordua (IH-100).

zerbitzuaren intentsitateak nabarmenki behera egin zuela gogorarazi behar da 2012. urtearen aldean, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea abian jarri izanaren ondorioz. Hori dela eta, Ugaldebietako irtenbideak (A-8) Sestaoko lotunea-Trapagako lotunea tartean D zerbitzu-maila duen arren, nabarmen jaitsi zuen zerbitzuaren intentsitatea eta maila funtzionala nabarmen hobetu zen: 2012. urtean E/F zerbitzu-maila izan zuen.

A/5.7.2.2. taula

GEHIENEKO ZERBITZU-INTENTSITATEA (IMS) ETA ZERBITZU-MAILA (Z/M). 2024.URTEA

ESTAZIOA		Errepidea	Errei kop.	IH-30 Ibil/h	Ast. %	F_{VP}	IMS ib/h/e	Z/M	I_A	D = IMS/ V_L
21a1	KASTREXANA L.-GURUTZETA L.(BI-S)	BI-10	3	5.334	3,7	0,964	2.043	E	80	25,5
21a2	KASTREXANA L.-GURUTZETA L. (S-BI)	BI-10	3	5.111	3,6	0,965	1.956	E	80	24,4
45a1	ERRONTEGI ZUB. (BI-GETXO)	BI-30	4	7.137	5,9	0,944	2.094	E	80	26,2
45a2	ERRONTEGI ZUB. (GETXO-BI)	BI-30	4	7.637	5,7	0,946	2.237	E	80	28,0
83a1	UNIBERTSITATE L.- UDONDO/LAMIAKO L.	BI-637	4	5.542	3,1	0,970	1.583	D	80	19,8
83a2	UDONDO/LAMIAKO L. –UNIBERTSITATE L.	BI-637	4	6.120	3,1	0,970	1.749	D	80	21,9
99a1	ENEKURI L. – ARTXANDAKO T.	BI-30	3	5.737	6,4	0,940	2.253	E	90	25,0
99a2	ARTXANDAKO T. – E. ENEKURI	BI-30	3	5.260	6,8	0,936	2.075	E	90	23,1
179a1	SESTAO L.-TRAPAGARAN L. (BI-S)	BI-10	3	5.525	5,5	0,948	2.152	E	90	23,9
179a2	TRAPAGARAN L. -SESTAO L. (S-BI)	BI-10	3	5.240	5,3	0,949	2.039	E	90	22,7
183a1	ARENA L. - EL HAYA L. (L.P.)	A-8	2	3.369	8,7	0,920	2.028	D	100	20,3
183a2	ARENA L. - EL HAYA L. (L.P.)	A-8	2	3.243	9,1	0,916	1.960	D	100	19,6

Txorierriko korridoreak, Enekuri/Asua L. – Artxandako Tunelak tartean (3+3 errei), E zerbitzu-maila izan du, eta ia ez da autoen metaketa-aldirik izan aurreko tartean Kukularrako lotunea berritzeari esker errei bat gehitu delako. Horrez gain, 2017an Derioko lotunea birmoldatu zen, eta Mungiarantz irteerako adarra bikoiztu zen. Modu horretan, nabarmenki hobetu zen hurrengo tarteko funtzionaltasuna (Artxandako Tunelak - Derio).

La Avanzadako korridoreak 83A estazioari dagokion sekzioan (4+4 errei) D zerbitzu-maila gogobetea du IH-30ean, Lamiako – Unibertsitatea noranzkoan alboko mugimenduetarako errei osagarri bat eraikitzeari esker. Era berean, Txorierrirantz irteerako erreia bikoiztu da, eta, ondorioz, BI-637 errepidearen funtzionaltasunak Unibertsitatea – Kukularra – Arrontegiko Zubia noranzkoan onera egin du, La Avanzadako mugimendua ibilbide guztian hobetzeaz gain.

Azkenik, Arrontegi zubiak (BI-30), 4+4 erraikoa, D zerbitzu-maila zuen 2004an eta, 2007an, F maila erdietsi zuen bi noranzkoetan. 2019an, berriz ere F mailara iritsi zen, eta 2020-2024 aldian ez du E zerbitzu-maila gainditu. Hala ere, Arrontegi-Txorierri konexio-adarra bikoizteko eta BI-30eko (N-637) Kukularra-Enekuri tarteko ardatz nagusian errei bat handitzeko obrek auto-ilarak eragin zituzten Arrontegitik Kukularrarako tar-

tean Txorierriko irteerarantz. Dena den, Kukularrako lotuneko birmoldatze-obrak oso-osorik amaitutakoan desagertu dira, eta asko hobetu da bere maila funtzionala. Gainera, 2023. urtean Gurutzeta-Arrontegi tartean (Arrontegiko noranzkoan) auto-ilarak gutxitzeko obrak zerbitzuan sartu dira, eta mugimenduak (bateratzea eta gurutzatzea) errazago egiten dira, bide-segurtasuna hobetzearekin batera.

Horrez gai, 2023an dagoeneko 2006. urtean adierazi zen Gurutzetako lotunearen birmoldaketak bultzatu egin duela Ugaldebietako Soluziotik Txorierriko korridorera doan trafikoa areagotzea. Beraz, joera horri eutsi nahi badiogu, Txorierriko korridorea handitzeko eta laugarren erraia gehitzeko obrak egin beharko dira Kukularra eta Enekuriko lotuneen artea, baita korridorera sartzeko erreiak (irteera-adarrak) Arrontegin eta Avanzadan bikoiztu ere. Bestalde, berriz planteatu beharko lirateke, epe ertainera, itsasadarraren bi aldeak lotzeko konexio berriak (Axpekoa eta Lamiako); hain zuzen ere, Arrontegiko Zubiko eta Avanzadako korridoreko trafiko handia % 25,0 arintze aldera.

2023. urtean Gurutzeta-Arrontegi tartean (Arrontegiko noranzkoan) auto-ilarak gutxitzeko obrak zerbitzuan sartu dira, eta mugimenduak (bateratzea eta gurutzatzea) errazago egiten dira, bide-segurtasuna hobetzearekin batera.

Horrenbestez, Gurutzeta-Kukularra-Avanzada tarteko erabiltzaileek uste dute BI-30 (Arrontegi) eta BI-637 (Avanzada) errepideetan azken 3 urteetan bide-azpiegitura hobetu ondoren trafikoa arinago doala.

A/5.7.2.3. taula

GEHIENEKO ZERBITZU-INTENTSITATEAREN (IMS) ETA ZERBITZU-MAILAREN (N/S) BILAKAERA

ESTAZIOA		2019			2020			2021			2022			2023			2024		
		Errei kop.	IMS ibil/h/e	Z/M	Errei kop.	IMS ibil/h/e	Z/M	Errei kop.	IMS ibil/h/e	Z/M	Errei kop.	IMS ibil/h/e	Z/M	Errei kop.	IMS ibil/h/e	Z/M	Errei kop.	IMS ibil/h/e	Z/M
21a1	KASTREXANA L.-GURUTZETA L. (BI-S)	3	2.050	E	3	1.807	E	3	1.850	E	3	1.815	E	3	1.943	E	3	2.043	E
Barakaldotik BI-30 enbor nagusira (Arrontegirantz) sartzeko adarrari dagokionez, arauzko euste-sistema proiektatu da. Adarraren egungo trazadura zati batean hobetuko da eta BI-30 errepideko enborraren gainean pantaila akustikoa jartzeko zimenduak ipiniko dira, Sefanitroko eremua hirigintzaren ikuspegitik garatzen denerako.

Horrez gain, proiektuak beste jarduketa batzuk aurrez ikusten ditu obra nagusi horiek osatzeko, besteak beste, honako hauek azpimarratu daitezke:

— San Joseko zubibidea handitzea laugarren erreia ezartzeko, BI-30 errepideko enborrak dituen barne-erreiak elkartu nahi baitira.
— Oinezkoentzako espaloiak birmoldatzea eta drainatzea egokitzea.

— Lehendik dagoen argiteria lehengoratzea eta eraginpeko zerbitzuak berritzea (hornidura, zuntz optikoa, sare telematikoa, etab.).
  - Esleipen-aurrekontua 6,4 milioi eurokoa izan zen (BEZa barne), esleipen-data 2021eko urriaren 14a eta exekuzio-epea 18 hilabetekoa.
  - Aurrekontu aldatua, 2022ko abuztuan onartua, 7,7 milioi eurokoa izan zen (BEZa barne).
  - Obraren onarpen-akta 2024ko urtarrilan egin zen.

b) Bizkaiko LHko Errepide Sareko azpiegituren erabileraren araberako ordainketa-sistema

Bizkaiko Lurralde Historikoko Edukiera Handiko Errepide Sarearen (pertsonak eta salgaiak garraiatzeko korridore globaltzat hartzen da) funtzionamendua optimizatzeko beharra dagoenez, ibilgailu astunentzako erabileraren araberako ordainketa-sistema sustatu da, bideak erabiltzearen kostuen zati bat estaltzeko eta mugikortasuna hobetzeko eta Europako garraio-sareari laguntzeko, sare horren bide-segurtasuna hobetzeko eta aparkatzeko eta salgaien garraioari arreta emateko sistemak hobetzeko. Sistema hori bideen erabiltzaileei kobratzeko prozesu bat erabiltzean oinarritzen da. Ibilgailuak gelditu beharrik gabeko mekanismo automatizatu bat erabiltzen da, eta ibilgailuak portiko edo “kobrantza-puntuen” azpitik igarotzean aktibatzen da, non fluxu libreko edo geldialdirik gabeko “Free-Flow” teknologia instalatu den.

Sistema hori 2023an ezartzen hasi da “Interbiak” Foru Sozietate Publikoaren bidez, eta, oro har gauzatzeko, hiru lotetan garatzea aurreikusi da. Loteok bereizita aurkeztu dira, erabileraren araberako ordainketa-sistema osoa martxan jartzea eta mantentzea barne, 2026ko abuztura arte. Hona hemen loteok:

1. lotea.- Lote honen bidez, 24 kobrantza-/kontrol-puntu instalatu dira (23 banderatxo eta portiko bat); horietatik 12 BI-625 errepidean, Irubidetik (Galdakao) Arabarekiko probintzia-mugaraino Arakaldon, eta 12 N-240 errepidean, El Gallotik (Galdakao) Arabarekiko probintzia-mugaraino Ubiden.

Era berean, kobrantza-/kontrol-puntu horiek Artxandako eta Peñaskaleko Tuneletako Kontrol Zentroekin komunikatu dira, kobrantza-/kontrol-puntuen datuak 3. loteari emateko. Izan ere, lote hori arduratzen da prozesatzeaz eta, ondoren, ezarritako kanona kobratzeaz.

1. lotean jasotako obren aurrekontua 12,3 milioi eurokoa izan zen (BEZik gabe), eta **2023ko urtarrilaren 25ean** jarri zen martxan.

2. lotea.- Kobrantza/kontroleko beste 26 puntu jarri behar dira bide hauetan:

— BI-10/A-8: 8 portiko eta 3 banderatxo.
— BI-30 (lehen N-637): 8 portiko eta 3 banderatxo.
— N-636: 4 portiko.

Era berean, kobrantza-/kontrol-puntu horiek Artxandako eta Peñaskaleko Tuneletako Kontrol Zentroekin komunikatuko dira, kobrantza-/kontrol-puntuen datuak 3. loteari emateko. Izan ere, lote hori arduratzen da prozesatzeaz eta, ondoren, ezarritako kanona kobratzeaz.

Jarduketa horren aurrekontua 17,5 milioi eurokoa da (BEZik gabe), eta **2024ko uztailaren 1ean** martxan jarri da.

3. lotea.- Lote hau erabileraren araberako ordainketa-sistema osoa operatzeaz eta mantentzeaz arduratzen da. 1. eta 2. loteetan ezarritako kobrantza-puntuen saretik abiatuta, ekipoak Interbiak-en bidesari-sisteman integratzen dituzte eta, ondoren, erabileraren araberako ordainketa-sistema operatzeaz eta mantentze-lanak egiteaz arduratzen dira.

1. eta 2. loteetako kobrantza-puntuak integratzeko beharrezkoak izan diren software-garapenez gain, lote honek Artxandako Kontrol Zentro osoa bilmoldatu du bi jarduerak hartu ahal izateko (Artxandako Tuneletako Bidesariaren Kontrol Zentroa eta erabileraren araberako ordainketa-sistemaren kontrol-zentroa).

3. lotea 2023ko urtarrilaren 25ean hasi zen egikaritzen, eta 1. loteari dagozkion kobrantza-/kontrol-puntuak soilik martxan jarri ziren, eta eskuragarri daudenean, 2. loteari dagozkionak ere martxan jarriko dira.

Lote honen aurrekontua 20,1 milioi eurokoa da (BEZik gabe), eta barne hartzen du erabileraren araberako ordainketa-sistema osoa martxan jartzea eta mantentzea 2026ko abuztura arte.

c) Derioko noranzkoan, 6+800 kilometro-puntutik 8+150 kilometro-puntura, BI-20 errepidea egokitzea auto-ilarak murrizteko eta beste garraio-modu batzuetara irisgarritasuna sustatzeko: aireportuarekiko konexioa

Jarduketaren xedea BI-20 errepidean auto-ilararik ez osatzea eta errepidearen segurtasuna hobetzea da. Bilboko ekialdeko ingurabidea da, eta aireportuarekin konektatzeko bide nagusia da. Bigarren bideari jarraipena ematen dio, zehazki, Santo Domingoko eremura doan irteeraren eta Galbarriatu loturan sartzeko sarreraren artean, 6+800 kilometro-puntutik 8+150 kilometro-puntura.

Tarte horretako errepideen sarbidearen segurtasuna hobetze aldera, zerbitzu-bide bat ezarri da, etxebizitzetara, gasolindegira eta bus-geltokira joaten diren sarbideak erabili behar ez izateko.

Gaur egungo errepidearen luzera gutxi gorabehera 1,5 kilometrokoa da.

Honako hauek dira jarduketa estrategikoak:

- Errepidea Deriorako norabidean handitzea, bi errei jarrita.

- Errepideko gaur egungo sarbideak berriro antolatzea. Zerbitzuko bide bat egitea eta sarbideak errepide horrekin lotzea (egoiliarrek, gasolindegiaren erabiltzaileek, atseden hartzeko erabiltzaileek eta bus-geltokira joaten direnek erabil dezaten).
- Egirleta pasabidearen azpiko trazadura aldatzea. Trazaduran doiketak egitea errepidearen ardatza ezkerrerantz mugitzeko eta sekzio berria jartzeko behar adineko espazioa egon dadin.

Ezaugarri orokorrak

- BI-20 errepidearen enborra: bi galtzadako zeharkako sekzioa da, galtzada bakoitzak 3,50 metroko zabalera dauka, eta kanpoko bazterbideak 1,00 metrokoak dira.
- Erdibitzaileko hormigoizko hesia.
- Galbarriatu herriarekiko lotura-adarrak: gutxienez 4 metroko zabalerako erreia, gutxienez 1,00 metroko zabalerako bazterbideak, eta 0,75 metroko zabalerako bermak.
- Zerbitzuko bidea: 4,00 metroko erreia; ezkerreko bazterbidea 0,75 metrokoa da, eta eskuineko bazterbidea 1,00 metrokoa da. 0,75 metroko zabalerarako bermak.

OBRAREN DATU OROKORRAK

Obretan inbertitzeko aurrekontua:	4.677.126,54 euro (BEZ barik)
Obretarako epea:	16,5 hilabete.
Obrak hasteko aurreikusi den data:	2022ko azaroa.
Obrak amaitzeko aurreikusi den data:	2024ko apirila.

A/8.2.2. GAUZATUTAKO OBRA TXIKIAGOAK

2023an gauzatzen ari ziren 5 obra 2024an zerbitzuan jarri ziren, obra horien mota eta aurrekontua aintzat hartuta. Honako hauek jaso dira atal honetan:

a) Barakaldo eta Trapagaran herrietan A-8 errepidearen eta BI-644 errepidearen arteko lotura hobetzea.
b) Sarbideak berriz antolatzea N-634 errepidean, Euban (Amorebietan).
c) N-636 errepideko hirugarren erreia ezartzeko proiektua, Elorrion (Kanpazarreko tartea, I. fasea).
d) Sarbideak berriro ordenatzeko eta trafikoa arintzeko proiektua BI-2238 errepidean gauzatzea (Arteagan).
e) N-240 errepidean urgarriak biltegiratzeko instalazioaren proiektua gauzatzea eta neguko bide-zaintzako oinarria ezartzea (Barazarreko 30 kilometro-puntuan).

a) Barakaldo eta Trapagaran herrietan A-8 errepidearen eta BI-644 errepidearen arteko lotura hobetzea

A-8 autobidearen eta BI 644 errepidearen arteko lotura Barakaldo eta Trapagaran herrietan hobetzeko proiektua, errei osagarria, errotonda altxatua eta informazio-panelak jarrita. Esku-hartze horiek trafiko-fluxuak bereizten dituzte, auto-ilarak murrizten dituzte, eta segurtasuna areagotzen dute, sartzeko maniobrak hobetzen dituztelako, eta gurutzaketa gatazkatsuak ezabatzen dituztelako. Espero da eremu horretan istripuak gutxitzea eta zirkulazioa arintzea, inguruko industria- eta portu-trafiko handiari egokituta.

Obrak hasteko eguna: 2023ko urrian.
Martxan jartzeko data: 2024ko abenduan (2024ko uztailean errei berriak partzialki irekitzea).
Aurrekontua: 5,5 milioi euro, Portu Agintaritzak eta Foru Aldundiak finantzatuta.

b) Sarbideak berriz antolatzea N-634 errepidean, Euban (Amorebietan)

N-634 errepidean, zehazki, Amorebietako Eubaren parean, egiteko proiektuaren xedea bide-segurtasuna hobetzea da, sarbideen eta erreien berrantolaketa berriaren bitartez. Ekintza nagusien artean, nabarmentzekoa da Donostiarako norabiderantz, eta, zehazki, Euba auzorantz zuzenean joateko ezkerreko bira kentzea, eta, horren ordez, derrigorreko erabilerarako eta hurbil egongo den biribilgune bat jartzea, baita Arriagane industrialdetik Bilborantz doan sartze-erreia luzatzea ere. Horrez gain, doiketak egin dira AP-8 autobidean sartzeko bidegurutzean, trafikoaren segregazioa hobetzeko. Zehazki, seinale bertikalak instalatu dira, eta erdibitzaile jarraitua ere jarri da eremu gatazkatsuetan.
Neurri horien helburua istripu-arriskuak murriztea da, hala nola aurrez aurreko talkak eta beste ibilgailu bat jotzeko istripuak. Horrez gain, tarte horretako trafikoaren arintasuna ere optimizatu nahi da. Aldaketen bidez, Eubako egoiliarrei eta garraiolariei zirkulazio seguruagoa bermatu nahi zaie. Funtsezko bidegurutzeetan auto-pilaketa murriztu nahi da, eta tokiko sarbideen eta autobidearen arteko zirkulazioaren kudeaketa hobea bermatu nahi da.

Obrak hasteko eguna: 2024ko ekainean.
Martxan jartzeko data: 2024ko abuztuan.
Aurrekontua: 210.000 euro (Foru Aldundiaren eta Amorebietako Udalaren arteko hitzarmenaren bidez finantzatua).

c) N-636 errepideko hirugarren erreia ezartzeko proiektua, Elorrion (Kanpazarreko tartea, I. fasea)

Obra N-636 errepidean egingo da; zehazki, Kanpazarreko portura igotzeko bidean. Hirugarren errei bat eraikiko da, ibilgailu geldoek erabil dezaten. Tarte hori 1,3 kilometrokoa da, eta % 7ko aldapa batean segurtasuna hobetzeko eta zirkulazioa arintzeko diseinatu zen. Horrela, errazagoa izango da beste ibilgailu bat aurreratzea, eta auto-ilara gutxiago osatuko dira. Lanak egin ziren galtzada zabaltzeko, garraio astunek erabiltzeko zorua berritzeko, metalezko babesak jartzeko, ibilgailu geldoetarako bidean LED balizak jartzeko eta seinale egokiak jartzeko. Gainera, ura eta elur urtua biltzeko putzu bat egin zen, neguko bideak optimizatzeko.
Jarduketa horren bidez espero da segurtasuna handitzea, aurreratze arriskutsurik gerta ez dadin, eta igotzeko denborak murriztea, batez ere puntako orduetan. Garraiolariek eta ohiko erabiltzaileek ondo irizten diete trafikoaren arintasunari eta tarte horretan lortu den antolamenduari. Era berean, ibilgailu geldoetarako erreiak beste erabilera bat ere izango du neguan, eguraldi txarrean errepidea mantentzeko aukera emango baitu, eta horrek Bizkaia eta Gipuzkoa artean bidaiatzen duten gidari guztiei mesede egingo die.

Obrak hasteko eguna: 2023ko urtarrilean, eta makinak 2022ko amaieratik egongo dira han.
Martxan jartzeko data: 2024ko otsailean (13 hilabetean lanak egin ondoren).
Aurrekontua: 1,7 milioi eurokoa, lehen fase horretan inbertituta. (II. fasea ere aurreikusi da Kanpazarreko Gipuzkoako aldean, eta beste aurrekontu bat prestatuko da horretarako).

d) Sarbideak berriro ordenatzeko eta trafikoa arintzeko proiektua BI-2238 errepidean gauzatzea (Arteagan)

BI-2238 errepidean, zehazki, Arteagan, zenbait hobekuntza egitea trafikoaren abiadura murrizteko eta oinezkoen zein gidarien bide-segurtasuna hobetzeko. Hainbat elementu ezarri ziren, hala nola semaforoa duen oinezkoen pasabide altxatu bat, soinu-bandak, argi-seinaleak eta Arteagako Gaztelura doan aparkalekuko sarbidearen aldaketa bat, maniobra arriskutsurik ekiditeko. Gainera, gazteluaren ingurua zolatu zen, haren izaera monumentalarekin eta turistikoarekin bat zetorren itxura emateko.
Aldaketa horiek direla eta, Arteagako zirkulazioa seguruagoa eta lasaiagoa izango da. Ibilgailuen abiadura murriztuko da, bisitariek segurtasunez bidea zeharka ahal dezaten eta gune gatazkatsuetan istripurik gerta ez dadin. Neurriek igarotze-trafikoa arintzen laguntzeko eragin txikia izan arren, hobekuntza handia eragiten dute segurtasunean eta egoiliarrek hiri-inguruneari buruz duten pertzepzioan; horrez gain, zeharbide izaera indartzen dute, abiadura handiko errepidetzat hartu beharrean.

Obrak hasteko eguna: 2024ko azaroan.
Martxan jartzeko data: 2024ko abenduan.
Aurrekontua: 50.000 euro, Foru Aldundiaren eskutik (kostu txikiko eta eragin handiko jarduketa da).

e) N-240 errepidean urgarriak biltegiratzeko instalazioaren proiektua gauzatzea eta neguko bide-zaintzako oinarria ezartzea (Barazarreko 30 kilometro-puntuan).

Biltegi-pabilioi bat eraiki da. Gutxi gorabehera 600 metro koadrokoa da, eta Barazar gainean dago (N-240 errepideko 30 kilometro-puntuan). Instalazioak edukiera dauka hauexek biltegiratzeko: 1.000 tona gatz, 50 metro kubikoko gatzun andel bat, gatzuna automatikoki prestatzeko gune bat eta ibilgailua garbitzeko plataforma bat. Horrez gain, modulu bidezko bulegoak eta elurra kentzeko hiru makina biltegiratzeko espazioa dago, eta zuzeneko sarbidea dago errepidetik. Diseinu horren xedea neguan segurtasun eta eraginkortasunez funtzionatzea da.
Egoitza operatiboa Barazarren jarrita, eremu horretan elurra eta izotza egonez gero, erantzun azkarragoa eta eraginkorragoa emango da, eta, hartara, istripu-arriskuak eta errepidea ixteko denbora murriztuko da. Lehenago, ordea, ekipoek Zeanuritik edo Bilbotik etorri behar zuten. Egitura horren bidez, N-240 errepidearen segurtasuna hobetuko da, eta, gainera, baliabide erabilgarriak ere optimizatuko dira. Halaber, erregaien kontsumoa murriztuko da, eta lekualdaketak egiteko premia ere bai. Horrek esan nahi du zerbitzua eraginkorragoa izango dela, eta neguan errepideen sarearen erresilientzia handiagoa izango dela.

Obrak hasteko eguna: 2024ko uztailean.
Martxan jartzeko data: 2024ko abenduan (2024-2025 aldiko elurteetan jada martxan egongo da).
Aurrekontua: 1,7 milioi euro (Foru Aldundiak finantzatuta, bai eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoren funtsen bidez ere).

A/8.3. MARTXAN DAUDEN ETA KONTRATATZEN ARI DIREN BESTE OBRA BATZUK

A/8.3.1. EGITEN ARI DIREN OBRA GARRANTZITSUAK

a) La Avanzadako tunelaren egokitzapena BI-637 errepidean

Proiektuaren xedea da La Avanzadako tunela handitzeko behar diren azpiegitura-obrak eta gainegiturak egitea, hiru helbururekin:

— La Avanzadako errepidea (BI-637) Leioa udalerritik igarotzen den bi eremuen arteko lotura hobetzea, lubakitutako zatia estaliz eta oinezkoentzako tartearen azalera nabarmen handituz.
— Sortutako tunela indarrean dagoen segurtasun-araudira egokitzea.
— Trafiko-dentsitate handiaren ondorioz bizilagunek jasaten duten kutsadura akustikoa minimizatzea.

Obren bidez, 860 m-ko lubakia estali eta urbanizatuko da. Gaur egun zati batean estalita dago, eta heskaiarekin batera, luzera horretako tunel baterako beharrezkoak diren segurtasun-instalazioak osatuko dira. 11 ebakuazio-galeria, suteen aurkako babes-sistemak, seinaleztapen-sistemak, aireztapen-sistemak, gorabeheren detekzio automatikorako sistemak eta argiztapen-sistemak egongo dira.

— - Esleipenaren aurrekontua, BEZik gabe, honako hau izan da:
  - Azpiegitura-obrak: 37,4 milioi euro
  - Instalazioak (3 lote): 11,7 milioi euro
  - Guztira (BEZik gabe): 49,1 milioi euro

— Kontratuaren datak: 2023ko maiatza-ekaina.
— Obren amaiera: 2026ko abuztua.

Esan bezala, obra horien helburu nagusia Leioa udalerria zeharkatzen duen zati lubakituan La Avanzada (BI-637) errepidea estaltzea da, estalkia oinezkoentzat eta berdeguneetarako 4.500 m2-ko hiriko espazio handi (boulevard) bihurtzeko. Bidearen albo bitan dauden populazio-hiriguneak elkartuko dira eta orain bereizten dituen arrakala desagertuko da. Hala, nabarmenki murriztuko dira N-637 errepideak duen trafiko handiaren eragozpenak (ingurumenekoak eta funtzionalak). Batez beste lanegunetan 115.000 ibilgailu pasatzen dira. Obrak zerbitzuan jartzen direnean, ibilgailuen trafikoa proiektatuta dagoen estalkiaren azpitik joango da (tunel berriak), “aire zabaletik” zirkulatu ordez, orain arte gertatzen zen bezala.

Horrenbestez, estaltzen denean, inguruko hirigunean oinezkoentzako hiriko espazioa sortzeaz gain, herritarrek hobekuntza izugarria antzemango dute kutsadura akustikoari dagokionez, 850 m-tan galtzaden ertzetan zarataren aurkako pantailak jarriko baitira. Era berean, bereziki Txorierri Aresti eskolaren, Euskaldegiaren eta kontserbatorioaren multzo aipagarria hobe babesteko, tunelean sartzea ahalbidetzen duen ez ibiltzeko oraingo estalkia luzatuko da (Bilboko noranzkoan) lehendik dagoen oinezkoentzako pasabidearen inguruneraino.

Beraz, obrak eraikuntzan zailtasun berezia du, Bizkaian trafiko-dentsitaterik handiena duen tarte bat dela kontuan hartuta, zerbitzuan dauden bideen gaineko egitura askotan gauzatu behar baita. Horrez gain, egikaritze-aldian BI-637 errepideko zirkulazio-noranzko bakoitzean bi erreiak mantenduko dira. Ondorioz, obra hainbat fasetan eta azpifasetan egin behar da, eta oso ingurune estuan lan-irlak sortuko dira, trafiko handia eta hiri-inguruko gunearen zerbitzua batu behar baitira.

Halaber, proiektuan ardura izan da jarduketa paisaian txertatze aldera. Adibide, tunel berrietan bi ahoetarako eraikuntza-irtenbidea, Getxoko noranzkoan eta Bilboko noranzkoan, material jasangarriak dituzten egituren bidez aurrez ikusten da, eta lorezaintza bertikalean oinarrituko da.

b) BI-633 errepidea BI-2636 errepidearekin lotzeko bidearen proiektua, Markina eta Etxebarria artean (Markinako hegoaldeko saihesbidea)

Proiektuak bide berri bat trazatzea zehazten du, gutxi gorabehera kilometro batekoa, BI-633 errepidea, Markinako saihesbidea hasten den biribilgunean (heliportuaren ondoan), BI-2636 errepidearekin lotzeko Txoribenta parean, Etxebarrirako noranzkoan, BI-4404 errepidearekiko elkargunetik hurbil. Horrela, BI-2636 errepidearen hiri-zatia saihesten da, Markinako hiriguneko trafikoa murrizteko, Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektorialaren helburuekin bat etorriz.

Proiektuaren xede den zatia aipatutako biribilgunetik Markinara eta Etxebarrira doan irteera-adarrean hasiko da. Bertan, biribilgune berri bat egin nahi da, Markinara eta Etxebarrira eta Markinatik eta Etxebarritik doan trafikoa bide berriarekin antolatuko duena. Bide hori BI-2636 errepidearen hiri-zatiaren hegoaldetik igaroko da, Markina – Etxebarria tartean, Txoribenta inguruan berriro ere errepide horrekin bat egin arte. Bertan, biribilgune berri bat egitea aurreikusi da, mugimendu horiek eta BI-4404 errepideari dagozkionak antolatzeko.

Trazadurak bi erreiko tunel bat izango du, 335 m-ko luzerakoa (290 m-ko meatze-tunela eta 25 eta 20 m-ko bi tunel faltsu bi ahokoetan), eta heliportuaren ondoko hasierako biribilgunearen eta Txoribenta inguruko azken biribilgunearen artean aire zabaleko lubakian igaroko da.

- Esleitzeko aurrekontua honako hau izan da: 21,2 milioi euro (BEZik gabe).
- Zuinketa-data: 2023ko abuztuaren 11.
- Kontratatutako epea: 28 hilabete.
- Obraren azken data: 2026ko urtarrila/martxoa.

c) Metropoliko bide-nodoetan auto-ilarak murrizteko eraikuntza proiektua

Obraren deskribapena: Bilboko hiriko bide-sareko puntu kritikoetan auto-ilarak arintzeko jarduketa-programa da (obra batzuk barne hartuta). Hainbat esku-hartze egingo dira, hala nola erreiak handitzea, txirikordak hobetzea eta funtsezko sarbideetan semaforoak optimizatzea.

Ezaugarri teknikoak eta diseinuaren ezaugarriak: Proiektu horren bitartez, proiektu espezifikoak gauzatu dira, eta txosten honetan jada zehaztu ditugu: esaterako, Gurutzeta-Errontegi eremuko aldagunea handitzea (laugarren bidea ezarrita), Sestaon A-8 errepidean sartzeko erreia handitzea (Trapagaran herrira doan laugarren erreia) eta Etxebarriko lotura (BI-8) hobetzea. Horrez gain ITS (Intelligent Transport Systems) ezarri dira, hala nola mezu aldakorreko panelak eta sarbide-arrapalen kontrola, trafikoaren sarrera puntako orduetan erregulatzeko. Avanzada errepidearen sarreran (Leioan) semaforo-faseak doitu dira, eskari handieneko uneetan fluxu astunei lehentasuna emateko. Max Centerren ingurunean zerbitzu-bideak jartzea aztertzen ari da toki-mugimenduak bereizteko.

Bidean espero den hobekuntza: Oro har, programa honen helburua esku-hartzeen barneko eremuetan auto-ilarak gutxienez % 15 murriztea da, trafiko-ereduen arabera. Gurutzetan, adibidez, jada ageriko hobekuntza osatu da, txirikordaren edukiera eta segurtasuna handiagoak direlako. A-8 errepidean, zehazki, Sestaon, beste errei bat jarrita, auto-ilara gutxiago osatuko dira, eta Ezkerraldetik sartzeko sarbidean istripu gutxiago gertatuko dira. ITS neurriek aukera emango dute eskaera denbora errealean kudeatzeko, eta ez da kolapso kateaturik gertatuko. Oro har, espero da sare nagusian trafikoa arinagoa eta uniformeagoa izatea, bat-bateko galgatze-egoera gutxiago gertatzea eta, ondorioz, talka gutxiago osatzea aurreko ibilgailuari heltzeagatik, bai eta auto-ilarek eragindako kutsadura txikiagoa osatzea ere. Proiektu hori zeharkakoa da, eta onurak jada agerikoak dira, 2023an amaitu diren lanak direla eta. Hurrengo lanek 2026a arte iraungo dute.

- Obrak hasteko eguna: 2021etik (Gurutzeetan, Bilbon) 2024ra (Leioa ITS) hainbat fase egingo dira.
- Martxan jartzeko data: Azpi proiektu bakoitzari bere data esleitu zaio (Gurutzetan, 2023an; Sestaon, 2025ean; etab.). Programa 2026an amaituko da.
- Aurrekontua: Guztira, 12 milioi euro, hainbat kontratu batu ondoren (Gurutzetan, 7,6 milioi euro; Sestaon, 3,47 milioi euro; 0,9 miloi euro, ITS semaforoak, etab.).

A/8.3.2. OBRA TXIKIAGOAK EGIKARITZEN

a) BI-2701 errepidearen bide-segurtasuna hobetzeko eta sarbideak antolatzeko proiektua, Sopuertan

BI-2701 errepideko proiektuaren bidez, biribilgune bat eraikiko da 27+650 kilometro-puntuko bidegurutze arriskutsu bat berrantolatzeko. Biribilgune berriak ~ 36 metroko diametroa dauka, eta bide-segurtasuna hobetzen du, sarbideak kanalizatzen baititu, eta ezkerretara zuzenean biratzeko premia ezabatzen baitu. Honako hauek ere sartzen dira: espaloiak handitzea; oinezkoentzako pasabide bat beste leku batean jartzea; eta zoladura berria, argiak eta ingurumen-neurriak ezartzea. Espero da istripu-tasa nabarmen murriztea eta trafikoa arinagoa izatea bide horretatik egunero zirkulatzen duten ~ 3,300 ibilgailuentzat.

Obrak hasteko eguna: 2023. urtearen hasieran proiektua idazten ari da. Obrak 2023ko otsailean lizitatu ziren. 2024. urtearen erdialdean hasi ziren, 2023ko ekainean aldundiaren onespena jaso ondoren.
Martxan jartzeko data: Espero da 2024. urtearen amaieran edo 2025. urtearen hasieran hastea. Obrak gauzatzeko epea 14 hilabetekoa izatea aurreikusi da.
Aurrekontua: 1,9 milioi eurokoa. Foru Aldundiak inbertsioa onartu du (lizitazio-aurrekontua).

b) Gaztelugatxeko San Joan herrirako sarbidea hobetzeko proiektua (Lurgorri eremuan) – I. fasean

Lurgorriko proiektuaren lehenengo fasean Gaztelugatxeko San Joan herrirako sarbidea hobetuko da. Horretarako, biraketa-plataforma bat eraikiko da, autobus turistikoek maniobrak modu seguruan egin ditzaten eta erabiltzaileek geltoki irisgarria izan dezaten. Gainera, sartze-erreiak eta turismo-seinaleak ere txertatu ziren, biotopo babestua zainduta. Horrek sarrera errazten die bisitariei, anezka-autobusak erabiltzea sustatzen du, eta partikularren ibilgailuek natura-ingurunean duten eragina txikiagotzen du.

Obrak hasteko eguna: 2024. urtearen hasieran, Foru Aldundiak 2023ko azaroan onarpena eman eta lizitazioa egin ondoren.
Martxan jartzeko data: 2024ko uztailean; lanak 2024ko udan amaitu ziren. (Bisitari kopuru handieneko sasoian martxan jarri zen azpiegitura, 2024an).
Aurrekontua: 440.000 eurokoa (BEZ barne). Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (radionervion.com) Foru Aldundiak egikaritu zuen (Bermeo herriarekiko hitzarmenaren bidez). Amaierako kostua lizitazioarekin bat etorri zen.

c) N-634 errepideko sarbideak 103+200 kilometro-puntutik 104+200 kilometro-puntura berriz antolatzeko proiektua (Mercadillo-Irubide)

N-634 errepideko tarte batean sarbideak berrantolatu dira, zehazki, Mercadillo eta Irubide herrien artean. Horren bidez, biribilgune zentral bat eta zerbitzu-bide bat eraiki dira, trafikoaren segurtasuna eta arintasuna hobetzeko. Proiektuaren bidez, sarbide arriskutsuak ezabatu dira, erdibitzaileak jarri dira, eta argi gehiago jarri dira. Horren ondorioz, talka gutxiago gertatu dira, eta tokiko zirkulazioa eta igarotze-zirkulazioa optimizatu dira.

Obrak hasteko eguna: 2024ko maiatzean, 2024ko urtarrilean behin betiko onarpena jaso ondoren.
Martxan jartzeko data: 2025eko amaieran. Jotzen da obrek ~18 hilabete iraungo dutela (zailtasun nagusia trafikoari eustea da eraiki bitartean).
Aurrekontua: 2,3 milioi euro.

d) BI-2405 errepidearen trazadura zuzentzeko proiektua (Milloiko gaina, Berriatuan)

Milloiko gaineko BI-2405 errepideko obraren bidez, bihurgune arriskutsu bat zuzendu nahi da. Horretarako, zabalera handitu nahi da, eta eremu gatazkatsu batean ikuspena hobetu nahi da. Trazadura berri bat proiektatu da, euste-horma batekin, drainatze hobetuarekin eta segurtasun-hesiekin. Horrela, aurrez aurreko talkak gertatzeko arriskua murriztuko da, kamioiek errazago zeharkatuko dute eremua, eta puntu beltz bat kenduko da bidetik, erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko.

Obrak hasteko eguna: 2024ko irailean.
Martxan jartzeko data: 2025eko ekainean (9 hilabetean lanak egin ondoren).
Aurrekontua: 750.000 euro.

e) Euste- eta seinaleztatze-sistemak egokitzea A-8 errepidean, 109+800 KPtik 113+300 KPra, Basaurin

Basauriko lotuneko euste- eta seinaleztatze-sistemak hobetzeko egiten ari diren egokitzapen-lanak 2023ko abuztuan hasi ziren, eta 2025eko irailean amaitzea aurreikusten da. Jarduketak 109+800 KPtik 113+300 KPra bitartean egingo dira. Tarte hori Europako barneko sarean sartuta dago. Horretarako, A8 eta BI-625 errepideetako eta lotune horretan bat egiten duten adarretako euste-sistemak egokituko dira, baita seinaleztapena, drainatzea eta argiztapena ere kasu batzuetan.

Aurrekontua (LOA) 4,4 milioi eurokoa da (BEZik gabe).

f) BI-3631 errepidean, 21+200 KPtik 34+000 KPra, Gueñes eta Sopuerta artean, zorua sendotzea, nahaste epelak erabiliz, RAP edo asfalto birziklatua baliatuta

2023ko abenduan hasi zen jarduketaren helburua BI-3631 errepideko zorua sendotzea da, 21+200 KP-tik 34+000 KP-ra, Gueñes eta Sopuerta artean, nahaste epelak erabiliz eta agregakin birziklatua baliatuta. Era berean, areka indargarri horretara eta indarrean dagoen araudira egokituko da. Lan horiek 2025eko maiatzean amaitzea aurreikusi da.

Aurrekontua (LOA) 2,7 milioi eurokoa da (BEZik gabe).

A/8.3.3. ERAIKUNTZA-PROIEKTUAK EGIKARITZEN

a) Ibai azpiko tunela eraikitzeko proiektua

2024an, itsasadarraren azpiko ibai azpiko tunela eraikitzeko proiektua idazteko lanek jarraitu zuten.

Obra hau Arrontegiko zubiaren aukera bat da, itsasadarraren bi ertzak lotzen dituena ibai azpiko tunel baten bidez, Arrontegiko Zubiaren ordez; Artatzako biribilgunea (La Avanzada) Nervacero/Galindokoekin (Ballonti ardatza), A-8/HSM errepidearekin zuzenean lotzea ahalbidetuko duena, Lamiakotik (eskuinaldea) eta Sestaotik (ezkerraldea) barrena.

A/8.4. 2018-2023 ALDIAN ZERBITZUAN JARRITAKO JARDUERA ESANGURATSUEN DESKRIBAPENA

Aldi horretan Bizkaiko Foru Aldundiak egindako bide-azpiegituretako obren zerrenda aztertuta, honako sei jarduketa hauek jo dira zerbitzu-mailak eta bide-ahalmena hobetzeko jarduketa esanguratsutzat edo ondoriotzat:

1. Ermuko hegoaldeko saihesbidea (N-634/AP-8). 2018. urtea.
2. Amorebieta – Muxika bide lasterra. 2018. urtea.
3. Kukularrako lotunea birmoldatzea (BI-30/N-637). 1. banakatua. 2019. urtea.
4. Kukularrako lotunea birmoldatzea (BI-30/N-637). 2. banakatua. 2021. urtea.
5. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea (1. fasea amaitzea) 2023ko apirilean.
6. Bizkaiko LHko Errepide Sareko azpiegituren erabileraren araberako ordainketa-sistema (1. fasea). 2023ko urtarrila.

Zerbitzuan jarritako eta gauzatzen ari diren obren urteko inbentarioa Bizkaiko Foru Aldundiak “Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan” izenburupean argitaratutako urteko txostenen **A/8 kapituluan** zehazten da.

Jarraian, hautatutako obra esanguratsuen irismena, edukia eta garapena azaldu dira, oroigarri gisa eta labur-labur:

A/8.4.1. ERMUKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEA

Interbiak-ek kudeatzen duen Ermuko Hegoaldeko Saihesbidearen bidez, N-634 errepidearen ordezko bide bat eraiki nahi da, Ermuko hirigunetik igarotzea saihesteko..

Ibilbidea N-634 errepidean hasten da, Ermuko hirigunetik mendebaldera, biribilgune berri batean (Akeitioko biribilgunea), eta berehala Ureta mendia zeharkatzen du, 600m luzeko tunel bikoitz baten bidez. Tunel hori bigarren biribilgunean amaitzen da (Uretamendi hegoaldea). Haren mendebaldeko adarra zuzenean konektatzen da AP-8ko Ermuko lotune berriarekin, eta ekialdeko adarra, berriz, aire zabalean jarraitzen du, N-634 errepide zaharrarekin (Gipuzkoa etorbidea) berriz ere elkartu arte Gipuzkoako lurralde mugaren inguruko (Eibar) San Lorentzoko biribilgunean.

Akeitioko biribilgunearen (1) eta Uretamendi hegoaldekoaren (2) arteko distantzia 800m ingurukoa da, eta azken honen eta San Lorenzoko biribilgunearen (3) arteko distantzia 1.500m-koa; beraz, saihesbidearen luzera 2,3 km-koa da.

Saihesbide berria egiteko, Ureta mendiaren azpian tunel bat eraiki behar izan da, 600 m luze, bi hodi dituena (noranzko bakoitzerako bat), eta meategian 1.178 metroko indusketa egin behar izan da.

Saihesbidearen proiektuak, besteak beste, jarduketa gehigarri hauek ekarri ditu berekin.

- Hegoaldeko Uretamendiko egungo biribilgunea. Haren adarrek hiru zubibide dituzte (guztira 336 m-ko luzera), baita ordainlekuen gune berri bat ere, egungo San Lorentzo biribilgunetik gertu zegoen lotune zaharra ordezten duena.
- Trenbidearen azpiko pasabide bat Uretamendi Hegoaldeko biribilgunean, 86 metroko luzerarekin.
- Eitzaga eta Oteneko zubiak saihesbidearen hegoaldean, guztira 343 metro.

Obrak 2014an hasi ziren, eta honako hauek izan dira irekiera-datak eta egindako bi egikaritze-faseetan fakturatutako kopuruak:

1. fasea: Uretamendiko tunelak eta AP-8ko lotune berria eta ordainleku-kabinak:
   - Irekitzea: 2018ko urtarrilak 9.
   - Fakturazioa: 38,7 MM € (BEZik gabe)

2. fasea: Beko bidea (saihesbidearen hegoaldeko zatia) eta San Lorentzoko biribilgunea:
   - Irekitzea: 2018ko irailak 17.
   - Fakturazioa: 29,3 MM € (BEZik gabe)

Trafikoaren batez besteko intentsitate haztatua, saihesbide osoa ireki ondoren (2,3 km), 2018ko irailetik abendura, eguneko 6.900 ibilgailukoa izan da; horietatik 614 ibilgailu (% 8,9) astunak dira, eta Ermuko zeharbideko trafikoa 17.318 ibil./egunekoa izatetik saihesbidea eraiki aurreko 11.329 ibil./egunekoa izatera igaro da, hau da, 2018ko abendutik irailera bitarteko denbora-tarte osoan. Beraz, esan daiteke Gipuzkoatik desbideraturiko trafiko osoa (N-634 zaharra) % 35 ingurukoa izan dela.

A/8.4.2. ZORNOTZA – MUXIKAKO BIDE AZKARRA

Era berean, Interbiak-ek kudeatzen dituen ardatz erradial berrietako bat da, eta egungo BI-635 errepidea bi herrien artean zabaltzea izan du helburu.

3,5 km-ko luzera duen obra hau 2012ko uztailean hasi zen eta 2018ko apirilean jarri zen martxan. Jarduketa garrantzitsuenen artean aipa daiteke Urdiabideko tunelaren eraikuntza, 703 metroko luzekoa, egungo Artzaganeko pasabidea eta Poitoc eta Katea lotuneak kentzen dituena.

Bidean egindako hobekuntzaren ondorioz, batez besteko abiadura 60 km/h-tik 80 km/h-ra igo da, eta lehen sortzen zituzten kongestio-aldiak galarazi dira..

Obra egiteko kostua 71,6 milioi €-koa izan zen.

A/8.4.3. KUKULARRAKO LOTUNEA BIRMOLDATZEA (1. BANAKAPENA)

2019. urtean, Kukularrako lotunearen birmoldaketaren 1. banakapena ia osorik gauzatu da, hau da:

— Errontegi – Txorierri adarraren ahalmena handitzea, erabat bikoiztuta.
— Eskuineko galtzadaren zerbitzu maila hobetzea Errontegiko irtenbidean, Kukularrako lotunea baino lehen, aurreko jarduketaren ondorioz.

Hala, Bilbo-Kukularra – Getxo noranzkoan, egungo BI-30 (N-637) errepideak, Errontegi pasealekua igaro ondoren, eskuineko galtzadako 4 erreiak mantentzen ditu. Errei horiek bi erreitan banatzen dira: bi Getxorako noranzkoan (lehen bezala) eta bi erreitan, Txorierrirako noranzkoan, eta horiek jarraipena izango dute Deriorako noranzkoan, Errontegi – Asua/Enekuri tartean.

Lehen fase honetan ez da BI-637 (Avanzada) errepidearen gainean jardun; beraz, Txorierrirako sarbidean dagoen errei bakarra bikoiztu gabe mantendu da orain arte.

Txorierriko eskuineko galtzadako hiru errei horiek (Errontegitik datozen bi eta Avanzadatik datorren bat) 4 erreira zabalduko dira (2. banakatuan sartuko den obra egiten den bitartean) Asua ibaiaren gaineko biaduktu-raino, eta Enekurira doan erreia galtzen duenean, gainerako 3 erreiak mantenduko dira tarte hori amaitu arte, baita gaur egun Asuak duen errepidearen azpitik ere.

- Obraren aurrekontua 5,1 milioi €-koa izan zen.

A/8.4.4. KUKULARRAKO LOTUNEA BIRMOLDATZEA (2. BANAKAPENA)

2021ean ia erabat amaitu ziren 2. banakatuko obrak, eta birmoldaketa-proiektuaren gauzatzea osatu zen (1. banakatua 2020an jarri zen martxan); eta, horri esker, 2022ko otsailean guztiz birmoldatu zuten Kukularrako lotunea martxan jarri ahal izan da.

2. fasean egindako obrak honela laburbil daitezke:

- BI-637 errepideko (La Avanzada) erreiaren azken zatia bi erreira bikoiztea, Txorierrirako noranzkoan, bai eta lotura-erreia bera ere.
- Txorierriko eskuineko galtzada (BI-30) 4 erreira zabaltzea, Asua ibaiaren gainean dagoen biaduktua baino lehen; horrela, Enekurirantz (BI-11) ateratzen den erreia galdu ondoren, gainerako 3 erreiak tarte hori amaitu arte mantenduko dira, baita lehen 2 errei zituen Bilbo – Asua (BI-11) errepidearen egungo egituraren azpitik ere.
- Fase honetako obrak 2019an hasi ziren eta 2022ko urtarrilean amaitu ziren.
- Inbertsio-aurrekontua 9,1 milioi eurokoa (BEZik gabe) izan zen.

Horrela, Arrontegitik eta La Avanzadatik datozen ibilgailuentzat Txorierrirako irisgarritasuna hobetu da, baita eskuineko galtzadaren edukiera ere; eta, ondorioz, elkartzea nabarmen errazten zaie La Avanzadatik datozen eta Enekuri/Bilbora joan nahi duten ibilgailuei eta Arrontegitik datozen eta Derio/Erletxerantz jarraitu nahi duten ibilgailuei.

A/8.4.5. METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA (1. FASEA AMAITZEA)

MHSren 9. tartea, Peñascal – Beteluri izenekoa, eraiki da. Tarte hori 4,7 kilometrokoa da. Horrela, aurreikusitako 19,2 kilometroak[58] osatu dira A-8 autobidearen hasieratik, Bilboko Portuaren mendebaldetik —(Ugaldebieta, San Fuentes)— AP-68 autobidearekiko konexioraino —(Beteluri, Arrigorriaga).

Bederatzigarren tarte horretako obrak (2023ko apirilean jarri ziren martxan) bost kontratu nagusiren bidez egin dira (hiru azpiegituretarako eta bi instalazioetarako), eta 2018ko azaroan esleitu ziren.

Gauzatutako obren azken zenbatekoa (BEZik gabe, milioi eurotan) honako hau izan da:

- Azpiegitura-obrak: 537,9 milioi euro.
- Instalazioen loteak: 28,7 M €
- Suma 566,6 milioi euro.

Zerbitzuan jarritako zatiak lau egitura handi eta konplexu ditu, Arnotegi eta Seberetxeko tunelak eta AP-68 autobidearen eta Bolintxuko ibarraren gainean doazen zubibideak barne, jarraian adierazten den moduan.

Tartea Arnotegiko tuneletan hasten da: 1.950 m-ko bi tunel, 8 galeriaren bidez (6 oinezkoentzat eta 2 ibilgailuentzat) lotutako 2 erreiko sekzioa dutenak. Tunelen irteeretan, Bolintxuko zubibideak daude. Zubibide horiek izen bereko erreka zeharkatzen dute, bi egitura independenteren bidez: bat zirkulazioaren noranzko bakoitzeko, ur-hoditeriarekiko paraleloan, 162m-ko eta 142m-ko argiekin, ibarbidean bermatutako tarteko pilarerik gabe.

Ondoren, saihesbideak Seberetxe auzoa tunel bidez inguratzen du hegoaldetik, auzo horri, Buiari eta sarbideari eragitea saihesteko. Kantabriara joateko galtzadari dagokion meatze-tunelaren luzera 525 metrokoa da; Donostiara joateko galtzadari dagokion tunelaren luzera, berriz, 531 metrokoa. Luzera horiei 15 metroko tunel faltsua gehitu beharko litzaieke Bolintxun eta 54 metrokoa Seberetxen.

(58) Peñascal – Larraskitu sarbidea barne.

Beteluriko edateko uren araztegiaren inguruan, saihesbidea AP-68 autobidearekin lotzen da. Lotura norabidekoa da; hala, Kantabria-Gasteiz eta alderantzizko noranzkoan mugimenduak egiteko aukera ematen du. Bidesaria kobratzeko free-flow sistema erabiltzen da, eta beraz ez da bidesari-kabinarik behar.

Tuneletan nahiz aire zabaleko zatietan segurtasun, zaintza eta kontrolerako sistema eta ekipo modernoenak instalatu dira (argiteria, aireztapena, suteen aurkako babesa...), azpiegitura ustiatzeko. Hargune elektriko berriak jarri dira eta ur-hornidurako harguneak egokitu dira.

Ondorioz, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen 1. fasea amaituta eta AP-68rekin zuzenean lotuta, MHSk hartutako ibilgailuen kopurua handitu egin da, A-8/BI-10 errepidearen zerbitzu-maila hobetuz, batez ere Larraskitu – Buia tartean (AP-68), pilaketa-aldiak nabarmen murriztuz eta Bilboko Hegoaldeko Ingurabidearen (BI-10) hiri-izaera eta zuzenean eragindako sarbideekiko lotura (San Mames, Juan de Garai eta Ekialdeko Saihesbidea) indartuz.

Epe ertainera, aurreikusita dago Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen 2. fasea eraikitzea AP-68 autobidearen (Beteluri) eta AP-8 autobidearen (Kortederra) artean Amorebietako Mendebaldean. Trazatu berriari beste 11 km gehituko dizkio, eta horrenbestez, etorkizunean, AP-8 autobideak jarraitutasun-erregimenean funtzionatuko du Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan, Gipuzkoako Lurralde Historikotik (Ermua) Ugaldebietaraino (San Fuentes), pasoko eta, orokorrean, ibilbide luzeko trafikoa erraztuz.

A/8.4.6. BIZKAIKO LHKO ERREPIDE SAREKO AZPIEGITUREN ERABILERAREN ARABERAKO ORDAINKETA-SISTEMA (1. FASEA)

Bizkaiko Lurralde Historikoko Edukiera Handiko Errepide Sarearen (pertsonak eta salgaiak garraiatzeko korridore globaltzat hartzen da) funtzionamendua optimizatzeko beharra dagoenez, ibilgailu astunentzako erabileraren araberako ordainketa-sistema sustatu da, bideak erabiltzearen kostuen zati bat estaltzeko eta mugikortasuna hobetzeko eta Europako garraio-sareari laguntzeko, sare horren bide-segurtasuna hobetzeko eta aparkatzeko eta salgaien garraioari arreta emateko sistemak hobetzeko. Sistema hori bideen erabiltzaileei kobratzeko prozesu bat erabiltzean oinarritzen da. Ibilgailuak gelditu beharrik gabeko mekanismo automatizatu bat erabiltzen da, eta ibilgailuak portiko edo «kobrantza-puntuen» azpitik igarotzean aktibatzen da, non fluxu libreko edo geldialdirik gabeko Free-Flow teknologia instalatu den.

Sistema hori 2023an ezartzen hasi da «Interbiak» Foru Sozietate Publikoaren bidez, eta, oro har gauzatzeko, hiru lotetan garatzea aurreikusi da. Loteok bereizita aurkeztu dira, erabileraren araberako ordainketa-sistema osoa martxan jartzea eta mantentzea barne, 2026ko abuztura arte. Hona hemen loteok:

1. lotea.- Lote honen bidez, 24 kobrantza-/kontrol-puntu instalatu dira (23 banderatxo eta portiko bat); horietatik 12 BI-625 errepidean, Irubidetik (Galdakao) Arabarekiko probintzia-mugaraino Arakaldon, eta 12 N-240 errepidean, El Gallotik (Galdakao) Arabarekiko probintzia-mugaraino Ubiden.

Era berean, kobrantza-/kontrol-puntu horiek Artxandako eta Peñascaleko Tuneletako Kontrol Zentroekin komunikatu dira, kobrantza-/kontrol-puntuen datuak 3. loteari emateko. Izan ere, lote hori arduratzen da prozesatzeaz eta, ondoren, ezarritako kanona kobratzeaz.

1. lotean jasotako obren aurrekontua 12,3 milioi euroko da (BEZik gabe), eta **2023ko urtarrilaren 25ean** jarri zen martxan.

A/8.5. JARDUKETA ESANGURATSUEN EZAUGARRITZEA ETA EZAUGARRI FUNTZIONALEN AZTERKETA KONPARATIBOA

A/8.5.1. ANALISIRAKO HAUTATURIKO JARDUKETA ESANGURATSUEN EZAUGARRITZEA

2018-2023 aldiari dagokionez bide-azpiegiturako jarduketen inbentarioa egin ondoren, esan daiteke Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarri dituela, besteak beste, jarraian aipatzen diren 6 obra esanguratsu berriak. Obra horien oinarrizko ezaugarriak taula honetan jaso dira, zerbitzuan jarri den urtearen arabera ordenatuta.

1. Ermuko hegoaldeko saihesbidea (N-634/AP-8). 2018. urtea.
2. Amorebieta – Muxika bide lasterra. 2018. urtea.
3. Kukularrako lotunea birmoldatzea (BI-30/N-637). 1. banakatua. 2019. urtea.
4. Kukularrako lotunea birmoldatzea (BI-30/N-637). 2. banakatua. 2021. urtea.
5. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea (1. fasea amaitzea) 2023ko apirilean.
6. Bizkaiko LHko Errepide Sareko azpiegituren erabileraren araberako ordainketa-sistema (1. fasea). 2023ko urtarrila.

Ikus daitekeenez, azterketan jasotako 6 jarduketek 12,5 km egikaritzea eragin dute enborreko bideetan, eta 17,0 km guztira. Lotura-bideak ere kontuan hartuta, guztira, 362,6 milioi euroko inbertsioa lotu zaie. Ildo horretatik adierazi behar da hiru jarduketatan tunel bat eraiki dela beren ibilbidean, beraz, erabilitako inbertsioen zati handi bat beren gain hartu dute.

— Gerediaga – Elorrio autobiako Montzaratzeko tunela (N-636).
— Ermuko hegoaldeko saihesbideko Uretamendiko tunela (N-634/AP-8).
— Amorebieta – Musikako bide azkarrarekiko Urdiabildeko tunela.
— Arnotegiko tunelak: 1.950 metroko bi tunel, MHSren 1. fasearen azken tartean (AP-8).

Lau jarduketa horiek aztertutako aldian hartu dute Foru Aldundiak hautatutako obra esanguratsuen inbertsioaren zati nagusia, eta INTERBIAK enpresa publikoak kudeatu ditu.

A/8.5.1. taula

ERREPIDE-JARDUKETEN LABURPENA (2018-2023KO EPEALDIA)

JAR-DUKETA	KORRIDOREA	BIDEA	LAN-TARTEA	LAN MOTA	LUZERA			INBERTSIOA (milioi eurotan)	URTEA	
					NAGUSIA	ADARRAK	GUZTIRA		OBRAREN HASIERA	IREKIERA
1	GEREDIAGA – ERMUA/ GIPUZKOA	N-634/AP-8	ERMUA M. – ERMUA HE.	SAIH. TRAZADURA BERRIA	2,5	1,5	4,5	68,0 (1)	2014	2018 (Set.)
2	AMOREBIETA – MUXIKA – GERNIKA	BI-635	AMOREBIETA – MUXIKA	BIDE AZKAR BIHURTZEA	3,5	-	3,5	71,6 (2)	2012	2018 (Abr.)
3	ARRONTEGI – KUKULARRA – TOXIERRI/ASUA	BI-30 (N-637)	ARRONTEGI ADARRA – TXORIERRI KUKULARRAKO LOTUNEA ETA ARRONTEGI – AVANZADA HOBETZEA	ADARRAREN EDUKIERA HANDITZEA (errei 1etik 2ra)	0,5	1,0	1,5	5,5	2019	2020
4	AVANZADA – KUKULARRA – TXORIERRI/ASUA	BI-737/ BI-30 (N-637)	AVANZADAKO ADARRA (BI-737) – TXORIERRI ETA KUKULARRAKO ADARRA – ENEKURI (BI-30)	B. NAGUSIAREN EDUKIERA HANDITZEA (3 erreitik 4ra)	1,0	0,5	1,5	9,1	2019	2021
5	TRAPAGA – AP 68 BETELURI	MHS (AP-8)	Peñascal – Beteluri	TARTE BERRIA	4,7	-	4,7	71,6 (3)	2018	2023(Abr.)
6	NERBIOIGOIENA ETA ARRATIAKO IBARRA	N-240 y BI-625	N-240 eta BI-625	REE FLOW SISTEMA INSTALATZEA	47,5	-	47,5	12,3	2021	2023(Ene)
				GUZTIRA	**60,2**	**3**	**64,7**	**245**		

(1) Uretamendiko tunelak barne.
(2) Urdiabildeko tunelak barne.
(3) Arnotegiko tunelak barne.

A/8.5.2. EZAUGARRI FUNTZIONALAK ALDERATZEKO ANALISIA EGINDAKO JARDUKETEN AURRETIK ETA ONDOREN

A) METODOLOGIA

Trafikoaren ikuspegitik 2016-2020 epealdian egindako bide-jardueren ondorioz izandako hobekuntza funtzionalak zehazteko, "Gaitasunari buruzko Eskuliburuko"(59) irizpideak erabili dira, beraz, jarduera berria baino lehen eta funtzionamenduan jarri ondoren zerbitzu-mailarekin zerikusia duten ezaugarri funtzionalak erraz zehazten dira proiektuaren orduan(DP) trafikoaren dentsitatearen bitartez ahalmen handiko bideetan eta ilaran denbora-ehunekoaren arabera (PTSF) bi erreietako errepideen kasuan. Ildo horri eutsiz, bidaiaren batez besteko abiadura analisi alderatuaren oinarrizko faktorea da garraio-kostuetan aurrezpena zehazteko.

a) Ahalmen handiko errepideak(60)

Proiektuaren orduan intentsitatea (I_P) eta dentsitatea (D_P) 15 minutuko puntuko denboraldian, hurrenez hurren, orduko eta erreiko ibilgailu arinetan (Ia/h/e) eta kilometroko nahi erreiko ibilgailu arinetan (Ia/km/e) adierazita, honako moduan formula daitezke:

$$I_P = Qd/FHP \times N \times f_{VP} \times f_C \text{ (veh./Km/h)} \qquad D_P = I_P / V_L$$

Hauexek izanik:

Qd = Proiektuaren orduan zirkulazio handiagoko noranzkoan zirkulatzen duen trafikoaren bolumena ibilgailu/ordu (i/h) unitatean adierazita

FHP = Puntako orduaren faktorea ≈ 0,95 eta trafikoaren banaketa, EBBIren % 55/45 zirkulazio-noranzkoaren arabera.

N = Zirkulazio noranzko bakoitzeko errei kopurua

f_{VP} = ibilgailu astunen doitze-faktorea: $= \dfrac{1}{1+Pc\,(Ec-1)}$ { Pc = astunen % ; Ec = baliok. ibil. arinetan }

Fc = Gidari-motaren arabera doitze-faktorea.

VL = Aplikatu beharreko abiadura librea.

(59) Autobideak, autobiak eta errei anitzeko errepideak.

(60) "Highway Capacity Manual", 2010ekoa.

Proiektuaren orduan trafikoaren intentsitaterako 100 ordua (IH-100) erabili da eta nahasitako tartearekiko hurbilen dagoen estazio iraunkorrari (estazio kidea) dagokion EBBIren gaineko ehunekoa aplikatu da.

Zerbitzuaren mailak (ZM) D zerbitzuaren dentsitatetik abiatuta zehaztu dira honako taula erabiliz:

Zerbitzuen dentsitatea

ZERBITZU MAILA	A	B	C	D	E	F
Dentsitatea (Vl/km/c)	7	11	16	22	25/28	>28

b) Bi erreietako errepideak

Bi erreietako errepidearen zerbitzu-maila zehazteko, bi parametro definituko dira:

— Bidaiaren batez besteko abiadura: $\mathbf{VM = 84{,}1 - 0{,}0125x\ I_P - f_{np}}$

— Ilaran denbora-ehunekoa $\mathbf{P_{TC} = 100\ (1\text{-}e^{-0{,}000879xIp}) + fd/np}$

$\mathbf{I_P = Q/FHP\ x\ f_G\ x\ f_{HV}}$

Non hauexek diren:

Q = Zirkulazioaren bi noranzkoetan errepidetik zirkulatzen duen trafikoaren bolumena.

FHP = Puntako orduko faktorea (landa-tarteak: 0,88 eta hirikoak: 0,92).

$\mathbf{f_G}$ **=** Lurzoru-motaren araberako doitze-faktorea

fd/np = Doitze-faktorea aurreratzea debekatuta dagoen noranzkoko eta tarteko banaketaren arabera.

Zerbitzuaren mailak (ZM) honako taula erreferentziatzat hartuta zehaztuko dira:

ZM-REN IRIZPIDEAK ERREPIDE ARRUNTETAN

Zerbitzu maila(*)	Ilaran egindako denboraren portzentajea (P_{TC})	BIDAIAREN BATEZ BESTEKO ABIADURA (BBA) (km/h)	B.B. ABIADURA (ZUZENDUA) (Km/h) (**)
A	≤ 35	> 90	> 80
B	>35-50	80-90	>70-80
C	>50-65	70-80	>60-70
D	>65-80	60-70	>50-60
E	> 80	≤ 60	≤ 50

(*) F zerbitzu mailara iristen da fluxuak bidearen ahalmena gainditzen duenean, hots:
C= 3.200 Vl/h, bi zirkulazio-noranzkoetan eta Cd= 1.700 Vl/h, noranzko batean.

(**) Baimendutako abiadura muga aipaturiko hori baino txikiagoa denean, baimendutako muga erabiltzen da. Gure analisian erabilitakoak dira abiadura zuzenduak.

B) ANALISI KONPARATIBOAREN EMAITZAK

A/8.5.2 a) eta **b) tauletan**, eragindako bide-zatien ezaugarri funtzionalen azterketa konparatiboa egin da (ukituriko trafikoa, zerbitzu mailak, abiadurak eta ibilbideko denbora), jardunean jartzen den urtean eta jardun gabe.

Ikus daitekeenez, jarduketa guztietan hobekuntza handiak egin dira bide-zatiaren abiadura handitzean eta, ondorioz, erabiltzaileek denbora gutxiago behar dute garraioan.

Ermuko hegoaldeko saihesbideari esker, Ermuko zeharbideko trafikoaren % 30 desbideratu da eta 140,8 mila ordu/urte aurreztu dira ibilbide-denboran hurrenez hurren. Gogoan izan behar da jarduketa gauzatzeko egindako obretan Uretamendiko tunela eraikitzea ere sartzen dela, eta horrek nabarmen garestitu dituela lanak egiteko kostuak.

BI-635 errepideko Amorebieta – Muxika tartea bide laster bihurtzeak nabarmen bizkortu du ibilgailuen zirkulazio-fluxua, 60 km/ordutik 90 km/ordura igaro baita. Horrela, pilaketa-aldi sarriak saihesten dira eta erabiltzaileek urtean 114,5 mila ordu aurrezten dituzte. Jarduketan tunel bat egitea ere sartu da (Urdiabilde), Artzaganeko pasabidea saihesteko, eta horrek eragin handia izan du obren kostuan.

Derioko (Arrontegi-Mungia) eta Kukularrako (Arrontegi-Txorierri) lotuneetan adarretako edukiera handitzeari dagokionez, hobekuntza funtzional handia ekarri du lotune horietarako, pilaketa-aldietan ilarak sortzea saihestuz, eta erabiltzaileek 78,7 eta 223,9 mila ordu/urte aurreztea ekarri du, hurrenez hurren. Kukularrako lotunea birmoldatzeari dagokionez, batera hartu dira kontuan 1. eta 2. banakatuetako jarduketen ondorioak. Bi urteko desfasearekin amaitu ziren.

MHSren 1. fasea amaituko da Peñascal- Beteluri eremuko tartea martxan jartzen denean. Horri esker, BI-10 errepideko Miribilla – Buia arteko tarteko auto-ilara gutxiago osatuko dira. Horri esker, urteko 284,9 mila ordu aurreztu dira bidaia-denboran.

Erabileraren araberako ordainketa-sistemaren 1. fasea martxan jarrita, salgaien errepideko eskaria kudeatu ahal izan da, eta ibilgailu astunen trafikoa bideetatik aldendu da (adibidez, hirietatik gertu dauden N-240 eta BI-625 bideetatik), eta errepideetako trafikoaren arintasuna hobetu da. Trafikoa modu horretan berrantolatuta, auto-ilara gutxiago osatu dira, eta erabiltzaileek urtean 153,4 mila ordu aurreztu dituzte.

A/8.5.2.b) taula

A) EZAUGARRI FUNTZIONALEN AZTERKETA KONPARATIBOA (TRAFIKOA ETA ZERBITZU MAILAK)

JARDUKETA	BIDEA	UKITURIKO TARTEA	LUZERA (KM)	ERAGINPEKO TRAFIKOA (MARTXAN JARRI DENEKO URTEA)									
				JARDUKETAKO BIDEA		AUKERAKO BIDEA		IGAROBIDEA GUZTIRA		JARDUKETAKO BIDEA		AUKERAKO BIDEA	
				IBIL./EG.	ASTUNAK	IBIL./EG.	ASTUNAK	IBIL./EG.	ASTUNAK	LEHEN	GERO	LEHEN	GERO
1	N-634/AP-8	GEREDIAGA – ERMUA/GIPUZKOA	2,5	6.900	614	11.329	1.015	18.229	1.629	-	B	E/F	D/E
2	BI-635	AMOREBIETA – MUXIKA – GERNIKA	3,5	16.134	1.050	-	-	16.134	1.050	D	B	-	-
3 + 4	BI-30/BI-737	RONTEGI/LA AVANZADA – KUKULARRA/ASUA	1,5	49.073	3.606	-	-	49.073	3.606	E/F	D/E	-	-
5	MSH (AP-8)	PEÑASKAL- BETELURI	4,7	7.146	1.631	80041	4949	87.187	6.580	-	A	E	D
6a	N-240	Arratia korridorea	32,7	14.289	1.022	-	-	14.289	1.022	C	B	-	-
6b	BI-625	Nerbioigoieneko korridorea	14,8	17.069	1.097	35.313	5498	52.382	6.595	C	C	B	B

B) EZAUGARRI FUNTZIONALEN ANALISI KONPARATIBOA (ABIADURAK ETA AURREZPENA IBILBIDE-DENBORAN)

JARDUKETA	BIDEA	UKITURIKO TARTEA	LUZERA (KM)	ABIADURAK (Km/h)						ERABILITAKO DENBORA (Mila ordu urtean)						
				JARDUKETAKO BIDEA		AUKERAKO BIDEA		IGAROBIDEA GUZTIRA		JARDUKETAKO BIDEA		AUKERAKO BIDEA		IGAROBIDEA GUZTIRA		
				LEHEN	GERO	LEHEN	GERO	LEHEN	GERO	LEHEN	GERO	LEHEN	GERO	LEHEN	GERO	Δ
1	N-634/AP-8	GEREDIAGA – ERMUA/GIPUZKOA	2,5	-	90	40	50	40	66	-	69,6	417,2	206,8	417,2	276,4	-140,8
